

MARI JOSE OLAZIREGI

Euskal eleberriaren historia

Santiago Onaindia Ikerketa Beka 1999

LABAYRU IKASTEGIA
AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
BILBAO
2002

© *Argitaraldi honena*: LABAYRU IKASTEGIA - AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

© Mari Jose Olaziregi Alustiza

Diseinua eta maketazioa: IKEDER, S. L.
Fotokonposaketa: IKUR, S. A.
Silutegia: A.G. RONTEGUI, S.A.L.

ISBN: 84-89816-54-9

Lege gordailua: BI-403-02

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektronikoko edo mekanikoko, fotokimikoko, magnetikoko, elektrooptikoko, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz beratu transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde zuzeneko edo idatzizko baimen barietatez.

AURKIBIDEA

0. Aitzinsolasa	9
1. Euskal literatur sistema: diagnostikoa eta milurteko berrirako erronkak	13
a) Euskal literatur sistema	13
b) Euskal kritikaren bilakaera azken urteotan	25
c) Kritika akademikoaz	31
2. Euskal narratiba garaikidearen bilakaeraz	37
a) Euskal literaturaren kanon berriaz	40
b) Euskal eleberritari buruzko ikerketak zertan diren	45
3. Euskal eleberraren bilakaera XX. mendearen erdia arte	49
a) Eleberria, eleberri laburra, ipuina, ipuin luzea	49
b) Euskal eleberrigintzaren sorrera eta garapena XX. mendearen lehen erdian. Ohiturazko eleberrigintzaren gailentasuna	52
4. Euskal eleberri modernoa	71
a) Eleberri existentzialista: J. L. Alvarez Enparantza, "Txillardegi" ..	75
b) Eleberri psikologikoa: J. Miranderen <i>Haur besoetakoa</i> (1970)	80
c) Eleberri soziala (Gereño, Peillen, Amuriza...); alegorikoa (Zarate, Lertxundi...); poliziakoa (Gereño...)	82
d) Eleberri eta narrazio esperimentalak (Saizarbitoria, Urkizu, Iza-girre, Atxaga)	86

5. Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1976-2000)	93
a) Subjektibitatea ardatz duen egungo euskal eleberrigintza: eleberri poematikoak, psikologikoak, oroitzapenezkoak eta testimonialak	99
a.1) Joxe Austin Arrieta (1949)	101
a.2) Arantxa Urretabizkaia (1947)	103
a.3) Ramon Saizarbitoriaren (1944) eleberrigintza 1990eko ha- markadan: oroimena ardatz duen unibertso literarioa	107
a.4) Laura Mintegi (1955)	115
a.5) Juan Luis Zabala (1963)	120
a.6) Lourdes Oñederra (1958)	125
a.7) Bukatzeko: izen berriak	127
b) Errealismoez	128
b.1) Joxemari Iturralde (1951)	130
b.2) Koldo Izagirre (1953)	132
b.3) Edorta Jimenez (1953)	134
b.4) Pako Aristi (1963)	135
b.5) Xabier Mendiguren Elizegi (1964)	137
b.6) Fantasiatik errealismo psikologikora: Bernardo Atxagaren (1951) eleberrigintza	138
b.7) Hego Amerikako oihartzunak Joan Mari Irigoien (1948) eleberrigintzan	147
b.8) Anjel Lertxundi (1948): eklektizismoa	154
c) Polizi eleberriak (espioi eleberriak, misteriozkoak eta eleberri beltzak)	161
c.1) Gotzon Garate (1934)	162
c.2) Itxaro Borda (1959)	163
c.3) Hasier Etxeberria (1957)	165
c.4) Aingeru Epaltza (1960)	168
c.5) Harkaitz Cano (1975)	173
d) Eleberri historikoaz	178
d.1) Patxi Zabaleta (1947)	179
e) Generozko beste eleberriak	181
6. Bibliografia	183
6.a) Gaur egungo narratibari buruzko bibliografia	183
6.b) Euskal narratibari buruzko bibliografia	187

Literatur kritikan diharduten adiskide guztiei.

Euskal elebriaren historia deitu diogu liburu honi, bere laburrean, euskal elebriaren bilakaeraren berri eman nahi duelako. Eta seguru aski irakurle-
ren bat baino gehiago harritu ere egingo da historia hau, berez, ehun eta oso
gutxi urte dituen literatur generoaz mintzo dela ikusten duenean. Halaxe
dira kontuak, inguruko literaturetan genero horrek bere urrezko aroa bizi
zuenean, hots, XIX. mendean, poliki-poliki generoaren beraren sorkuntza-
rako urratsak egiten ari baikinenean gurean.

Ezbairik gabe, euskal literaturazaleari ezagunak zaizkion kontuak dira
guztiok, ezagunak zaizkion moduan euskal elebriaren sorrera berantia-
rrak gurean izan zituen arrazoi sozio-historikoak. Horretaz hitz egiten da
liburu honetan baina, batez ere, hitz egiten da euskal eleberrigintzak azken
hamarkadetan izan duen sendotze eta ugaltze harrigarriaz. Kantitatez ez
ezik, kalitatez ere azken hiru hamarkadak izan baitira euskal eleberria fik-
ziazko mundu iradokitzailez jantzi dutenak. Eta horixe da, finean, poetikak
eta modak alde batera utzita, eleberri bati eskatzen zaiona, munduak erai-
kitzea, fikziazko mundu sinesgarriak sortzea. U. Ecok esan bezala, tresneria
egokia eduki arren, hitzak eduki arren, pauso bat haratago joaten ahale-
gintzen baita eleberria, esanezina den hori hitzez adierazten. *Rem tene, verba
sequentur*. Literatur genero guztien artean aldakorrena den honek milurte-
ko berriaren hasieran duen arrakasta eta harrera paregabeak muzin egiten
die historian zehar etengabe iragarri den bere heriotzari. Elebriaren baliz-
ko heriotzaz mintzatu zitzaizkigun, esaterako, XIX. mende amaieran natu-
ralismoari oldartu zitzaizkion hainbat egile (J. K. Huysmans...), edo sinbo-
lismo ostean ironia eta mundu subjektiboak iradoki zizkiguten eleberrigile-

* Lan hau I/UPV/EHU 00033.130-H-14036/2001 proiektuaren barnean kokatzen da.

ak (Dujardin, Gide...)... edo, H. Jamesen esanak irauliz, eleberrari bere narratibotasuna murritzuten 1960-1970 hamarkadetako egile esperimentalak (*Nouveau Roman...*). Guztiak ditugu literatur genero honen bilaeraren adibide eta mugarririk; guztiak, generoa bera ulertzeko modu baliagarriak. Azken urteotan, ostera, *eleberria/best-sellerra* artekoa izan da eztabaida, N. Mailer eta J. Updikek T. Wolferekin izan zuten eztabaida batean esaten zen bezala, balio literarioak dituen eleberria “gaixorik” baitago merkatuak agintzen duen une honetan.

Hori guztia kontuan harturik, literatur kritikan eta teorian gaur egun erabiltzen diren ikuspuntu nahiz metodologiek ekin diogu euskal eleberraren bilakaera aztertzeari. Egile nahiz lanen zerrenda hutsak gaindituz, eta eleberrien oinarrian dauden poetikak parametro konparatzailez irakurriz, eleberri tipologia bakoitzaren deskribapena egiten ahalegindu gara. *Ohiturazko eleberrigintza*, *eleberri modernoa* eta *modernitate osteko eleberria* dira liburuaren atal nagusiak zedarritzeko erabili ditugun izendapenak; 3., 4. eta 5. kapituluetan aurkezten diren poetiken ezaugarri literarioak laburbiltzen dituzten izenburuak, hain justu. Bertan aurkituko ditu irakurleak garai bakoitzean indarrean egon diren eztabaida estetikoaren laburpenak, edo eleberria ulertzeko modu anitzen oinarrian leudekeen arrazoi historiko-literarioak.

Alabaina, irakurketa eta interpretazio literarioa hutsean ez geratzeko, beharrezko irizten genion euskal eleberriak egungo euskal literatur sisteman duen leku kanonikoaz zerbait esateari, edo azken urteotako igoera kuantitatiboaren oinarrian leudekeen baldintza soziologiko berriez hausnarketa egiteari. Sistema soziokultural gisara ikusten baitugu literatura, bertan parte hartzen duten protagonistek (idazle, argitaratzaile, banatzaile, kritikari, irakurle, komunikabideek...) etengabe elkarri eragiten dioten egitura gisara. Liburuaren lehenengo atalak, beraz, hauxe du hizpide: egungo euskal literatur sistema eta bertan kritikak duen leku eta presentzia. Bigarren atalera-ko utzi ditugu eleberrigintzaren igoerak euskal literaturaren kanonean izan duen eragina eta eleberrari buruzko ikerketetan izandako isla.

Ikusten denez, euskal eleberraren hurbilpen historiko literarioa egiteaz gain, gaur egungo literatur sisteman eleberrigintzak duen lekua zehazten ahalegindu gara. Honen guztiaren osagarri, azken atalean bibliografia luzea erantsi dugu, euskal egile nahiz eleberriei buruzko lan kritikoak biltzen dituen bibliografia gaurkotua.

Ez genuke aurkezpen hau amaitu nahi gure ikerketa bideragarri egin zuen Amorebieta-Etxanoko Udalarri eskerrak eman gabe. “Santiago Onaindia

Ikerketa Beka 1999” eman ziguten epaimahaikideek nahiz udaletxeko kide-ek lana burutzeko beharrezko genituen erraztasunak eskaini zizkiguten. Horien artean, aipamen berezia egin nahiko genioke dagoeneko tamalez gure artean ez dugun Aintzane Verdes idazkari maitagarriari. Berarentzat gure oroimen sentikorrena. Eskerrak, bukatzeko, Jesus María Lasagabaster, Jon Kortazar, Patri Urkizu, Aurelia Arkotxa, Iñaki Aldekoa, Joseba Gabilondo, Arrate Egaña... eta hainbat laguni, baita material bibliografikoa eskura jarri zidaten idazle eta kazetariei ere.

1. Euskal literatur sistema: diagnostikoa eta milurteko berrirako erronkak¹

a) Euskal literatur sistema

Jakina denez, 1970eko hamarkadan, joera pragmatikoko norabide berriak sortu ziren literatur ikerketaren eremuan. Literatur testuaren erabateko gaitentasuna baztertu eta sistema kontzeptua darabilte joera teoriko eta kritiko hauek. Azken batean, literatura komunikazio-bide eta gizarte-instituzio gisara ikusten dute ikerlariok eta teoria sistemikoak deritzoten hauetan, oinarri teoriko desberdinak dituzten ekarriak barneratu izan ohi dira. Hortxe geneuzkake, esaterako, I. Lotmanen kulturaren semiotika, P. Bourdieu soziologoaren *champ littéraire* kontzeptua, J. Duboisek instituzio literarioen inguruan esandakoak eta, bereziki, Alemanian sorturiko literaturaren teoria empirikoa (Empirische Literaturwissenschaft), Siegfried J. Schmidtek bultzatua, eta polisistemen teoria (Polysystem Theory), besteren artean, Tel Aviveko Unibertsitateko Itamar Even-Zoharek garatua.

Ekarri guztion ondorioz, sistema soziokultural gisara definitzen da literatura eta literatur komunikazioan elkarri eragiten dioten aldagaiak aztertzen dira. D. Villanuevak dioskunez (Villanueva, D., 1999: 3), sistema hitza Claudio Guillenek erabili zuen lehenengoz 1971n, eta, gerora, teoria empirikoak eta polisistemen teoriak erabiltzen duten terminologiarekin bat etorri da. Esan beharrik ez dago, azken hauek, hots, teoria empirikoak eta polisistemen teoriak, euren izaera zientifikoa defendatzen dutela eta behin eta berriro azpimarratzen dituztela beren hurbilpenetan dauden oinarri epistemologiko

¹ Atal honek, 2000ko uztailean Londresen egin zen “1st International Symposium on Basque Cultural Studies” biltzarrean aurkeztutako txostenaren aldaki osatua izan nahi luke. Txosten hori *Uztaro* aldizkarian eman zen argitara (*Uztaro* 34, 2000, 87-96).

eta metodologikoak. Sistema nozioak, beraz, literatur jarduera funtzionalki definitzea eskatzen du eta bertan parte hartzen duten protagonistek elkarren artean dituzten harremanak zehaztea. Enpirikoentzat testuak ez du berez inongo adierarik, irakurketaren eta bertan parte hartzen duten kognizio-eragiketen bidez lortzen baitu adiera hori. Modu honetan ulertuta, literatur sistema bateko kideek ematen diote testu bati bere adiera. Ikus daitekeenez, ez da zaila baieztapen eta helburu guztiotan mende hasieran zientziaren teoriaren esparruan, K. Popper, I. Lakatos eta bestek egindako ekarriak antzematea eta enpirismoak beti subjektibitate-artekotasuna adierazten duela ohartzea.

Esandakoari jarraituz, euskal sistema literarioaz mintzo garenean, teoria enpirikoaren jarraitzaileek zehaztutakoaren ildotik (ik. Schmidt, S. J.: 1990), euskal literatur testuen *produkzioa*, *bitartekaritza*, *harrera* eta *birsorkuntza* barneratzen dituen egituraz mintzo garelara zehaztu beharko genuke. Egitura horretan, azken atalean sartuko lirake kritikan egin ditzakeen ekarriak, *birsotze* terminoarekin haxe baita adierazi nahi duguna: testu literarioen gainean egiten den irakurketa sortzailea. Bigarren uneko sorkuntza hau, kritika, interpretazio, iruzkin, parodia, laburpen, egokitzapen, parafraasi edo film moduan gauza daiteke. Eta sistema bat dela diogu, elementuok guztiok elkarren artean lotuta daudelako eta elkarri eragiten diotelako: *ekoizleak* (idazleak) obra sortzen du; *bitartekariak* produktu hori *hartaileen* eskuetan jartzen du, bereziki, irakurleen eskuetan. Azkenik, *birsortzaile* dei diezaiokegunari dagokio obrari buruzko bigarren produktua (kritika, iruzkin...) egitea. Euskal eleberraren bilakaera historikoaren aurkezpena egin baino lehen, gure literatur sistema deskribatzen ahaleginduko gara. Prozedura honekin, poetika eta ekarri bakoitzaren azalpena jatorri dituzten baldintza sozio-historikoen argitan egitea dugu helburu. Edonola ere, esan beharrik ez dago atal honetan egungo literatur sistema soilik izango dugula hizpide eta, hori horrela izanik, denboran hurbilekoak zaizkigun testuak ulertzeko bakarrik suertatuko zaigula argigarri. Has gaitzen, beraz, oso gaintik bada ere, euskal sistema literarioa zehazten eta kritikak bertan lukeen garrantziaz gogoe-ta egiten.

Produkzioaren alderdiari bagagozkio, jakina da, aro demokratikoa deitu izan zaion honen hasieran, eta Hegoaldeari dagokionez behintzat, erakundeen diru-laguntzei nahiz lege berriei esker, euskal liburugintzaren baldintzak hobetu egin zirela. 1950eko hamarkadan, euskarazko literatura jardue-ra autonomo gisara instituzionalizatu bazen euskal gizartean (ik. Lasagabas-

ter, J. M.:1984), 1980ko hamarkadan eman ziren garapen literarioa bermatzeko baldintza soziohistoriko egokiak. Argitaletxeak ugaldur², sorkuntza literarioarako diru-laguntzak plazaratu eta sariketak bultzatu ziren eta euskal literaturaren mundua giro zurrunbilotsuan sartu zen. *Ustela* edo *Pott* aldizkariaren ildoari jarraituz, berrikuntza poetikoaren aldarria literaturaren autonomiaren aldarri bilakatu zen *Potte*koen testuetan. Abangoardia kontzeptuari hertsiki lotuta dagoen literaturaren autonomiaren aldeko jarrera honetan³, sorkuntza literarioarekiko konpromisoak adierazpide desberdinen ikerketa eragingo dio sortzaileari.

Euskal liburugintzaren inguruko kopuruak guztiz dira adierazkorrak: 1876-1975 bitartean, urtean 31,5 liburu argitaratzen bazen, 1976-1994 bitartean, kopuru hori 659,2 liburura igo zen. Horretaz gain, 1999an⁴, 1.523 liburu argitaratu zirela ikus dezakegu, eta, Unescoren sailkapenari jarraituz, % 13,1 literatur liburu zen, % 23 haur eta gazte literatura eta % 33,8 irakas-kuntza-liburu. Guztiz aipagarria da literatur liburuaren ehunekoa jaitsiz joan dela azken urte hauetan eta inguruko hizkuntzetako liburugintzan duen ehunekora berdindu duela. Alabaina, aldatu ez dena narratibak duen gai-lentasuna izan da. 1976-1994 epeko liburugintzari begiraturaz, % 48,5 zen narratiba-liburu; % 20,2 poesia-liburu; % 9,7 herri literatura; % 9,1 an-

² J. M. Torrealdairen liburu ezagunean lau argitaletxe-belaunaldi bereizten dira 1936ko gerraren ondoren. Hona hemen Torrealdaik eskaintzen digun taula (ik. 1997:560):

<i>Belaunaldia</i>	<i>Urteak</i>	<i>Argitaratzailea</i>
lehena	1936-1967	% 16,5
bigarrena	1968-1975	% 29,0
hirugarrena	1976-1986	% 25,5
laugarrena	1987-1996	% 29,0

Dakusagunez, argitaletxeen gehiengo nabarmena XX. mendearen azken 25 urteetan sortua da. Torrealdairen aburuz, aurreko taulan datozen azken bi belaunaldiekin hasten da euskal edizio modernoaren historia. Hauxe esaten du soziologo ezagunak bere liburuan (1997:560):

[...], 1974 inguruan, hasitako bide berria esanguratsua da: politizazioa ez da hain nabarmena liburuetan, epelduz bezala doa, eta editorialean arteko aspaldiko burrukak isiltzera bide doaz. Honekin batean, saio liburuak krisian sartzen da. Argitaletxeek kultur politika hori oinarriagotik hasi nahi dute, behar den lekutik, alegia, kulturaren eta hizkuntzaren moldaketan. Ikastola liburutara, irakurgaitara, hiztegi eta oinarrizko liburutara jotzen da gogotsuago gaur.

³ ik. Bürger, P., 1987, *Teoría de la vanguardia*, Península,artzelona. Autonomia kontzeptua giltzarri da Bürgerren teorian. Autonomiak askatasuna ematen dio arteari; hau da, literaturaz kanpoko helburuetatik aske uzten du. Baina honek ez du "l'art pour l'art" lelopean estetizismoak bilatu zuen marfilezko dorrera kondentzen jarduera artistikoa. Eguneroko praxian barneratu nahi du abangoardiak artea, Arte Instituzioaren inplikazio erabatekoa bilatuz artearen beraren buruas-kitasuna lortzeko.

⁴ ik. *Jakin* 120, 2000ko iraila-urria.

tzerki-liburua eta % 4 historia/kritika-liburua. Narratibaren bilakaerari dagokionez, aipagarria da 1980ko hamarkadatik aurrera ipuingintzak lortu duen maila eta aberastasuna, edo 1990eko hamarkadan eleberrigintzak berriro ere izan duen igoera. Horrekin batera, nabarmentzekoa da narratibaren eta poesiaren produkzio aldea 1980ko hamarkadak aurrera egin ahala sendotuz joan zela, izan ere, 1970eko hamarkadaren erdialdera bi generoen produkzio-ehunekoak antzekoak baitziren. Torrealdairen arabera (1997:332), 1985ean iritsi zuen poesiak 1976-1994 epeko gailurra. Poesia argitalpenaren jaitsieraren oinarrian merkatu urritasunak dakartzan arazoak dakuskitate argitaratzaileek (ibid. Torrealdai, J. M.: 1997).

1999ko datuetara itzuliz, literaturan argitaratzen denaren % 59,3 narrazio testuek osatzen dute, % 11 poesiako lanek eta % 7 antzerki-lanek. Literatur kritikari dagokionez, ezin azken urteetako datu zehatzik eman, daukagun azken datua 1976-1994 epeari dagokiona baita. Urte horietan, literaturan argitaratzen zen % 4 zegokion kritikari. Handik aurrerako ehunekoei dagokionez, Torrealdairen estatistiketan, 1995etik aurrera, “Literaturaren Historia eta Kritika” atala desagertu egin denez (atal horren ordez, “Saioa”, “Generoak nahasian” edo “Besterik” izenburuekin adierazitako atalak datoz)⁵, ezin datu zehatzagorik eman. Ez dakigu aldaketa horiekin zer iradoki nahi den. Sailkapen irizpide hutsa bada, harrigarria ere bada Torrealdairen datuetan kritikari zegokion atala desagertu izana, inguruko literaturetan “Teoria eta Kritika” atalak beti izan baitu bere lekua⁶.

Esandakoaz gain, Euskal Herriko Editoreen Elkartearen arabera (1999), gaur egun EAEn 100 argitaletxe daude eta horietatik % 35 1990az geroztik sortutakoa da. Gehienetan, argitaletxe txikiez mintzo gara, batez beste, 4 lan-gile dituztenak eta azpiegitura nahiko mugatuekin moldatzen direnak.

⁵ Hona *Jakimen* (120, 1999ko iraila-urria) 1999ko liburugintzari buruz datozen datuak: “Helduen” Literatura, guztira: 1999an argitara emandakoaren % 13,1.

Eleberria. Ipuina.....	%59,3
Olerkia.....	% 11
Antzerkia.....	% 7
Herri literatura. Bertsoa.....	% 6
Saioak. Poligrafiak	% 9,1
Generoak nahasian.....	% 5,5
Besterik.....	% 2,1

⁶ Espainiako 1998ko liburugintzari dagozkion datuen arabera (ik. Ministerio de Educación y Cultura, *Panorámica de la Edición Española de libros*, Madril, 1999), urte horretan 60.426 liburu argitaratu baziren, % 18, hau da, 10.875 liburu, literaturakoak izan ziren. “Historia de la Literatura. Teoría y Crítica” atalari dagokionez, guztira, 615 liburu eman ziren argitara, literatura-produkzioaren % 5,6 eta produkzio osoaren % 1,02.

Horretaz gainera, aipagarria da argitaratzen denaren ia erdia liburu dendentan saltzen dela eta beste zenbait lekutan oso hedatuta dauden salmenta-moduak (hipermerkatuak, internet, etxez etxeko salmenta...) azken urteotan hasi direla sartzen gurean. Aipatutako argialetxeen erdiak arazoak ditu bizirik irauteko, eta horrek esplikatu luke, segur aski, azken urteotan promoziora bideratutako aurrekontuak murriztu izana.

Produkzioaren atala osatzeko, idazleei dagozkien xehetasunak aipatu beharko genituzke. J. M. Torrealdaik bere *Euskal Kultura Gaur* (1997) liburuan dioenari jarraituz, gaur egun 300 euskal idazle inguru daude eta euren ezaugarri soziologikoak honela deskribatuko genituzke: % 90 gizonezkoak dira eta % 10,6 bakarrik emakumezko⁷. Adinari dagokionez, batez beste, 49 urte dituzte idazleok (%70 30-50 urte bitartean dabil) eta horren ondorioz, argi ikusten da gaur egun argitaratzen duten idazleen artean belaunaldi desberdinetako egileak kausi ditzakegula. Hortxe dauzkagu, adibidez, 1920-1930 hamarkadetan jaiotako idazleak (Txillardegia...) edo 64ko belaunaldia deitu izan zaion horretan sartuko liratekeen R. Saizarbitoria, A. Lertxundi, P. Urkizu eta A. Urretabizkaia, besteak beste, edo autonomia literarioaren belaunaldia deritzona, alegia, 1950 ostean jaio ziren egileek osatzen dutena: B. Atxaga, J. M. Iturralde, K. Izagirre, J. Sarrionandia, E. Jimenez, L. Mintegi, L. Oñederra eta beste; edo 1960ko hamarkadan jaiotakoak eta 1980koan argitaratzen hasi ziren P. Aristi, J. L. Zabala, X. Mendiguren Elizegi, A. Epaltza, I. Borda, I. Mujika Iraola eta abar. Aipatutako egileoi guztioi 1990eko hamarkadan argitaratzen hasi diren euskal egile gazteak gehitu beharko genizkieke, hala nola, H. Cano, I. Rozas, U. Apalategi edo U. Iturriaga. Egileen %60k unibertsitate-ikasketak ditu eginak eta %6 bakarrik bizi da literaturatik. Esan beharra dago, gainera, egungo euskal idazle gehienak irakasleak ere badirela.

Torrealdaren datuetara itzulita, argi dago euskal emakume idazleen kopurua inguruko literaturetako baina txikiagoa dela, gaztelaniazko literaturan idazleen % 14 baitzen emakumezko 1988an, eta frantsesezkoan % 18 baita egun. Horretaz gain, euskal emakume idazleen soslaiari begiratu gero, honako ezaugarriok nabarmendu beharko lirateke:

- Orokorrean, emakume idazleak gizonezkoak baino gazteagoak dira (emakume idazleen % 58,8k 40 urte baino gutxiago ditu).

⁷ Bestalde, Euskal Idazleen Elkartearen azken datuen arabera, elkarteak dauzkan 247 bazkideetatik, 33 bakarrik dira emakumezko.

- Ia erdiak (% 47) irakaskuntzan egiten du lan (gizonezkoen kasuan, berriz, % 37 dira irakasle).
- Emakume ezkongabe gehiago dago (% 41) ezkonduak baino (gizonezkoen kasuan, ezkongabeak % 20, 9 dira).
- Emakume idazleen lan gutxiago itzuli dira gizonezkoenak baino (emakumeen % 94k ez du itzulitako lanik).

Alabaina, *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura* (Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2000) liburuan nioenari jarraituz, ahanzte kritiko nabarmen baten aurrean gauden susmoa dugu. Alegia, L. Whitek bere 1996ko doktorego-tesian frogatu zuen modura⁸, guztiz eztabaidagarriak dira euskal literaturaren historietan erabili ohi diren emakumezko idazleen kopuruak. Bere ustetan, gehienetan irizpide desberdinak erabili ohi dira idazle emakumezkoa edo gizonezkoa literatur historietan sartzeko garaian. Lan bakarra edo itzulpena argitaratu izana ez da aski izaten emakumezko bat idazle gisa hartzeko, eta bestela gertatzen da gizonezkoen kasuan. Nevadako Unibertsitateko White irakaslearen aburuz, 1936 ostean argitaratu duten euskal emakumezko idazleen kopurua 79koa-edo izango litzateke eta, beraz, kopuru hori urrun dago literatura-historietan adierazi ohi denetik. B. Muruagak (1998⁹) esandakoari jarraituz, euskal literaturaren androzentrismoa guztiz da nabarmena. Gizonezkoa da azterketaren gune eta zentroa eta horrek eragin zuzena du eskaini ohi diren emaitzetan. Whiteren ikerketaren ondorioei kasu eginez gero, 1980 bitarteko emakume idazleen ehunekoak, %2 ez, baizik % 32 litzateke; literatoena, berriz, % 3 ordeztu, % 27. Honetaz gain, bada beste datu aipagarri bat: gerra aurreko emakumezko idazle gehienek aldizkarietan argitaratzen bazuten eta ogibidez andereño ziren obra bakarreko egileak baziren, gerra ostean aldatu egiten dela emakumezkoen idazle soslai eta hainbat ogibidetako egileez osatua dela.

Edonola ere, argi dago beharrezkoa litzaugukeela arazo honen inguruko azterketa sakonagoa egitea. Gure ustez, euskal idazle emakumezkoen inguruko datu kuantitatibo gaurkotuek asko lagunduko ligukete gaur egun gurean oso hedatuta dauden topiko asko apurtzen. Hauen artean, segur aski, “emakumezkoen literaturaren boomaz” mintzo diren baieztapenak izango

⁸ WHITE, L., 1996, *Emakumezkoen Hitzak Euskaraz. Basque Women Writers of the Twentieth Century*, University of Nevada, Reno (argitaragabea).

⁹ ik. MURUAGA, B., 1998, “Euskal Literatura eta androzentrismoa”, *Jakin* 106, 1998ko maiatza-ekaina, 99-104.

genituzke aipagarrietakoak. Benetan duda egiten dugu azken urteotan emakumezkoek idatzitako lanen kopuruak nabarmen egin duenik gora. Beste informazio-iturriarik ezean (guk dakigula, egileen sexuaren arabera produkzio-estatistikarik ez baitago gurean), Juan Luis Zabala idazle eta kazetariak 1995az geroztik *Egan* aldizkarian kaleratzen dituen zerrendak begiratu ditugu:

<i>Emakumeak guztira</i>	1995	1996	1997	1998	1999	2000
Eleberria	0/16	2/21	0/9	2/15	1/13	1/18
Ipuina	2/19	0/20	0/10	5/11	1/15	7/24
Olerkia	2/10	2/13	0/11	2/13	3/10	7/11
Antzerkia	0/1	1/3	0/5	0/3	0/9	0/10
Saiakerak...	3/23	1/25	5/51	10/57	23/78	7/83
HGL	3/25	12/33	5/42	5/59	5/69	24/149
<i>Guztira</i>	10/94 (% 10,6)	18/115 (% 15,65)	10/128 (% 7,81)	24/158 (% 15,18)	33/194 (% 17,1)	46/295 (% 15,59)

1995etik 2000 arteko zerrendak aztertu ondoren, argi ikusi dugu argitara emandako euskal literatur liburuen % 15 inguru dela emakumezkoek idatzia. Eleberriari dagokionez, I. Borda (2), Y. Arrieta, A. Urretabizkaia, L. Oñederra eta I. Rozas ditugu 1995-2000 artean eleberriak kaleratu dituztenak; guztira, 5 emakume idazle. Esan beharrik ez dago, kopuruok urruti daudela Alicia Redondo Goicoecheak 1998an kaleratutako emaitzetatik. Iker-tzaile honen arabera, 1970-2000 artean argitara eman diren Espainiako nobelen egileen artean 174 emakumezko dira¹⁰.

Beraz, igoera kuantitatibo baten aurrean baino gehiago, presentzia nabarmenago baten aurrean gaudela zehaztu beharko genuke. Gezurra badirudi ere, aldeak alde, antzeko zerbait gertatu zen 1960ko hamarkadan gaztelaniar literaturan izan zuten *boom* ospetsuarekin, hots, egile hegoamerikarrak protagonista izan zituenarekin. Jakinaenez, García Márquez, Cortázar edo Vargas Llosaren testuen zabalkundean izugarritzko garrantzia izan zuten Barral eta beste zenbait argitaratzailek. Kritikari batek baino gehiagok aitor-

¹⁰ ik. "Pour un catalogue des romancières espagnols en castillan, 1970-2000" in BUSSIÈRE PERRIN, Annie (koord.), 1998, *Le roman espagnol actuel. Tendances et perspectives, 1975-2000*, Editions du CERS, Montpellier, 1998, I alea. Madriloko Universidad Complutensense irakasle den Redondo anderearekin izan genuen elkarrizketan jakinarazi zitzaigunez, gaur egun Espainiako egileen artean % 25 inguru da emakumezko.

tu duen moduan (J. Savalek, kasu)¹¹, ordu arte bazter literatura izan ziren idazle hegoamerikarren lanak gaztelaniazko literatura kanoniko izatera iritsi ziren urte horietan. Hau da, ordura artean espainiar idazleen lanek izandako leku hegemonikoa hasi zen iraultzen urte horietan. Euskal literaturari dagokionez, azterketa sakonegirik egin gabe ere, badira zenbait adierazle antzeko emaitzetara iristen lagun diezaguketenak. Azken batean, ildo horretatik doa 2000. urteko Euskadi Sarien irabazleen artean emakumezkoek izan zuten protagonismoa¹². Euskal emakumezko idazle batek inoiz eduki duen presentzia mediatiko handiena (ik. J. Osororen *Tentazioak*) edo kritikak egingdako harrera hoberena (ik. L. Oñederraren *Eta emakumeari sugeak esan zion*) iritsi ziren orduan, eta, datuok, igoera kuantitatiboa baino gehiago, igoera kualitatiboa adierazten dute. Alegia, idazleok kaleratutako lanak kritikarien arreta, onespena lortuz doazen neurrian (Miren Agur Meaberen poema-liburuak 2001ean erdietsitako Kritika Saria ere hortxe dugu), euren izaera marjinala ere gaindituz doazela esango genuke. Azken batean, “euskal emakumezkoen boomaz” mintzo garenean, orain artean erdietsi gabeko oihartzuna da adierazi nahi duguna¹³. Beraz, gai honi buruzko ikerketa kuantitatibo sakonagoen beharra berriro ere aitortu arren, euskal emakumezko idazleen izaera marjinala gainditzeko bidean urratsak egiten ari direla nabarmendu nahi genuke.

Lehen esan dugun moduan, 1980ko hamarkadan nabarmen sendotu eta ugaldtu zen euskal liburugintza. Igoera honen arrazoiak hobeki azaltzeko garaian, euskarazko liburugintzari eman zitzaizkion diru-laguntza berriez gain, literatur sorkuntzari berari ematen hasi zitzaizkionak hartu beharko genituzke kontuan. Kultura Sailak 1984-1991 bitartean eskainitako diru-laguntzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak 1983tik gaurdaino sorkuntzari ematen dizkionak aztertuz gero, errazago ulertuko dugu idazle-kopuruak

¹¹ Lancasterko Unibertsitateak 2001eko martxoan antolatu zuten *Peripheral Identities in the Iberian Context* biltzarrean Edinburgoko Unibertsitatean irakasle den J. Saval irakasleak aurkeztu zuen txostenean aztertu zen gai hau. Oraindik argitara eman gabeko lana.

¹² ik. *Emakunde* 42, 2001eko martxoa, 32-38.

¹³ Edozein kasutan, ez nuke atal hau amaitu nahi igoera kualitatiboaz mintzatu naizenean gehiegi nabarmendu ez dudan kontu bat aipatu gabe: esan beharrik ere ez dago kaleratu diren emakumezkoen lan guztien kalitatea ez dela, inondik ere, maila berekoa izan. Emakumezko guztiak zaku berean sartzen dituzten hurbilpen kritikoak kritikatzan ditugunok argi utzi behar dugu maila duineko lanen ondoan (Oñederraren nobela, Meaberen poema-liburuak, Rozasen narratiba, Urretabizkaiaeren azken nobela....), hala-moduzko lanak ere kaleratu direla (adibidez, *Gutziak* [Txalaparta, 2000] liburuan barneratu ziren ipuinak, ez ziren, kalitate maila berekoak). Harrigarriena, segur aski, euskal literaturaren mundu honetan emakumez soilik osatutako liburu bat kaleratzeak eragindako zeresanak izango lirateke.

azken hamarkadetan izan duen igoera. Aipatutako diru-laguntza horiekin batera, gogora ekar ditzagun azken hamarkadetan sendotuz joan diren hainbat egitasmu. Hala nola, gaztetxoentzat antolatzen den “Urruzuno Literatur Lehiaketa”, aurten, 2001ean, 15 urte bete dituen eta urtero 14-18 urteko gazteek egindako 350-550 lan jasotzen dituen. Urruzunotarrak izan dira, esaterako, *Lubaki Banda* (1993-1995) osatu zuten kide asko (Cano, Berasaluze...). Bestalde, azken urteotan, erakundeek sorkuntza literarioari emandako diru-laguntzak desagertzen joan diren heinean, ekimen pribatu interesgarriak ere agertu dira. Hortxe dauzkagu, esate baterako, Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak ematen dituen “Joseba Jaka Literatur Bekak” (1998-...), edo duela urte pare Beasaingo Udalak sortu zuen “Igartza Saria” (Literatur Sorkuntza Beka Idazle berrientzat), urte batzuk lehenago Iruñeko Udalak idazle hasiberrientzat sortutakoaren antzekoa. Dudarik ez dago aipatutako diru-laguntzok eta Euskal Herri osoan oraindik indarrean dauden lehiaketa ugariak idazleen profesionalizaziorako oraindik dauden zailtasunak leuntzen laguntzen dutela.

Eta idazleez mintzo garenez, gogora dezagun 1980ko hamarkadan sortu zirela sortzaileen eskubideak defendatzeko beharrezkoak ziren elkarteak, hala nola, *Euskal Idazleen Elkartea-EIE*¹⁴ (1982) edo *Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea-EIZIE* (1987). Gaurtik begiratuta, euskal itzultzaileek funtsezko ekarria egin dute, zalantzarik gabe, hizkuntza literarioa sendotzeko eta aberasteko. Euskal irakurleen literatur horizontearen aberasgarri, gaur egun, Lermontov, Woolf, Joyce, Stevenson edo Carlo Levi euskaraz irakurtzea gomendagarria ez ezik, plazerra ere bada. Edozein modutan, nabarmentzekoa da euskarara itzulitako ondare unibertsal honek ez duela, oraingoz, Manu Lopezek aurkeztu berri duen doktorego-tesitik kanpo¹⁵, euskal kritikaren arretarik merezi izan. Even-Zoharrek darabilen kontzeptuaz baliatuz, itzulpenek, haur eta gazte literaturak, edo emakumezkoek idatzitako literaturak, gune marjinala du oraindik –periferikoa esango lukete teoria sistemikoen defendatzaileek– euskal literatur sistema garaikidean. Edonola ere, eta gai honi berriro ere helduko diogulako, jarrai dezagun euskal literatur sistemaren deskribapen laburra egiten.

¹⁴ Euskal Idazleen Elkartearen helburu nagusietako bat euskal idazleak ezagutaraztea da. Xede horrekin burutu dituen hainbat egitasmoren artean, 1989tik aurrera martxan dagoen “Idazleak Eskoletan” kanpaina edo 1985az aurrera antolatzen den Galeuzca topaketetan parte hartzea aipatu beharko genituzke. Elkartearen interneteko helbidean bazkideei nahiz egitasmoei buruzko informazioa kontsulta daiteke (<http://www.idazleak.org>).

¹⁵ ik. LOPEZ, M., 2000, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak*, Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Harreraren alderdiari heldu nahiko genioke jarraian, gure literatur sistemaren barruan ahulenetakoa datekeen alderdiari. Azken urteotan euskal liburugintzak izan duen igoera eta tiradak ugaldutako izanak euskaraz inoiz baino gehiago irakurtzen dela iradoki nahi badigu ere, guztiok dakigu euskal irakurleen soslai soziologikoa ezezaguna zaigula oraindik. Ikerketa soziologikoa zabal eta gaurkotu baten faltan, euskal irakurleen inguruan egin diren azterketek egoeraren diagnosi partziala egiten lagun diezagukete, eta hementxe sartuko genituzke, esaterako, nire doktorego-tesian egin nituen azterketa soziologikoak, 2.700 euskal hiztun gazte elebidun aztertzen zituztenak (ik. *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*. Bergarako Udala, 1998) edo Siadecok *Egunkaria*rentzat 1996an egin zuen ikerketa. Horiekin batera, 1999an Euskadiko Editoreen Elkarteak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren babesaz burutu zuena aipatu beharko genuke (ik. <http://www1.euskadi.net/kultura/literatura>). Ez da lekua eta momentua ikerketa horien ondorioak komentatzeko, baina badira hiru datu, gutxienez, guztiz nabarmentzekoak direnak. Batetik, euskarazko irakurzaletasuna jaitsi egiten dela adinarekin eta irakurzaletasun horrek irakaskuntza zirkuituarekin harreman hertsiegia duela. Bestetik, 20 eta 39 urte bitarteko euskal hiztun alfabetatuen artean irakurtzeko zaletasuna oso mugatua dela (%36k ez du liburu bakar bat ere irakurtzen urtean). Bi emaitza horiei Euskadiko Editoreen Elkartearen inkestaren ondorioetako bat gehitu beharko genieke: inkesta egin zitzaizkiren hamarretik zazpi gaztelaniaz irakurtzen zuela (lagina: 907 elkarrizketa).

Ikusten dugunez, Elebitasun Dekretuaren ostean Euskal Autonomia Erki-degoan azken urteotan 100.000 euskal hiztun gehiago garelako jakina bada ere, askotan aipatu izan da uste genuen baino irakurle gutxiago erakarri ditugula. Alegia, euskaraz ikasi duten gazte asko ez direla benetan irakurketarekin zaletu eta euskal literaturaren merkatua irakaskuntzarekin lotuegia dagoela oraindik¹⁶.

¹⁶ Honekin batera, azkenaldi honetan behin eta berriro azpimarratu nahi izan da gehienetan aipatzen diren euskal hiztunei dagozkien kopuru horiek ez ote dauden puztuxeegi. Bernardo Atxagak berak, 1999ko azaroan Donostian eman zuen hitzaldi batean, euskal hiztun eta irakurleen tipologia interesgarria proposatu zigun. Egile asteasuarrak hiru euskaldun-mota bereizi zituen. Batetik, euskaldun *patetikoak*, hau da, euskaldunak izanik euskaraz bizi nahi dutenak eta, euren buruarekin kontraesan izugarrian, aukera hori kontzienteki egiten dutenak euren burua behar-tuz (militanteak ere deituak). Patetiko hauekin batera, *sinpatetikoak* egongo lirateke, euskal mundua maite eta itxuraz errespetatzen dutenak, baina inongo behar eta obligaziorik sentitzen ez dutenak euskaraz bizi eta sentitzeko. Azken taldea *antipatetikoak* osatuko lukete, eta hauen inguruko deskribapenak beharrezkoak ez direlakoan nago. Bernardo Atxagaren iritziz, patetikoek talde horretan leudeke euskal irakurle gehienak eta, bere aburuz, 200.000 hiztunek osatuko lukete, gehienez, talde hori.

Euskal sistema literarioaren eskema laburregi hau nolabait osatzeko, *bitartekari*ez ere hitz egin beharko genuke. Gauza jakina da azken hamarkada hauetan bitartekarien garrantzi eta eraginkortasun komertziala izugarri eraldatu eta merkatuaren legetara makurtu dela. Ikuskizunaren kultura *deborgiar* honetan, erresonantzia kutxarik gabe, nekez egingo du literatur lan batek aurrera, nahiz eta bere kalitate eta ekarriak agerikoak izan. Beste era batera esateko, merkatuak agintzen du, gehienetan helburu ez oso literarioz diharduen merkatuak.

Puntu honetan, aipagarria da bitartekarien artean irudi berria sortu zai-gula azkenaldian gurean: agente literarioa deritzona. Dirudienez, lehenengo euskal agentzia 1995ean sortu zen Hego Euskal Herrian (Ikeder). Hala ere, jakina da idazle gutxi baliatzen direla agenteez euskal munduan eta oraindik ez dagoela hedatuegia pertsonaia horren beharra gure sortzaileen artean. Agente literarioaz gain, literatur lanen promozioa eragin dezaketen beste elementu batzuez ere mintzatu beharko ginatke, hala nola, 1980ko hamarkadaz geroztik gurean gutxituz joan diren literatur sariez. Zenbait literatur sarik idazle- en promoziorako duda ezinezko garrantzia duela ahaztu gabe (Atxagaren kasua paradigmaticoa dugu honi dagokionez), gaur egungo euskal literatura- ren merkatuan sari bat irabazteak baino garrantzi edo eraginkortasun handia- goa izan dezake komunikabideetan etengabe iragarritako lan batek¹⁷. Honen ondorioz, ez da inondik ere harritzekoa literatura enpirikoaren jarraitzaileen artean literaturaren merkatuan komunikabideek duten garrantzia neurtzera bideratutako ahaleginek azkenaldian lehentasuna hartu izana.¹⁸

Bitartekarizat har genitzake, halaber, hainbat erakunde publiko nahiz pribatu, liburuaren promoziorako diru-laguntzak ematen dituztenak. Aurrerago aipatuko den moduan, Euskal Herriari dagokionez, hortxe geneuzkake Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Foru Aldundiek, hainbat erakundek (Euskal Kultur Erakundea...) euskarazko liburuaren sustapene- ra bideratu dituzten diru-laguntzak (liburutegietarako aleak erosiz, liburu azoketan euren presentzia ziurtatuz, katalogoen edizioa bultzatuz...). Horiez gain, bitartekarien atal honetan ezin utzi aipatu gabe euskal liburu-

¹⁷ Berriki, literatur sarietan irabazle suertatzen diren liburuen zabalpen eskasa salatzen zuten adierazpenak argitaratu dira egunkarietan. Ikus, LOPEZ, J.: "Non daude saritutako lanak?" (*Zaba- lik*, 2000-2-5, 50A).

¹⁸ Liburu honen probak zuzentzen ari ginela irakurri genuen Jon Alonsoren *Agur, Darwin* (Pami- la, 2001) saiakera interesgarri eta guztiz gomendagarria. Guk diogunaren ildo beretik, halaxe dio Alonsok 123. orrialdean: "Komunikabideek saltzen dituzte liburuak. Komunikabideek irudia salt- zen dute. Beraz, komunikabideek irudi salgarria duten idazleak (onak edo txarrak, eta hori idaz- le direnean) maite dituzte."

gintzan Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azokak betetzen duen lekua. Azken urteotan azokaren helburu, antolaketa, funtzio edo egituraketa bera eztabaidagai izan badira ere (begiratu besterik ez dago komunikabideetan argitara eman diren artikulua, mahainguru, edo iritzi-artikuluak), dudarik ez dago Durangoko Azoka, ezer baino lehen, euskal liburugintzaren erakustoki garrantzikoena dela oraindik. Urteko nobedade gehienak azokarako aurkezten eta “metatzen” dira eta salmenta-kopuru deigarriak (sinesgarriak?) ezagutarazten. 2000. urteko azokari dagozkion datuak aztertuz gero, ondorioak guztiz aipagarriak direlakoan gaude (ik. *Egunkaria*, 2000-12-12): urte horretan, 250.000 bisitari izan zituen azokak eta ia 300 milioikoak izan ziren salmentak. Emaitzak eta bakoitasuna erlatibizatuz, azokaren inguruko dinamikaren diagnostikoak (benetako salmentak, irakurleen soslai eta ohiturak, nobedadeen iraunkortasuna,...) egiteke dirau. Gurean hain beharrezkoa dugun Irakurketaren Planaren zehaztapenak asko lagunduko luke azokaren beraren etorkizuneko erronka eta funtzionamendua zehazten.

Euskal literatur sistemaren deskribapena osatzeko, birsortzaileen ekarriak komentatuko ditugu jarraian, kritikariak bereziki. Alabaina, euskal kritikaren diagnosiari ekin baino lehen, beharrezko irizten diogu literatur kritikaz mintzo garenean zertaz mintzo garen zehazteari. Horretarako, N. Fryek *El camino crítico. Ensayo sobre el contexto social de la crítica literaria* (Taurus, Madril, 1986) liburuan egiten duen oinarritzko bereizketari helduko diogu. N. Fryeren aburuz, kritika akademikoa eta kritika publikoa sailkapen bikoitzean bil daitezke esparru honetan kaleratzen diren lan gehienak. Lehenengo, zirkuitu hertsia gora iristen da, eta, gehienetan, paradigma teoriko nahiz metodologiko jakinen arabera bideratutako ikerlanak plazaratzen ditu. Kritika publikoaren arloan sartuko genituzke komunikabideetan eta aldizkarietan, dela dibulgaziokoetan, dela espezializatuagoetan, argitaratzen diren iruzkin, aipamen, elkarrizketa eta abarrak. Kritika publikoa deritzon honek ez du egitura eta metodologia jakin batzuen arabera antolatu beharrik bere jarduna.

Sailkapen bikoitz hori argia eta didaktikoa dela onartuta ere, bistakoa da zailtasun bat baino gehiago eragiten duela kritika-lanak sailkatzeko orduan. Adibidez, komunikabideetako artikulua laburrak kenduta, non sailkatu, esaterako, aldizkarietan kaleratzen diren egile, obra, genero edo garai bati buruzko kritika-lan labur, monografiko edo iruzkinak? Artikulu hauetan ez da, gehienetan, inongo paradigma metodologikoren aipu espliziturik egiten eta gauza jakina da euren harrera-esparrua unibertsitateetako ikasleek osatzen dutena baino zabalagoa dela. Nire aburuz, eta D. Villanuevak eta beste

kritikari batzuek egiten dituzten bereizketak kontuan hartuta (ik. *El polen de ideas*, PPU, Bartzelona, 1991, 163-174), kritika-lanaren beraren xedeak esango luke mota batekoa ala bestekoa den. Horrela, artikulua helburua lan baten inguruko argitalpenari dagokion informazioa, dibulgazioa edo promozioa badira, kritika publikoaz mintzo gaitzake. Aldiz, kritika-lan baten oinarrian irakurketa eta azterketa pausatuagoa badago, azterkizun den testua distantzia kritikoz irakurtzen bada lehenengo inpresiotik haratago joanez eta kritika bera arrazoituz, bigarren motako kritika-lan baten aurrean geundeke, N. Fryek “akademikoa” deritzon horren aurrean.

Zehaztapen hauek egin ondoren, euskal kritika-motek arituko gara jarraian. Gai hauxe izango dugu hizpide, hain justu, ondoko lerro hauetan: arestian aipatu diren bi kritika-motek gurean duten lekua eta azken hamar-kada honetan indartuz joan diren joerak. Ikusiko dugunez, bi kritika-arloetan eman da bilakaera nabarmena, baina euskal kritikagintzaren statusa bera oraindik ez da gure literatur sisteman behar bezala bermatu. Baieztapen hau egiteko, besteak beste, bi gabezia ekarriko ditugu gogora: batetik, euskal kritikarien elkarterik ezarena (ibid. Kortazar, J.: 2000); beste herrialde batzuetan sendotuta dauden Kritika Sariak gurean ez egotearena, bestetik. 1976tik aurrera estatu espainiarreko hizkuntzetako literaturak ere kontuan hartzen dituzten Sari Nazionalek ez dute gurean kritika sari berezirik eragin. Adibide deigarri bat gogora ekarriz, hortxe daukagu, esaterako, Galiziar Kritika Saria, 1978tik aurrera indarrean dagoena.

b) Euskal kritikaren bilakaera azken urteotan

Zail da euskal literatur kritikaz hitz egitea, kritikak berak, jarduera autonomo gisara, eragiten duen zeresanari erreferentziarik egin gabe. Nork ez du entzun literatur kritikari baten atzean idazteko balio ez duen izakia dagoela? Hori gutxi balitz, izugarri oparoak dira kritikarien bertute eta ezaugarri ez oso aipagarriez mintzo diren egile nahiz liburuak. T. S. Eliot poetak inteligentzia jotzen zuen kritikariak behar duen ezaugarri gisara, alabaina, ez dut uste mezu hori zegoenik idazleek behin eta berriro egin dituzten adierazpenen oinarrian. Horretara jarrita, benetan erraza da kritikarien kontrako baieztapenak aurkitzea, eta zehaztasun handiegitan sartu gabe, hortxe daukagu J.R.R. Tolkienen “Munstroak eta kritikariak” artikulua edo A. Bierceren *Deabruaren hiztegia* delakoan literatur kritikariak ematen den definizio iraingarria. Adibide hauei film batzuetan esaten direnak gehituz gero (ik. Woody Allenen *Deconstructing Harry*), kritikariaren inguruan bildu ohi diren

susmoen kronika gaurkotua osatuko genuke¹⁹.

Aipatutako susmo eta gutxiespen horiek kritikaren helburuen inguruko eztabaidak dituzte oinarri. Edonola ere, kritikaren beraren helburu, baliabide edo prozedurak zeintzuk diren zehazteak mendeetako eztabaida eta hurbilpen ugarietara eramango gintuzke. Behialako kritikari jainkotuen eta gaur egungo kritikarien artean dagoen aldea bat dator literatur kritikaren baitan jarduera kritikoak izan duen bilakaerarekin. Jakina denez, obraren balio literarioaren gainean iritzi eta epaiak ematen zituzten kritika inpresionistetatik abiatu eta literatur testuen irakurketa eta interpretazioa helburu duten hurbilpenetara heldu gara joan den mendean. Kritika inpresionista sailhestuz eta errusiar formalisten hurbilpen deskribatzaileegia gaindituz, gaur egungo norabide kritiko pragmatikoek literatur lanen irakurketa-proposamenak egiten dizkigute eta sorkuntzaren ingurune sozio-historikoarekin harremanetan jartzen dituzte artelanak. Paul de Manek dioen modura, irakurketaren metaforak kaleratzen ditu gaur egungo literatur kritikak eta, gehienetan, testuaren beraren baliabide deigarrienak edo alderdirik zailenak izaten ditu hizpide²⁰. Hortik dator askotan horrelako kritika-lanen aurrean literaturazaleek egin ohi duten salaketa: *non dago obraren kalitateaz edo kalitaterik ezaz mintzo zitzazgun epailea?*

Luze joko liguke arazo honetaz hitz egiteak. Tartean aipatu beharko genuke, segur aski, kritikarik deskriptiboena egin arren hautapenak berak inplizituki iradoki diezagukeen balorazioa... baina, funtsean, eta euskal literaturara itzuliz, irakurlea orientatuko duen hautapenaren falta sumatu ohi da beti. Aspalditik ezagutzen dira gurean euskal kritikaren urritasunaren ingu-

¹⁹ Edonola ere, bada kritikariaren aldeko jarrerarik erakutsi duen sortzailerik. Hauen artean, eza-gunak dira Juan Benetek gai honi buruz esandakoak, izan ere, Benetentzat kritikari frakasatu bat baita funtsean idazle oro:

A menudo la obra literaria propia se produce como un imperfecto –pero logrado– intento de desvanecer el misterio que la literatura opone al conocimiento. Se ha dicho con frecuencia que un crítico es un creador fracasado; un hombre que teniendo talento para escribir, pero careciendo del necesario para crear personajes, situaciones, temas y problemas originales, ha de verter su inspiración y estrujar sus facultades sobre lo que han hecho otros. Yo, desde una perspectiva genética, opino en buena medida lo contrario: el novelista es un crítico fracasado, un hombre que por querer llevar hasta un límite imposible el conocimiento del arte que le apasiona –o de uno sólo de sus productos de su predilección– no encuentra otra salida que la creación, a la vista que la obra de arte opone al conocimiento analítico. (ik. BENET, J., 1981, *La moviola de Eurípides*, Taurus, Madril, 78)

²⁰ Kritikaren funtzioaz, ik. GULLÓN, G., 2000, “La novela histórica: ficción para convivir”, *Ínsula* 641, 2000ko maiatza, 3-5.

ruko kexuak²¹ eta idazle hasiberriak ere literatur lanen gaineko kritikaren beharra izango du lehen aldarri.

Honetaz egin nahiko genuke hausnarketa jarraian eta, lehenago egin dugun bereizkuntzari berriro ere helduz, kritika publikoaren eta akademiakoaren bilakaeraz eta hedapenez mintzatuko gara ondoko lerroetan. Bi kritika-moten artean dagoen eten edo distantzia nabarmendu nahiko genuke lehenik. Espainiako literatur sisteman, esaterako, Dario Villanueva kritika-moten arteko hurbiltze prozesuaz mintzo bada (ik. Villanueva, D. [zuz.], *Historia y Crítica de la Literatura Española*, 9. liburukia, Crítica, Bartzelona, 1992), gurean ez da horrelakorik gertatzen ari. Izan ere, unibertsitateko zenbat irakaslek kaleratzen dituzte kritika eta aipamenak prentsan? Komunikabideetako kritikariek zenbat artikulua kaleratzen dituzte aipamen laburren mugak gainditzen dituztenak? Gutxi, ezbairik gabe. Ondoko lerroetan ikusiko dugun modura, euskal kritika akademikoak azken hamarkadetan bilakaera azkarra izan duen arren, edo kritika publikoak lortu duen hedapena inoiz ezagutu duguna baino zabalagoa izanik ere, bien arteko etena edo komunikaziorik eza handituz joan da. Alegia, kritika-mota bakoitzak bere zirkuitu bereziak dituela aitortu beharrean gaudela eta gutxitan egiten direla azterketa hutsaz edo promozio hutsaz haraindiko hurbilpenak.

Baina hau ez da beti horrela izan gurean eta atzera begiratzuz erraz topatuko dugu literatur kritikak zeresan handiagoa eman zuen garairik. Orduan, poetika desberdinek, literaturaren helburuek edo kritikak berak gogoeta ugari eragiten zuten eta bizitasun handiko eztabaidak bultzatzen zituzten. Hortxe dauzkagu, esate baterako, 1930eko hamarkadan euskal literaturaren inguruko auziak eragin zuen eztabaida (ik. Aranbarri, I. & Izagirre, K., 1996, *Gerraurreko literatur kritika*, Amorebietako Udala-Labayru Ikastegia, 1996), edo geroago, 1980ko hamarkadan, sortu ziren eztabaida literarioak. Lehenengoetan, poetika post-sinbolistaren aldekoek poetika post-erromantizistaren aldekoen kontra jardun zuten. 1980ko hamarkadako eztabaidetan, berriz, kritika-mota izan zen gehienetan eztabaidagai²². Tartean geratuko lirateke 1950eko hamar-

²¹ Euskal kritikaren urritasunaren inguruko adierazpenak aurkitzea benetan da erraza. Adibide batzuk aipatzekotan, hortxe dauzkagu 1988an Bernardo Atxagak egindako adierazpenak (ik. *Deia*, 88-11-14, 51) edo adibide berriagoak gogoratzuz, Torrealdaiak *Euskal Kultura Gaur* liburuan 365. orrialdean dakartzan egileei egindako inkestaren emaitzak.

kadan *Egan* aldizkarian Koldo Mitxelenak argitara emandako lan interesgarriak, edo urte batzuk lehentxeago Andima Ibinagabeitiak *Euzko Gogoan* argitaratutakoak. Garai horietako eztabaida literarioak irakurtzen ditugunean, gaur egunean faltan dugun bizitasunaz jabetzen gara.

Eztabaida kritikoaren desagerpena literatura bizitzeko eta ulertzeko modu garaikidearekin hertsiki lotuta dago. Merkataritza, hau da, merkatua, da nagusi gaur egungo kulturean eta, honen ondorioz, jarduera literarioa bera merkatuaren legeetara errendituz joan da. Behialako helburu eta xede jasoak baztertuz, marketing eraginkorrenarekin bidera daitekeen produktu bilakatu da liburua. S. Sanz Villanuevak egokiro adierazi zuen moduan²³:

El intelectual ha pasado a ser un voceras o un frívolo mediático; el creador mide su obra por las cifras de ventas (un libro no existe hasta después de que llegue el albarán del editor, dice con gracia Terenci Moix); el profesor renuncia al corpus canónico para no espantar al estudiante; el estudiante no admite otro juicio de valor que su caprichosa opinión improvisada.

²² 1980ko hamarkadako eztabaida literarioei dagokienez, bistakoa da lege baldintza berrietan sortuz zihozten euskal unibertsitate-gune berriek bultzada eman ziotela hausnarketa kritikoari. Gogora dezagun, 1981eko del Euskal Filologiako lehenengo promozioa eta 1989an lortu zutela Iparraldean, Baionako fakultatean, ezagutza ofiziala euskal ikasketek. Promozio berri hauek, euskal literatura gero eta oparagoaren inguruko hausnarketak eman zituzten argitara perretxikoen antzera sortuz zihozten literatur aldizkari eta plataformetan. Kritika inpresionistaren aldekoek eta kritika zientifikoa edo akademikoa defendatzen zutenek, *Oh! Euzkadi* eta gisako aldizkariak erabili zituzten eztabaidak bideratzeko. Ordukoak ditugu, esaterako, Ramon Etxezarretak kritika zientifikoaren aurka esandakoak (ik.: “Ez du Jon Kortazarrek zure plazerraren sentsazioa neurtuko, Tere”, 1981) edo Mikel Hernandez Abaituak kritika zientifikoaren alde eta inpresionistaren aurka kaleratutakoak (ik.: “Badakigu EUTG ez dela mundu osoa. Inor ez da idiota” 1981).

Manu Lopezek argitaratu zuen “Kritikak eta kritikoak azken euskal literaturan” (*Jakin* 49, 1988ko urria-abendua, 73-86) artikuluan argi adierazi zituen urte horietako eztabaiden nondik norakoak, eta berdin generak Jon Kortazarrek *Luma eta Lurra* (BBK-Labayru Ikastegia, 1997:29) liburuaren sarreran egiten duen azterketaz ere. Kortazarrek oroitarazi digunez, Felix Ibargutxi kazetariak 1987. urtea “Idazle guztiak azortatu ziren urtea” izendatu zuen eta urte horretan sortutako eztabaida nagusiak laburbildu zituen. Ordukoak dira, halaber, Jon Juaristik *Antología de la narrativa vasca actual* liburuari egindako kritikak; Antton Azkargortak Atxaga, Iturralde eta Ordorikaren *Henry Bengoa Inventariumi* egindakoak; Pako Aristik A. Urretabizkairean *Saturno* nobelari egindako kritika misoginoa; Joxerra Garziak Laura Mintegiren *Bai... baina ez!* nobelaren idazkerari buruz esandakoak; Verines-en egiten diren topaketen ostean Mikel Hernandez Abaitua eta Jon Juaristiren artean sortutakoak; Valentziako Galeuzcan sortutakoak... 1987ko urte zurrumbilotsu haren ostean, 1989an (ik. *Hegats* 1, 1989ko abendua, 11-15), L. M. Mujikak artikulu bat eman zuen argitara euskal literatur kritikari buruzkoa. Bertan, M. Lopezek erabilitako bibliografiari osatugabea iritzi ondoren, kritika batek ona izateko bete behar dituen baldintzez hitz egiten du eta aipamen laburren mugez. L. M. Mujikaren iritzi, azterketa luze eta sakonek soilik bermatzen dute kritika baten kalitatea, eta hori dela-eta, leku kanpo kontsideratzen ditu aipamen laburretan askotan kaleratu izan diren gehiegizko laudorio edo kritikak.

²³ ik. *Leer* 108, 1999ko abendua, 176-177.

Salmentak dira, beraz, merkatuan agintzen dutenak, eta, Hans Magnus Enzensbergerek esan bezala, merkatu horretan berdin balio dute Dantek edo Disneyren Donald ahateak. Egoera honetan, komunikabideak dira egi-leen eta irakurleen, hots, kontsumitzaileen artean funtsezko bitartekariak. Argitalpen berri batentzat asteroko gehigarrian egilearekin elkarrizketa emateak edo liburuaren inguruko aipamena argitaratzeak edozein hausnarketa kritiko luzek adinako balioa du. Hau da, arreta mediatikoa lortzen duten liburuek dute ziurtatuta, nolabait, hartzaileengana helduko den oihartzun beharrezkoa.

Gauzak horrela planteatuta, interesgarria izango litzateke euskal kritika publikoak azken hamarkadetan izan duen garapena zehazki aztertzea eta euskal liburugintzaren bilakaera garaikidean merkatu-estrategia berriek izan duten eragina zehaztea. Edonola ere, dudarik ez dago, inoiz baino kritika publiko gehiago egiten dela gaur egun eta behiala ezinezko ikusten ziren hainbat errealitate (telebista, irratia, Internet...) orain eskura dauzkagun tresnak direla. Euskal literaturak inoiz baino presentzia handiagoa du gaur egun komunikabideetan. Komunikabideen arloa aztertzerakoan, 1980ko hamarkadaren amaieran desagertu ziren *Eguna* edo *Hemenekin* batera, 1986-1995 bitartean *El Diario Vasco* egunkariak kaleratu zuen *Zabalik* gehigarria nabarmendu beharko genuke lehenik. Felix Ibargutxi kazetariaren zuzendaritzapean argitara eman zen gehigarri interesgarri honek 8 orri izan zituen 1992 arte eta egile nahiz kazetari kualifikatuek (A. Lertxundi, P. Aristi, G. Markuleta...) kolaboratu zuten bertan²⁴. 1990ean *Egunkaria* sortu zenetik, euskal liburugintza izan zen hizpide “Liburuak” edo “Liluratura” sailetan esaterako. Gerora etorri zen, 1998an, *Begia* gehigarria. Honekin batera aipatu beharko genituzke 1990eko hamarkadan hainbat egunkaritan sortu ziren asteroko gehigarriak: *Focus* (*El Diario Vascon*, 1998tik aurrera); *Mugalari* (*Garan*, 1999tik aurrera); *Igandegin* (*Eginen*, 1993-1998); *Igandeia* (1993-1996) eta *Ortzadar* (1997tik aurrera) *Deian*; *Territorios* (*El Correion*, 1996tik aurrera); edo *El País*en 1999tik aurrera argitara ematen den orritxo²⁵. Horiei guztiei, astekarietan (*Argia*, *Zabalik*...) edo hilabetekarietan (*Aizu!*, *Habe*, *Pérgola*...) argitara ematen diren atalak gehitu behar zaizkie.

Berdin mintzo gintezke irratitari edo telebistari buruz. Zehatzegiak izateko asmorik gabe, irratitari dagokionez, hortxe dauzkagu, 1980ko hamarkadan

²⁴ Auñamendi Entziklopedia internetera eramateko dagoen egitasmoaren barruan, F. Ibargutxi hartu du euskal idazleei dagozkien sarrera guztiak gaurkotzeko lan eskerka.

²⁵ Iratxe Gutierrezek (2000) argitalpenok guztiok aipatzen eta aztertzen ditu bere liburuan.

sortu ziren hainbat saio –“Sorgin afaria” (1983-1986)...–, edo gaur egun egi-
ten diren “Komatxo artean” (1995-...) edo “Sormenari lehio” saioak eta beste
hainbat saiotan liburugintzari eskaini zaizkion tartetak. Telebistari dagokionez,
berriz, “Arkupe”, “Fahrenheit” (1988-1991), “Hitzaro” (1995-2001) edo
2001eko ekainerako 39 saio emitituta zituen “Sautrela” programak gogoratu
nahi genituzke, besteak beste. Dena dela, zerrenda honek iradoki lezakeen
baikortasuna pixka bat lehundu beharrez, esan dezagun *prime-time* delakotik
kanpo emititutako saioak direla gehienak²⁶ eta iraunkortasunik eza izan ohi
dela, ezbairik gabe, ahalegin hauek gaingitu behar izaten duten erronka
nagusia²⁷. Salbuespen nabarmenena bertsoaritzari bultzada izugarria eman
dion *Hitzetik hortzera* saioaren harrera bikaina izango litzateke.

Kritika publikoari dagokion erreferentzia-zerrenda hau osatzeko, Inter-
net-en eskura dagoen informazioa ekarri nahiko genuke gogora. Inoiz ez
bezala, gaurko irakurleak eskura dauzka hainbat argitaletxetako web orrietan
nobedadeei buruzko erreferentziak, edo nahi izanez gero, egunkarien heme-
rotekak, elkarten orriak (EIE; EIZIE; Galtzagorri;...) edo *Ibiñagabeitia Proiektua*
eta gisa horretako proposamen interesgarriak. Susa Argitaletxearen eki-
menez, *Euskal Aldizkarien Gordailua* edo *Literatura Fotokopietan* gehigarriak ere
aurki daitezke sarean²⁸ (ik. <http://armiarma.com/andima>).

Ez genuke kritika publikoari dagokion atal hau bukatu nahi oraindik begi
bistakoa den hutsune bat gogora ekarri gabe: argitalpen berriei buruzko
aipamenak eta informazioa inoiz baino ugariagoak diren arren, badago
guretzat deigarria den arazo bat: euskal liburugintzari buruzko aldizkaririk
ezarena. Alegia, oraindik ez da sortu gurean argitaratzen diren liburuei
buruzko kritikak eta aipamenak bilduko dituen aldizkari espezifikorik. Gaz-
telaniatzko *Qué Leer* edo galegozko *Eido de Libros* (1998) eta *Guía dos libros*
(1998) har daitezke liburugintzari buruzko aldizkarien adibide gisa; argital-
pen hauetan irakurleria zabalari begira antolatutako informazioa kaleratzen
da eta euren helburu behinena literatura betiko zirkuitu hertsia eta mugatue-
tatik ateratzea da. Egungo euskal kritika publikoa sakabanatuegia dago,
ordea, eta, gainera, ez da oso izpiritu kritiko zorrotzez egina. Bestela esateko,
gutxi kritikatzan da, edo batere ez. Komunikabideek maila berean jartzen

²⁶ ik. Edorta Aranaren baieztapen interesgarriak 1999-05-22ko *Egunkarian*.

²⁷ Iraunkortasunari dagokionez, 28 urteren buruan, 2001eko ekainean, emititzeari utzi dioten Bernard Pivoten *Bouillon de Culture* saioa genuke eredu aipagarrienetakoa.

²⁸ Literatura aldizkarien gordailu honek XX. mende hondarreko euskarazko hamasei aldizkari biltzen ditu. Berriki jakin dugunez (ik. *Berripapera* 109, 2001eko ekaina), laster aldizkari gehiago izango dira sarean, dela osorik euskaraz argitaratu ez direnak, dela 1960 baino lehenagokoak.

dituzte liburu guztien ekarpen literarioak; ez dago kalitate literarioaren araberako oihartzunik. Gainera, liburu-ataletan kritikak argitara ematen dituzten salbuespen interesgarri batzuk kenduta (F. Juaristi, J. Rojo, J. Kortazar, J. L. Zabala, J. Benito, A. Iban, A. Urkiza...), aurkezpen egunean esandakoen laburpena gainditzen duten iruzkin gutxi aurkituko du irakurleak²⁹. Gure aburuz, euskal liburugintzari buruzko argitalpen batek gaur egun daukagun gabezia nabarmenetakoa betetzen lagunduko liguke: euskal literatura betiko zirkuituetatik kanpora ateratzen eta hartzaile sail zabalagora iristen. Alegia, gure literatura normalizatzen.

c) Kritika akademikoaz³⁰

Gure literaturaren gaineko ikerketa akademikoen diagnosis egingo bage-nu, segituan ohartuko ginateke literaturaren historiari eta teoriari dagozkion arloak izan direla urrirenak. Teorian ekarri gutxi egotea ulergarria bada ere³¹, ulergarria diot, teoriaren arloak lurraldetasuna gainditu egiten duelako, historien alorrean zenbait hutsune nabarmen ditugu oraindik.

Espainiako literaturan adituek monografia-eskasiari egozten badiote lite-ratura garaikidearen historiak egiteko zailtasuna (ik. V. García de la Concha-

²⁹ Esandakoaz gain, zenbait idazleren aburuz, profesionaltasun gutxi erakusten dute kazetari batzuek argitara eman den liburu baten aitzakian egilea elkarrizketatzen dutenean. Hona, Hasier Etxeberriak salatutakoa (ik. *Egunakaria*, 97-11-25, 26):

Kritika dela-eta, gauza bat esan nahi dut. Liburua argitaratu dudanetik egiten didaten bosgarren elkarrizketa da hau. Kasu guztietan niri elkarrizketa egiteko erabakia liburua irakurri gabe hartu du kazetariak edo arduradunak, eta kasurik gehienetan liburuko ipuin bakar bat ere irakurri gabe etorri dira niregana kazetariak. Horrekin dena dago esanda. Kontua ez da kritika eza soilik. Egiten dena ere kaltegarria da. Baina, gainera, argitaratzen dugunok harrapatuak gaude. Agertzea gustatzen zaigu, jendeak aipa gaitzala, baina ez da serioa jokatzeko den bezala jokatzeko. Beti kezkatzen gara kritikari buruz, baina geu ere, idazleok, kolaboratzaile gara kazazahar horretan.

³⁰ Literaturaren ikerketa akademikoek gurean izan duten garapenari buruz esango ditugunak 2000ko martxoaren 11n Gasteizko Filologia Fakultatean “*Euskal Kritikari buruzko I. Jardunaldiak*” direlakoetan esandakoak laburbiltzen dituzte. Jardunaldietako txosten guztiak aurki emango ditu argitara Eusko Ikaskuntzak. 1996 arteko ikerketei buruz, ikus *Cuadernos de Alzate* aldizkarian argitara eman nuen artikulua (ik. “La historiografía literaria vasca [1900-1996]. Resumen crítico-bibliográfico”, *Cuadernos de Alzate* 16, 1997ko maiatza, 185-190).

³¹ Mereziko luke teoriaren alorrean gurean egin diren apurrak biltzea. Hegoaldeko unibertsitateetan irakurri diren tesiak eta EHUen aurkeztutako tesinen zerrenda aztertu ondoren, norabide teorikoa duten bi tesina bakarrik aurkitu ditugu: 1987an Joseba Gabilondok Gasteizko Filologia Fakultatean aurkeztu zuen “Dekonstrukzioa eta idazketa” izenkoa eta 1990. urtean nik neuk fakultate berean aurkeztutako “Fokalizazioa: hurbilpen teorikoa eta zenbait aplikazio euskal narratiban”.

ren adierazpenak *Historia y Crítica de la literatura española* lanaren zazpigarren alean), euskal kasuan are zailagoa da oraintsu arte oso urriak zirelako hurbilpen diakronikoa egiteko behar diren lan sinkronikoak. Atzerapen hau guztiz da ulergarria euskal literatura bera 1950eko hamarkadan instituzionalizatu baitzen jarduera autonomo gisara. Honi, Euskal Filologia sailak berandu sortu izana gehituz gero, ulertzekoa da literaturaren historia urri egotea gurean.

Alabaina, ez da urritasuna euskal literaturaren historiei egotzi izan zaien arazo bakarra, J. M. Lasagabasterrek 1983ko artikulu ezagunean³² salatu zuen modura, zehaztasun historiografiko eskasa ere oztupo izan baita argitara eman diren lan gehienetan. Lasagabasterrek zioskunez, Koldo Mitxelena *Historia de la Literatura Vasca* ezagunaz gain, ordura arteko euskal literaturaren historia gehienetan autoreak eta obrak elkarren ondoan pilatzen ziren, inongo irizpide literariorik gabe antolatuta. Alegia, bizitza literarioak euskal gizartean zuen lekua ez zen inondik ere aztertzen. Nire ustez, eskasia horiek (dela monografiari dagokiena, dela literaturaren historiei dagokiena) azken urte hauetan nolabait konponduz joan dira. Azken hamarkada honetan argitaratu diren zenbait literatur historia begiratu besterik ez dago irizpideak guztiz aldatu direla ikusteko. Hortxe dauzkagu, adibide gisara, historiografiari dagokion atal honetan, Jon Kortazarrek argitara emandako *Literatura Vasca Siglo XX* (Etor, Donostia, 1990), *Euskal literaturaren historia txikia* (Erein, Donostia, 1997) eta *Euskal Literatura XX. mendean* (Prames, Zaragoza, 2000); J.B. Orpustanen *Précis d'histoire littéraire basque (1545-1950)* (Izpegi, Baigorri, 1996); Xabier Etxanizen *Euskal haur eta gazte literaturaren historia* (Pamiela, Iruñea, 1998); Patri Urkizuren *Historia del teatro vasco* (Orain, Donostia, 1996) eta berak zuzendutako *Historia de la Literatura Vasca* (UNED, Madril, 2000); Iñaki Aldekoak apailatutako *Mendebaldea eta narraziogintza* (Erein, Donostia, 1998) eta euskal poesia modernoaren bilakaera aztertzen duen egile beraren *Antología de la Poesía Vasca* (Visor, Madril, 1993).

Horiez gain, bistakoa da azken hamarkadetan argitara eman diren doktorego-tesiek euskal literatur kritikari eman dioten bultzada. Gasteizen, Deustun, Donostian, Bordelen, Baionan edo Pauen sortzen joan diren sailetan, metodologia eta irizpide kritiko zorrotzera egokituz joan da euskal literaturaren ikerketa. Alabaina, gehiegi pentsatu beharrik ez dago doktorego-tesi hauetan aztertu diren egileak euskal literatur ikerketetan behin eta berriro

³² ikus, LASAGABASTER, J. M., 1983, "La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica", *Mundaiz* 26, 34-52.

kanonizatutakoak direla ohartzeko. Ildo horretatik, aipagarria da doktorego-tesi hauek poeten lanen inguruan eginak direla gehienak, eta ez euskal narratibaren ingurukoak. Doktorego-tesiak aztertzerakoan, Pizkundeko egi-leei buruzkoak hartu beharko genituzke abiapuntu: Lizardiri buruzkoak (Otegi, K.: 1991; Otaegi, L.: 1993); Orixeri buruzkoa (Etxeberria, G.: 1997); “Herri poesia eta gerra-aurreko lirika: Orixe, Lauaxeta, Lizardi” izeneko (J.K. Igerabide, 1990). Lau tesi hauei 1985ean Jon Kortazarrek Lauaxetari buruz irakurritakoa gehitu behar zaie.

Gabriel Arestiren obrari buruzkoak ere baditugu pare bat (Arkotxa, A.: 1992; Aldekoa, I.: 1996); ohiturazko eleberrari buruz 1989an A. Toledok irakurritakolari, 1990ean S. García Trujillok defendatutakoa erantsi beharko genioke... eta baditugu garaiko euskal idazle itzulienaren, Bernardo Atxagaren, inguruko beste bi tesi: M. Jose Olaziregiren (1997) eta U. Apalategirena (1998). Zerrenda hau osatzen dute erretorikaren ikuspuntutik P. Salaberri (1997) Axularri buruz egindakoa; Jon Casenavek Jean Etxepareri buruz egindakoa (1997); Eneko Bidegainek (1999) ikuspuntu estilistikoz egindakoa... eta haur literaturari buruzko hirurak: X. Etxaniz (1996), E. Martin (1998), M. Lopez (2000)³³. Aipatzekoak dira, halaber, Nevadako Unibertsitateak Renon duen egoitzan irakurri diren bi tesiak: bata euskal emakume idazleei buruzkoa (White, L.: 1996), euskal polizi eleberrari buruzkoa bestea

³³ Horiez gain, gogora ditzagun Beñat Oihartzabalek 1981ean defendatu zuen tesia, 1990ean *AS/Un* argitara eman zena (ik. *La pastorale souletine: édition critique de Charlemagne*), edo 60ko hamarkadan Jean Haritschelharrek, R. Lafonen zuzendaritzapean, Etxahuni buruz egindako doktorego-tesi ezaguna: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchaun (1786-1862). Contribution à l'étude de la poésie populaire basque du XIXe siècle* (Société des Amis du Musée Basque, Bayonne, 1969). J. Haritschelharrek berak, 1990eko azaroaren 12tik 16ra Donostian egin zen “XX. mendeko euskal literatura” biltzarrean, “Literatura ikerketak” izenburua zeraman txosten interesgarria aurkeztu zuen (ik. *Hegats* 4, 1991ko ekaina, 9-16). Euskal Literaturari buruzko ikerketen hastapenez eta bilakae-raz Haritschelharrek esaten dituenak interesgarriak suertatzen dira euskal literatura ikerketen bilakaeraz jabetu nahi duen edonorentzat. Besteren artean, honako ikerketok nabarmentzen ditu Euskaltzainburuak: 1665ean Oihenartek argitara emandako *L'Art poétique basque...* delakoa; XIX. mendean burutu ziren zenbait kantu-bilketa (Michel, Sallaberry, Vinson...); 1897an Donibane Lohitzunen egin zen “Le congrès de la tradition basque”; XX. mende hasieran sortzen diren aldizkari- garrantzia literaturaren ikerketan; unibertsitatean euskal literaturari buruz egin zen lehenengo doktorego-tesia, A. Léonek egina (ik. *Une pastorale basque. Hélène de Constantinople. Étude historique et critique*, Librairie Ancienne Honoré Champion, Paris, 1909); G. Herelleren ikerketak pastoralei buruz; M. Lekuonaren *Literatura oral euskerika* (1935); P. Lafitteren lanak, hala nola, *Euskualdunen loretegia* (1931) edo *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule* (1942); K. Mitxelenaren historia bikaina... Gogora dezagun, Jean Haritschelhar Bordeleko Unibertsitateko katedraduna izan dela 17 urtez (1969-1986). Bera izan zen 1948tik 1968 arte katedra berean aritu zuen R. Lafon ordezkatu zuena. Haritschelharren zuzendaritzapean eginak dira Iparraldeko ikerlarien tesi gehienak, hala nola, Peillen, Orpustan, Xarriton, Oronoz, Oihartzabal, Arkotxa edo Videgainenak (azken honek Faussat katedraduna ere izan zuen zuzendari).

(Cillero, J.: 2000). Eta horien osagarri, aurten Missouriiko unibertsitatean M. Nuñez Betelu donostiarrak euskal literatura femeninoaz eta nazio-identitateaz irakurri berri duena.

Edonola ere, bereziki nabarmentzekoa irizten diogu doktorego-tesiok guztiok egindako ekarriari, beste arrazoi batzuen artean, literatur kritika garaikidean indarrean dauden teoriak eta metodologiak gure literaturaren azterketara ekarri dituztelako. Oraindik jarraitzaile gehien dituen eredu eta metodologia semiotikoa da, baina horrez gainera harrera-teoriaz, soziologiaz, erretorikaz, polisistemen teoriaz, kritika feministaz... aberastu dituzte euskal literaturaren ikerketak. Etorkizunean hurbilpen diakronikoak burutu ahal izateko monografia sendo eta zabalak eskaintzen dizkigute, gutxienez, unibertsitatean egin diren ikerketok.

Euskal kritika akademikoari dagokion ataltxo honetan sartuko genituzke, halaber, azken urteotan zenbait euskal idazleren mendeurren edo omenaldiak direla medio kaleratu diren monografia eta argitalpenak. Besteren artean, Orixe, A. Oihenart, A. M. Labaien, J. Mirande, Antonie d'Abbadie, X. Lizardi, G. Aresti, Axular, N. Etxaniz, D. Agirre, E. Bustintza eta B. Gandiagari berriki egindakoak³⁴.

Horiekin guztiekin batera, aipagarriak dira, euskal emakume idazleen lanak aztergai dituzten argitalpenak. Hasi Kultura Sailak argitara ematen duen *Bidegileak* sailean kaleratu diren *Euskal emakume idazleak (1908-1936)* (M. Atxaga, Eusko Jaurlaritza, 1997) eta *Emakumea Euskal Antzerkian* (H. Cano, Eusko Jaurlaritza, 1997) liburuxkekin, eta M. J. Olaziregik 1998ko Angel Apraiz bekari esker idatzitako *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura* (Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999) liburura, poliki-poliki euskal emakumeek idatzitako literaturaren gaineko sorkuntza kritikoa umotuz joan da. Horien osagarri da 2000. urtean Anthropos argitaletxeak argitara eman zuen *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*. Honako bederatzi aditu hauek parte hartu zuten lan horretan: L. White, A. Arkotxa, L. Otaegi, A. Toledo, E. Martin, C. Larrañaga, A. Iturbide, I. Etxebarria eta M. J. Olaziregi. Dela gizonezkoen lanetan emakumezkoen irudia aztertuz, dela emakumezkoek idatzitako lanak komentatuz, gurean gehiegitan ahazten diren idazleez, emakumezkoek, dihardu argitalpen honek ere. Euskal kritika feministari dagokion atal honetan bereziki nabarmendu nahiko genituzke Nevadako Unibertsitateko ira-

³⁴ Bibliografia zehaztuagoa nahi izanez gero, lehenago aipatu dudana "Euskal Kritikari buruzko I. Jardunaldiak" direlakoetan esandakoak kontsulta daitezke.

kasle den Joseba Gabilondok argitara emandako lan interesgarriak. Gure bibliografian bildu ditugun bere artikulu gehienetan (bereziki, 1998b, 1999a, 1999b, 1999c, 2000a eta 2000b), azken urteotan Estatu Batuetan indar handiz kaleratu diren teoria feminista eta poskolonialak euskal literaturara aplikatu ditu. Testuen irakurketa deskriptiboa gaindituz, interpretazio politikoak irakurketa psikoanalitikoarekin uztartzen duen hurbilpen kritikoa darabil Gabilondok. Aire berriak, ezberriak gabe, euskal literaturaren azterketa ikuspuntu desberdinez aberasteko.

Bukatzeko, euskal kritika akademikoaren fruituak ezagutarazi dituzten ikastaroak eta argitalpenak gogora ekarri nahiko genituzke. Lehenengoei dagokienez, hortxe dauzkagu, Udako Euskal Unibertsitateak, UEUk, 1973tik Iparraldean eta 1977tik aurrera Hegoaldean, antolatu literaturari buruzko ikastaroak (ik. <http://www.ueu.org>), Euskal Herriko Unibertsitateak 1981az geroztik Miramar Jauregian antolatu dituenak (ik. <http://www.sc.ehu.es>), edo hainbat erakundek, adibidez Eusko Ikaskuntzak, azken urteotan antolatu dituen graduondoko ikastaroak³⁵. Argitalpenei dagokienez, hortxe daude lan espezializatuagoak kaleratzen dituztenak. Hala nola, *RIEV (Revista Internacional de Estudios Vascos)*, *Egan* (1948-...), *Euskera* (1953-...), *ASJU (Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo")* (1954), *Jakin* (1956-...), *Letras de Deusto* (1971), *Mundaiz* (1975), *Idatz eta Mintz* (1981-...), *Enseiucarrean* (1985-...), *Literatur Gazeta* (1985-1989), *Hegats* (1989-...), *Uztaro* (1980), *Bitarte* (1993-...), *Oihenart* (1997)...

Euskal literatur sistemari buruzko atal luzexka hau amaitzeko, birsorkuntzaren atalean aipatu gabe utzi ditugun hainbat elementu aipatu beharko genituzke. Hortxe dauzkagu, esaterako, 1980-1990 hamarkadetan zenbait euskal eleberrri edo ipuinez egin diren egokitzapenak, dela film edo laburmetraia moduan (*Zergatik Panpox*, *Hamaseigarrenean aidanez*, *100 metro...*), dela irratinobela modura (*Babilonia*, *Hamabost egun Urgainen...*). Edonola ere, euskal literatur sisteman birsortzaile eraginkorra, ezberriak gabe, hezkuntza sistema bera dugu. Testu liburuetan argitara ematen diren iruzkin, laburpen, aipamen, ikasgai, unitate didaktiko eta abarrek euskal literaturaren merkatu nagusian eragiten dute. Lehenago aipatutakoaren ildotik, euskarazko irakurketak zirkuitu akademikoarekiko duen mendekotasunak testu liburuetan argitara ematen diren "birsorkuntza" didaktikoen eraginkortasuna frogatzen du.

³⁵ Graduondoko ikastaro hauetako batzuk on-line egin daitezke. Asmo bera du Nevadako Unibertsitateak "Basque Cultural Studies" lemapean antolatu duen graduondoko ikastaro berriarekin. Bertan, euskal literaturari dagokion atalean, Atxagaren obrari buruzko on-line ikastaroa eskainiko da, sei kredituren balioa izango duena.

2. Euskal narratiba garaikidearen bilakaeraz

Gure ikerketaren xede nagusia euskal eleberrigintzaren bilakaeraren azterketa den arren, garrantzizko irizten diogu azken urteotan gainerako genero narratiboek izan duten igoera eta sendotzea nabarmentzeari. Azken batean, gure jarduna euskal eleberrigintzaren azterketara mugatu badugu ere, dudarik ez dago ipuingintzak gurean erdietsi duen mailak hurbilpen kritiko zabal eta gaurkotuak merezi dituela. Ondorio horixe ateratzen da I. Mujika Iraolak (1991), I. Aldekoak (1993; 2000) edo X. Mendiguren Elizegik (1997) argitaratu eman dituzten artikulua nahiz sarrera interesgarrietatik¹: euskal ipuingintza modernoak 1980ko hamarkadatik gaurdaino izan duen bermatze-prozesuak liburu honen mugak gaintutuko lituzkeen azterketa zehatzagoa eskatzen duela.

Eskaera horrek denboran oso hurbilekoa dugun sorkuntza literarioari erreparatzera derrigortuko gintuzke, jakina denez, narraziozko generoak izendatzeko erabiltzen ditugun terminoak berak ere oso berriak baitira euskal tradizioan². “Eleberri” hitzaren adierak *Orotariko Euskal Hiztegi*an begiratu gero, segituan ohartuko gara adibide zaharretan adiera negatiboa duela, zurrumurru edo esamesaren parekoa. XX. mendean aldatu zen eleberri hitzaren adierazia, lehenengo hamarkadetan erabili ohi zen “irakurgai” hitzaren ordezkotzat gisa erabiltzen hasi zenean. “Eleberri” hitzaren baliokideak

¹ ik. MUJIKAI IRAOLA, I., 1991, “Ipuingintza”, *Hegats* 5, 1991ko abendua, 17-26; ALDEKOA, I., 1993, “Mapak eta istorioak” in ALDEKOA, I., 1993, *Euskal Ipuinen antologia bat*, Alberdania, Irun, 7-23; Aldekoa, I., 2000, “El cuento en euskera”, *Bitarte* 21, 111-115; MENDIGUREN ELIZEGI, X., 1997, “Aniztasuna eta Kalitatea” in TORREALDAI, J. M., 1997, *Euskal Kultura Gaur*, Jakin, Arantzazu, 330-331.

² *Orotariko Euskal Hiztegi*an esaten zaigunez, “Literatura” hitza bera Orixeren *Mireion* (1930) azaltzen da lehenengoz. Sintomatikoa, guztiz, berankortasun hau eta euskal sorkuntza literarioaren helburu nahiz parametroz argibide ugari ematen diguna.

ditugu, halaber, 1970eko hamarkadaz geroztik Hegoaldean hedatu den “nobela” hitza, edo XX. mende hasierako zenbait idazle sabindarrek erabili ohi zuten “edeskixuna” neologismoa. Bestalde, logikoa denez, askozaz ere zabalagoa da “ipuin” hitzaren tradizioa. I. Mujika Iraolak (1991) dioskunez, normalean ipuinlaritzat ez ditugun idazle klasikoek ere (Axular, Tartas, Agirre Asteasukoa...) idatzi zituzten ipuin laburrak, ahozko lengoaiaren kutsu handia zutenak eta helburu moralizatzailez egindakoak. Agirre Asteasukoak (1742-1823), kasu, ipuin hitza gezurraren eta asmakuntzaren sinonimotzat erabiltzen du. Mujika Iraolaren aburuz, ipuingintza moderno eta helduentzako bete-betean A. Lertxundiren *Hunik arrats artean* (Lur, 1970) ipuin-bildumarekin hasten da.

Narraziozko generoei dagokien terminologiaren zehaztapan berantiarrak harreman hertsia du liburugintzan izan duen bilakaera deigarriarekin. Torrealdaik emandako datuei kasu eginez gero, argi dago narraziozko generoek gero eta protagonismo handiagoa izan dutela euskal liburugintzan. 1876-1935 urte bitartean literatur produkzioaren % 18,7 zegoion narratibari; 1936-1975 bitartean, berriz, % 23,8 izatera iritsi zen; eta 1976-1996 bitartean produkzioaren % 48,5 hartu zuen. Gaur egun, literatur liburuaren % 59,3 da narraziozkoa. Ehuneko horren arabera, ehunekoak zenbakietara itzuliz, helduen literaturan urtero narraziozko 120 liburu inguru argitaratzen dira.

Urteekin egin den igoera eta protagonismo hau azaltzeko arrazoen artean, baldintza sozio-historiko berriak aipatu izan dira nagusiki. Jon Kortazarrek (2000:270) euskal literatur sistemaren sendotzearekin lotu du narratibak azken hamarkadetan izan duen igoera nabarmena. Kortazarren aburuz, literatur sistema indartu egin da azken urteotan eta honek komunikazio-sistema bera aldarazi egin du: komertzioa da nagusi egungo literatur munduan eta horrek, noski, komertzialki errentagarriak diren generoak indartzea ekarri du, hau da, narraziozko generoak indartzea.

Eta komertzialki errentagarriak diren generoetz mintzo garenez, ekar ditzagun gogora azken urteotan ugartuz joan diren euskal *best-sellerrak*. Lehendik ezagutzen genituen liburu salduenen zerrendari (ik. Olaziregi, M. J. 1998f: 111), azkenaldian urtero bina edo hiruna argitalpen izan dituzten lanak gehitu zaizkio. Eta datu garrantzitsua: guztiak dira narraziozko liburuak. *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (26. argitalpena, 2001ean) edo *110 Street-eko geltokia* (22. argitalpena, 2000an) eleberri ezagunen ondoan, 1999an lau argitalpen izan zituen *Ostegunak* (15. argitalpena, 2000an) liburuaren kasua aipatu beharko genuke. Irakaskuntzaren zirkuituarekin (eskola + euskaltegiak)

izan dezaketen lotura onartuz ere, liburuak promozionatzeko moduak, komunikabideetan izan duten oihartzunak, edo generozko narratibarekin dituzten harreman argiak (umorezko nobela, nobela poliziakoa...) *best-seller* fenomenoaz mintzatzera garamatzate. Oro har, liburuok *best-sellerei* egozten zaizkien ezaugarriak dituztela esan genezake. Estilistikoki: hizkuntza zehatz eta erraza, elkarrizketa biziak, deskribapen gutxi, narrazioaren mesedetan. Narrazio-estrategiei dagokienez, ostera, suspensearen edo umorean erabile- ra dosifikatua, pertsonaia markatuak, filmei edo eguneroko berri ezagunei erreferentzia egiten dieten testuarterko loturak, edo nobela beltzetako giro ilun eta arriskutsuen oihartzunak³.

Edonola ere, irakurleen ohituren aldaketa, merkatuaren legeetara makurutako liburugintza, ikus-entzunezkoek eragindako kontamoldeen arrakasta... gaur egun narraziogintzak duen harrera ona azaltzeko arrazoi baliagarriak izanik ere, argi dago, euskal kasuari dagokionez behintzat, lehenago aipatu diren gertakariak, hots, irakaskuntza elebidunaren eskaera berriek eta literatur lehiaketak ugaltzeak eragin zuzena izan dutela narraziozko generoen zabalkundean. Sariaketei dagokienez, Torrealdairen liburuak 458-467 orrialdeetan datozenak zenbatuz gero, honako kopuru hauekin egingo genuke topo:

<i>Urteak</i>	<i>Literatur generoa</i>	<i>Lehiaketa-kopurua</i>
1977-1994	narratiba	22
1954-1995	eleberria	55
1976-1996	ipuinak	202
1959-1995	poesia	104
1954-1996	antzerkia	33
1959-1996	saiakera	29

Kopuruen batura ezin adierazgarriagoa da: narraziozko generoetan, guztira, 279 lehiaketa jasotzen ditu Torrealdaik; poesian, 104; antzerkian, 33; eta saiakeran, 29. Honetaz gain, bada beste datu interesgarri bat: narratibazko generoen artean ipuingintza saritzera bideratutako lehiaketa asko direla eleberriarekin konparatuz gero.

Datu horien ildotik, guztiz ulergarriak dira generoen artean berriki eman diren fluktuazioak. 1990eko hamarkadan, esaterako, ordura artean poesiaz-

³ ik. LÓPEZ DE ABIADA, J. M.; PEÑATE RIVERO, J. (arg.), 1993, *Éxito de ventas y calidad literaria*, Verbum, Madrid.

ko lanak argitaratuta zituzten hainbat idazle narratiba-lanak kaleratzen hasi zen. I. Gutierrezek (2000:11) adierazi digunez, egile horien artean dauzkagu: L. M. Mujika, I. Aranbarri, E. Jimenez, X. Montoia, J. L. Otamendi eta M. Erzilla. Era berean, bada azken hamarkada honetan ipuingintzatik eleberrigintzara jauzi egin duen egile ezagunik ere; hortxe dauzkagu, esate baterako, I. Mujika Iraola edo A. Egaña. Hauekin batera aipatu beharko genituzke euren lehenengo lana kaleratu duten zenbait egile, eleberrigileak guztiak: L. Oñederra edo I. Rozas... edo eleberriak nahiz ipuinak kaleratu izan dituzten idazleak: E. Jimenez, X. Montoia, H. Etxeberria, J. M. Iturralde, H. Cano, P. Aristi...

Azken batean, zail da generoen arteko fluktuazio horien oinarrian dau den arrazoi guztiak ematea. Merkatuaren eskakizun berriez gain, beste batzuk ere aipatzen ditu D. Vilavedrak galegozko literaturan gertatutakoak azaltzeko⁴. Irakasle honen aburuz, besteren artean, honakook izan daitezke generoen arteko fluktuazioak ulertzen lagun diezaguketen arrazoiak: krea-zio-nekea, garai berriek eskatzen dutenarekin bat egiteko nahia, adierazpide berriagoekin ahalegintzeko desira, edo irakurleria zabalagoa erdiestekoa. Arrazoiak dena delakoak izanda ere, dudarik ez dago narratibaren gailentasun literario honek eragin zuzena izan duela XX. mendeko euskal literatur lanen kanonizazio irizpideetan. Hau da, 1960ko hamarkada arteko euskal literatura kanonikoa batez ere poetek zedarritzen bazuten (Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Mirande, Aresti...), 1970eko hamarkadatik aurrera kanona eleberrigileek edo ipuingileek zehazten dute nagusiki, alegia, narratibazko lanen autoreek⁵.

a) Euskal literaturaren kanon berriaz

Azken hamarkadetako eztabaida literarioan ezerk zeresanik sortu badu, kanonaren inguruko auziak eragin du. Kanona, ez jatorriz zuen esanahiari

⁴ ik. VILAVEDRA, D., 1999, *Historia da Literatura Galega*, Galaxia, Vigo, 273. orrialdea eta hurrengoak.

⁵ Edonola ere, esan dezagun genero narratiboaren gailentasuna duda ezinezkoa den garai haue-tan poesiak baduela oraindik, batez ere egile gazte hasiberrien kasuan, bere erakarmen eta indarra. Jon Kortazarrek oroitarazi digun moduan, 1990etik 2000. urte bitartean 38 idazlek argitaratu zuten euren lehen poema liburua eta horien artean kausi ditzakegu 70eko hamarkadan jaiotako euskal idazle berri asko: Kirmen Uribe, Asier Serrano, Igor Estankona, Jose Luis Padron, Urtzi Urrutikoetxea, Castillo Suarez, Xabier Olaso, etab. Poesiarentzat garai onak ez diren haue-tan, guztiz azpimarratzekoa da poeta gazteon lan gehienak kaleratu dituen Susa argitaletxearen aha-legina, poesia-sail bat ez ezik, Koldo Izagirrek zuzendutako *XX. mendeko euskal poesia kaierak* izene-ko bilduma eskaini diguna.

atxikiz ulertua (grekerazko “kanon” hitza zurginek neurketak egiteko erabili ohi zuten makilatxoa izendatzeko erabiltzen baitzen), ezta zentzu biblikoan ulertua ere, baizik eta XVIII. mendean geroztik literatur kritikan eta teoriarik aztertu den modura ikertuz: hizkuntza desberdinetako literaturerik ereduagarritzat hartuak izan diren testu edo egileen inguruko hausnarketa gisara.

Jakinaenez, kanonaren inguruko azken urteotako eztabaidarik sutsuenek Estatu Batuetako unibertsitateetan izan dute sorburua. Besteak beste, *Critical Inquiry* edo *New Literary History* aldizkari ezagunetan argitara eman diren artikuluek ugariez gain, estrukturalismo osteko kritikan barneratzen diren *New Historicism* edo *Cultural Studies* direlakoek ere literatur kanon ororen oinarri ideologikoa azpimarratu nahi izan dute. Azken batean, Harold Bloomen *Mendebaldeko Kanona* (1994) liburu ezagunari hainbat kritikari eza-gunek egindako zehaztapenak (besteren artean, F. Kermode, P. Brooks, E. Said edo J. Culler adituena) irizpide estetiko hutsez haratago definitzen eta aztertzen den literatur kanonaz mintzo zaizkigu. Finean, literaturaren instituzioak, hau da, jarduera literarioan parte hartzen duten sortzaile, kritikari, argitaletxe, hezkuntza-erakunde edo komunikabideek osatzen duten egiturak, finkatzen ditu kanonaren oinarriak.

Harold Bloomen *Mendebaldeko Kanona* (1994) liburu ezagunaren ondoren piztutako polemikan haxe zen Bloomi kritikatzeko zitzaiona: arraza zuriko gizonezko europarrak nagusi ziren bere zerrenda kanonikoa botere politiko eta kulturala zuen instituzio literarioak finkatutakoa zela. Gerora, nahiz eta kanon kontzeptua bera auzitan jarria izan den, erabilgarria suertatu da literaturaren azterketa sozio-historikoak egiteko garaian. Esan beharra dago, egun Nevadako Unibertsitateak Renon duen egoitzan irakasle den Joseba Gabilondo izan zela kanonaren inguruko hausnarketak gurera ekarri zituen lehenengo euskal kritikaria. 1993an *Etiopia* poema liburuaz argitara eman zuen artikuluan, testu kanonikoak ezinezkotzat jo zuen Atxagaren lan ezaguna⁶ eta kanonaren inguruko eztabaida egungo euskal literaturaren bilakaera aztertzeke erabili zuen. Azkenaldian genero edo liburu kanonikoak hizpide bihurtu baditugu ere⁷, asko dago oraindik ikertzeko. Helburua ez da euskal liburu eta egileen zerrenda ereduagarri edo kanonikorik proposatzea; gure literatur lanen kanonizazio prozesu sozio-literarioak aztertzea baizik. Hau da, garai desberdinetan indarrean egon diren poetiken ezaugarriak

⁶ ik. GABILONDO, J., 1993, op. cit.

⁷ ik. OLAZIREGI, M. J.: 2000c.

ikertzea eta ordezkapen estetikoaren bilakaeraz jabetzea. Modu honetan ulertuta, kanonaren azterketak egun hain beharrezkoa dugun irakurketa diakronikoa egiten ere lagunduko liguke (ik. Genette, G., *Figures III*, Seuil, 1972) eta bilakaera literarioa parametro hertsiki estetikoetan interpretatzen. Horretarako, hau da, euskal literatur kanonaren nondik norakoak zehazteko, literaturen historiak, antologiak, ikerketa monografikoak, irakaskuntza-programak... eta beste hainbat elementu ikertu beharko genuke lehenik.

Alabaina, gure ikerketa honetan hori guztia aztertzeke lekurik ez dagoenez, eskura dauzkagun zenbait informazio-iturritz soilik baliatuko gara narra-tzaileek gaurko euskal literatur sisteman duten leku hegemonikoa zehazteko. Hauen artean gurean egin diren zenbait inkesta soziologiko erabiliko dugu, garaiko euskal literaturaren kanona iradoki dezaketen heinean.

J. M. Torrealdaik bere *Euskal Kultura Gaur* (1997: 366) liburuan argitara emandako emaitzak komentatuko ditugu hasteko. Jakina denez, liburu horretan euskal liburugintzaren mundua aztertzen du soziologo honek eta euskal idazleen artean egindako inkestaren emaitzak iruzkintzen. Hona, jarraian, inkesta horretan “*Zeintzuk dira azken 20-25 urteotako 10 euskal obra hoberenak?*” galderari euskal idazleek emandako erantzunak⁸:

Azken 20-25 urteotako 10 euskal obra “hoberenak”

<i>Izenburua</i>	<i>Botoak</i>
<i>Obabakoak</i>	90 boto
<i>Otto Pette</i>	69 “
<i>Narrazioak</i>	38 “
<i>Hamaika pauso</i>	33 “
<i>Babilonia</i>	31 “
<i>Espainolak eta euskaldunak</i>	25 “
<i>Ehun metro</i>	23 “
<i>Gizona bere bakardadean</i>	21 “
<i>Ni ez naiz hemengoa</i>	20 “
<i>Azukrea belazeetan</i>	20 “

Torrealdaik berak 1975ean egindako inkestaren emaitzak begiratu gero, honako hau ikusten dugu: fikziozko lanen kopurua nabarmen jaisten dela,

⁸ Inkestatuen unibertsoa 271 idazlek osatzen dute. Guztira, 199 izan ziren jasotako erantzunak, eta horietako 184 aztertu ziren.

poesia, historia edo entsegu-liburuen mesedetan: *Harri eta Herri* (Gabriel Aresti); *Mitxelaren idazlan hautatuak* (Koldo Mitxelena); *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (Jose Azurmendi), *Huntaz eta Hartaz* (Txillardegi), *Elsa Scheelen* (Txillardegi), *Euskal literaturaren historia* (Ibon Sarasola), *Hiru gizon bakarka* (Bitoriano Gandiaga), *Egunero hasten delako* (Ramon Saizarbitoria); *Herriaren lekuko* (Rikardo Arregi) eta *Axular-en hiztegia* (Luis Villasante) ziren 1975eko inkestan azaltzen ziren liburuak.

Horiekin batera, “Idazle hoberenak” galderari 1997an emandako erantzunak ere begiratzen baditugu, honako hau ikusiko dugu: genero bakoitze-ko ordezkari kopuru bertsua ageri dela, baina, hala ere, narratzaileak direla nagusi (ik. Torrealda, J. M.: 1997: 475):

<i>Idazleak</i>	<i>Botoak</i>
Bernardo Atxaga	122 boto
Anjel Lertxundi	103 “
Joseba Sarrionandia	89 “
Ramon Saizarbitoria	76 “
Joan Mari Irigoien	60 “
Koldo Izagirre	55 “
Txillardegi	45 “
Joxe Azurmendi	32 “
Joxe Austin Arrieta	29 “
Juan Mari Lekuona	27 “

Beraz, behiala poetak baziren gure literatur sisteman gune zentrala betetzen zutenak, narratzaileak dira gaur egun, batez ere, idazleen begietara erreferentzia-gune funtsezkoak.

Laburki aipatuko ditugun beste inkestak, 1990 eta 1996an irakurketa-ohiturei buruz egin genituenak izango dira (ik. Olaziregi, M. J.: 1998f). Euskal liburugintzak irakaskuntzaren zirkuituarekin duen mendekotasuna kontuan hartuta, uste dugu 14-18 eta 18-21 urteko ikasleen artean egin genituen 2.700 inkesten emaitzek kanon literarioa bermatzen duen irakaskuntza-sistemaren berri ere ematen digula. Alegia, irakurketa gehienen oinarrian eskolak agindutako liburu bat bazegoen, bertan agertzen diren egileen zerrendak eskolak agindutako liburuen egileez osatua behar luke izan, hau da, eskolak irakaskuntza-programen bidez kanonizatutako liburuen egileez. Hau guztia kontuan hartuta, adierazgarria da 1994ko emai-

tzetan gaztelaniazko egileek zuten garrantzia. Kontu egin urte horretan inkesta egin zitzaizen ikasleak unibertsitarioak zirela eta derrigorrezko hezkuntzan irakurri behar zituzten liburuetatik libro zeudela. Horregatik aipatzen zituzten gaztelaniazko hainbeste autore: adinak gora egin ahala, gaztelaniazko literatura gehiago irakurtzen zutelako. Amaitzeko, zerrenda hauetan narratzaileek duten protagonismo ia erabatekoa azpimarratu nahiko genuke.

Gogokoen zituzten hiru egileak

<i>1994an gogokoen zituztenak</i>		<i>1990an gogokoen zituztenak</i>	
B. Atxaga	35,0	B. Atxaga	43,7
I. Allende	15,3	G. Garate	41
S. King	10,4	A. Urretabizkaia	19,7
A. Vázquez Figueroa	9,8	A. Lertxundi	19,1
G. García Márquez	8,7	J. Sarrionandia	18,6
A. Christie	8,2	R. Sazarbitoria	17,5
J. Sarrionandia	8,2	P. Aristi	13,7
J. M. Irigoien	7,1	P. Zabaleta	9,3
G. Garate	6,6	X. Gereño	6,6
K. Follet	4,9	J. M. Irigoien	6,6

Aurreko lerroetan gogoratu ditugun bi inkestekin batera, gurean egon da atzerriko egunkari ezagunen antzera (ik. *The New York Times*, *The Guardian*,...) XX. mendeko euskal liburu onenen zerrenda proposatzera ausartu denik. 2000-12-30ean *Gara* egunkariak argitara eman zuen zerrendan, kasu, XX. mendeko euskal/erdal liburu onenak omen direnak aipatzen ziren. Aukeraketa bera eztabaidagarri izan daitekeela onartuz ere, gauza bat zegoen argi aipatutako zerrendan: narratibazko lanen gailentasuna fikziozko euskal lanen artean (liburuen % 70 zen narratibazkoa).

Orain artean iruzkindu ditugun iturriez gain, badago beste baliabiderik euskal literaturaren kanon garaikidean narratzaileek luketen pisua neurtzeko, hala nola, azken urteotan kritikak aztertu, aipatu edo iruzkindu dituen autoreak aztertzea. Bistakoa da poeta gehienengatik inguruan baino gehiago idatzi izan dela B. Atxaga, R. Sazarbitoria, A. Lertxundi, J. M. Irigoien edo Txillardegiren gainean. Poeta garaikideen artean, Atxaga, Sarrionandia edo J. M. Lekuona izango lirateke, segur aski, egile aztertuenak. Edonola ere, horrelako baieztapen batek hausnarketa luzeagoa eskatuko lukeenez, irakurleak lan

honen amaieran datorren bibliografiara jo dezake egungo hainbat narratzailek eragin duten azterketa oparoa frogatzeko.⁹

b) Euskal eleberritari buruzko ikerketak zertan diren

Aurreko puntuetan ohar batzuk egin ditugu narraziozko lanen kopuruak azken urteotan izan duen igoeraz. Edonola ere, euskal eleberraren bilakera dugunez gure ikerlanaren helburu, beharrezko iritzi diogu gure eleberrigintzaren ikerketak zertan ziren puntu honetan aipatzeari. Horretaz mintzatuko gara, hain zuzen, jarraian: gure eleberrigintzaz kaleratu diren hurbilpenez.

Has gaitzen ikuspuntu historiografikoa oinarri harturik euskal eleberrigintzaren aldiak zehazten ahalegindu diren ikerlanak aipatuz. Hauen artean, 1978an J. M. Lasagabaster irakasleak ezagutzera eman zuen lan ezaguna da nabarmentzekoa: "Euskal nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak" (ik. Lasagabaster, J. M.:1981). Lasagabasterrek euskal eleberrigintzaren bilakera esandakoak abiapuntu funtsezko bihurtu dira ondorengo kritikarientzat. Berari zor diogu euskal eleberrigintzaren sorrerari buruzko lehenengo zehaztapena eta XX. mendearen 70eko hamarkada artean nagusitu ziren poetika desberdinen deskribapena. Lasagabasterren aburuz, euskal eleberria ohiturazkoa izan zen XX. mendearen lehenengo erdiraino (1898-1957) eta modernoa 1957tik aurrera, alegia, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberritik aurrera. Honekin batera, bi aldi bereizten ditu euskal eleberri modernoari dagokionez: eleberrigintza existentzialistaren itzalak menderatzen duen aldia (1957-1969) eta zentzu hertsian moderno kontsidera dezakegun euskal eleberrarena (1969-...), hau da, *Egunero hasten delako* lanarekin hasten dena.

Geroagokoak dira Gotzon Garate idazle eta irakasleak Lasagabasterren sailkapenari egin zizkion zehaztapenak (ik. Garate, G.: 1983; 1985; 1989). Oro har donostiar kritikariaren planteamendua onartu zuela esan genezake, baina ohiturazko eleberrigintzari zegokion aldiari berrikuntza bat sartu zuen. Garateren aburuz, euskal eleberria ohiturazkoa izan zen bere sorreratik 1946 arte, urte horretan, J. A. Irazustak *Joanixio* argitaratu baitzuen eta 1957 arte iraun zuen euskal eleberri errealistari hasiera eman baitzion lan harekin. Ana

⁹ Euskal Editoreen Elkarteak 1998an argitara eman zuen *Euskal Idazleak. Escritores en Lengua Vasca. Basque Writers* katalogoan ere, narratzaileak gehiengo dira. Bertan datozen 26 idazleetatik, 9k poesiazko nahiz narratibazko lanak argitaratu dituzte eta 2k bakarrik poesia-lanak (Lekuonak eta Gandiagak).

Toledo irakaslearen doktorego-tesiak (ik. *Domingo Agirre. Euskal eleberraren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1989) eta geroagoko argitalpenek frogatu dutenez (ik. Toledo, A.: 1989, 1993), J. M. Lasagabaster zuzen zebilen ohiturazko eleberraren aldia 1957 artekoa zela adierazi zuenean. Ildo berari jarraitzen diote Jon Etxaideren eleberrigintzari buruzko doktorego-tesia egiten ari den J. Rojo irakasleak berriki egindako baieztapenek¹⁰.

Aipatutakoez gain, euskal eleberrigintza garaikidearen joera berriez mintzatu diren ikerlanak ere gogoratu beharko genituzke. Hauen artean, Jon Kortazarren *Literatura Vasca. Siglo XX (1990) eta XX. mendeko euskal literatura (2000)* edo Iñaki Aldekoaren *Mendebaldea eta narraziogintza (1998a)*. Biak saiatzen dira 1976az geroztikako eleberrigintzaren irakurketa konparatzailea egiten, nobela-moten sailkapena (ik. Kortazar, J.: 1990) hamarkadaka antolatutako hurbilpenarekin uztartuz.

Hurbilpen historiografikoekin batera, euskal eleberrigintzaz argitaratu diren lan kritikoak ere aipagarriak dira, besteak beste 1970eko hamarkadan argitaratu ziren zenbait lan ezagun: I. Sarasolaren *Txillardegia eta Saizarbitoria-rena nobelagintza (1975)* edo K. Otegiren *Pertsonaia euskal nobelagintzan (1976)*. Lehenengoan bi eleberrigileen poetikak konparatzen dira, eta Saizarbitoria-rena modernotasunaren eredu kontsideratzen. Otegik, berriz, zenbait euskal eleberritako pertsonaiak konparatu zituen liburuaren sarreran ageri den hurbilpen teorikoaren ildotik. Euskal eleberrigintzari buruzko azterketa berriagoi dagokienez, 1989an A. Toledok argitara eman zuen *Domingo Agirre. Euskal nobelaren sorrera (Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo)* doktorego-tesia-oren ostean, S. García Trujilloren *La novela costumbrista de Domingo Agirre (Desclée de Brouwer, Bilbo, 1993)* eta *Ohiturazko euskal literatura (Mensajero, Bilbo, 1995)* azpimarratu beharko genituzke. Azken biok, egileak 1989an ikuspuntu semiotikoz bideratutako doktorego-tesia-oren emaitzatzat har genitzake. Era berean, aipagarriak dira *Auñemendiko lorea (1898)* nobelaren men-

¹⁰ ik. Rojo, J., 1999, "Yon Etxaideren idazlanak: historiatik literaturara", *Jakin* 110, 1999ko urtarila-otsaila, 37-48:

Guzak horrela, Yon Etxaidek, berriz, ez dio ohiturazko nobelaren ereduari eusten, eta nobela historikoa aukeratzen du bere kontakizunak garatzeko. [...] Hala ere, Yon Etxaide ez da guztiz libratzen Domingo Agirrek ezarritako eruedetatik eta bere idazlanetan nekazari mundua [...] eta, aurreko nobeletan bezala, kontakizunean parte hartzen duen narratzaile orojakilea ere agertzen dira. (39. or.)

Nobela honek ohiturazkoekin dituen harremanak kontuan harturik, Jon Kortazarren iritzia jarraituz, nobela errealistaren hasieran edo mugan dagoela esan daiteke, baina noski, garai hartan Espainian nagusi zen errealismoarekin zerikusirik izan gabe. (43. or.)

deurrenean Euskaltzaindiaren ekimenez Zumaian egin ziren ekitaldien fruitu diren artikuluak (ik. *Eusker*a, 1999,1, 365-385).

Horiekin batera, zenbait eleberrigileri buruz kaleratu diren azterketa luzeagoak gogora ekarriko ditugu. Hala nola, 1991ko Santiago Onaindia Bekari esker R. Mielgo Merinok idatzitako *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)* (Amorebieta-Etxanoko Udala, 1995), Jon Kortazarrek paratutako *José Manuel Etxeita* (BBK, Bilbo, 1999) edo M. J. Olaziregik prestatutako *Bernardo Atxagaren irakurlea* (Erein, Donostia, 1998) eta *Ramon Sazarbitoriaren unibertso literarioa* (Labayru Ikastegia, Bilbo, 2001).

Eleberrigileak ez ezik ipuingileak ere aztertzen dituzte *Hegats* aldizkariaren 4. (1991) eta 8. (1994) aleek. Era berean, narratibazko nahiz poesiartzko lanak ditu aztergai *Ínsula* aldizkariak 1998ko azaroan argitara eman zuen ale monografikoak. “Letras vascas, hoy” titulupean, Bernardo Atxagaren obra, Andu Lertxundi eta Sazarbitoriaren nobelagintza, Sarrionandiaren literatura, Juan Mari Lekuona, Mikel Lasa, Xabier Lete, Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxagaren poesia, azken urteotako ipuin eta itzulpengintza, haur eta gazte literatura eta emakumezkoek idatzitako euskal literatura aztertzen dira. J. Kortazar eta M. J. Olaziregik zuzendutako ale honek, ikuspuntu, metodologia eta irizpide gaurkotuz bideratutako artikuluak biltzen ditu.

Atal hau bukatzeko, azken urteotan Labayru argitaletxearen “Kaierak” bilduman argitara eman diren zenbait ikerlan aipatuko ditugu. Bilduma honen xedea euskal egile nahiz obrei buruzko kritika lanak biltzea da, eta argitara eman diren ikerlanei buruzko bibliografia eskaintzea. L. Otaegiren *Bernardo Atxaga. Egilearen hitza* (1999) edo Iratxe Gutierrezen *90eko hamarkadako narrativa berria: Literatur Kritika* (2000) lanak ildo horretatik doaz: kritikariak egile horiei buruz kaleratutako kritika eta iruzkinak jasotzen dituzte.

3. Euskal eleberriaren bilakaera XX. mendearen erdia arte

a) Eleberria, eleberri laburra, ipuina, ipuin luzea...

Aurreko ataletan esan dugun modura, gure ikerlanak euskal eleberriaren bilakaera aztertu nahiko luke. Eleberriarena, ez euskal ipuingintzak arretarik merezi ez duelako, gure ikerketari mugak jartzearen baizik. Genero narrati-boen artean ipuingintzak eleberriarekin batera gaur egun lukeen protagonismoa ukatu gabe ere, ikerlan honen mugak gaindituko lituzke ipuinak azken urteotan izan duen ugaltze eta aberastearen berri emateak. Horregatik, ipuin-liburuak aipatzen ditugunean eleberrigile ere badiren egileen bibliografia osatzeko aipatuko ditugu. Alegia, idazleen ibilbidea osotasunean deskribatzeko asmoz bakarrik aipatuko ditugu ipuin-bildumak.

Hori guztia esan ondoren, eleberriaren eta ipuinaren arteko muga gero eta ilunagoez hitz egin beharko genuke jarraian. *Eleberria, ipuina, eleberri laburra* edo *ipuin luzea...* guztion ahotan dabilzan terminoak dira horiek. Hala ere, non dago euren arteko muga? Ez da erraza galdera honi zehaztasunez erantzutea. Testuaren neurria, fikzio-mota (errealista, fantastikoa), irakurketa intentsitatea, erritmoa... behin eta berriro aipatzen diren alderdiak dira narraziozko genero hauen arteko mugak definitzeko garaian. Ondorengo lerroetan ikusiko dugunez, termino bakoitzak bere bilakaera jakina du eta ikuspuntu aniztasuna da nagusi horietako bakoitza definitzeko garaian. Hau xe izango dugu hizpide, laburki bada ere, jarraian: *eleberriak, ipuinak* edo *eleberri laburrak* definitzeko erabili diren hurbilpenetatik atera daitezkeen ondorioak.

Eleberriari dagokionez, XX. mendean argitara eman diren kritika-lan interesgarriak aztertzea ezinbestekoa zaigu genero narrati-bo honen inguruko azterketa teorikoen bilakaeraz jabetzeko (ik. Sullà, E.: 1996). Jakina de-

nez, dela generoari berari eman zaizkion izenengatik (*novella*, *romanzo*, *nouvelle/roman*), dela luzera edo fikziozko edukiek definizioan izan zuten garrantziagatik, eleberri hitzarekin adierazten denaren inguruko bibliografia eta eztabaidak ugariak izan dira. E. M. Fosterren definizio ezagunetik hasi (“Eleberria luzera jakineko fikziozko prosa da; hau da, 150.000 hitz inguru dituen testua”) eta Bajtin, James, Gide, Benedetti, Sábato edo Kunderak eman dituztenetara, gauza bat da etengabe argi geratzen dena: generoaren beraren izaera malgua, edo, Barojak zioenari jarraiki, historian zehar generoak bereganatu dituen forma anitzak. Eta zail bada eleberriaren beraren definizio adostu eta zehatz batera iristea, zail da, halaber, generoak bere baitan hartzen dituen tipologiari berri ematea.

Hala ere, Sullàk dioskun modura (1996: 14), eleberriak sailkatzeko hartu diren irizpideak honako ezaugarri hauen arabera laburbilduko genituzke: ezaugarri formalen araberrako tipologia (gutun-eleberriak eta foiletioiak), edukien araberrako tipologia (sentimenduzko eleberriak, heziketa eleberriak), pertsonaien araberrako sailkapenak (zaldun eleberriak eta eleberri pikareskoak), eta irudikatzen duten giroaren araberrakoak (eleberri beltza, zientzia fikziozkoa, fantasiakoa). Kontuan izatekoa da XVIII. mendeko Ingalaterran hasiera izan zuen eleberri modernoak XIX. mendean erdietsi zuela urrezko aroa Errealismoaren eskutik eta krisi sakona izan zuela mende amaieran Naturalismoaren sorrerarekin. Orduan gertatu zen *Modernism* ingelesaren jarraitzaile kontsideratzen diren XX. mende hasierako eleberri-gile handien ekarriek eragindako iraultza, Proust, Joyce, Woolf edo Faulkneren eskutik eleberrigintzaren oinarriak astindu zituen. Orduetik hona, zernahi aldetatik begiratuta ere, garaiaren arabera aldatuz eta egokituz joan da Hegelek epika burges moderno deitu zuen narraziozko genero hau.

Eleberriaren sendotze prozesuak, *eleberri laburrarenarekin* ere bateragune ugari ditu. Beste hizkuntzetan *novela* (portugesez), *novella* (italieraz; ingelesez), *nouvelle* (frantsesez), *novela corta* (gaztelaniaz) edo *novelle* (alemanieraz) deitua, eleberriaren eta ipuinaren arteko generoa dela esango genuke. Boccacciok eta bestek *novella* zeritzen XIV. mendean idatzitako testuei, hau da, prosazko kontakizun laburrei; kontakizun haiek entretenimendua bilatzen zuten abentura edo gertakari heroikoen kontaketaekin. Halarik ere, XVIII-XIX. mendeen artean garatu zen indarrez genero hau eta orduan erdietsi zituen luzerari nahiz idazkerari zegozkion berezitasun nagusiak. Ordurako, ipuingintzak, bereziki eleberri gotikoaren arrakastaren eraginez, gai eta kontamolde berrietara errenditutako narrazioak proposatzen zituen. Esparru britainiarretik beste herrialde batzuetara hedatu zen ipuingintza eta XIX.

mendeko maisuekin erdietsi zuen gailurra (ik. Hoffmann, Poe, Pushkin, Txekhov, Maupassant...).

Eleberrigintza laburrari dagokionez, aipagarria da hasieran egile alemaniarrek izan zirela zaleenak baina astiro-astiro beste herrialde batzuetara ere hedatuz joan zela. Oinarrian, luzera zehaztugabeko testu narratiboa dela esango dugu, gertakari, arazo edo egoera zehatz baten inguruan antolatutakoa, suspense edo amaiera harrigarriekin irakurlea asalda lezakeena eta askotan sinboloa motibo gisara erabili ohi duena. G. Sobejanok honako ezaugarriok egozten dizkio eleberri laburrari:

1. Ipuina baino luzeagoa da eta haren antzera, kontzentrazioa, intentsitatea, bilatzen du.
2. Gertakari aipagarri baten kontakizunak osatzen du testuaren gune tematikoa.
3. Testuan etengabe errepikatzen dira nabarmendu nahi diren gai edo motiboak.
4. Une kritiko edo gertakari erabakigarri batek pertsonaia nagusiaren lehenaldia eta etorkizuna baldintzatzen ditu.
5. Batzuetan objektu edo sinbolo baten inguruan harilkatzen da trama nagusia.
6. Intentsitatea bilatzen da.

Ikusten denez, aipagai ditugun beste bi generoen, ipuinaren eta eleberraren, antz handia du eleberri laburrak. *Ipuinarekin* honako zerrenda honean aipatzen diren parekotasunak dituzte: narrazioa pertsonaien eta giroen deskribapenari gailentzen zaie; bigarren mailako pertsonaiak eta narrazioa luzatzen duten hausnarketa-pasarteak urriak izan ohi dira; teknika eta tonu antzekoak dituzte... eta, batez ere, emozio jakin bat eragin nahi da bi generoetan. Desberdintasunei dagokienez, berriz, bistakoa da luzera dela bi generoen arteko alde nagusia. Hamar-hamabost orriko testu bat eleberri laburtzat har ez daitekeen moduan, berrogeita hamar orrikoa ezin ipuin kontsideratu. Hortik aurrera, zail da kopuru zehatzik ematea, eleberri laburra 250 orri artekoa ere izan baitaiteke zenbait kritikariren aburuz.

Orobat, eleberriarekin konparatuz gero, luzera litzateke eleberri laburraren ezaugarri bereizgarriena. Horrekin batera, bi generoen xedeak ere arrunt desberdinak direla esaten dute kritikariek: eleberriak errealitate bat, unibertso sinesgarri bat eraiki nahi du, xeheki deskribatua eta zehaztua; eleberri laburrak, aldiz, errealitatearen alderdi, ezaugarri edo zatiren batean

jartzen ditu bere begiak. Deskribapenen nolakotasuna genuke bien arteko beste alde bat: deskribapen ugariagoak eleberrian, urriagoak eleberri laburrean. Honek guztiak tempo arinagoa eragiten dio eleberri laburrari, erritmo azkarragoa, irakurlearengan eragin nahi den emoziora bideratutako erritmo arina. Beraz, eleberriak zehaztasuna, detaileetan kontzentratutako unibertso literarioa bilatzen du, eta konkretutasuna maite du eleberri laburrak, deskribapen, elkarrizketa edo errepikapenak murriztetik datorkion trinkotasuna.

Hau guzti hau esan ondoren, gure lan honetan euskal eleberriak nahiz eleberri laburrak aztertzeke asmoa dugula esan beharra dugu. Ikusi den modura, bien arteko mugak eztabaidagarriak izanik ere, ipuinaren intentsitatea eta eleberriaren patxada bilatzen duten testuak, hots, *eleberri laburrak* nahiz *eleberriak*, izango ditugu aztergai.

b) Euskal eleberrigintzaren sorrera eta garapena XX. mendearen lehen erdian. Ohiturazko eleberrigintzaren gailentasuna

Euskal eleberrigintzaren jatorriaz egindako azterketa gehienak Koldo Mitxelenaren (1960: 14) hitzak errepikatuz hasten dira:

Entre nosotros hay que situar en el último decenio del siglo pasado las primeras señales manifiestas de la aparición de un espíritu nuevo -prefigurado ya en unos cuantos precursores- que había de transformar en muchos aspectos las características de la literatura. Ya no es la poesía el único género cultivado desinteresadamente; desaparece el antiguo predominio de las obras de edificación y formación religiosa, aunque desde luego el fondo de todo lo que se escribe sigue siendo estrictamente católico [...].

Eleberria, oro har, genero berantiarra da gainerako generoen aldean, baina euskal literaturaren kasuan haren jatorria XIX. mendearen amaiera arte atzeratu zen, orduan, Mitxelenak aipatzen duen espiritu berria agertzean, egon zirelako fikziozko prosa berria sortzeko baldintza sozio-literarioak¹. Bigarren gerra karlistaren ondoren foruak galdu zirenean sortu zen kritikak euskal literaturaren «berpizkunde» deitu duena (*Pizkundea* ere esan zaio, eta

¹ 1897 eta 1975 artean argitaratutako eleberri kopurua nahiko deigarria da: argitaratu ziren 72 eleberrietatik, 67 argitaratu ziren XX. mendean, eta haietatik 55 gerra ostean [ik. J. M. LASAGABASTER (1981: 348)].

garaiari eta edukiari dagozkion zenbait desberdintasun bazter utzita, *Renai-xença* katalanaren eta *Rexurdimento* galegoaren euskal bertsioa da). Are gehiago, I. Sarasolari (1976: 15) jarraituz, euskal literatura *stricto sensu* orduantxe sortu zela esan daiteke.

Euskal eleberrigintzaren aurrekarien artean, **Joan Antonio Mogelen** *Peru Abarca* aipatzen da (1820an idatzia, baina 1880 arte argitaratu gabea). Mitxelenarentzat hura izan zen euskaraz idatzitako lehen eleberrisaioa (ik. K. Mitxelena, 1968: 108), eta obraren azpi-izenburuak zioen bezala –«*Baserritar bakarti baten eta Maisu Juan izeneko kale bizargin baten arteko elkarrizketa*»–, bi pertsonaien arteko elkarrizketek osatzen dute kontakizunaren hari xumea. X. Altzibarrek ere hauxe dio (1996: 331):

El doctor Peru Abarca es una obra sobre la lengua vasca, en forma de diálogo, principalmente entre el casero Peru y el barbero cirujano Maisu Juan, con una trama y diversos episodios o escenas, y diversas formas literarias complementarias (canciones, fábulas, refranes, traducciones de los clásicos latinos,...) escrito con la finalidad de persuadir a los cultos vascogados de la pureza, fecundidad y elocuencia de la lengua vasca.

Esan genezake elkarrizketen hezurdura narratiboa oso ahula dela eta beren garapen narratiboa ez dela eleberrizat hartzeko nahikoa (ik. Lasagabaster, J. M., 1981: 353-355). Hala ere, azpimarratzekoa da obra narratibo honen helburu nagusia ez zela erlijioso, ordu arte gertatu ohi zen bezala². Urte batzuk geroago, **Bizenta Mogel** J.A. Mogelen ilobak Esoporen alegien itzulpen-liburu bat argitaratu zuen, *Ipui onak* izenekoa. Liburu horren argitalpenak nolabaiteko berrikuntza ekarri zuen, zeren eta, bere helburu didaktiko eta moralista gorabehera, euskarazko haur eta gazte literatura sortzeko zimenduak ezarri baitzituen (ik. Etxaniz, X.: 1997); gainera, gizonak nagusi ziren tradizio literarioaren barruan emakume baten lehen argitalpena izan zen³. Emakume gaztea zen Bizenta, eta, gainera, kultua (latina, gaztelania eta euskara zekizkielako); egileak berak liburuaren hitzaurrean dioskun modura, garai hartan desegoki edo arrarotzat har zitekeen hori. Esandakoaz gain,

² I. Sarasolak bere *Historia social de la Literatura Vasca* (1976: 183) liburuan erakutsitako datuak nahiko esanguratsuak dira: 1545 (euskarazko lehen liburua argitaratu zen urtea) eta 1879 bitartean argitaratutako euskarazko 101 liburuen artean, lau bakarrik har daitezke benetan literarioztat. Argitalpen produkzio hark benetan bilatzen zituen helburuak ez ziren estetikoak, erlijiosoak baizik, gehienetan.

³ ik. OLAZIREGI, M. J., "Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa." in AA.VV., *Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra* (argitaratzean).

A. Toledo liburu horren garrantzia nabarmentzen saiatu da, narrazio-mota berri baten eredu delakoan eta irakurketa literarioago baten ereduare badelakoan, nahiz oraindik helburu estetiko zorrotzetatik urrun egon. *Ipui omac* abiapuntua izan zen: alegia egile sorta bat agertu zen harrezkero, kasu gehienetan forma nagusia poesia izan arren.

Pixkanaka euskal literaturan prosa berri bat sortzen ari zen, eleberriaren generotik urrun samar artean, baina hura finkatzeko oinarriak ipintzen ari zena. 1870ean, **J. B. Daskonagerrek** euskaratu egin zuen bere *Les échos du pas de Roland*, jatorriz frantsesez idatzia, *Atheke gaitzeko oihartzunak* izenburua emanda. Daskonagerren eleberriak ez zuen jarraitzaile askorik izan euskal idazleen artean, eta 1876 osteko literaturaren berpiztean, J. Juaristik (1987b) baieztatzen duen bezala, batik bat espainieraz idatzi zen. Lehen euskal eleberria sortzeko aitzindaritzat jotzen dira **Juan Bautista Elizanbururen** *Piarres Adame saratarraren zenbait historio Laphurdiko eskuaran* (1888) eta **Resurrección María Azkueren** *Bein da betiko* (1893), kritikarien arabera, autore honek euskararen historiari egindako ekarria euskal literaturaren historiari egindakoa baino handiagoa izan bazen ere. J.B. Elizanbururen eleberri laburrak narrazio sorta bat agertzen du –Piarres Adamek kontatuak–, Adamek Pello gaztearekin batera Olhetako jaietara egindako bidaian zehar jazotako gertakariak aberastua. Testuaren egiturak erraztu egin zuen hasieran zatika argitaratu izana 1886-1888 urteetan.

Esan genezake XIX. mendearen hondarrean sendotuz joan zela euskal eleberriaren sorrera ekarri zuen egoera sozio-kulturala. Garai hartan gertaturiko industrializazioarekin batera, eskolatzeta tasa igo zen eta zenbait literatur aldizkariren sorrerari esker irakurle kopurua ere areagotu egin zen. Kalkuluen arabera, 1876 eta 1936 artean 140 inguru aldizkako argitalpen sortu ziren (almanakak, astekariak, urtekariak...), garai hartako kultur bizitasunaren adierazgarri. Orduko zenbait aldizkari aipatzearren, hortxe dauzkagu, *Euskal-Erria* (1880-1918), *Eskualduna* (1887-1944), lehen euskal astekaria, 30 urtean Jean Hiriart-Urruti kazetari lapurtarra zuzendari izan zuena, *Euskaltzale* (1897-1899), *Ibaizabal* (1902-1903), *Euskal Esnalea* (1911-1936), *Euskalerriaren alde* (1911-1931), *Euskeria* (1919), *Yakintza* (1933-1936), *Antzerti* (1932-1936), *Euzko Deya* (1916-1923), *Zeruko Argia* (1919-1936), *Argia* (1921-1936), *Gure Herria* (1921-1939), *Euzkadi* (1901-1915; hiruhilabetekari gisa sortu eta hilabetekari bihurtu zen gerora), *Ekin* (1932-1936)... Deigarria da hainbat emakumezko idazlek parte hartu zuela argitalpen horietako batzuetan, hala nola *Euskal-Esnalea* eta *Euskalerriaren alde* aldizkarietan. M. Atxagak *Euskal Emakume Idazleak (1908-1936)* (Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1997) lanean egiaz-

tatu duen bezala, emakume idazleen zerrendan zeuden, besteak beste, Rosario Artola, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, Tene Muxika, Julia Gabilondo, Maria Pilar Lekuona eta Julene Azpeitia.

Egile horien lanak azertu ditu Missouriiko Unibertsitatean (Columbia-EEBB) Maite Nuñez Betelu donostiarrak berriki aurkeztu duen doktoregotesian: *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* (2001). Oraindik argitaratu gabe dagoen lan honen bigarren atalak *La defensa cultural del ideal político (1900-1939)* izenburu deigarria du eta hona hemen zer esaten duen, laburbilduta:

1. Euskal emakume idazleen lanei dagokienez, hogeigarren mendearen lehenengo berrogei urteak benetan emankorrek izan ziren. Nazionalismoaren deiarri erantzunez, emakumezkoek euskararen defentsan eta hedapenean protagonismo itzela izan zuten. Orduan hasi ziren kalelatzen emakumezko idazleen hainbat poema, ipuin eta antzerki. Antonio Elorzak gogoratu duen bezala, nazionalistek euskal emakumeen baitan, euskal amen baitan, uzten dute euskararen eta erlijioaren transmisioaren ardura.
2. Garai hartako egileen artean, Rosario Artolaren lana gogoratu beharko genuke lehenengo, 1889-1918 bitartean 40 poema eman baitzituen argitara *Euskal-Erria* aldizkarian. Harekin batera, mendearen lehenengo hamarkadan, ideologia nazionalistaren itzalean antolatutako lanak kaleratu zituen Karmele Erraztik. Harkaitz Canoren aburuz (ik. *Emakumea euskal antzerkian*, Kultura Saila, Gasteiz, 1997), Katarine Eleizegiren *Garbiñe* (1916) antzerkiari zor diogu euskal teatro modernoaren hasiera. Eleizegiren lanak nazionalismoaren itzalean sortuak izanik ere, bazuen testuarekiko ardura estetikorik. Haren ondoren, hogeiko hamarkadako egile ezagunena Tene Mujika izan zen, eta 1930eko hamarkadan sendotu zen Sorne Unzueta ibilbidea.
3. Aipatutako egileez gain, hogeiko hamarkadakoak dira joera tradizionalistagoari jarraitzen zion Maddi Elissage eta herri ipuinen ekarriaz baliatu ziren Errose Bustintza eta Maddi Ariztia. Politikaren arloari dagokionez, urte horietan sortu ziren *Emakume Abertzale Batza* (1922) Bilbon, edo *Begiraleak* (1934) Iparraldean. Espainiako Gerra Zibilak eta Bigarren Mundu Gerrak, ordea, mugimendu hau guztia eten egin zuten.

Nuñez Beteluk tesiaren ondorioetan dioskun modura, erlijioak eta nazionalismoak zehaztu zuten euskal emakume idazlearen lanen ildoak. Euskararen

aldeko defentsa erlijioaren defentsaren barnean kokatzen da eta Ama Birjina bihurtzen dute euskaldun ama zintzoentzako eredu. Horixe baita, hain justu, emakumezkoek ingurune honetan zuten papera: fede katolikoaren eta abertzaletasunaren berme izatearena. Nazionalismoak amak goraiatu egiten ditu, euren eskuetan uzten baitu belaunaldi berrien heziketa. Ondorio hauen harira, gogora ekar dezagun Joseba Gabilondok 1998an *Ínsula* aldizkarian argitaratutako artikulu interesgarria, zeinetan emakumezko idazleek euskal literatur sisteman duten gune ez zentrala aztertu ondoren, ideologia nazionalistak emakumezkoen onartzen dien rol bakarra salatzen duen: amaren rola, hain justu.

Emakume idazleok guztiok eta urte haietako aldizkarietan parte hartu zuten gainerako egileek garai hartako egoeraren irudi baikorregia eman badiezagukete ere, argi dago orduko irakurle kopurua ez zela uste zitekeen bezain handia. Euskal irakurleak ez zeuden orduan sortzen ari ziren eleberri eta narrazioek eskatzen zuten irakurketa isil eta intentsibora ohituta, eta, eskolatzea batez ere espainieraz zenez, zaila zen euskal irakurleen kopurua areagotzea. Dena dela, XIX. mendearen amaieran sortutako euskal eskola bakanei Diputazioek 1920tik aurrera abiarazi zituzten auzo eskolen eta 1920ko eta 1930eko hamarkadetan ugalduz joan ziren ikastolen ekarria gehitu zitzaizkien. Euskararen irakaskuntzan egiten ari zen ahaleginaren adibide ditugu I. Lopez de Mendizabalek 1907tik aurrera argitaratutako liburuak, haien artean aipagarrienak *Xabiartxo* (1925) eta *Umearen laguna* (1920).

1897an *Euskaltzale* aldizkaria sortzeak beste bulkada bat eman zion euskal prosaren garapenari. 1898an, aldizkari horretan hasi zen zatika argitaratzen **Domingo Agirre**ren *Auñemendiko lorea*, J. M. Lasagabasterren aburuz (1981), lehen euskal eleberria. Eleberri historiko-erromantikoa da, eta Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* obrarekin zituen analogiak age-rian utzi zituen P. Lhandek jada 1923an. G. Garatek (1985) adierazi zuen moduan, testuak helburu didaktiko argia du, eta obraren literatur unibertsoa honako hiru ardatz hauetan mamitzen da: «abertzaletasuna, euskaltzaletasuna, kristautasuna». Lan horretan kristau emakume baten historia kontatzen zaigu: Riktrudis, Adalbaldo dukearen emaztea, bere egin nahi du kristautu gabeko Portun euskal buruzagiak. Eleberri historiko-erromantikoak markatzen du eleberriko fikzioaren hasiera, esan bezala, baina gero ohiturazko prosaren kutsu nabaria hartzen du, XX. mendearen erdialdea arte euskal literatur panoraman nagusitu zen prosarena hain zuzen ere.

Euskal abertzaletasunak XIX. mendearen hondarrean izaniko bultzada erabakigarria izan zen prosa berri haren helburu, gai eta are estiloetan ere

(ik. Sarasola, I.: 1976: 75). S. Arana Goirenen (1865-1903) ideia puristak irabazle suertatu ziren R. M. Azkue (1864-1951) eta Julio Urkijo (1871-1950) filologoaren ikuspegi moderatuagoaren aurrean, eta horrek erromanikoaren kontaminazio sintaktiko eta lexikaletik libre zegoen hizkuntza hobestea ekarri zuen, baita garai hartako euskaldun gehien-gehientzat ulertezinak ziren neologismoak erabiltzea ere. Jeltzaleentzat zerotik abiatu beharra zegoen, klasikoak ahaztu beharra, «Jaungoikoa eta Lege-zarra» ikurrizarentzat baliagarri izango zen literatura idatzi ahal izateko. Ideologia eta iruditeria jeltzalearen eragina nabarmena izan zen garai hartako herri generoan, genero dramatikoan, argitaratzen ziren literatur testuen % 51 antzerki-lanak baitziren. Zenbait autorek, hala nola M. Soroa edo T. Altzagak, euskaraz irakurtzeko maila oso apala zuten irakurleengana iristea lortu zuten.

Idazle gehienak ohiturazko fikzioaz baliatu ziren ideologia jeltzalearen oinarrian zegoen ikuspegi idealizatu eta tradizionalista azaltzeko. Zubiaurre anaien edo Arrue anaien pinturan gertatu zen bezalaxe, euskal eleberria mundu idealizatu eta esentzialista bat islatzen saiatu zen, Euskal Herrian eratu zuten hiri industrialetatik oso urrun zegoen mundu bat. Akziorik gabeko eleberriak dira, zenbait irudi ohiturazkoz osatuak. Lasagabasterren arabera (1981), eleberri-mota honen ezaugarri nagusiak honako hauek lirateke: landa giroan kokatutako zenbait pertsonaiaren bizitzaren narrazioa egiten da, langileria ez da ia inoiz agertzen, eta, oro har, gatazka gutxi eta munta eskasekoak dituen mundu bat islatzen dute. Azken finean tesi-eleberria da, hiru ardatzen inguruan taxutua –fedea, abertzaletasuna eta euskalduntasuna– eta narratzaile ahalguztidun batek zuzendua eta kontatua. G. Garateren azterketak (1983) beste zenbait datu gaineratzen ditu, hala nola, nobelen sinpletasuna eta hizkuntzaren defentsaren kontzientzia autorearen kontzientzia literarioaren gainean egotea.

Domingo Agirre apaiza (1864-1920) izan zen garai hartako eleberrigile handia. *Auñemendiko Lore*arekin euskal eleberrigintzaren jatorria markatu eta *Kresala* (1906) eta *Garo*arekin (1912) gailurrera eramanez zuen generoa. Bietan saiatu zen «benetako» euskal tradizio ereduaren bizitza islatzen, baseria eta itsasoa, alegia. *Kresala* bizkaieraz idatzita dago, eta bertan Arranondoko –Ondarroa autorearen jaioterriaren transposizio literarioa– arrantzaleen bizitza eta ohiturak deskribatzen ditu. Protagonisten maitasun istorioaren narrazioak hari ahul bat eskaintzen du eleberrian agertzen diren koadroak lotzeko, eta hasieran *Euskal Erria* (1880-1918) aldizkarian atalka argitaratuenez, zenbait pasarte foiletoteknikari jarraituz idatziak ditu. Eleberriak herritartasuna defendatu nahi du, tradizioa, zibilizazio modernoaren eraso-

ren aurrean. Esan beharrik ez dago ideologia katolikoa oso presente dagoela Agirreren bi nobeletan, eta narratzaileak garaiko euskaldunen herri hizkera islatu nahi izanak autorearen planteamendu puristetatik urrundu egin zela erakusten du. Egia esan, Agirreren arrakasta elkarrizketen freskotasanari zor zaio, nahiz eta freskotasan hori, Lasagabasterrek dioenez (1985), mende erdi batean ez zuten aprobeztatzen jakin eleberrigile errealistek.

Hala ere, S. García Trujilloren (1995: 41) eta besteren baten iritzia alde batera utzita, esan ohi da *Garoa* eleberriak (1912) definitu zuela autorearen heldutasun narratiboa. Eleberri honetan Uribarriko (Oñati) Joanes artzainaren eta bere familiaren historia kontatu zuen Agirrek. Gipuzkeraz dago idatzita, eta euskaltasun tradizionalistaren azken hondarraren –baserri munduaren– kontakizun idealizatua da. K. Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan* (1976) bere liburuan, obraren oinarriko ezaugarriak deskribatu zituen, hots, geografiaz, moralez, hizkuntzaz eta ideologiaz definitutako bi munduren azalpena: bate-tik, euskal mendi eta baserriaren mundu idealizatua, euskal funtsaren eremu berezia, eta mundu urbanoa, bestetik, bertute abertzale zein moralik gabea. Ezaugarri horien alboan, Otegi bi ezaugarri azpimarratu zituen: pertsonaiek gatazkarik ez izatea (ez dute eboluzionatzen eta, E. M. Fosterren bereizketari jarraituz, pertsonaia lautzat jo daitezke) eta kontalari subjektibo orojakilea (mota autorialekoa, N. Friedmanen sailkapenaren arabera). Ezaugarri guztiok direla eta, euskal kritikariek Agirreren eleberriak Peredaren nobelekin (batez ere *Peñas Arriba* eta *Sotilezaren*) dituen lotura intertestualei erreparatu diete. J. Montesinosek Peredaren eleberrigintzari aplikatzen dion termino bera erabiliz, Agirreren eleberriei *idilio eleberri* deituko diegu, joan den mendeko euskal arrantza eta artzainen bizitza islatzen duten eleberriak izaki.

Domingo Agirreren ekarrien ondoren, euskal eleberrigintzak hark mar-katutako ildotik jo zuen. Hala gertatu zen **Jose Manuel Etxeitaren** nobelen kasuan (1842-1915). Autore honek Truebaren zenbait ipuin itzuli eta narra-tiba zein poesia landu zituen. *Josetxo* (1909) eta *Jaioterri maitea* (1910) nobe-letan ohiturazko lanen ildoari jarraitu zion, nahiz foiletoi eta abentura ele-berriaren zenbait osagai ere baduten. *Josetxoren* kasuan ijitoek lapurtutako seme baten historia kontatzen zaigu; semeak, gorriak ikusi ondoren, bizitzan arrakasta lortu eta gurasoak ezagutzeko parada du. J. Kortazarrek (1999: 38) esan duen moduan, «narrazio mistoa da hau: bertan biltzen dira asmakizu-na, autobiografia eta foiletoi eta abentura nobelen ekarpen aberatsa». *Jaiote-rrri maiteak* Ameriketako emigrazioaz dihardu, era oso idealizatu batean bada ere, eta amaiera zorionsua du honek ere. Bi eleberriek badituzte zenbait ezaugarri formal komun, hala nola ekintzen errepika eta nobelen interes

puntuak txandakatzea, eta antzekotasun estilistikoak ere badituzte, esaterako pertsonaien elkarrizketen tipismoa, neologismoen eskasia eta esaldi laburrak erabiltzea (ik. Kortazar, J.: 1990: 47)... Gerra Zibilaren aurreko ohiturazko eleberrigintzaren ikuspegia osatzeko, honako beste hiru aipamen hauek egingo ditugu: **R. M. Azkueren** *Ardi galdua* eleberria (1918), **Jean Barbieren** (1875-1931) *Piarres* eleberri folklorikoa (1926-29) eta **Pierre Lhanderen** (1877-1957) *Mirentxu* (1914) eta *Yolanda* (1921) eleberriak.

Eleberri horiek bezain handinahiak izan gabe, garai hartan argitaratu ziren ipuin labur ohiturazkoek haiek baino arrakasta handiagoa izan zuten euskal irakurleengana iristeko orduan. Sail horretan sar daitezke **Jean Etxepare**ren (1877-1935) *Buruxkak* (1910) kazetaritza-kronika eta *Berebitez* (1934) kazetaritza-erreportajea alde batetik, eta **Ebaristo Bustintza** «**Kirikiño**»-ren (1866-1929) *Abarrak* (1918) eta *Bigarren abarrak* (1930) ipuin laburren bildumak. Kazetaritzan ziharduten idazleek lan eskerga egin zuten garai hartako egunkari eta aldizkarietan; hori erakutsi dute X. Altzibarren azterketek (1997) Kirikiñori dagokionez, eta P. Xarriton (1992) eta P. Urkizuren (1995) Etxepareren eta Elissalderen kasuan, hurrenez hurren.

Kirikiñoren ipuinek ahozko narrazioa darabilte, eta umorezkoak dira. K. Mitxelenak berak goraiatu egin zituen autore bizkaitar honen prosaren ezaugarriak, bereziki «narratzaile sen berebizikoa, haiei esker maisulan xumeak marraztu ahal izan baititu, gai serio edo nahita umorezkoen baliatuz» (1960:155). Nahiz ohiturazko poetikaren barruan kokatu, eta horregatixe generoaren baldintza propioetara makurtu behar izan (narratzaile orojakilea, gutxi garatutako pertsonaiak, testuaren moraltasun eta didaktismoa, zenbait pertsonaia-tiporen ezaugarri topikoetan oinarritutako umorea), Kirikiñoren ipuinek, **Pedro Migel Urruzunoren** (1844-1923) *Ipuinak* (1930) eta *Pernando Amezketarra; bere ateraldi eta gertaerak* (1927) ezagunekin batera, badute merezi-mendurik; izan ere, prosa arin bat garatzen jakin zuten, eragin garbizaletik urrundua eta era honetako kontakizun tradizionalistak eskatzen zuen balizko irakurlearekin, landa giroko irakurlearekin, alegia, lotzen asmatu zuena⁴.

Errepublika garaian (1931-1936), berpizkunde literarioa gertatu zen Hegoaldean, poeten eskutik. Berritze poetikoa nagusi zen garai honen ai-

⁴ Zaïla da benetan garai hartan euskaraz idatzitako lan batek izan zezakeen irakurle kopurua kalkulatzeko. Hala ere, zenbait datuk gutxi zirela ematen dute aditzera, hala nola, Aitzolen hitzek, A. Toledo (1991: 29): "Aún los libros literarios más valiosos, con las poesías seleccionadas anualmente, apenas llegan a ser vendidos en el mercado unos trescientos ejemplares. No pasan de ese número, si es que llegan, los que espontáneamente, sin ser coaccionados, adquieren un libro en euskera. A esa conclusión nos ha llevado un atento estudio de varios años" (*Euzkadi*, 18-12-1934).

tzindari izan ziren X. Lizardi eta Lauaxeta autore sinbolista-ostekoak, eta zenbait literatur lehiaketa eta gertakari aipagarri izan ziren garai hartan. Azken finean, eta giro baikor eta ez hain itogarri baten babesean, euskarazko aldizkariak sortu ziren, baita euskarazko atalak ere egunkari arruntetan. Astekariaren artean, azpimarratzekoa da *Argiaren* kasua (1921-36), edo zenbait egunkaritarako –*Euzkadi* Bilbon, eta *El Pueblo Vasco*, *La Constancia* edo *El Día* Donostian– euskarazko atalak. I. Sarasolarentzat (1976: 150), *El Día* egunkariko (1930-36) euskarazko atalak –Aitzolek zuzenduak– garai hartan egunkariaren euskarazko atal gehienek izaten zuten marjinaltasuna gainditzea lortu zuen. Testuinguru horretan argitaratu ziren **Agustín Anabitartek** (1891-1981) *Usauri* (1929) eta *Donostia* (1933) eta **Tomas Agirrerren** *Uztaro* (1937).

Agustín Anabitartek (1891-1981), *Argia* aldizkariaren fundatzaileetako eta *Don Quijote* obraren zati baten euskaratzaileak, Euskaltzaindiaren Schuchardt Saria irabazi zuen *Usauri* eta *Donostia* eleberriei esker. Beti ere ohiturazko poetikaren alorrean kokatuak badira ere, zenbait berrikuntza nabarmen ageri zuten diskurtso narratiboaren mailan. *Usauri* (1929) lehen eleberriak kostaldeko herri bateko berezitasun eta ohiturak kontatzen dizkigu, eta narratzaile orojakilea erabiltzeaz gain, aurrekoetan baino sekuentzia objektiboagoak tartekatzen ditu. Zenbait narrazio-maila erabiltzeak eta pertsonaien hizkera heteroglosikoa transkribatzeak gerraondoko eleberri lirikoaren aitzindari bihurtu dute (ik. Kortazar, J.: 1990: 96). Alabaina, aipatzeko modukoa da teknika narratibo berri horien erabilera artean oso mugatua zela garai hartako eleberrigintza europarraren aurrerapausoekin erkatzen badugu. Kontatzen den istorioaren linealtasuna eta pertsonaien sendotasun eskasa liraterke, Kortazarren arabera, puntu ahulenak. Bigarren eleberria, *Donostia* (1931), hau ere saritua, eleberri historikoa da orobat, eta mende amaierako Donostia deskribatzen du, baina deskribapenak ez du inondik ere narbarmentzen gizakiari eta mundu modernoaren balioei dagokien histori-zitatea. Urte batzuk geroago, Anabitartek beste bi eleberri argitaratu zituen: *Poli* (1958), umezurtz bihurri baten bizitzaren deskribapena, eta *Aprika-ko basamortuan* (1961), zeinean autoreak 1954an Sahara basamortuan zehar egindako bidaia deskribatzen baitu. Halaxe mintzo zaigu G. Aulestia irakaslea *Aprika-ko basamortuan* eleberriaz (1997: 45):

A la manera de los románticos franceses (Th. Gautier (1811-1872), G. Flaubert (1821-1880), Stendhal (1783-1842) y P. Merimée (1803-1870)), que en el siglo XIX atravesaban rápidamente el País Vasco para cruzar la meseta castellana y llegar con ansiedad a Andalucía, [...] en busca de una

solución para curar su “mal du siècle”, el marino donostiarra [Anabitarte] buscaba un poco de agua para saciar su enorme curiosidad: “nik lurralde guztietarako gogoa izan det beti” (siempre me ha gustado viajar por todos los países, p. 7). Con estas palabras comienza esta novela [...].

Tomas Agirreri dagokionez (1898-1982), kultura handiko gizona izan zen, baita itzultzailea ere, W. Scott, S. Pellico edo G. Papinirena, besteak beste. Haren *Uztaro* (1937) eleberriak ere ohiturazko literaturaren ildoari jarraitzen dio, baina bere zama moralizatzailea Anabitarteren eleberrietakoa baino astunagoa da, eta bertara biltzen dira generoari dagozkion berezitasun formal guztiak: narratzaile orojakilea, pertsonai onen eta gaiztoen bereizketa (planteamendu manikeoa), eta abertzalekeria amorratua.

Gerra Zibilak ondorio izugarriak izan zituen Hegoaldeko euskal literatur produkzioan. Espainiar eleberrigintzaren kasuan, J. M. Martínez Cacherok «Gerra Zibilaren urte antzuak» aipatu zituen eta G. Sobejanok guda urteetan eleberri esanguratsurik argitaratu ez izana aipatu zuen, baina euskal kasuan ondorioak askoz dramatikoagoak izan ziren, ez bakarrik hildako eta erbeste-ratuengatik, baita irabazleek ezarri zuten errepresio itzelagatik ere. Izan ere, garai hartan debekatu egin ziren euskal izenak, baita hilerrietako hilobietako euskarazko inskripzioak ere, eta kalean, administrazioan, kulturaren... frankismoak zentsura zorrotza ezarri zuen. Gerra osteko belaunaldia euskal literaturako garrantzitsuenetako bat izan zela esan izan da, gehien behar zuena eman baitzion: jarraipena. Poesia izan zen generorik landuena, besteak beste, errazagoa zelako poema deslaidiak argitaratzea obra osoak baino, eta 1940 eta 1950 artean argitaratze jarduera normalizatua izatea ia-ia ezinezkoa zelako. Euskal eleberrigintzaren kasuan, bederatzi urte pasatu ziren gerra aurreko azken obra argitaratu zenetik (*Uztaro*, 1937)⁵ 1946an Buenos Airesko Ekin argitaletxean **Joan Antonio Irazustaren** *Joanixio* argitaratu zen arte⁶. Iberiar penintsulan 1950ean argitaratu zen lehen eleberria, **Jon Etxaideren** *Alos-Torra*a eleberri historikoa.

Erbesteko euskal literaturaren garaia dugu aipagai eta honako hauexek izango ditugu, hain justu, ondorengo lerroetako gai nagusiak: erbesteak izan

⁵ Gerra Zibilean zehar, *Egunan* (1937), erabat euskarazkoa zen egunkari bakarrean, Domingo Arrutiren *Loretxo* eleberri amaitu gabearen 11 atal argitaratu ziren.

⁶ Atalka halaber, J. P. Iracheten *Antton* eleberria *Herria* aldizkarian argitaratu zen. Arestian, 1990ean, P. Urkizu arduratu da liburu formatoan Etor argitaletxean argitaratzeaz. Eleberri ohiturazko honetan ere landen eta hiriaren arteko aurkakotasuna dago gaiaren muinean.

zituen aldien zehaztapena eta erbesteak euskal literaturaren bilakaeran izan zituen ondorioak. Horretarako, erbesteko literaturaren berezitasunez hitz egiteko, 2000ko azaroaren 6tik 9ra Donostian egin zen “Euskal Erbestera-tuen Kultura. Biltzarra” delakoan Txuma Lasagabasterrek emandako hitzal-diaz baliatuko gara⁷.

Erbestealdiak zehaztuz hasi zen Lasagabaster bere hitzaldian eta 1936tik 1939rako erbesteratzeez mintzatu zen, Martin Ugaldek “El exilio en la litera-tura vasca: Problemas y consecuencias” artikuluan bereizitako aldiei jarrai-tuz⁸:

1. Lehenengo erbestea Gipuzkoan eman zen, gerraren hastapenetan Irundik eta Bidasoatik barna Nafarroako mugetaraino hedatu zen ihe-saldian.
2. Bigarren erbestealdia hurrengo urtean, 1937an, gertatu zen, ekainaren 19an Bilbo frankisten esku erori ostean.
3. Hirugarren erbestealdia da, ordea, garrantzitsu eta dramatikoena, gerra galdu ostean, nagusiki itsasoz gertatu erbesteratze mingarria.

Alabaina, Lasagabasterren iritziz, ez genuke euskal erbesteko literaturaren diagnostiko egokia egingo, baldin eta Euskal Herrian gelditu ziren egi-leek pairatutako zentsuraz eta zailtasunez hitz egingo ez bagenu. Horregatik, Gorka Aulestiari jarraituz⁹, kanpo eta barne erbesteaz mintzo da Lasagabas-ter eta ondorio honetara iristen da bere txostenean: Gerra Zibila pizten den unetik Francoren diktaduraren azken urteetaraino, euskal literatura guztia erbesteko literatura dela esan daiteke, biziraupenekoak kanpoan eta erresis-tentziakoa Euskal Herrian. Lehenengoari dagokionez, biziraupenekoari, nabarmentzekoak dira 1940ko hamarkadan atzerrian zeuden erbesteratuek martxan jarritako hainbat ekimen eta argitalpen. Telefono Monzonen *Urrundik* (1942) edo *Gudarien egiñak* (1944) Mexikon argitaratu ziren eta Buenos Airesen sortutako Ekin argitaletxeak kaleratu zituen J. A. Irazustaren *Joanixio* (1946) eleberria eta J. Eizagirrerren *Ekaitzpean* (1946). Geroago,

⁷ ik. LASAGABASTER, J. M., 2000, “Literatura del exilio e historia de la literatura vasca” (argitaraga-bea).

⁸ ik. *El exilio español de 1939, VI Cataluña, Euzkadi, Galicia*, Taurus, Madril, 1976.

⁹ ik. AULESTIA, G., 1997, “Un siglo de Literatura Vasca (III): Guerra Civil y Literatura Vasca en el exilio”, *Sancho El Sabio* 7, 13-77 eta AULESTIA, G., 1992, *Erbesteko euskal literaturaren antologia*, J. A. Ascunce, Donostia.

1950ean, Jokin Zaitegik *Euzko-gogoa* aldizkari garrantzitsua sortu zuen Guatemalan, eta, aurrerago, 1956-1959 bitartean, Biarritzera aldatu zuen. *Euzko-Gogoaren* 4.000 orrietan, garai hartako belaunaldi desberdinetako egileek hartu zuten parte: Orixe, Lekuona, Labaien, Onaindia, Etxaide, Krutwig, Mirande, Peillen, Txillardegia, Aresti... Erresistentziako literaturari dagokionez, berriz, esan dezagun 1940ko hamarkadaren amaieran hasi zela berriro ere euskal liburugintza berpizten. Horrela, 1948an *Egan* sortu zen; 1949an, Itxaropena Argitaletxea, S. Mitxelenaren *Arantzazu. Euskal sinismenaren poemaren* argitalpenarekin; 1950ean, Orixeren *Euskaldunak* argitaratu zen; eta 1952an, Kulixka Sorta sortu zen, 1973 arte euskarazko 70 liburu baino gehiago kaleratu zituen.

Esan bezala, **J. A. Irazustaren** (1881-1952) *Joanixio* (1946) eleberria dugu erbestean argitaratu zen lehena. Bertan, pertsonaia bat marrazten du Irazustak, arrazoi ekonomikoak zirela medio Argentinara erbesteratu behar izan duena, eta Euskadira, bere aberri idealizatura, itzultzeko irrikan dagoena. G. Garaterentzat (1989), eleberri errealistaren ezaugarri guztiak ditu liburu honek: deskribapen zehatzak, heroi banakoa eta lagunarteko estiloa. A. Toledo irakaslearen arabera (1997), ordea, erbesteak ez dio inongo eboluziorik eragiten pertsonaiari eta, azken finean, pertsonaiaren deskribapena ohiturazko eleberrietan agertu ohi dena bera da obra honetan ere. Patuak aginduko balie bezala, istorioaren protagonistek beren herrira itzultzera bultzatzen dien indar baten mendean dihardute, baina bizitzea egokitu zaien bizitzaren gorabeherak ez dute egiazko eraginik beren psikologian. Ezaugarri berak izan zituen bere bigarren eleberriak, *Bizia garratza da* (1950), edo **José Eizagirre**ren (1881-1948) *Ekaitzpean* (1948) eleberriak. Azken bi hauek Gerra Zibilaren gaia jorratzen badute ere, beren planteamendua ez da errealista, ezta gutxiagorik ere, gatazkak ez baitu baldintzatzen ez narrazioa ez haren azpian dagoen ikuspegi manikeoa. Euskal eleberrigintza babesleku izan zen defendatu nahi zen ideologia esentzialista, klerikalista eta tradizionalistarentzat, baina ez zen garaiko euskal gizartearen kronika izan inolaz ere. Narratzaile orojakile bat nagusitzen da, bere iritziak adierazteko orduan inongo dudarik egiten ez duena, eta pertsonaiak agente hutsak dira, ez dute eboluzionatzen. Azken finean, kontzientzia modernoaren gorabeheren berri ez dakien mundu bat topatzen dugu eleberrietan.

Martin Ugalderen (1921) eleberriak iritsi arte ez zen euskal eleberrigintzan kontatu Gerra Zibilaren eta erbestearen dramaren gordintasun osoa. Autorearen ibilbide literarioari bere bizitzan jasan izan zituen hiru desertratzeez markatutako biografia gaineratu behar zaio. Bere burua abertzale

aitortu zuen hau bere belaunaldiko idazle laiko bakanetakoa izan da, eta euskal kultura eta nazioarekin konpromiso aktiboa izan du. Hala ere, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako ia 50 liburuek eta ez bestek egiten du beharrezko haren aipamena. Hasieran kazetaritza lanak argitaratu bazituen ere, laster hasi zen idazten ipuin-liburuak, eleberriak, narrazio biografikoak, saiakera, historia eta hizkuntzalaritzari buruzko lanak...

Ugaldek erbestean argitaratutako lehen euskarazko liburuak *Iltzalleak* (1961) eta *Umeentzako kontuak* (1966) ipuin-liburuak, eta *Ama gaxo dago* (1964) eta *Gurpegin aspaldi gertatua* (1965) antzerki lanak izan ziren. Denen artean, *Iltzalleak* ipuin-liburua nabarmenduko genuke: erbesteko Eusko Jaur-laritzaren Lehen Saria irabazi zuen, eta A. Lertxundi, I. Mujika Iraola, K. Izagirre eta X. Mendiguren Elizegi idazleen iritziz, hark markatu zituen euskarazko ipuin modernoaren hastapenak. Generoaren maisu handiak (Poe, Txekhov, Maupassant edo hegoamerikarrak, hala nola, Quiroga) dira Ugalderen eredu, eta haien gidaritzapean, ohiturazko lanen bidea alde batera utzita, iritsi zen Ugaldek berak «erresistentziaren ipuinak» esan zien lan hauek idaztera.

1969an Euskadira itzuli ondoren, bere euskarazko produkzioak gainditu egin zuen gaztelaniaz idatzitakoa bere bibliografian. Ibilbide berri honetan, 1973an argitara eman zuen *Itsasoa ur-bazter luzea da* (1973) eleberria nabarmendu beharko genuke lehenik. Eleberri honetan pertsonaia nagusiak duen tratamendu berritzailea azpimarratu nahi izan zuen Otegi bere ikerlanean. “Pertsonaia babesgabea” deritzon tipologiakoa dela diosku, egoera larri eta bitxian galduta sentitzen den pertsonaia, hain justu. Bere iritziz, pertsonaiaren babesgabetasuna, fikzioan kontaturiko egintzen bidez ez ezik, obraren alderdi formalen bidez ongi azaltzen da. Otegi aurreko eleberrietan agertutako zenbait pertsonaiarekin konparatzen du Ugalderena:

Bada heroi bazter utzirik beste euskal nobela batzuetan ere; Ameriketara joandako gure erbesteratuen bizitza kontatzen dutenetan alegia. J. M. Etxeitaren *Jayoterrri maitia*-ko edo J. M. Lertxundiren *Polli eta Pello*-ko pertsonaiek, esate baterako, egoera zailak jasan behar izaten dituzte; bakarrrik ikusten baitute beren burua, bazter utzirik. Tratamendu osoa, ordea, diferentea da. Pertsonaia horiek, beren zorigaitzak gainditu egiten dituzte, eta ongi amaitzen dute beren abentura. Ez da horrelakorik *Itsasoa ur-bazter luzea da* delako nobelan. (Otegi, K.: 1976: 194)

Mantal urdiña ipuin-liburua 1986an argitaratu zen. Zahartzaroa eta bakardadea gai nagusi dituen narrazio-bilduma hau teknika modernoek idatzita dago. *Bihotza golkoan* (1990) ere ipuin-liburu aipagarria da. Ibilbide hau osatzen dute Ugaldek euskaraz argitaratutako bi eleberrik: *Itzulera baten istorioa* (1989) [itz.: *Historia de un regreso*, Ed. Hiru, 1995] eta *Pedrotxo* (1993), Mirande Saria (1990) eta Domingo Agirre Saria (1993) irabazi zituztenak, hurrenez hurren. Haietako lehena, *Itzulera baten istorioa*, lan autobiografiko nahiko argia da, eta Gerra Zibil ankerrak euskal familia batean kultura zein familia alorrean eragindako erbesteratze eta deserrotzea du kontagai. Horretarako, narratzailea protagonistaren bizitzan oinarritzen da batik bat: Caracasen jaio-tako neska bat, 1945ean Euskal Herrira itzultzen dena. Gaztelaniazko bertsoaren kontrazalean agertzen den iruzkin laburrak egokiro laburbiltzen ditu obraren edukia eta bertuteak:

Historia de un regreso es la historia de un regreso imposible, porque la patria que añora el exiliado político no existe. Derrotado, ocupado, amordazado, su país va transformándose lentamente. Nada de lo que fue volverá a ser. Y ahí está el drama del exiliado, porque si vuelve, su patria ya no le reconocerá como hijo. Entonces añorará otro clima, otras costumbres, otra lengua, se sentirá también exiliado en su propio país. Sincera, desgarrada, Martín Ugalde supera la literatura testimonial de Joseba Eizagirre y Jon Andoni Irazusta gracias a su capacidad ficcionadora, cerrando el ciclo de la novelística del exilio de posguerra con una obra tierna y dura, entrañable y mordaz.

Pedrotxo (1993) obra, berriz, 1948-1950ean kokatzen da, eta bertan deskribatzen da protagonistaren bizitzaren ibilbidea: 1933an jaio-tako Pedrotxo gazteak zuzen-zuzenean sufritzen ditu gerra osteko banantze eta garraztasuna. Gure ustez eleberri hau humanoa da politikoa baino gehiago, eta errepresio frankistaren deskribapenak, batik bat, anai arteko gerra hark ekarri zuen giza eta gizarte hondamendia deskribatzen du.

Ugalderen errealismo testimonial gordinak aurrez aurre topo egiten du Irazustaren eta Eizagirreraren narrazioen ikuspuntu urrunarekin. Hori dela eta, ez da harritzekoa esan izan dena, hots, euskal eleberrigintzaren benetako drama bere bilakaera traumatikoa izan dela, ohiturazko poetiketatik poetika modernoetara igaro izana poetika errealistetatik pasatu gabe. J. M. Lasagabasterrek bere garaian (1982) baieztatu zuen bezala, lastima izan zen Pio Baroja idazlearen eredu hurbilak, adibidez, gure artean jarraitzailerik eduki ez izana.

Eta Barojaz ari garenez, haren euskaratzailetako bat ekarri nahi genuke gogora. **Jon Etxaide** (1920-98) idazleaz ari gara, *Las inquietudes de Shanti Andia* itzuli baitzuen 1959an. Autore emankor honek, itzulpen, biografia, drama, ipuin, artikulua eta abarrez gain, eleberrizko historikoak ere argitaratu zituen, berritzailetzat hartuak izan zirenak irrika lohiak nagusi ziren mundu bat sortu zutelako.

Jon Etxaideren eleberrigintzari buruzko doktorego-tesia burutzen diharduen Javier Rojo irakasle eta kritikariaren artikulua batez baliatuko gara haren bilakaera literarioaz hitz egiteko¹⁰. Rojok dioen modura, Etxaide da Espainiako Gerra Zibilaren ostean Euskal Herrian bertan agertu zen lehenengo euskal eleberrizko idazlea, 1950ean argitaratu eman zuen *Alos-Torrea* lanari esker. Alabaina, Jon Etxaidek argitaratu emandako lanetan egilea ez da guztiz libratzen Domingo Agirrek ezarritako ereduetatik eta nekazari mundua eta narratzaile orojakile iruzkingilea kausi ditzakegu bere idazlanetan. Honetaz gain, kristau fedeak izugarritzko protagonismoa du pertsonaiek bizi dituzten gatazken konponbidean. Rojoren aburuz, Etxaideren literaturaren oinarrian bilaketa dago, Espainiako Gerra Zibilak Euskal Herrira ekarri zuen tragediaren kausa sakonaren bilaketa. Eta tragediaren arrazoiak bilatzeko, historiara jotzen du eta euskaldunen arteko haserrearen lekukoak aurkitzen ahalgintzen da. Euskaldunen arteko batasunaren aldeko defentsa genuke, beraz, egilearen literaturaren oinarrian dagoen helburua.

Honako fase hauek bereizten ditu Rojok Etxaideren literatur produkzioan:

1. Lehenengo fasea 1950ean argitaratu emandako *Alos-Torrea* eleberrizko hasten da. Juan Venancio de Araquistáin *Gau-illa* leiendan oinarritzen den eleberrizko honek, aita bigarrenez ezkontzen zaionean Usoa izeneko umezurtz batek bizi dituen zorigaitzak kontatzen ditu. Aipagarria da eleberrizko bigarren argitalpenean, 1981ean kaleratu zen *Usoa Alos-torreko* izenekoan, Etxaidek kronologia aldatu egin zuela. Rojoren uste-tan, badira zenbait ezaugarri eleberrizko hau alegietan oinarritutako eleberrizko erromantikoetatik aldentzen dutenak, hala nola, kronologia zehatza eta elementu fantastikoen urritasuna. Lehenengo lan honen balorazio gisara, eleberrizko bereizten diren bi mailen arteko lotura eskasa, hau da, istorioaren eta kontatzen diren gertaera historikoen arteko etena azpimarratzen du Rojok, eta Etxaideren ikaskuntza-prozesuan kokatzen lehenengo lan hau.

¹⁰ ik. Rojo, J., 1999, "Jon Etxaideren idazlanak: historiari literaturara", *Jakin* 110, 37-47.

2. Bigarren fasean eleberri bat, *–Eneko Agerroa (1981)–* eta hiru ekitaldiko drama bat *–Amaiur (1951)–* sartuko lirateke. Eleberriari dagokionez, VI. eta VII. mendeetako Euskal Herriaren egoera berreraikitzen ahalegintzen da Etxaide, Estornés Lasaren eta A. Xahoren lan batzuetan oinarrituta. Hala ere, egileak bertan adierazi nahi zuen tesia, Euskal Herria salbatzeko euskaldunok batu egin behar dugula, nabarmenegia suertatzen da irakurketan. Rojoren iritziz, eleberriak abenturazko nobela politizatuaren itxura du eta ez dago historiaren, pertsonaien eta tesiaren artean orekarik.
3. Hirugarren fasea ere eleberri batez *–Joanak joan (1955)–* eta drama batez *–Markesaren alaba–* osatua da. Euskaltzaindiak saritutako eleberri hau urrun dabil ohiturazko eleberrietan marrazten den mundu idiliko-tik. *Joanak joanen* Pierre Topet «Etxahun» XIX. mendeko poetaren bizitza kontatzen zaigu eta, nahiz eta batzuen arabera obra likitsa izan, gertakariak ikuspuntu moraletik aztertzen dira, eta hau nabarmentzen da protagonistak amaieran bizi duen aldaketarekin. Baina eleberriaren punturik ahulena, beharbada, pertsonaiei ematen dien trataera da, gertakarien kontakizunak ez duelako haien psikologiaren garapenik islatzen. Horri gaineratzen badiogu hariaren sinpletasuna edo kausalitate falta, K. Mitxelenak aipatu bezala, ezin ukatuko dugu oraindik ohiturazko poetikaren alorrean sartzen dela. Rojoren aburuz, *Joanak joanek* ez du zerikusi handirik aurreko eleberri historikoekin, eta, hori dela-eta, ohiturazko eleberrigintzatik gertuago dagoela esaten du eta Domingo Agirreri egindako omenaldi gisara kontsideratzen.
4. Azken fasean, Euskaltzaindiak saritutako *Gorrotoa lege* (1964) eleberria eta *Begia begi truk* (1962) antzerki-lana izango genituzke. Gaia, berriz ere, historikoa da; Erdi Aroko banderizoen arteko gerrak kontatzen dira idazlan hauetan. Sir Walter Scotten erduei jarraituz idatzitako *Gorrotoa lege* eleberri historikoa, euskal eleberri historikorik hoberena izan daitekeela dio Rojok. Bertan kontatzen direnak Mondragoeko erreketaren inguruan kokatzen dira, baina alderdi historikoaz gain, pertsonaia batzuen bizitza ere kontatzen zaigu bertan. Eleberri orekatuagoa da, beraz, *Gorrotoa lege*, historia eta istorioa elkarri egokiro uztartzen asmatzen duena.

Jose Antonio Loidik ere (1916-99) *Amabost egun Urgain'en* eleberriarekin (1955) zenbait berritasun ekarri zizkion gaiari dagokionez garai hartako eleberrigintzari. Garbizalekeria orotik urrundua eta herri euskaran idatzia da

Amabost egun Urgain'en, euskaraz idatzitako lehen polizi eleberria. Egia esateko, Loidiren teknika E. A. Poe generoaren maisu handiak erabilitakotik urrun dago, zeren eta elkarrizketen ahultasunari metairuzkinak gaineratu behar zaizkio, eta horiek suspensea deuseztatu eta erritmoa mantsotu egiten dute.

Pixkanaka, 1950eko hamarkadara hurbilduz joan gara, eta urte haietan agertu zen idazle talde berria urrats erabakigarria izan zen euskal eleberrigintzaren modernizazioan. Lehen esan bezala, 1950ean, Jokin Zaitegik *Euzko Gogo*a aldizkaria (1950-1959) sortu zuen Guatemalan; bertan argitaratu ziren Ameriketan eta European erbesteratutako euskal idazleen lanak, eta euskarri garrantzitsua izan zen belaunaldi berrientzat. 1956an, aldizkaria Biarritzera aldatu zenean, bertako kideen artean haustura ideologiko eta generazionala gertatu zen; horregatik mintzatu zen J. M. Larrea «1956ko belaunaldiaz». Urte hartan bilera bat egin zen Arantzazun Euskaltzaindia berritzeko eta hizkuntz batasunaren arazoa eguneratzeko, eta urte hartakoa da, halaber, Parisen Jose Antonio Agirre lehendakariak bultzatu zuen *Congreso Mundial Vasco* deitua. *Euzko Gogo*a utzi zuten literato gazteak *Egan* aldizkarira pasatu ziren (esan bezala, 1948an sortua, baina 1954tik aurrera euskarazko kolaborazioak onartu zituen). K. Mitxelena filologoa zuzendaritza taldean egon zen *Eganen* bigarren garai hartan, eta idazle zein filologo belaunaldi berrien bultzatzaile ez ezik, euskararen batasunaren eragile nagusia ere izan zen.

J. M. Larrea eta J. Juaristi (1987b:109) bat datoz *Eganen* inguruan bildutako idazle taldeak belaunaldi baten ezaugarri guztiak dituela; izan ere, haien arteko adin, ideologia eta estetika desberdintasunak gorabehera, zenbait berezitasunek markatzen dute nortasun kolektiboa: haietako gehienen ama hizkuntza ez da euskara, agnostikoak dira, ideologiaz abertzale berritzaileak eta jarrera politiko askotarikoak. Bestalde, taldea osatzen dutenen artean kultura unibertsal zabala duten kideak nagusi badira ere, gehienek ez zuten unibertsitate-ikasketarik egin eta autodidaktak izan ziren. F. Krutwig, A. Irigoien, G. Aresti, J. San Martin, J. L. Alvarez Enparantza “Txillardegi”, T. Peillen eta J. Mirande sartzen ziren talde hartan; haien asmoa zen euskal literatura eguneratzea, europar literaturen proposamen modernoak gureari txertatuz, baina batez ere euskal literatura morrontza politiko, erlijioso edo folklorikotik askatzea, azken finean funtzio estetikoak nagusi zedin literaturan.

Aipatzen ari garen etapa horretan, eta garai hartan nagusi zen garbizalekeriatik urrun zegoen hizkuntz eredutik abiatuta, euskara kultura bideratzeko tresna izatea lortu nahi zen. Ildo berean, euskal bizitza literarioaren ire-

kitze eta eguneratze unea izan zela erakusten dute 1950eko hamarkadan egin ziren literatur itzulpenek (itzuliak izan ziren, besteak beste, Shakespeare, Baroja, Homero edo Juan Ramón Jiménez); joera hau sendotu egin zen ondoko bi hamarkadetan, Hemingway, Tagore, Ionesco, Cela, Brecht, Camus, Kafka, Stevenson edo Twainen itzulpen astiroei esker. Lehen esan bezala, Zarauzko Itzaropena argitaletxeak 1952an Kulixka Sorta bilduma sortzeak bulkada eman zion abian jarri nahi zen eguneratzeari eta aldizkari berrien sorrerari, hala nola *Jakin* (1956), *Karmel* (1950) edo *Anaitasuna* (1953), eta akuilu garrantzitsua izan zen kultur bizitza suspertzeko.

4. Euskal eleberri modernoa¹

1950eko hamarkadaren amaiera une erabakigarria izan zen euskal eleberrigintzaren modernizaziorako. Lehenago ere esan dugun bezala, euskal literaturaren kritikariek 1957an kokatu dute, J. L. Alvarez Enparantza “Txillar-degi”ren *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberri existentsialista argitaratu zen urtean, hain zuzen, euskal eleberrigintza modernoaren hasiera. Alabaina, aipatu nahi genuke, orobat, «modernitate» kontzeptu labainkorra, eleberrigintzara aplikatua, eztabaidarako eta jarrera elkarretatik nahiko aldendueta-rako motiboa izan dela gurean. Areago, zenbaitek bereizi egin dute modernitate tematiko bat, aipatu eleberri existentsialistarekin hasia, eta modernitate formala, Nouveau Roman frantziarretik hurbil dagoen Ramon Saizarbitoriaren *Egunero hasten delako* eleberria 1969an argitaratu zenean hasitakoa. Seguruenik bereizketa horrek eraman zuen Lasagabaster (1981) euskal eleberriaren bilakaera hementxe aipatutako bi garaietan sailkatzera: lehen aldiak 1957-1969 garaia hartuko luke barne, existentsialismoak markatua, eta bigarren aldia 1969an hasi eta gaur egun arte letorke, eleberrigintzan modernitatea behin betiko mamitu delarik.

Bat gatzoz M. Butorrekin «errealitate bakoitzari narrazio-mota bat dagoi-ola» dioenean (ik. *Sobre literatura*), eta horregatik uste dugu eleberri bakoitzak egitate nobeleskoa ulertzeko era berri bat, poetika berri bat daramala bere baitan. Horren arabera, eta gaurtik ikusita, ez da zuzena euskal eleberrigintza modernoaren bilakaera azaltzerakoan modernitate tematikoaren eta modernitate formalaren artean bereizketa gitea, bi alderdiak banaezi-

¹ Atal honetan nahiz hurrengoan datozen idazle garaikideen fitxa bio-bibliografikoak osatzeko, Felix Ibargutxi kazetaria Auñamendi Entziklopedia interneteratzeko prestatzen ari den lanaz baliatu naiz.

nak baitira egitate artistiko batean. Horrenbestez, zuzenagoa iruditzen zaigu *Leturiaren egunkari ezkutua* euskal eleberrigintzako modernitatea berez mugarrizten duela baieztatzea, bilatzen den poetikarekin bat zetozen estrategia narratiboak egokitu baitzizkion eleberri tipologia berri bati, existentzialistari².

Testuaren *formaren* eta *hondoaren* arteko bereizketa zaharkituari buruzko zehaztapena egin ondoren, «modernitate» terminoa zehaztu nahi genuke, kontzeptu hau estetika hagitz desberdinei aplikatu baitakieke. I. Aldekoak (1997) euskal eleberri modernoaren hasieraz hitz egiten zuenean, lehen heroi gatazkatsua hitz egiten zuen. Baina heroi gatazkatsua eleberri modernoaren ezaugarrietako bat besterik ez dugu, finean, modernitatea elementu ugariaren arabera definitu izan baita. Eta eleberriak, literatur genero guztien artean malgu eta aldakorrenak denak, modernitatea ulertzeko hainbat modu desberdin islatu ditu.

R. M. Albèrezentzat, hona zer den eleberri moderno: «besterik gabe “historia” bat» izan nahi beharrean, «behaketa, aitorten, azterketa» izan nahi duena; «gizakia edo historiako garai bat pintatzeko, gizartearen mekanismoa aurkitzeko eta, azkenik, azken xedeen arazoak planteatzeko asmo» moduan agertzen dena³. XIX. mendearen erdialdean hasitako modernitate hori ñabartu eta gainditu egin zuen uhin berri batek, *Modernism* izenekoak, zeinak formak ez ezik, eleberria ulertzeko modua bera aldatu baitzuen 1870etik

² Edonola ere, egia da garai hartako kritikak “benetako” modernitatea Saizarbitoriaren lanekin etorri zelako iritzia zabaldu zuela. Sarasolak idatzitako liburuan ez ezik (ik. *Txillardegiren eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, 1975), hainbat argitalpenetan ere defendatu zen uste hori. Pedro Alberdik berriki argitara eman duen *Satorrak baino lurperago* (Alberdania, 2000) saiakera interesgarrian, honako lekukotasun hauek jasotzen ditu garaioko eztabaida kritikoez:

Goihenetxe-Txillardegiren kolaborazioa urriaren 17ko zenbakian hasi zen. “Gazte naiz” orriaren estiloa halakoa izaki, Goihenetxe-Txillardegik kultur gaiak soilik jorratzen zituen, beste ezertan nabarmendu gabe. Hirugarren artikuluan, urriaren 31ko zenbakian, esate baterako, Frantziako nobela moderno hartu zuen hizketagaitzat. Goihenetxe-Txillardegik artikulua hartan François Mauriac-en laudorioa egiten zuen. Aldi berean, Robbe Grillet *nouveau roman* mugimenduko aita edo aitapontekoari buruz honako hau esaten zuen: “Robbe Grillet ez da nobelari bat, nobela-injeñeru bat baizik”.… Detalleak ez luke aparteko garrantzirik, baldin eta izen hura, Robbe Grillet alegia –eta Michel Butor eta Claude Simon, esate baterako–, *Hamaika pauson* hainbat aldiz espreski izendatuak eta beti mirespenez tratatuak agertu izan ez balira... Lau urte geroago, Saizarbitoriak bere lehenengo nobela argitaratu zuenean, kritikak *nouveau roman* kutsua atzeman zion berehala, eta euskal irakurleak *Egunero hasten delako* berri hark Txillardegiren nobelagintza gainditzen zuela epaitu zuen. Goihenetxe, berriz, 65eko urriari, François Mauriac eta Robbe Grillet-en arteko diferentziak markatzean, Txillardegik eta Saizarbitoriaren artekoak deskribatu eta aurreratu baizik ez zen egiten ari. (134-135. or.).

³ Aipatua in AGUIAR E SILVA, V. M., 1979, *Teoría de la literatura*, Gredos, Madrid, 201.

II. Mundu Gerraraino doan tartean. F. Nietzschek defendatu bezala –izan ere, haren filosofiak eragin erabakigarria izan baitzuen gure mendearen hasieran eratuz joan ziren planteamenduetan–, suntsitu egin behar da gero sortzeko. E. Pound poetak 1930ean jaurtitako *Make it New!* aldarriak aro modernoko hizkuntza eta forma jadanik hilak irauli nahi zituen. Artista ez zen gehiago moralista burgesa izango, aurkikuntzarako tresna independente baizik, eboluzio sortzailearen eroale. Garai hau erabakigarritzat hartzen da XIX. mendetik iritsitako eleberri-formen (batez ere errealismoaren) iraultzarako; garai horretan, azken buruan, Conrad edo Mannen ironia, Ibsen edo Pirandelloren tragikomedia, Eliot edo Joyceren parodia, Proust edo Woolfen fragmentazio estetiko edo Dostoievski edo Kafkaren absurdo existentziala giza dimentsio berri batez mintzatzen zaizkigu, gizakiarentzat erabat ulergarria izateari utzi dion mundu batez.

Euskal eleberrigintzaren kasuan, *Modernism* delakoaren modernitatea eta iraultza tekniko ez ziren 1960ko hamarkada arte agertu. M. Bradburyk *El mundo moderno* lanean (Edhasa, 1990) egiten dituen planteamenduei jarraituko bagenie, esan beharko genuke euskal eleberrigintza XX. mendearen erdialdea arte nagusi izan zen estetika historiko eta ohiturazkoa alde batera utzi eta mende hasierako *Modernism* haren berrikuntzak bere egiten zituen modernitate-osteko eleberrigintza bihurtu zela. Bestela esanda, egun euskal eleberrigintza modernoa esaten diogun horrek, zeina sortu baitzen 1957an lehen lan existentzialistaren eskutik, errealtatean lotura zuzena duela II. Mundu Gerra osteko proposamen europarrekin, alegia, modernitatearen amaierara hurbiltzen ari den eleberrigintzarekin. Espainian, Katalunian edo Frantzian apurka-apurka eman zena (errealismoa; eleberri modernoa: modernismoa; existentzialismoa; esperimentalismoa) bat-batean eman zen gurean eta ohiturazko eleberritik eredu existentzialistara pasa ginen. Kuhn-en esanak gure eginez, iraultza estetiko baten ezaugarri guztiak ditu, beraz, euskal eleberrigintzak XX. mendean bizitako aldaketak. Poetikak ordezkatu ziren unetik, bilakaeraz baino gehiago, erabateko berrikuntzaz hitz egin behar baitugu.

Beraz, hausnarketa honetatik euskal eleberri modernoa ikuspuntu konparatzailez aztertu behar dela ateratzen da ondorio. Modernitatea bereganatzeak hori ekarri baitzuen gurera: euskal eleberrigintza mendebaldeko tradizio literarioari begira jartzea. T. S. Eliot poetak “Tradition and Individual Talent” (1920) artikulua ezagunean zioskun modura, literaturan ez dago ezer isolatua edo berezia, guztia barneratzen da tradizio batean. Gure eleberriaren kasuan, Frantziako eleberrigintza izan zen eredu 1950eko hamarkadaren

amaieratik 1970eko hamarkadaren erdira arte argitara emandako eleberri berritzaileenetan. Urte batzuk geroago, berriz, tradizio anglosaxoia edo Erdialdeko Europako idazleak eta egile amerikarrak, dela Estatu Batuetan eleberri beltza garatu zutenak, dela Hego Amerikako erreialismo magikoa abiarazi zutenak, bihurtu ziren euskal idazle askorentzat eredu garri.

Hau guztia esan ondoren, modernitate kontzeptuak eleberrigintzaren bilakaeran izan dituen adiera eta aurpegi desberdinak azpimarratuz amaitu nahiko genuke. W. Krysinskik bere *La novela en sus modernidades. A favor y en contra de Bajtin* (Ed. Iberoamericana, 1998) lanean dioskunez, modernitatea egitate testual plurala da, ezaugarri formal edo diskurtsibo anitzetan oinarritutakoa. Edonola ere, bi joera nagusi bereizten ditu Krysinskik eleberrigintza modernoan. Batetik, subjektibotasuna indartu duena, eta, testuaren gaineko hausnarketa, metanarrazioa, bilatu duena, bestetik:

Dos dinámicas parecen gobernar el desarrollo de la novela después de Dostoyevski, Joyce, Musil, y Broch, hasta Cortázar y Clarice Lispector. En primer lugar, la dinámica subjetiva fundada en una voluntad individual de autoafirmación discursiva; en segundo lugar, la dinámica metatextual y metadiscursiva que se esfuerza en promover la novela como forma de compleja arquitectura y que convoca el juego de perspectivas y de voces. Estas dos dinámicas confirman lo bien fundado de la visión de la modernidad como metasistema que se apoya en una permeabilidad de modelos y de conjuntos discursivos, marcando la importancia de las invariantes temático-formales de lo moderno. (Krysinski, W.: 1998: 195).

Modernitatea, beraz, eleberrigintzaren historian modu dialektiko eta jarraituan eman den prozesua da. Prozesu hau, eleberriaren forma aldatu duten aldagai askotarikoetan oinarritu izan da, eta aldagaiok guztiok eleberrigintza moderno desberdinak eragin dituzte. Edonola ere, eleberriaren modernitatea bermatzen duten ezaugarriak honako lau elementu hauetara laburbil daitezke Krysinskiren ustez: *subjektibitatea, fragmentazioa, ironia* eta *hausnarketarako jarrera*. Ezaugarriok guztiok konbinatuz eta aldatuz, eleberri modernoaren aurpegi anitzak sortuz joan dira, erreialitate eta garai bakoitzari egokitu zaizkion aurpegiak, bestalde.

Has gaitezen, bada, euskal eleberrigintzaren modernitateetako bat azterten: Txillardegiren eleberri existentzialarekin hasi eta muga argi bat ezartzen duena aurreko eleberrigintzaren eta ondokoaren artean. Aurrerago beste modernitate batzuk etorri ziren, hala nola R. Saizarbitoriaren eskutik esperimentazio etapa bati ekin ziona, edo Gereño, Peillen, Amuriza eta

besterekin eleberri sozialaren erredutara errenditutako eleberrigintzari hasiera eman ziona. Ordukoak dira, halaber, eleberri alegorikoaren ildo hautatu zuten Zarate edo Lertxundiren lehenengo testuak. Eredu guztiok 1970eko hamarkadaren lehenengo erdira arte iraun zuten, *Ene Jesusen* argitalpenak modernitatearen amaiera zedarrizten duen isiltasunaren poetikarekin aurrez aurre jartzen gaituen arte.

a) Eleberri existentzialista: J. L. Alvarez Enparantza, “Txillardegi”

Lehenago esan dugun bezala, 1950eko eta 1970eko hamarkadak benetan interesgarriak izan ziren modernizazioa eta eguneratzea ekarri zutelako euskal eleberrigintzaren esparrura. Urte haietan elkarrekin izan ziren 1956ko belaunaldiko autoreak (Txillardegi edo Mirande, esaterako) eta belaunaldi berri bateko autoreak, I. Sarasolak «64ko belaunaldia» deiturikoan biltzen dituenak⁴. Belaunaldien araberrako sailkapena literaturaren historialariek zalantzan jarri badute ere (aipagarria da, esaterako, literatura espainiarraren adituen artean «Generación del 98» delakoaren inguruan piztutako eztabaida), uste dugu euskal eleberrigintzaren kasuan badaudela ezaugarri eta bizi-pen bereziak bi belaunaldiz mintzatzeko: bata, mendearen erdialdean *Egan* aldizkariaren inguruan bildu ziren idazleek osatuko luketena, “56ko belaunaldia” ere deitu izan zaiona; bestea, hamahiru urte geroago, Lur donostiar argitaletxearen inguruan sortu zena, Gabriel Aresti (1933-75) bilbotar poetaren *Harri eta Herri*ren (1964) argitalpenarengatik “64ko belaunaldia” ere deitua. Belaunaldi horietako lehenaren ezaugarri nagusia bere kideen heterodoxia kulturala zen; Lurreko idazleek, berriz, belaunaldi berria eratu zuten, konpromisoarena. G. Arestiren laguntzaz, 1944 eta 1949 artean jaiotako idazle talde honek (R. Arregi, R. Saizarbitoria, X. Kintana, I. Sarasola,

⁴ Arestiren liburuaren argitalpenak izan zuen garrantziaz, honako pasarte hau irakur daiteke P. Alberdiren liburuan (2000: 119-120):

Maiatzaren 14an, berriz, *Harri eta Herri* argitaratu zen, Itxaropena argitaletxearen *Kuliska Sortan*, 972ko tiradatik, 480 harpidedunei, 80 autoreari, 29 zentsura, deposito legal eta enparaueri. Zer esan obra honi buruz? Bada, ezer esatekotan, garrasi bat izan zela (*Vasconia* eta *Quousque tandem...?* en ostein, hirugarrena, oso denbora gutxian), eta hiru garrasi haiek hainbat euskalherritar –berandu izan zedin baino lehen– esnatzea lortu zutela. Kritikari, arantzarik faltako ez bazen ere, loreak nagusitu zirela esan beharko. “Euskal literatura guztiko liburu inportanteetatik bat... Ezein euskal liburuk lortu ez zuena lortu zuen: irakurria izatea... Arestiren meritua: hizkuntza poetikoa herriaren hizkuntza aruntaz baliaturik eraikitzea” dio Ibon Sarasolak. Saizarbitoriak, oster, arrazoi mundutarragoak eman zituen Arestiren poesia mirestek: “Lehendabiziko aldiz gure lige kontestatarioari euskal-poesia zati bat irakur ahal izan genion, Prévert, Otero, Apollinaire, André Breton eta Celayaren artean”.

A. Urretabizkaia, P. Urkizu...) euskararekiko konpromiso politiko garbia aldarrikatzen zuen, eta haien xede abertzalea zen antzinakoen literatura berritzea. Batez ere, euskal literatura garai hartako korronte europarrekin sintonizatu nahi zuten, modernizatu, eta literatura espainiarrean «Generación del 68» delakoaren idazleekin gertatu bezala, Lurreko idazleek mende hasierako *Modernism* haren berritzaile handien irakurleak zirela aldarrikatzen zuten. Ezer baino lehen, modernoa izan beharra zegoen.

1960ko hamarkadan Euskadin izan ziren gertakariak (garapen industrial eta ekonomikoa, ikastolen sendotzea, euskararen batasuna, ETAren sorrera 1959an, aktibismo politiko handia euskaraz egindako jarduera oro zentsuratzten zuen erregimen frankistaren aurka, alfabetatze kanpainak...) giro aproposa sortu zuten planteamendu literarioetan errotiko iraultza gerta zedin. Euskal argitaletxeen munduak ere aire berritzaileak ezagutu zituen: argitaletxe berriak sortu ziren eta, horren ondorioz, euskarazko literatur produktioa areagotu egin zen, batez ere, 1970eko hamarkadan (garai horretan sortu ziren argitaletxeen artean dauzkagu, besteak beste, Gordailu [1969], Lur [1969], Etor [1970], Iker [1972], Gero [1973], Elkar [1973]). Honetaz gain, Euskal kantagintza berriari⁵ eman zitzaion hasiera, *Ez dok amairu* (1965) taldearekin; 1965ean egin zen Durangon lehen Euskal Liburuaren Azoka; dantza talde (*Argia*) edo antzerki talde (*Jarra*) berritzaileak sortu ziren..., eta argitalpen politika serioa eskatu zuenik ere izan zen, euskara kultura eremu guztietara irits zedin lortzearen. Garai hartako ortodoxia kulturalari heterodoxia kultural eta politikoa kontrajarri zitzaiola esan izan da, G. Aresti, K. Mitxelena (1915-87) filologo entzutetsu eta J. Oteiza (1908) eskultorearen eskutik, besteak beste. Azken hau, “euskal kultur fronte” bat sortzen ere ahalegindu zen eta 1963an argitara eman zuen *Quousque tandem...! Interpretación estética del alma vasca* liburuak eragin handia izan zuen garaiko mugimendu artistikoetan. Tradizioa eta modernotasuna uztartzen ahalegindu zen Oteiza, historiaurrean sortzen den euskal artea hutsaren estetika berritzailearekin uztartuz.

1957 eta 1976 artean panorama aberatsa agertzen zaigu eleberrigintza alorrean. Alabaina, azpimarratu egin behar da *Egunero hasten delako* 1969an argitaratzeak ekarri zuela benetan joerak ugaritzea. 1957 eta 1969 bitartean argitaratutako hamabost eleberrien artean –Txillardegiren eleberri existenzialistak alde batera utzita, ondoren aipatuko baititugu–, gainerakoen

⁵ ik. OROÑOZ, B., 2000, *Gazteri berria, Kantagintza Berria*, Erein, Donostia.

estiloan bi narratiba-mota bereizten baitira: ohiturazko lanaren kutsuko narratiba existentziala (**Eusebio Erkiagaren** *Arranegi* [1958], *Araibar zalduna* [1962] eta *Batetik bestera* [1962] nobelez ari gara) eta kutsu autobiografikoko narratiba existentziala, **Sebastian Salaberriaren** *Neronek tirako nizkin* (1964) eleberrian gauzatu.

Hala ere, eleberri existentzialista, zentzu hertsian, hau da, Europako eleberrigintzan existentzialista gisa ulertzen denaren ildotik, Txillardegiren eskutik etorri zitzaigun. Existentzialismoak izateari buruzko hausnarketa egiten du eta horretarako, gizakien esperientzian oinarritzen da. Hausnarketa horretan, existentzia esentzia baino garrantzitsuagoa dela baieztatzen du eta bizipen subjektiboa kontsideratzen ezagutzarako bide nagusi. M. Heidegger, S. Kierkegaard, J. P. Sartre edo S. de Beauvoir ditugu filosofo nabarmenenak. Eleberrigintzaren arloari dagokionez, J. P. Sartre eta A. Camus izan ziren idazle existentzialista aipagarrienak. Bizitzaren absurdoa, aukeratu beharrak eragiten duen larritasuna, heriotza... ukitzen zituzten euren eleberrietan eta gatazka etengabeen bizi den heroi problematikoaren eskutik eramaten testura. Sartreren esanak gogoan, euren unibertso literarioetan aurkezten zituzten gatazken bidez, gizakia ulertu nahiko dute eleberrigile existentzialistek, gizakia ulertu, gizartearekiko duten konpromisoa bete ahal izateko.

J. L. Alvarez Enparantza “**Txillardegi**” (1929) euskal kulturako pertsonaia nekaezina dugu, euskaldunberria, ETAre fundatzaileetako bat eta unibertsitate irakaslea duela oso gutxi arte; intelektualak bere garaiko gorabehera historikoeekin engaiatu behar duela uste izan du beti. Bere bibliografia oparoak arlo ugaritako lanak biltzen ditu, hala nola, fonologiari buruzko lanak, eta saiakera-liburu ezagunak: *Huntaz eta hartaz* (1965) eta *Hizkuntza eta pentsakera* (1972).

Bere lehen eleberriak, *Leturiaren egunkari ezkutua* (1957), markatu zuen filosofia existentzialistak eragindako ibilbide literarioaren hasiera; eragin hori nabarmenagoa izan zen lehen hiru eleberrietan, zeinetan, J. Juaristiren arabera (1987b), hautsi egin baitzen ideologiaren eta literaturaren arteko oreka, eduki ideologikoa nagusiaraziz literarioaren kaltetan. *Leturiaren egunkari ezkutuan* Leturiaren eta Mirenen arteko maitasun harremanaren historia kontatzen da, eta harreman hori, eleberrian agertzen diren harreman pertsonal guztiak bezalaxe, porrot egitera kondenatuta dago hasiera-hasieratik. Historiaren amaiera ezin dramatikoagoa da: Miren gaitz batek jota hiltzen da eta Leturiak bere buruaz beste egiten du. Absolutura iristeko bidea zelakoan Maitasunean ipinitako itxaropena zapuztu egiten zaio protagonistari.

Honela laburtuta, ez genioke duen garrantzia emango eleberriaren gai nagusiari, hots, hautatu beharrak gizakiarengan sortzen duen larridura existentzialari. Izan ere, euskal eleberrigintzako lehen heroi gatazkatsuaurrean gaude (ik. K. Otegi: 1976), bere haragian existentzia oren kontingentzia, absurdoa, sufritzen duen pertsonaiaren aurrean. *La nausée* (1938) eleberrian A. Roquentinek bezala, Leturiak giza existentziaren zentzurik eza islatzen du bere egunkarian, baita gogoeta egin ere existentzialismoaren gai nagusien inguruan: bakardadea, heriotza, hautatu beharra... eta Jainkoaren existentziaren inguruko eztabaida, Leturiak ukatzen ez duen existentzia (1957: 142). Unamunoren aipamenak (131) joera existentzialista ez ateoaren aurrean gaudela iradokitzen digu.

Horrekin guztiarekin batera, eleberriaren literatur edo kultur erreferentziek (liburuaren *entziklopediak*, Ecos esango lukeen bezala) garaiko poetika eta pentsamendu-korronteei egiten diete erreferentzia: Gauguin (65), Kafka eta Amiel (74), Gide (89), Valéry (115), San Agustin (123), Unamuno (131), Lizardi (132), etab. Horizonte literario hori guztia eleberriaren modernitatearen adibidea da, beste garai bateko mundu idilikoetatik urrun, mundu hurbigalago, sinesgarri eta, jakina, batere manierista ez dena erakusten baitigu.

Egitura aldetik, bildumagile batek, Leturia narratzailearen eta irakurlearen arteko norbaitek, transkribatutako egunkari moduan dago idatzita eleberria. Sartrearen aipatutako eleberrian edo *La familia de Pascual Duarte* bezala, bildumagile horrek ez du zalantzarik bere iritzia emateko eta gisa guztietako azalpenak emateko zenbait gertakizunen aurrean, hala nola protagonistak udan ez idaztea edo haren buru-hilketaren inguruko datuak. Gure irakurketa orientatu nahian bezala, bildumagilea saiatzen da bereak egiten irakurlearen balizko dudak edo galderak: zer arrazoi direla medio erabakitzen duen protagonistak egunkaria idaztea, zergatik ez duen idazten une jakin batzuetan, etab. Aipatutako berezitasun narratiboez gain, eleberri berritzailea da orobat planteamendu kronotopikoari dagokionez, espazio erreal (Paris) eta ez errealak (Zerubide, Altzurain...) agertzeaz gainera, denboraren tratamendua urte-sasoen bilakaeran oinarritzen baita. Denbora ulertzeko modu honek, nahiz tradizionala izan bere ikuspegi ziklikoan, zenbait berrikuntza ekartzen dio euskal eleberrigintzaren ordu arteko garapen linealari, narratzaileak ez baitu dudarik egiten gertakizunak protagonistarentzat duten balio sinbolikoaren arabera antolatzeko. Hau da, denbora psikologikoa gailentzen da udari dagozkion gertakari guztiak kentzean, baina gertakari horiek ez dira uda parteko hilabeteetara mugatzen soil-soilik, denbora askoz gehiago hartzen baitute.

Autorearen bigarren eleberria, *Peru Leartzako* (1960), atzerakada poetikoa izan zelakoan gaude, maila ideologikoa are gehiago nabarmentzen baita egilea eleberri honetan. Peru da eleberriaren protagonista-narratzailea, eta larri kezkatuta bizi da denboraren iragate geldiezinagatik. Heideggerrek baieztatuakoaren haritik, historian Peru ezin da bere existentziaren jabe izan, jakin baitaki bere bizitza finitutasunak markatuta dagoela (ik. Heideggerrek gizakiaz egiten duen baieztapena, hots, gizakia heriorako izakia dela). Lanean larri dabil, handik irtetea ere ez du zoriontsu izatea lortzen, eta eroetxe batean sartzen dute. Ados gaude I. Aldekoarekin (1997:380) esaten duenean autoreak, eleberri honekin, ez zuela asmatu bere kabuz zutik iraun zezakeen unibertso literariorik sortzen, liburuan agertzen den pentsamendu existentzialista guztia bertan sartzeko aitzakia izango ez zen unibertsoa sortzen alegia.

Autore beraren hirugarren eleberrian, *Elsa Scheelenen* (1969), badago gauza berririk: narratzaile orojakilea erabiltzen du, eta hautu horrek bakarrik testuaren estilo tradizionala adierazten digu. Hariak Elsaren ibilbide sentimentala kontatzen digu; emakume gazte hori, Luc bere mutil-lagunak baztertu ondoren, bere bakardade izugarria gainditzen saiatzen da Pierre Maunier apaizarekin harremanetan hasiz. Bruselan kokatua den eleberri honek ere aurreko eleberrien oinarri modernoak dauka, eta idatzia izan zen garaia-aren isla da: marxismo-leninismoaren inguruko eztabaida politikoez hitz egiten da (137), Vietnameko gerraren aipamenak egiten dira, M. Luther Kingenak (192)... eta, batez ere, eztabaida erlijiosoez eta sekularizazioaz hitz egiten zaigu (sekularizazioaren arazoa Maunierrek Elsa ezagutu ondoren izandako duda erlijiosoetan islatzen da). Aurreko eleberriak baino handinahiagoa izan arren, Txillardegiren hirugarrenean pertsonaien problematika existentzialak berriro ere pisu gehiegizkoa hartu zuen. Fedez, ideologia politikoaz, bakardadeaz eta abarrez egindako meta-iruzkinak dituzten paragrafo ugariak, baita denboraren tratamendu lineala edo kontakizunaren amaiera ireki harrigarria... osagaiok adierazten dute, ohiturazko eleberria gainditu arren, XX. mendeko maisu handien ekarri literarioak oraindik bere egin ez dituen eleberria dela.

10 urteko etenaren ondoren, Txillardegik beste eleberri bat argitaratu zuen 1979an: *Haizeaz bestaldetik*. Bertan, autoreak osterara jorratu zuen bere lehen eleberrian agertu zuen problematika existentziala: gizakia absolututasunaren xerkan. Hala ere, benetan berria dena *Haizeaz bestaldetiken* forma nobeleskoa da, eleberri lirikoaren generoan sar baitzitekeen. J. M. Lasagabasterrentzat (1987), prosaz idatzitako poema liriko-narratiboa da, eta haren sin-

bolismoak eta eduki metafisikoak eragin handia izan zuten garaiko irakurlearenengan. 1976 arte landutako esperimentalismoen ondoren etorri zen korronte lirikoari jarraitzen dio. Saio haren ondoren autoreak argitaratu emandako hurrengo eleberria, *Exkixu* (1988), errealismo kritiko ortodoxoenetik hurbildagoen poetikarantz lerratu zen. Eleberriaren esplizitazio ideologikoak (ETA-kidea den protagonistaren inguruan bilbatzen da haria) eta eskematismo formalak (pertsoneiak karrikatura hutsak dira, inongo garapen narratiborik gabek) hondoratu egiten du edozein helburu literario. 1999an Txillardegik bere azken eleberria argitaratu zuen, *Putzu*: genero historikoan sar daiteke eleberri hau, eta gerra karlistetan girotua da. Bertan karlisten alderdia aukeratu eta haiekin batera gerra egiten duen Putzu izeneko protagonistaren ibilaldiak kontatzen dira. Aurreko nobeletan hasitako ibilbidea alde batera utzi gabe, honetan ere pertsonaia nagusiaren bilakaera psikologikoaren kontakizuna egiten du autoreak, eta haren bizipen eta larridura izugarrienen partaide egiten gaitu. Eleberri hau aurrekoetatik gehien bereizten duen ezaugarria, ziur aski, dokumentazio historikoan oinarritua izatea da.

b) Eleberri psikologikoa: Jon Miranderen *Haur besoetakoa* (1970)

Txillardegirekin batera, **Jon Mirande** (1925-1972) ere 56ko belaunaldiko kidea da. Parisen jaioa zen, nahiz gurasoak zuberotarrak izan. Jon Mirandek eleberri bakarra idatzi zuen: *Haur besoetakoa*, 1959an idatzia baina 1970 arte argitaratu gabea. Autorearen izaera polemikoak eta eleberriaren oinarrizko gaiak euskal irakurleak erakarri zituen.

Poliglota berebizikoa zen Mirande (hizkuntza zelta guztiak ezagutzen zituen, eta gainera frantsesa, alemana, gaztelania, ingelesa, nederlandera, errusiera, hebreera modernoa, etab.), eta hogeitau urte inguru zituela hasi zen euskara era metodikoan ikasten. K. Mitxelenak berak ere azpimarratu zuen bere garaian autorearen oinarri kultural aberatsa, eta bere obra poetiko zein narratiboan asko dira irakurketa filosofiko (estoikoak, Nietzsche eta Spengler, batik bat) eta literario (Poe, Baudelaire, Kafka, Yeats...) ugariaren oihartzunak. Baina bere ideia eta jarrera politikoek erakarri dute arreta gehiena bere ibilbidean. Faxista, antisemita eta antikristautzat zuen bere burua eta bere garaiko joera literario eta politiko guztiekin polemizatu zuen. Autorearen ikuspegiaren adierazle da 1962an Txomin Peillenekin batera fundatu zuen aldizkariaren izena bera, *Igela. Euskal heterodoxoen aldizkaria*.

Jon Juaristik dioen bezala (1987b: 110), Miranderen euskaltasun heterodoxoak baditu aitzindariak, hala nola Xaho eta *La leyenda de Jaun de Alzate*

idatzi zuen garaiko Baroja. Azken honekin bat dator, esaterako, kristautasunak eta latinitateak bizitasuna itzali dioten Baskonia pagano baten mina adieraztean.

*Haur besoetako*a eleberriaren hariak protagonista heldu baten eta haren 11 urteko Theresa alaba bitxiaren arteko harremanak ditu kontagai. Ez da harritzekoa eleberriaren eduki gordinak garaiko moral kristau zorrotzarekin talka egin izana, lehen aldia baitzen gure eleberrigintzan pederastiaren gaia erabiltzen zena. Mirande gizarte araeuz eta familia arau burgesez trufa egiten saiatzen da, eta arau horiek hausten dituen harreman-mota bat erakusten digu horretarako.

Gizonezko protagonistak berak kontatzen du istorioa (narratzaile homodiegetikoa), eta horrenbestez, bera da fokalizatzailea. Narratzailearen zenbait ezaugarri badakizkigu: edateko zaletasun gehiegizkoa (zaletasun hori bazuen Mirandek ere), bere kultura zabala (Beethoven edo Schubert musikariak aipatzen dira, Bergson filosofoa, Freud...), bizimodu zelanbait aristokratikoa gurasoek hiltzean utzi zioten jauretxean... eta apurka-apurka kontatzen digu Theresarekiko amodio harremanaren bilakaera. Harreman horren etapak agertzean konbinatu egiten dira pisu erotiko nabarmena duten pasarteak eta erritmo narratiboaren azkartzea, harremana sendotu ahala. Horrekin batera, esanguratsua da eleberriko espazioaren edo pertsonaien eskematismo deskribatzailea, gizonezko protagonistaren baitako mundu afektiboa azpimarratu nahi baita.

Eleberriaren estilo literarioa nahiko tradizionala izan arren, deskribatzen diren sentimenduen intentsitateak eta pasarteen plastizitate deskribatzaileak istorioaren irakurketa iradokitzaile eta bizia bideratzen dute, garai hartako euskal eleberrigintzan ohi ez zen bizitasun batez beteriko irakurketa.

Testuaren lotura intertestualei dagokienez, euskal kritikak behin eta berriro aipatu izan du V. Nabokoven *Lolita* (1955) haren intertestua sinesgarriena delakoan. Baina kontua da Mirandek errusiarraren eleberria irakurri gabe zuela *Haur besoetako*a idatzi zuenean eta, lan hura gaztelaniara itzuli zuen E. Gil Bera idazleak eleberriaren hitzaurre interesgarrian dioen bezala, Mirandek egin zuen gauza bakarra izan zen mendebaldeko tradizioan Teokrito edo Virgiliogandik hasita presente dagoen motibo literario batez baliatu. Horretaz gain, aise hautematen dira euskal autorearen zaletasun literarioak, eleberrian zenbait aipu eta erreferentzia agertzen baititu. Haietako bat, E. Gil Berak aipatu zuenez, «nevermore» hitza da, E. A. Poeren *Beleatik* hartua, edo «Gazteen Lurra»ren aipamena, besteak beste Yeatsen erabilitako heriotzaz gaindiko mito zeltiarrarena. I. Aldekoak (1993:13) osatu egin du lotura inter-

testualen sorta, autorearen obra poetiko eta narratiboan urak eta urpean itotzeak duten presentzia sinbolikoa aztertuz:

Continuador de la tradición esteticista de Poe y Baudelaire, heredó del primero la ensoñación melancólica, que el poeta materializa mediante la imagen simbólica del agua. Desaparecer en el agua profunda o desaparecer en un horizonte lejano, asociarse a la profundidad [...] es una obsesión que acompaña a Mirande durante toda su obra. La muerte por inmersión [...] es una constante de su obra: el viejo mito del Buque errante, la adaptación del complejo de Ofelia o el trágico final de Thérèse, protagonista de la única novela del autor *Haur Besoetakoa [La ahijada]* (1970).

Mirandek bere buruaz beste egin zuen 1972ko Eguberrian. Haren heriotzaren ondoren, autore madarikatuaren mitoak areagotu egin zuen euskal literatur komunitateak haren obrarekiko zuen jakin-mina.

c) Eleberri soziala (Gereño, Peillen, Amuriza...); alegorikoa (Zarate, Lertxundi...), poliziakoa (Gereño...)

Pixkana-pixkana, 1970eko hamarkadaren hasierara hurbilduz joan gara. Garai hartan, eta argitaletxe berrien babesean, euskal eleberrigintza modernoa anizten eta generoak hedatzen joan ziren. Alde batetik, eleberri soziale-tik hurbil zeuden eleberriak argitaratu ziren, prosa erraz eta herri hizkeran idatziak eta birtuosismo formaletatik ihes egiten zutenak.

Eleberri sozialaren berezitasun tematikoei dagokienez, gizarte-injustizien salaketaren ingurukoak nabarmendu ohi dira gehienetan. Aberats eta pobreen arteko desberdintasunak, langile eta nekazarien bizitza-baldintza eskasen salaketa... dira eleberriotan kausi ditzakegun gaiak. Horiekin batera, egoera politikoaren salaketa ere burutu ohi du askotan mota honetako eleberriak (ad: *Peru Leartzakon* gatazka existentzialista ez ezik, euskal gatazka politikoa ere garrantziko gaia da). Adituen arabera, eleberrigintza sozialaren jatorria XIX. mendeko errealismoan eta naturalismoan goke.

Espainiako kritikariek diotenez, 1924-1936 artean jaiotako belaunaldia dugu 1950eko hamarkadatik 1960ko hamarkadaren erdira arte Espainiako literaturan eleberri sozial interesgarrienak eman zituenen. I. Aldecoaren *El fulgor y la sangre* (1954) eleberriarekin nabarmendu zen ildo honek idazle ezagunak bereganatu zituen: J. Goytisolo, Ana M^a Matute, R. Sánchez Ferlosio, C. J. Cela... Egileon nahiz beste hainbaten eleberri sozialetan bistakoa zen Italiako neorrealismoaren, *Lost Generation*ekoen edo Sartrearen literatura

konprometitua eragina. Eleberri sozialaren alderdi teknikoei dagokienez, S. Sanz Villanuevak (1980) edo D. Villanuevak (1986) esandakoez gain, G. Carnerok (1989)⁶ zehazten dituen 5 ezaugarriak gogora ekarri beharko genituzke. Carneroren aburuz, eleberri sozialak honako ezaugarriok ditu:

1. Narratzailea ez da orojakilea izaten gehienetan.
2. Psikologismo oro saihesten da eta pertsonaiak euren jokabide eta hitzen bidez aurkezten dira.
3. Protagonista kolektiboak hobesten dira, protagonista indibidualen kaltetan.
4. Elkarriketek jendearen hizketa-moduak islatu nahi dituzte.
5. Denbora eta espazioa kondentsaturik azaltzen dira.

Euskal eleberrigintzara itzuliz, eleberri sozialaren ildoari jarraitu zioten idazleen artean, **Xabier Gereño** (1924) aipatu beharko genuke lehenik. Merkataritza ikasi zuen eta 33 urtez La Aeronáutica S.A.n aritu zen lanean. Horretaz gain, Cinsa liburu eta diskoen argitaletxeko zuzendari ere izan zen, eta hainbat euskal ekintza eta kultur jaialdiren antolatzaile. 1965etik euskaltzain urgazle da eta 1999tik ohorezko euskaltzain. Euskara ikasteko metodoak ez ezik, hainbat hiztegi ere kaleratu ditu Gereñok. Autore eta editore emankor honek honako eleberri hauek ere idatzi zituen, besteak beste: *Arantza artean* (1969), gizakiaren zapalkuntza sozialari buruz; *Argi bat ihuntasunean* (1970), lan gatazkei buruz; *Nora naramazue?* (1972), tiraniaren eta nagusikeriaren aurkako borrokari buruz; eta *Andereño* (1975), ikastoletako arazoei buruz. Gereñoren bibliografia luze-luzean sartzen dira, aipatutakoez gain, 11tik gora polizi eleberri, aipagarrienak *Hiltzaile baten bila* (1975), *Gudari bat* (1977), *Espioitza* (1977) eta *Iruñeako asesinatzea* (1977); pertsonaia historikoen biografiak, hala nola Napoleon, Mahoma edo Zumalakarregirenak; umore eleberriak; 6tik gora eleberri historiko eta hogeibat misterio eta akzio eleberri, gai askotarikoak. Autore nekaezin honek gaztelaniaz ere argitaratu ditu eleberriak, haien artean *Residencia Rochester* (1994) edo *Huyendo del pasado* (1995) intriga eleberriak eta *Carta fatal* (1994) espioitza eleberria, denak idazleak berak argitaratuak. Literaturaren eta sublaturaren arteko muga gero eta labainkorragoa hautematen da produkzio zabal horren atzean, bai-

⁶ CARNERO, G., 1989, *Las armas abisinias*, Anthropos, Bartzelona.

SANZ VILLANUEVA, S., 1980, *Historia de la novela social española (1942-1975)*, Alhambra, Madril, 2. vol
VILLANUEVA, D., 1986, "La novela social. Apostillas a un estado de la cuestión" in AA.VV., 1986, *La literatura contemporánea en Castilla y León*, Junta de Castilla y León, Valladolid.

na hala eta guztiz ere onespén handia izan zuen euskal irakurleen artean.

Eleberrigintza sozialaren joera honen barruan sartuko dugu, orobat, **Txomin Peillen** (1932), euskaltzaina eta J. Mirenderekin batera *Igela* aldizkariaren sortzailea. Horretaz gain, haur eta gazteentzako liburu ugari idatzi ditu, baita filologiako nahiz etnologiako lanak ere. Helduentzat argitaratu dituen 5 narratiba-lanetatik, lehen biek Euskaltzaindiaren Txomin Agirre Saria eskuratu zuten: *Gauaz ibiltzen dena...* (1967) polizi eleberriak eta *Itzal gorria* (1972) gai sozialei buruzko eleberriak. Urtebete geroago, *Gatu beltza* (1973) eleberria argitaratu zuen, obra sinbolikoagoa eta polizi eleberriak parodiatzeko dituenena. 1980an berriro irabazi zuen Txomin Agirre Saria, *Kristina Bolsward* eleberriarekin. Berriki, 1960-1998 artean idatzitako ipuinak bildu ditu *Ale gorriak* (Hiria, Donostia) liburuan. Peillenekin batera, **Xabier Amurizaren** obrak, besteak beste *Hil ala bizi* (1973), *Oromenderrieta* (1984) eta *Emea* (1985) eleberriek, osatuko luke eleberri sozialaren esparruaren baitako obra multzoa.

Eleberri sozialaren eta R. Saizarbitoriak eta beste batzuek landutako eleberri esperimentalaren artean, beste eleberri-mota bat sortu zen 1970eko hamarkadan, eleberri **alegorikoa** esan dakiokena, garai hartako zentsura gáinditzen saiatzen zena. Alegoria bere egiten duen eleberrigintzak gehienetan kritika, satira edo helburu didaktikoa izaten du. Finean, gizakien jokabideaz edo etorkizunaz hausnarketa egin nahi du eleberri alegorikoak eta arraz ezagunak dira xede hori arrakastaz lortu duten obrak. Hortxe dauzkagu, esaterako, G. Orwellen *Aberreen etxaldea* (1945) edo A. Camusen *Izurria* (1947).

Mikel Zaratek (1933-1979) *Haurgintza minetan* eleberria argitaratu zuen 1973an, garaiko euskal egoera kritikoa islatu nahian. J. Kortazarrentzat (1990: 129), Zarateren eleberria ahozketasunaren sinfonia da, eta nagusitasun estilistiko nabarmena erakusten du. Alegorikoa da, orobat, **Anjel Lertxundi**ren (1948) lehen eleberria, *Ajea du Urturik* (1971), zeinarekin hasiera eman baitzion euskal literaturaren panoramako ibilaldi nobelistiko distiratsuenetako bati. Lertxundik Filosofia eta Letrak ikasi zituen Donostia, Erroma eta Valentzian. Irakasle aritu zen Zarauzko ikastolan eta Donostiako Apaizgaitegiko Irakasle Eskolan. Urte haietan hasi zen hainbat egunkari eta aldizkaritan kolaborazioak idazten. Euskal Idazleen Elkartereko lehendakari izan zen 1982-1985 bitartean. 1995ean Rikardo Arregi Kazetaritza Saria eman zioten argitara emandako iritzi-artikuluengatik. Egilearen bibliografia oparoaren osagai dira haur eta gazteentzako liburuak (ik. Olaziregi, M. J. & Etxaniz, X., *Euskarazko Haur eta Gazte Literatura Idazleak*, Pamiela, Iruñea, 1998),

ipuin nahiz eleberriak, zinemarako gidoiak (*Hamaseigarrenean aidanez*, 1984; *Kareletik*, 1985), edo saiakera-liburu interesgarriak, adibidez *Gogoa zubi* (Alberdania, Irun, 1999). Lertxundiren obraren aipamen sakonagoa aurrerago egingo badugu ere, azpimarratu egin nahi genuke autorearen berritze etengabea, jada presente dagoena 1970 eta 1973 artean argitaratu zituen hiru lanetan. Bere literatur ibilbidea *Hunik arrats artean* (1970) ipuin-liburuak hasi zuen; liburu hau euskal ipuin modernoaren hastapena da zenbaitentzat, eta bertan nabarmena da Hego Amerikako errealismo magikoaren eragina (ipuinetako bat Macondon kokatzen da, eta beste batean narratzaile hila bilakatzen da narrazioaren gidari, Rulforen kutsuko estilorik klasikoenean), baita absurdoaren antzerki eta ipuinen eragina ere. Emaitza, azkenik, garaia-aren ikuspen fresko eta iradokitzailea da. Liburua osatzen duten hamasei ipuinak askotarikoak dira, bai gaiari bai formari dagokionez, nabarmena izan arren narratzaileak literaturaz eta idazketaz egiten duen gogoeta, baita garai hartako euskal kulturaren problematikaren inguruko hausnarketa ere (alfabetatzea, kultur zapalkuntza edo hizkuntzaren batasuna aipatzen dira ipuinetan, besteak beste). Baina, gainera, bilduma honetan agertu zen estreina-ko aldiz Urturi herria, *Ajea du Urturik* bere eleberriaren muinean egongo zen topos narratiboa. Uholde baten ondoren herri horretan (Euskal Herriaren sinbolo argia) gertatutako erreakzioak kontatzen ditu eleberri horrek. Herria eleberriko pertsonaia kolektiboa da (ik. Otegi, K.: 1975), eta bertan gertatzen da borroka: alde batetik botere faktikoak, eta bestetik gazteria, itxaropenaren ikurra. Amaraunaren irudi errepikatuak Euskal Herriak bizi dituen zapalkuntza eta tentsio egoera sinbolizatzen ditu. Bi urte geroago, Lertxundik *Goiko kale* (1973) eleberria argitaratu zuen eta hartan beste bira poetiko bat egin. X. Lete poetak *Zeruko Argia* aldizkarian (560, 73-11-25) argitaratu zuen kritika batean definitu zuen bezala, eleberriari poema baten intentsitate eta erritmoa darizkio. Autoreak protagonistaren haurtzaroa arakatzen du, eta harengan eragin handiena izan zuten bizipenen oroipenaren inguruan narrazioa egituratzen. Anaiarteko amodio-gorrotzko harremana, bokazio erlijiosoa, sexu desira, eskolako bizipenak edo baserriko bizitza dira lehen pertsonan kontatutako narrazio intimista honen funtsezko gaiak.

Aipatu tipologiez gain (eleberri existentzialista, eleberri soziala eta eleberri alegorikoa), eleberri esperimentalak edo formalistak osatu zuen 1976 arte landu ziren joeren sorta. Haren ordezkari eraginkorrena **Ramon Saizarbitoria** (1944) da, euskal kritikak gure eleberrigintzaren berritzaile handitzat jotzen duena.

d) Eleberri eta narrazio esperimentalak (Saizarbitoria, Urkizu, Izagirre, Atxaga)

Besteren artean, *eleberri estrukturala* (ik. Sobejano), *esperimental*a (ik. Villanueva...), *posmodernoa* (ik. Navajas) edo “*gizatasunik gabekoa*” (ik. Gil Casado) deitu izan zaion eleberrigintza honek munduaz hausnarketa egin ordez, bere buruaz egiten du, idazketaz beraz, alegia. Horretarako, eleberriak narrazio-estrategiak berritu zituen eta kontamolde anitzekin esperimentatu. Narrazio-moduak irauliz, pertsona narratibo desberdinak erabili zituen kontaketa bideratzeko, edo pertsonaien barne-solasa adierazteko, bakarrizketa-mota berriekin esperimentatu zuen. Hasieratik eleberrigintza errealista edo sozialetik guztiz aldentuta, erreferentzia kulturalistak ugaritu zituen eta formakerkuntzan ahalegindu zen eleberri-mota hau.

Azken batean, eleberri esperimentalaz mintzo garenean, XIX. mendeko eleberrigintza tradizionala errotik irauli zuten lanei egiten diegu erreferentzia. Flaubertekin hasi eta Proust, Joyce, Woolf, Kafka edo Faulknerrekin bermatzen den joera honetan, kontamolde desberdinen esplorazioak edo iraulketak definituko du egileon guztion ahalegin poetikoa. Garai berriei kontamolde berriak egokituz, irakurlearen konpromiso berria aldarrikatzen dute egileok eta irakurketa gogatsua defendatzen. Bukatu dira eleberri errealistan pertsonaiei buruz eskaintzen zitzaizkigun xehetasun eta zehaztapen zerrenda luzeak, edo ilunak suertatzen ziren pasarteei buruzko azalpenak. Irakurleek izen zehatzik gabeko pertsonaiekin egingo dute topo (ik. Kafkaren Josef K.), edo bukaeratik hasten diren eleberriekin (ad. Prousten *Denbora galduaren bila*), edo argumentu zehatzik ez duten istorioekin (ad. Joyceren *Finnegan's Wake*). Izatearen absurdoa mugetaraino eramanez (Kafka), denbora narratiboa irauliz (Proust), kontamolde eta estiloak berrituz (Joyce) edo pertsonaien kontzientziak testuratuz (Woolf), kontaketa abenturan murgilduko gara. Eta abentura honek mende erdialdean Frantzia sortu zen eleberrigintza berriraino, *Nouveau Roman* delakoraino, eramango gaitu, bidean aurkituko ditugun aitzindariak (S. Beckett, M. Duras) lagun ditugula. Horretatik deitu izan zaio “anti-nobela” eleberri esperimentalari, generoaren sorreratik beretik eleberriaren ezaugarri funtsezko kontsideratzen ziren elementu guztiekin (argumentua, narratzailea, denbora, espazioa, ikuspuntua, pertsonaia) esperimentatu egiten duelako.

Euskal eleberri esperimentalaren atal honi hasiera emateko **Ramon Saizarbitoria** (1944) idazlearen lehenengo hiru eleberriak iruzkinduko ditugu. Bere ibilbide profesionalarengatik I. Sustatu Saria (Eusko Jaurlaritza, 1994)

lortu zuen soziologo honen eleberriek kontamolde eta poetika guztiz berri-tzaileak ekarri zizkion garaiko euskal eleberrigintzari. Horretaz gain, *Lur* eta *Kriselu* argitaletxeetako kidea izan zen, *Ustela* eta *Oh! Euzkadi* aldizkarien sortzaileetako, eta kolaborazio ugari kaleratu ditu hainbat argitalpenetan (*Euskaldunon Egunkaria*, *El País*, *Zeruko Argia*, *Jakin...*). Ondoko lerro hauetan, 1969tik 1976ra argitara eman zituen hiru eleberriak izango ditugu hizpide: *Egunero hasten delako* (1969), *100 metro* (1976) eta *Ene Jesus* (1976).

Saizarbitoriak bere egiten zuen eleberria idazketaren abentura dela zioen J. Ricardouren baieztapena. Aurreneko aldiz euskal narratiban, idazle batek agerian utzi zuen eleberrigintzaren formari buruzko kezka eta izenpetu zuen Barthesen baieztapena, hots, teknika dela osagai nagusia edozein literatur sorkuntzan. R. Saizarbitoriarentzat eleberria bilaketa da batik bat, hau da, esperimentatzeko eta gauza berriren bat esaten saiatzeko bidea. Haren lehentasun literarioek ez diote alferrik Frantziako *Nouveau Roman* delakoaren ikuspuntu eta orientabideen ildoari jarraitzen.

Nouveau Roman delakoaren helburu eta teknikez jabetzeko, funtsezkoa zaigu A. Robbe-Grilleten *Nobela berri baten alde* (1963) eta N. Sarrautereren *Susmoaren garaia* (1956) saiakera-liburuak aztertzea. Hona, laburki, eleberrigintza berriaren ezaugarri literarioak:

- a) Eleberrigintza berriak auzitan jartzen du pertsonaiaren beraren irudia eta garrantzia.
- b) Eleberrigileak, ahal dela, desagertu egin behar du eleberrietatik. Narratzaile edo ahots anonimo bihurturik, objektibotasun osoz kontatuko du ikusten duena, interpretazio oro saihestuz.
- c) Pertsonaien analisi psikologikoa baztertu egiten da, objektuen eta ekintzen fenomenologia hutsa proposatuz.
- d) Garrantzizkoena eleberriaren forma da; alegia, nola dagoen kontatuta, antolatuta. Ricardouk esan zuen bezala, "idazketaren abentura da eleberria".
- e) Irakurleari sortzaileago izatea eskatuko zaio. Eleberriok dituzten hutsuneak betetzen ahalegintzea.

Ikusmolde poetiko horretan sartzen dira donostiar idazlearen lehen bi eleberriak. Haietako lehenak, *Egunero hasten delako* (1969), txandakatuz doazen bi plano narratibo independentetan kontatzen ditu abortatu nahian dabilen ikasle gazte baten (Gisèle Sergier) istorioa eta tren geltoki batean eta telefono zentralita batean pertsonaia bitxi baten eta bat edo bi solaskide ano-

nimoren artean gertatzen den elkarrizketa. Plano narratibo desberdinen erabilera konstante bat izan da Saizarbitoriaren eleberri guztietan, eta hartara proposatzen zaigun irakurketan, zineman bezalaxe, «muntaketak» garrantzi handia hartzen du.

Egunero hasten delakon etengabeak dira garai hartan puri-purian zebiltzan gai eta eztabaiden erreferentziak. Jorratutako gaien artean badaude arrazakeria, birjintasuna, feminismoa... baina batez ere abortuaz hitz egiten da. Eleberrian *Les Temps Modernes* aldizkariak egiten den aipamena, edo protagonistaren izena, Gisèle, 1972an Bobignyko epaiketaren parte hartu zuen emakumezko abokatu ospetsua gogora ekartzen diguna, istorio nagusia testuinguru jakin batean kokatzen saiatzen dira. Berrikuntza tematiko horren albotan, nabarmendu beharko litzateke halaber eleberriaren idazmolde narratiboa; izan ere, narrazioaren plano garrantzitsuena, Gisèlerena, modu behaviorista batez, fokalizazio aldaketa iradokitzailez narratzen da, eta berrietsuaren planoak, berriz, elkarrizketa baten transkribapen moduan agertzen da, solaskidearen hitzak ezabatzean (A. Camusek teknika bera erabili zuen 1956an *La chute* eleberrian) bakarrizketa bihurtzen dela.

Bigarren eleberriak, *Ehun metrok* [itz.: *Cien metros*, Ed. Nuestra Cultura, 1979], garaiko irakurlearen itxaropenak asetzeaz gain, gaingintza ere egin zituen neurri handi batean. Eleberri hau, gaztelaniara, frantsesera, ingelese- eta italierara itzulia eta 1985ean Alfonso Ungría zuzendariak zinemara eramana, autorearen lan ezagunena da, eta euskarazko azterketa eta edizio gehien (hamargarrena 1997ko abenduan) izan dituena.

100 metro honetan ere, narratzaileak plano narratibo desberdinetara jotzen du, nahiz eta eleberri honetan bistakoagoa izan zinemagintzako tekniken erabilera gertakariak kontatzeko. Irudi panoramikoak, *travelling* luzeak edo kamera geldoan egindako plano nagusiaren narrazioa dira esandakoaren adierazle. Baina liburuan kontatzen zen istorio nagusia ETako ekintzaile batek poliziak Donostiako Konstituzio plazan tiroz hil aurretik egiten dituen azken ehun metroen ingurukoa izateak oso baldintzatu zituen bere garaian eleberriak egin ziren irakurketak. Bat gatoz J. Juaristirekin (1987b: 88) eleberri hori euskal literatura osoko txartoen irakurritakoa dela esaten duenean, nola lehen edizioa zentsuratu eta bahitu zuten poliziek, hala bertan eleberri abertzalea ikusi nahi izan zuten irakurleek ez baitzioten jaramonik egin bertan narratzaileak egiten zuen ahalegin objektibistari. Irakurketa «oker» horiek (*misreadings*) urrundu egiten dira autore donostiarraren obraren atzean dagoen poetikatik, begien bistako gauza baita Saizarbitoriarentzat literatura ez dela inoiz izan mezu ideologikoak igortzeko biderik egokiena.

Ziur aski, gertaerak kontatzeko euskara eta espainiera erabiltzearekin batera, denbora aldaketak eta fokalazioa dira eleberri honen testu-estrategia nabarmenenak. Narratzaileak eleberriaren lehen bost atalak behar ditu ihesaldiak irauten duen hiru minutuak kontatzeko, baina protagonistaren heriotzaren ostean iragaten diren 53 minutuak seigarrenean, azkenekoan, kontatzen dira. Denbora proustiarra nagusitzen da testuan, eta denbora horretan, errepikapen eta asoziazioen bidez, protagonistaren iraganaren berri jasotzen da. Horregatik dira garrantzitsuak oroimena abiarazteko balio duten elementuak (giltza, odola...), zeinek kasu honetan ez baitute zerikusirik usaimen edo dastamenarekin, objektuen formarekin baizik.

Fokalazioari dagokionez, plano nagusiko narratzaile estradiegetikoak ihesa jazotzen den plaza laukizuzenean gertatzen denaren plano orokorrak eskaintzen dizkigu. Modalizazioaren aldaketak –hirugarren pertsonatik bigarrenean– ahalbidetu egiten du ikuspuntu objektibo horrekin haustea eta protagonistaren sentimenduak fokalizatzea. Bigarren pertsona narratiboak (M. Butorrek *Modification* obran [1957] egin zuen bezala) heriotzaren ikuspuntu fisiologiko bat ematen du, baina ez hori bakarrik, pertsonaiaren kontzientziaren bereizte horren bidez narrataria protagonistaren ibilbide estugarriaren hartzaile testuala bihurtzen baita. Horregatik du halako indarra iheslariaren planoak, zeren eta, W. Faulkner edo J. Rulforen zenbait narraziotan gertatzen den bezala, ikusleak izatera behartzen baikaitu, han egotera, baita protagonistaren heriotzaren ondoren ere. Protagonistaren ibilbide tragikoa mundu hipokrita baten indiferentziaren aurrean gertatzen da. Azken batean, protagonistak badaki hil egingo dutela eta bakardaderik erdiragarrienean hilko dela.

Bi lehen eleberri haiek lortu zuten arrakastaren parekoa izan zen hirugarrenak sortutako harridura. Nahiz eta *Ene Jesus* (1976) hark 1982ko Kritika Saria irabazi, hiru edizio besterik ez dira egin orain arte, eta bere garaian «zientifikoa» eta «zaila» zela esan zuten zenbait kritikarik. Izan ere, *Ene Jesus* aurrerapauso bat zen autorearen bilakaera literarioan, bere garaiari aurreratuz, irakurleen aurreusteak apurtzen zituen aurrerapauso interesgarria. J. P. Sartrek *Qu'est-ce que la littérature?* saiakeran zioen bezala (1948), edozein testutan beharrezkoa baldin bada autorearen eta irakurlearen artean halako «eskuzabaltasunezko ituna», *Ene Jesus* eta gisako eleberrietako informaziohutsuneak gehiegizkoak izan daitezke aktiboegia ez den irakurle batentzat. Alde honetatik begiratuta, *Ene Jesus*ek eleberrigintza modernoaren ezaugarri den irakurlearen parte-hartze aktiboaren aldeko apustua egiten du.

Isiltasunaren poetika dago obraren azpian, gure garaiko ezagutzaren eta artearen zenbait alorretan agerian geratu den irudikagarritasun-krisitik sor-

turiko poetika, hain zuzen. Krisi horrek gogorarazten digu hizkuntza-izakiak garela (ik. Heidegger) eta hizkuntzaren mugak gaintzeko ahalegin oro alferrikakoa dela (ik. Wittgenstein). *Ene Jesus* zera da, *metanobela*, hots, behin eta berriro bere idazketa bera ere zalantzan jartzen duen eleberria. Kontatzeko ezintasun hori, protagonistak era tragikoan bizia, testu fragmentario batean mamitzen da, osagai narratiboak (bai istorioari dagokionez, bai diskursoari dagokionez) ahal beste sinplifikatuz doazen testu batean. Honako hau litzateke eleberrian kontatzen denaren laburpena: pertsonaia bat, ustezko eroetxe bateko ohean etzanda, istorioak kontatzen saiatzen da «denbora pasatzeko» asmo nabarmenarekin. Saio narratibo hori porrotera kondenatuta dago etengabe, eta isiltasuna da protagonistarentzat irtenbide onargarri bakarra. Zenbait pertsonaiak, hala nola Samuel eta mutua, edo laburbildu berri dugun istorioaren nolakotasunak eleberriaren intertestu hurbilena iradoki diezagukete: *Malone meurt* (1951), Samuel Beckett (Dublin 1906-Paris 1989) irlandar idazlearena. R. Saizarbitoriak ez zuen beste eleberririk argitaratu 1995 arte; orduan argitaratu zuen *Hamaika pauso*, baina aurrerago hitz egingo dugu eleberri horretaz.

Eleberri esperimentalen azterketa bukatzeko, **Patri Urkizuren** (1946) *Sekulorum Sekulotan* (1975) obra abangoardista aipatu nahi genuke. Madrileko UNEDen irakasle den lezoar hau, EIEko lehendakari izan zen 1989-1993 artean eta Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura Sailaren arduraduna da gaur egun. Euskal literaturaz eta antzerkiaren historiaz argitara eman dituen saiakera-lan ugariak (*Literatura eta Kritika*, 1970; *Euskal teatroaren historia*, 1975; *Euskal antzertia*, 1984...) hainbat sari lortu dituzte. Urkizuren poesia-liburuen artean, *Dorrejilko Kanta* (1977) eta *Zeren azken finean* (Kutxa, 1984) dira aipagarri. Eleberrigintzari dagokionez, berriz, lau dira Urkizuk argitaratu dituen lanak. Lehenago aipatu dugun *Sekulorum Sekulotan* (1975) eleberriaz gain, *Nola Kursaal berria suntsitu zen* (Elkar, 1984), *Etsipenez: Jon Chahoren memoriaioizunak* (Elkar, 1984) eta *Zoazte hemendik!: 1936ko Santakruzak* (Susa, 1995).

Sekulorum sekulotan barne-bakarrizketa da, puntu zein komarik gabe transkribatua, eta P. Sollersen zenbait obra dakarzkiguna gogora. *Tel Quel* talde frantziarreko kideen poetikekin erabateko sintonian idatzitako antinobela honek agerian uzten du hizkuntza-izakiak garela, eta eleberriko orrietan transkribatutako hitz jario etengabearen atzean ez dagoela ezer. 1972an idatzitako eleberri honetan garai hartako egoera politiko aztoratua eta Frantziako 68ko maiatza berriro bizitzen ari zen gazteriaren eztabaida erlijioso-moralak islatzen ditu Urkizuk.

Joera experimental eta abangoardistakoak dira, halaber, garaiko euskal narratibaren panoraman indar handiz sartutako bi idazleren obrak. **Koldo Izagirre**⁷ (1953) eta **Bernardo Atxaga**⁸ (1951) dira belaunaldi berri horren ordezkariak, eta 1975ean *Panpina ustela* aldizkaria sortu zuten. *Ustela* aldizkari apurtzaile eta antikonbentzionala zen eta abangoardia kontzeptuari lotuta dagoen literaturaren autonomia aldarrikatzen zuen. Horregatik barneratu izan dira «autonomiaren belaunaldia» delakoan *Ustela* taldekoak ez ezik, garai beretsuan sortu zen *Pott* aldizkariko kideak (1978-83). *Pott* taldea, B. Atxagak *Ustela* utzi eta bere ekimenez Bilbon sortua, osatzen zuten, Atxagaz gainera, J. M. Iturralde, J. Sarrionandia, R. Ordorika eta J. Juaristik. Bi aldizkarion ildoek bat egiten zuten helburu literario hutsak bilatzen zituztelako, baina hizkuntz aukeran bereizten ziren bata bestetik, *Ustela* berrituaren kideek (K. Izagirre eta R. Saizarbitoria) euskaraz soilik idazten baitzuten.

Koldo Izagirreren *Zergatik bai* (1976) eta Bernardo Atxagaren *Ziutateaz* (1976) dira 1970eko hamarkadako experimentalismoen atala ixten duten lan abangoardistak. Biek dute ezaugarri komun bat, hots, nekez sailka daitezkeela eleberri gisa. **K. Izagirreren** *Zergatik bai*, R. Saizarbitoriak liburuaren kontrazalean adierazten zuen eran, saiakera linguistiko bat da, euskara batuaren asepsia gainditzeko saio bat. Saio hura hizkera erregistro eta maila desberdinak agertzen zituzten testu labur sorta batean mamitu zen. Heteroglosia horren bidez, Izagirrek euskararen egoera diglosikoa islatu zuen, baita irakurlea seduzitu ere estilo iradokitzailer eta plastizidade handikoa erabiliz. Aipagarriak dira benetan testuetan agertzen diren modalizazio joko guztiak eta obran agertzen diren pertsonaia talde desberdinen (umeak, gazteak, jubilatuak...) ezaugarriak transkribatzean erabilitako ironia.

B. Atxaga gazteak 1971n argitaratua zuen bere lehen narrazioa, «Lo que anhelamos escribir», *El Norte de Castilla* egunkarian, eta 1970eko hamarkadan sendotu zuen hasiera hura, abangoardismo osteko poetikak bere egiten zituzten testu esperimentalak argitaratuz. *Ziutateaz* eleberriaz eta *Etiopia* (1978) poemarioaz ari gara, lanotan modernitatearen amaiera ekarri zuen asperdura poetikoa iragazten baita. *Ziutateaz* eleberria produktu hibridoa da, poemak, deskribapenak eta testu dramatikoak txertatuta daramatzen narrazioa. Literatur generoen muga estuak gainditzeko joera hori etengabe agertuko da autorearen ondorengo obran, hala nola, *Henry Bengoa Inventarium* (1988) testu berritzailean edo *Groenlandiako lezioa* (1998) lan bikainean. Izan

⁷ Ikus aurrerago egilearen fitxa bio-bibliografikoa, 132. or. eta hurr.

⁸ Ikus aurrerago egilearen fitxa bio-bibliografikoa, 138. or. eta hurr.

ere, ezerk definitzen badu Atxagaren ibilbide literarioa etengabeko esperimentazioak definitzen baitu. Bilatze lan horretan, asteasuarrak ez du zalantzarik izan haur literatura eta helduen literatura bereizten dituen tarte estua arakatzeko edo irakurleengana errazago iristen diren irakurketa publikoak egiteko.

Ziutateaz liburuan islatzen den mundua izugarria da. Narrazioan borreroak agertzen dira barra-barra, bereziki Scardanelli, izaki odolzale eta ankerra; boxeolari azpiratuak, ikuskizun tetrikoetan erabilitako soldaduak, torturazaille frustratuak... desparadisuaren sinboloa da hiria. Bertan bizi direnek, hala nola Hölderlin poeta gogora ekartzen digun Scardanelli, Theo (Van Gogh-en anaiaren erreferente birtuala), Bilintx (euskal poeta erromantiko zapuztua)... denek ageri dute eromenaren kutsua, edo izaki baztertuak dira. J. M. Iturralde idazleak eleberraren bigarren ediziorako sarreran iradokitzen zuen bezala, testuak data batera eramaten gaitu, 1975era, zeinean, Iturraldek dioen legez, «borrero nagusia» artean bizirik baitzegoen. *Ziutateaz* errepresio politikoa eta askatasunen ukazioa indarrean zegoen garai baten sinboloa da. Atxagak berak ere esan izan du behin baino gehiagotan eleberrri hura soldadutzan zegoelarik idatzi zuela, eta bertan erakusten den unibertso etsipenezkoa autorea bizitzen ari zen egoeraren isla zela. Abangoardiek eta surrealismoak iradokitako mundu marjinalak errepikatuz, erregistro eta ahots desberdinak konbinatuz, edo irudi espresionistak erabiliz, eleberriko narratzaileak mundu hits izugarria marrazten digu. Obra esperimentalakenez, ez da harritzekoa autore inplizituak ohar batean amaiera desberdinak iradokitzea edo narratzailea «mutuen hirian» bizi dela jakinaraztea. Isiltasunaren poetika horrek Atxagak 1978an argitaratu zuen *Etiopia* poemarioan izan zuen adierazpenik beteena, kritikariek euskal poesia modernoaren kanontzat hartu duten testuan.

5. Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1976-2000)

1970eko hamarkadatik gaur arte definitu den euskal eleberrigintzaren mapa uharte eta artxipelago ugariz josia agertzen zaigu. J. L. Borgesek literatura ingelesaz zioenari jarraituz¹, euskal eleberrigile bakoitza uharte bat dela esan genezake geuk ere, eta uharte izaera horrek nabarmen zailtzen duela euskal literaturaren historialariaren lana. Horregatik ahalegindu gara azken hamarkada hauetako eleberrigintza aztergai duen atal honi tarte luze-agoa ematen, azterkizun dugunaren berritasunak zailtasun ugari dakartzala aitortu arren, inoiz eduki dugun eskaintza literario aberatsenaren aurrean gaudelako.

Gauzak horrela, azken atal honetan gaur egungo euskal eleberrigintzaren ildo nagusiak zehazten ahalegindu gara, nahiz eta, egia esan behar bada, hainbat egileren ibilbide literarioa aztertuta zaila den nobela-tipologia berezi bati atxikitzea. Esate baterako, non kokatu Anjel Lertxundiren azken urteotako eleberrigintza, *Hamaseigarrenean aidanezetik Argizariaren egunakera* dagoen alde nabarmena kontuan hartu gabe? Segur aski, erantzun zuzena eman nahiko bagenu, nobela-tipologia desberdinetan sailkatu beharko genituzke oriotarraren lanak... edo *eklektizismoa* moduko terminoak erabili aberastasan poetiko hori guztia deskribatzeko.

Zailtasunak zailtasun, ordea, azken hamarkadetako euskal eleberrigintzaren sailkapen tipologikoa egiten ahalegindu gara, joera nagusien berri ema-

¹ ik. : “Novalis escribió que cada inglés es una isla; este carácter insular ha hecho más difícil nuestra labor, ya que la literatura británica, a diferencia de la francesa, consta, ante todo, de individuos y no de escuelas. Fácil será encontrar omisiones en las siguientes páginas. No significan necesariamente desdén, olvido o ignorancia.” in BORGES, J. L. & VÁZQUEZ, M. E., 1999, *Introducción a la literatura inglesa*, Alianza, Madril.

ten. Eta horretarako, joera orokorrak jasotzen dituzten azpi-ataletan sailkatu dugu azken kapitulu hau. Joera orokor horiek zehazteko gaur egun eleber-
rigintza sailkatzeko erabiltzen den tipologia hedatuena hartu dugu oinarri
eta honako hau litzateke sailkapen tematiko-formal horretan agertuko lira-
tekeen eleberriak: subjektibitatea ardatz duten eleberriak (eleberri lirikoak,
psikologikoak, testimonialak...), eleberri errealistak, eleberri historikoak,
eleberri fantastikoak, generozko eleberriak eta abar. Beraz, edozein irakur-
keta determinista itzuriz, eskema ulergarria aurkeztea izan da gure xedea
azken atal honetan.

Modernitate ostea, edo posmodernitatea

Modernitatea definitzeko erabili izan diren hurbilpen eta abiapuntuak
anitz eta konplexuak izan badira, zer esanik ez modernitate osteko egoera
definitzeko, hots, *posmodernitatea* deritzona definitzeko erabili direnak. Batek
baino gehiagok onartu duen modura, termino hau gaur egun ia edozertaz
hitz egiteko erabiltzen da, alegia, komodin gisako kontzeptu gisakoa da. Edo-
nola ere, dela subjektuaren heriotzaz hitz egiteko (Braudillard), dela narra-
tiba hegemonikoen kontrako aldarriei erreferentzia egiteko (Owen), dela
kapitalismo berantiarreko kontsumo-gizarteaz mintzatzeko (Jameson), dela
giza-zientzien marjinaltasunari erreferentzia egiteko (Said), dela historizitate
ororen amaiera definitzeko (Vattimo)... edozertarako erabiltzen dugularik
ere, posmodernitateak 1960ko hamarkadaz geroztik finkatuz joan den egoe-
ra berria deskribatu nahi du.

Ados egon ala ez, argi dago jakintza-arlo desberdinetan gailenduz joan
den hausnarketa honek arrazionaltasunean, aurrerapenean, historizitatean,
gizabanakoaren autoritatean... sinesten zuen mundu moderno gaituta
dagoela adierazten digula. Behiala “moderno” izan behar bazen, alegia,
apurtzailea, originala, gaur egun modernismoaren protagonista izan zirenak
museoetan edo arte-galerietan ikusten ditugu (edo fotokopietan inprima-
zen), eta unibertsitateetan kanonizatzen. Jamesonek dioen moduan,
orduantxe hasi baitzen posmodernitatea, 1960ko hamarkadan kanoniko eta
eredugarri kontsideratzen ziren maisuak (espresionismo abstraktua; Pound,
Eliot edo Wallace Stevens-en poesia modernista; Le Corbusier, Lloyd Wright
edo Miesen estiloa; Joyce, Proust edo Mannen literatura; Stravinsky...) zahar-
kituta zeudela pentsatzen hasi zirenean.

Batzuentzat (ik. Bonells, J.:1996), posmodernitatearen kontu hau guztia
gezur handi bat besterik ez da, euren ustez, *pop-arten* jarraitzaileek hasi bai-

tzuten iraultza guztia. Modu honetan ulertua, Warhol eta bestek eragindako aldaketa funtsezkoek (kultura/subkultura arteko mugak haustea; egunero-kotasunaren balorazioa; kontsumo-kulturaren goraiapamena; memoria narratiboa deuseztea...) gaur arte iraun dutela esan liteke.

Horretaz gain, bada *posmodernitatea* eta *posmodernismoa* bereizten duenik ere (ik. Navajas, G.: 1996). Lehenengoak, pormodernitateak, gaur egunean indarrean dagoen eredu filosofiko eta kulturalari egingo lioke erreferentzia; bigarrenak, berriz, epistemologia berri horretan indartu diren estetika eta artelanak adierazi nahiko litzuzke.

Edozein modutan delarik ere, argi dago *posmodernitateak/posmodernismoak* badituela aditu gehienek azpimarratu nahi izan dituzten zenbait ezaugarri. Honako hauek izango lirateke:

1. Edozein artelanez ez du “zentzu” edo “adierazi” dei diezaiokegun ezer ezkututzen. Andy Warholek bere margoei buruz esandakoa baliagarri zai- gu hemen: “Ez ezazue atzean dagoena bilatu, atzean ez dago ezer-eta.”
2. Gizabanakoaren baitako munduak, bere desirek, dute protagonismoa artelanean.
3. Hierarkia irauli egiten da. Literatura kanonikoaren, hegemonikoaren aurrean, bazter literaturak eta idazleak aztertu eta balio berriak hartu- ko dira aintzat: emakumezkoek idatzitako literatura, hirugarren mun- dukoek egindakoa... Zalantzan jartzen dira testuen kalitatea definitze- ko garaian erabili ohi diren irizpideak.

Liburu honen lehenengo kapituluan Erzensbergerrek esandakoak gogo- ra ekarri ditugunean adierazi bezala, beldur gara zientziaren teorian P. Feye- rabendek behiala defendatutako “denak balio du” aldarria hertsiegi ez ote den jarraitu gaur egun, eta literatura onaren eta txarraren arteko mugak ez ote diren errazegi deuseztatu. Merkatuaren legeetara errenditzeak sorkuntza literarioari kalitate-irizpideak leuntzea erakarri badio, genero guztien artean komertzialena denari, eleberriari, ondorio kezkarriak ekarri dizkio. Ingu- ruko literaturetako kritikariek aho batez dioskuten modura (ik. Gracia, J.: 2000: 209), kalitate eskaseko eleberri ugari argitaratu dira azkenaldian.

Posmodernitatea eta eleberria

V. R. Hollowayren aburuz (1999), adituek bi adiera desberdinetan erabili dute posmodernitate kontzeptua gaztelaniazko narraziozko testuei buruz mintzatu direnean:

1. Batetik, Hassan eta Lyotard-engandik datorren posmodernismo kontzeptua adierazteko. Kasu honetan, posmodernismoa esperimentalismoari dago hertsiki lotuta eta 1960ko hamarkadaren amaieratik geroztikako espainiar nobelei egiten die erreferentzia. Mugimendu anarkikoa, konbentzioen aurkakoa kontsideratzen da, modernismo europarrak dagoeneko zedarritutako mugimendua. Metanobela, edo ingelesez Hutcheonek *metafiction* deitu zuena izango litzateke esperimentalismoaren emaitza interesgarrienetakoa. Eleberri-mota honetan, nobelaren idazketa edo irakurketa bera (edo biak) bihurtzen dira kontagai eta fikzioaren mugekin jolas egiten du idazleak. Gonzalo Navajasen iritziz (1987), *Tiempo de silencio*ekin (1962) hasi zen Espainiako eleberri posmodernoa eta 1970eko hamarkadaren erdi arte iraun zuen. Poesiari dagokionez, *novísimoen* garaiaz mintzatuko ginateteke, 1967-1975 artean poeta berritzaile horiek kaleratu zituzten lanez.
2. Bestetik, posmodernitate hitzarekin kontaktzeko gustua berreskuratzen duen eleberrigintzaren garaia ere egiten zaio erreferentzia. Garai honetako eleberriak modernismoaren estrategia narratibo aberatsak nahiz kontamolde tradizionalagoak uztartzen ditu. Espainiako eleberritari dagokionez, aro demokratikoan, 1975eko *La verdad sobre el caso Savolta* eleberriarekin hasten den garaia litzateke posmodernoa. Hona hemen eleberrigintza honen ezaugarri nagusiak: joera aniztasuna, kontaktzeko modu tradizionaletaranzko bira, testuartekotasun nabarmena, generoen konbinazio parodikoa edo ironikoa...

Gure irudirako, bigarren adiera da gaur egunean hedatuena eta zentzu horretan erabiliko dugu gure ikerlanean ere: eleberri esperimentalaren ostean sortzen den joera-aniztasuna adierazteko hain zuzen. Behiala U. Ekok esan bezala, «Dena kontaktuta dago, baina gogoratu egin behar da» premisa posmodernoa baldintzatu du euskal nobela, 1976an, *Ene Jesusekin*, esperimentalismoak goia jo zuenetik. Saizarbitoriaren eleberri horrek isiltasunaren poetikarekin jarri gintuen aurrez aurre, hau da, modernitatearen amaieran arteak bizi izan duen egoerarekin: narrazioa etengabe bortxatuz, behin eta berriro porrot egiten duen kontaketa-saioa irudikatu zigun donostiar eleberrigileak. Istorio berriak kontaktzeko ahalegin oro antzua denez, bi aukera dauzkagu: isildu (ik. Beckett) edo istorioak kontaktzen ahalegindu, kontaktuta daudela jakin arren, hau da, ezer berririk kontaktuko ez dugulako ziurtasuna eduki arren.

Umberto Ekok oso modu bitxi (eta barregarrian) azaltzen du zer den posmodernitatea bere *Postille a "Il nome della rosa"* liburuan. Ecoren aburuz, joka-

bide posmodernoan honako hau izango litzateke: demagun gizonetzko batek emakume oso jantzi bat (ikasia, alegia) maite duela. Bere maitasuna aitortzeko, badaki ezin diola “izugarri maite zaitut” esan, Corín Telladok esan zuelako lehenago. Horren orde, honako hau esaten badio: “Corín Telladok esan zuen moduan, izugarri maite zaitut” bere helburua lortuko du, maite-minduta dagoela jakinaraztea eta, aldi berean, ironia erabiliz, zaharkitutako adierazpena berreskuratzea. Dakusagunez, ironia, jolas metalinguistikoa... jokabide posmodernoaren ezaugarri funtsezko dira.

Euskal eleberrigintzara itzulita, narrazio teknika modernoak bere egin arren istorioak kontatzen zituen eleberrigintzari eman zion bide aldi esperimentalak. 1979an argitara eman ziren bi eleberri ditugu esaten ari garenaren adibide bikainak. Batetik, J. A. Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*; A. Urretabizkaiaren *Zergatik, Panpox*, bestetik. Ondoren adieraziko dugunez, bi eleberriak dira aipagarriak konta-teknika modernoan erabileragatik, baina horretaz gain, bietan istorio bat kontatzen zaigu, dela bazkalondo batean oroitzen diren bizitza-pasarteek osatzen dutena, dela ama abandonatu baten egunerokotasun hita iradokitzen diguna. Orduz geroztik, euskal eleberriaren ibilbidea izugarri aberastuz joan da, tipologia askotarikoen eskaintza ugaritu delarik.

Erabili dugun eleberri-tipologiaz

Ondoko puntuetan ikusiko dugunez, gaur egungo euskal eleberriak barrura begiratzen du batez ere (ik. subjektibitatea ardatz duten eleberriak) eta kanpora begiratzen duenean ere (ik. eleberri errealistak), gertakari batzuen lekukotza objektiboa eman baino gehiago, kontzientzia batean izandako eragina adierazi nahi du (ik. ETaren gaia ukitzen duten eleberriak). Horiekin batera, eleberri poliziakoak, historikoak edo generozko beste eleberri batzuk izango ditugu aipagai.

Hala ere, aurrera jarraitu baino lehen, beharrezkoa irizten diogu goiko lerroetan zehaztu dugun eleberri-tipologiari buruz bi hitz esateari. Literaturaren historia eta azterketa kritikoak irakurtzera ohituta dagoen edonork badaki irizpide ugari eta kontrajarrien arabera iker daitezkeela eleberriak. Liburu honen hirugarren atalean genioen modura, eleberri-tipologia ugaria izan da azterketa kritikoetan. Hortxe geneuzkake, esaterako, ezaugarri formalen araberrako tipologia (gutun-eleberriak eta foiletoiak), edukien araberrakoa (sentimenduzko eleberriak, heziketa eleberriak), pertsonaien araberrako sailkapenak (zaldun eleberriak eta eleberri pikareskoak), edo eleberriek

irudikatzen duten giroaren araberakoak (eleberri beltza, zientzia fikziozkoa, fantasiatzkoa).

Gure tipologiak, ezer baino lehen, sailkapen hertsiegia gaintu eta erabilgarritasuna bilatu nahi du. Irakurlea laster ohartuko da, zalantzarako aukera gutxi eskaintzen duten tipologiaren ondoan (ik. eleberri poliziakoak, eleberri historikoak, generozko beste eleberriak), badirela eztabaidagarriagoak suerta daitezkeen beste bereizketa batzuk, hala nola, gure sailkapenean bereizi ditugun lehenengo bi atal nagusiak: “subjektibitatea ardatz duten eleberriak” eta “eleberri errealistak”. Oinarrizko desberdintasun batetik abiatu gara bi tipologia nagusiok bereizteko garaian: subjektibitatea ardatz duten eleberriek narratzailearen barne munduan arakatu nahi dute, gero eta ulergaitzago bihurtu den “ni” horren maskara desberdinak azaleratu nahi dizkigute.

Eleberri horiekin konparatuz gero, bestelakoak dira gaurko narrazio errealistek eraikitzen dizkiguten munduak. Eleberriok bizitzari begiratzen badiote ere, mimesi modu subjektiboa proposatzen digute gehienetan eta pertsonaia baten ikuspuntutik antolatutako unibertso narratiboak aurkezten dizkigute (ik. Oleza, J.: 1996). Horretarako, errealismo subjektibo berri hau eraikitzeko, hizkuntza literarioa irudi desberdinez hornitzen da, dela oroi-menaz baliatuz, dela amets edo irudimenaz baliatuz, dela egungo gizartearen ohitura berrien aurkezpen naturalista eginez. Bi denbora-mota dira, beraz, eleberrigintza errealista honetan gailentzen direnak: denbora bergsoniarra eta denbora epikoa, narrazioaren bilakaera kontatzen diguna. Eleberriotan, ezer baino lehen, zerbait kontatu nahi zaigu, idazketari buruzko pasarte metanarratiboak tartekatzeari uko egiten ez bazaio ere. Tradizio errealistako gaiak azaltzen dira berriro ere: identitate krisiak, gizartearekiko harreman zailak, erauzketa, gertakari historikoak...

Ikusten denez, errealismo kontzeptuaren adiera polisemikoa onartuz ere, badira gure sailkapenean bereizi ditugun atal nagusien mugak zehazten laguntzen diguten ezaugarri tematiko-formalak. Horiek gogoan sailkatu ditugu eleberri eta egile desberdinak talde batean edo bestean.

Zehaztapen labur hauekin amaitzeko, esan dezagun gure aburuz gaurko panoraman aipagarrienak diren egile eta eleberriak iruzkintzen ahalegindu garelara. Gure helburua euskal eleberrigintzaren historia egitea izan den arren, egile desberdinen aurkezpen bio-bibliografiko osatuena eskaintzen ere ahalegindu gara eta eleberri bat baino gehiago argitaratu duten egileak soilik iruzkintzen. Eleberri bakarreko egileak aipatu ditugunean (L. Oñederra, I. Rozas, I. Mujika Iraola,...), argitara emandako lanen interesa edo arra-

kasta izan dugu akuilu. Horrek ez du esan nahi guk aztertutako lanez gain beste eleberrri interesgarri batzuk (ad.: *Pausoa noiz luzatu; Katebegi galdua*,...) ez daudenik. Hautapen literario orok du oinarrian kritikoaren irizpide estetikoaren araberrako aukeraketa. Iruzkun arrazoituak eskaintzen ahalegindu garen neurrian, ondoko lerroetan datozenak azken hamarkadetako euskal eleberrrien irakurketen metaforak besterik ez dira.

a) Subjektibitatea ardatz duen egungo euskal eleberrigintza: eleberrri poematikoak, psikologikoak, oroitzapenezkoak edo testimonialak

Antología de la narrativa vasca actual (1986) liburuaren aitzinsolasean, J. M. Lasagabaster kritikariak lirikotasunaren eta barne-munduen nagusitasuna sumatu zuen 1970eko hamarkadaren amaierako eta 1980ko hamarkadaren hasierako zenbait euskal eleberritan. Baina, gainera, ez zuen dudarik egin euskal eleberrigintzak errealitateari aurre egiteko beren kabuz eusten zioten fikzio-unibertsoak sortzeko orduan zituen zailtasunen salaketa egitean. Lehenago defendatutakoaren ildotik, Lasagabasterrek deitoratu egin zuen Barojaren eleberrigintzak euskal idazleen artean izandako jarraipen eskasa, eta eleberrigintza tipologia errealistak gure panoraman egin zitzakeen mesedek defendatu zituen. Gaurtik ikusita, zalantzarik ez dago baieztapen horien azpian dagoen errealismoaren ikusmoldea nahiko stendhaliarra dela eta, gainera, gaur egun eztabaida hori gaunditua dela, antza. Ziur aski, azken hamarkadan argitaratutako ikusmolde errealista desberdinetatik idatzitako eleberrri ugariek eskari hori ase egin dute, eta, zorionez, gaur egun eleberrri aukera oso zabala dugu, irakurle komunitate desberdinek beren buruak haietan islatuta ikusteko moduan².

Barne-munduek gaurko euskal eleberrigintzan duten presentziari dagokionez, honako hau azpimarratu beharko genuke lehenik eta behin: atal honetan sartu ditugun eleberriek elkarren artean desberdintasun handiak dituztela aitortu arren, gehiago direla gaitan eta forman dituzten ezaugarri komunak. Ezerk batzen baditu, subjektibotasuna ardatz izateak batzen ditu, alegia, narratzailearen *Ni*-aren, barne-munduaren, inguruan antolatuta egoteak.

² Hori horrela bada ere, noizean behin sortzen dira gurean errealismoaren auzia oraindik gaundituta ez daukagula iradokitzen duten eztabaida eta hausnarketak. Denboran oso atzera joan gabe, hortxe daukagu Juan Garziak argitara eman zuen artikulua interesgarria (ik. "Errealismoa euskaraz", *Egunkaria*, 1999-10-13, 5), zeinetan "osorik edo zati batean euskarazkoak ez diren munduak euskaraz emateko orduan ditugun zailtasun era askotakoak" aipatzen ziren.

Eta subjektibotasunaz mintzo garenez, esan dezagun haxe dela, hain justu, azken hamarkadetako eleberrigintzaren ezaugarri funtsezkoenetakoa inguruko literatur tradizioetan. Aurreko puntuari adierazi dugun moduan, bere ni-an sakondu nahi duen narratzailearen ahotsa gailendu da eleberrietan, bere izatea, arazo moralak, ezinegonak... narratzaile-pertsonaia baten bidez kontatzen dizkiguten eleberriak. Horregatik mintzo zen J. C. Mainer 1996an “literaturaren pribatizazioaz”, barrurantz begiratzen dutelako gaurko eleberrigileek. Braudillardek “subjektuaren heriotzaz” esandakoek horixe adierazi nahi baitute finean: hil dela mundua neurtzen eta menderatzen zuen subjektu modernoa (ik. Jameson, F.: 1998), bere estilo original berezian mintzo zitzaigun idazlea. Subjektu burges horren ordeztu, kapitalismo berantiarreko kontsumo-gizarteko sortzaileak *maskarak* erabiltzen ditu, *pasticheak*, hainbat ispilutan zatikatuta dakusan ni hori deskribatzeko.

J. Graciak (2000: 239) modu oso egokian adierazi du Espainiako prosan azken urte hauetan gailentzen joan den norabide tematiko-estilistikoa:

Hoy apenas nadie acepta representar nada ante la sospecha de que nadie se sienta representado por nadie, mientras los conflictos centrales de las novelas afectan a espacios de la intimidad, a la obsolencia de los proyectos de juventud o adolescencia, al sentimiento del desplazado o a la angustia leve de la aprensión moral. *La novela ha seguido mirando hacia atrás y hacia adentro, aunque muy poco hacia afuera*, seguramente condicionada por la biografía profesional de sus autores y muy crédula ante la veracidad de las herramientas que la sociedad contemporánea destina a contar la realidad: el periodismo y los medios de comunicación. [Letra etzanak gureak dira]

Hori onartuz, esan dezakegu ildo subjektibo hori Txillardegiren eleberririkin hasi zela eta hortik abiatuta iritsi dela, gero, pertsonaiaren psikologian gehiago sakontzen saiatzen diren obretara edo forma zein irakurketa aldetik genero poetikoaren antza duten nobeletara, hau da, eleberri poetikotiko (ik. G. Sobejano) edo liriko (ik. N. Fredman edo D. Villanueva) esaten zaienetara.

Asko dira barrurantz begiratu duten idazle eta eleberriak, baina obra eta autore adierazgarrienak aipatzen saiatuko gara hemen: **Joxe Austin Arrieta** (1949) eta bere bi eleberriak, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (1979) [itz.: *La sobremesa del 15 de agosto*. Ed. Hiru, 1994] eta *Manu militar* (1987); **Mario Onaindiaren** (1948) lau eleberriak: *Ehurtzan datzaten zuhaitz enborrak* (1977)

kafkiarra, *Grande Placen aurkituko gara* (1983) [itz.: *Grande Place*, Ed. Akal, 1985], bi planotan kontatutako bidaia inizatiko, politiko eta sentimentala, *Olagarroa* (1987), 1986ko Azkue Saria irabazi zuena, eta Melvilleren irakurle den protagonista presoaren patu tragiko saihestezinaren ingurukoa, eta, azkenik, *Gela debekatua* (1998), giro gotikoan kokatua; **Arantxa Urretabizkaiaren** *Zergatik Panpox* (1979) [itz.: *¿Por qué, Panpox?*, Ed. Orain, 1995] eta *Koaderno gorria* (1998) eleberriak; **M. Erdozaintzi Etxarten** *Gauaren atzekaldean* (1982) eleberria; **Joseba Zulaikaren** *Zu zara...* (1982); **Patri Urkizuren** *Etsipenez* (1984), eleberri gisa emandako oroitzapenak; **Pello Lizarralderen** *Hatza mapa gainean* (1984) eleberri onirikoa; **Felipe Juaristiren** (1957) *Ari-nagoa duk airea*, *Absalon* (1990) [itz.: *Más leve que el viento*, *Absalón*, Ed. Vosa, 1993], 1990eko Kritika Sariaren irabazlea; **Juan Luis Zabalaren** (1963) eleberrigintza; **Ramon Saizarbitoriak** 1990eko hamarkadan argitaratutako eleberriak; **Yolanda Arrietaren** *Jostorratza eta haria* (1998), edo azken urteotan kaleratu diren zenbait eleberri psikologiko, hala nola, **Jokin Muñozen** *Joan zaretenean* (1997); Th.. Bernhardi omenaldia egin nahi dion **Manu Erzillaren** *Ez* (1999); **Lourdes Oñederraren** *Eta sugeak emakumeari esan zion* (1999) sari-tua; eta **Ixiar Rozasen** *Edo zu, edo ni* (2000). Segidan, aipatutako eleberriota-tik batzuk komentatuko ditugu.

a.1) Joxe Austin Arrieta (1949)

Joxe Agustin Arrieta donostiarra da, Filologia Erromanikoan lizentziaduna eta, aspalditik, Kutxan itzultzaile lanetan ari dena (ik. <http://www.idazleak.org>). Bere bibliografia zabalean narratiba-lanak, poesiakoak (ik. *Arrotzarena/Neurtitz neurgabeak*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1983; *Bertso-paper printzatuak*, Elkar, 1986; *Mintzoen mintzak*, Elkar, 1989; *Graffitien ganbara*, Kutxa, 1996) nahiz itzulpen ezagunak kausi ditzakegu: *Hadrianoren oroitzapenak* (Marguerite Yourcenar), *Eulien ugazaba* (William Goldwing), *Beirazko giltzak* (Jaume Fuster) eta *Homo Faber* (Max Frisch), guztiak Elkarrek argitaratuak. Horretaz gain, hainbat sari aipagarri lortu ditu, hala nola, Irun Hiria Eleberria Saria (1978), Irun Hiria Poesia Saria (1982an eta 1996an) eta Itzulpeneko Euskadi Saria (1995). Sarreratxo hau egilearen narratiba-lanak gogora ekarriz osatuko dugu: *Bidaia/Termitosti* (Ustela, 1978) ipuin-liburua, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1979) eta *Manu Militari* (Elkar, 1987) eleberriak. Azkenik, 1998koa da *Labur aroz* (Txalaparta) narrazio-liburua.

Autorearen lehen eleberriak, *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*, eleberri ataleko Irun Hiri Saria irabazi zuen 1978an. Obra erakargarria da, forma alde-

tik ongi eramana, eta estrategia narratibo moderno ugari eskaintzen dituen. Istorioaren izaera autobiografikoa gorabehera, eleberria, aldi berean, 1950eko eta 1960ko hamarkadetako Donostiaren historiaren kronika da. 16 urteko apaizgai baten ikuspuntuak artikulatzen du testua, 1965eko abuztuaren 15eko bazkalondoa aitzakia narratibo moduan erabiliz oroimenak eta gogoetek protagonismoa beregana ditzaten. Pixkanaka, pertsonaia narratzaile gaztearen diskurtsoak bere bizitzako une garrantzitsuenak gogoratzen ditu: bokazio erlijiosoa eta haren krisia Marisa ezagutzen duenean, haurtzaroa, emigrazioa eta bazterketa. Txatal biografiko horiek guztiak, bigarren pertsonan kontatuak, berriro abuztuaren 15eko bazkalondora garamatzaten elkarriketa eta deskribapenekin tartekatzen dira sarri askotan.

Baina apaizgai gaztearen atzera begirako diskurtsoaren ondoren, aitaren diskurtsoa da eleberriaren bigarren ardatz narratibo garrantzitsua: hau ere atzera begirakoa da, Gerra Zibileko haren ibilerak gogoratzen saiatzen baita. Gerrako gertakizunen kontaketa ideologia abertzalea uzten du agerian, baita gerra galdu zuen belaunaldiaren ilusioak ere. Aitaren diskurtsoa, hau ere bigarren pertsonan kontatua, ahozko euskarari dagozkion lagunarteko esaldiz josita dago, protagonista-narratzailea den «etxeko seme estudiantearen» diskurtso jasoagoarekin kontrastea eginez. Eleberria, era horretan planteatua, sendi horren irudi fidagarria marrazten duten oroipen eta bizipenen joan-etorri etengabea da. Iraganaren eta orainaren arteko aurkakotasuna azpimarratu nahi da batez ere, pertsonaien desiraren eta errealitatearen arteko aurkakotasuna.

Denbora-anakroniak ez ezik, espazioaz egiten den erabilera sinbolikoa ere aipatu nahi genuke. Etxea, Gernika edo Paseo Berria leku bereziak dira, familia, politika edo haurtzaroarekin lotzen gaituztenak, eta oroimena abiarazteko baliagarriak. Eta, aipatu leku horiekin batera, sukaldea dago: bertatik, eta familiaren bidez, euskal gizartearen argazki politiko eta kulturala erakusten zaigu.

Narratzaileak pertsonaien hizkera desberdinak transkribatzeko duen trebezia nabarmendu nahi genuke *Abuztuaren 15eko bazkalondoaren* gaineko iruzkin labur hau amaitzeko. Heteroglosia hori bakarrizketetan hautematen da, baita bakarrizketa etengabe hausten duten mahaikideen iruzkin eta elkarriketa hutsaletan ere. Erregistro, ahots eta hizkuntz maila desberdinen erabilerrari esker, euskal errealitate konplexua era bikainean islatzen duten ahots-kontzertu bihurtzen da eleberria.

Autorearen hurrengo eleberrian, *Manu militarin* (Elkar, 1987), norabide aldaketa poetiko handinahia egin zuen bere eboluzio literarioan. Eleberri

luzea da, ia bostehun orrialdekoa, aurrekoa baino askoz konplexuagoa, eta narratzeko ekintzari buruzko gogoeta planteatzen du. Horregatik esan genezake metanobela bat dugula aurrean, hots, kontatzea bera kontatzen duen eleberria, birtuosismo estilistiko handiz kontatu ere.

Melillan errekluta da Iñaki eta Donostian bizi den neska-lagunari bidaltzen dizkion gutunek osatzen dute istorio nagusiaren muina. Aurreko eleberriak bezala, *Manu militari* honek oinarri autobiografiko ukaezina du, eta belaunaldi oso batek diktadura garaian ezagututako bizipen sortaren narrazioa izan nahi du (testuak 1973ko apirilaren 15eko data du). Ezaugarri horiekin batera, eleberriak intertestualitate zabala du, hainbat *collage* eta *pastichez* lortua. Eta testu horietan, berriz, aukera narratibo askotarikoak sortzen dituzte, eleberrian barrena konbinatuak: narratzailea eraldatu egiten da, eta hurrenez hurren bilakatu zinema zuzendari, Erdi Aroko monasterio bateko eskribau, telefilm poliziako bateko detektibea... eta testuinguru horietako bakoitzean Iñakiren eta haren neska-lagunaren arteko gutunak transkribatzen ditu. Zinema eta telebista, U. Ecoren *Il nome della rosa* eta G. Grassen *Die Blechtrommer* nobeletako irudi eta pertsonaiak... horrek guztiak ahots anitzeko kontzertu polifoniko bihurtzen du eleberria, eta horixe izan zen, hain zuzen, J. M. Lasagabaster (1989) kritikariak azertu zuen alderdia ikuspegi bajtinear batetik. Lasagabasterrentzat (1989: 339),

El discurso mismo del narrador se va disolviendo progresivamente en una explosión abigarrada de voces, de registros, de citas, en eso que Segre ha llamado *mise en abîme* de la literariedad [...].

Gure iritziz, gehiegizko intertestualitate horrek eragozten du eleberriak behar bezala funtzionatzea. Irakurleak, aurkezten zaion joko literarioak hasieran erakartzen badu ere, *Manu militari*ren labirintoan galtzeko arriskua du.

a.2) *Arantxa Urretabizkaia (1947)*³

Egungo euskal literaturaren panoramako emakumezko idazleen talde urriko kide da Arantxa Urretabizkaia. Haren hastapenak Lur argitaletxearekin daude lotuta, 1970eko hamarkadaren hasieran argitaratu zituzten testu politiko eta historikoen itzulpenak egiten jardun baitzuen. Historian lizen-

³ Urretabizkaiaren obrari buruzko azterketa luzeagorako, ikus nire *Intimismoaz haraindi: Emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1999.

tziaduna da eta kazetari lanetan aritu da *Ere, Egin* eta beste hainbat egunkaritan. 1999tik aurrera, *Zabalik* astekariko elkarrizketak egiten ditu eta horie-xengatik jaso du 2001ean, hain zuzen, Rikardo Arregi Saria. Poesia nahiz narratiba arloko lanak eman ditu argitara. Lehenengoen artean, *San Pedro bezperaren ondokoak* (*Euskal literatura* 72, Lur, 1972) eta *Maitasunaren magalean* (Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, 1982) aipatuko genituzke. Narratiba-lanen artean, berriz, *Zergatik Panpox* (Hordago, 1979); *Aspaldian espero zaitudalako ez nago sekula bakarrik* (Erein, 1983); *Saturno* (Erein, 1987); *Awtent aldatuko da nire bizitza* (Erein, 1992) eta *Koaderno gorria* (Erein, 1998). Urretabizkaiak egindakoak dira, halaber, *Albaniaren konkista* filmaren testua (Alfonso Ungría, 1983) eta *Lauaxeta* (1987) filmarena.

Zergatik, Panpox (1979) [itz.: *Por que, Panpox?*, Llibres del Mall, 1986; Ed. Orain, 1995] eleberri laburra da autorearen lanik ezagunena. Ongi idatzitako eleberri liriko bikaina da. Kritikariren batek definitzeko orduan «emakumezko literatura» kalifikazio beti “lagungarria” erabili bazuen ere, Urretabizkaiak beti saihestu du emakumezkoek idatzitako lan guztiak «literatura intimista» binomioaren inguruan taldekatzen dituen klixee absurdoa. Horregatik dago Urretabizkaia 1950eko eta 1960ko hamarkadetan jaiotako emakumezko idazle espainiarren (M. Abad, P. Díaz Más, L. Echenique, A. Grandes...) egoera bertsuan, autoreen sexuak ezaugarrituriko bloke monolitiko-tzat hartua izatea nahi ez zuten idazleen kasuan.

Zergatik, Panpox gaztelaniara eta katalanera itzulita dago, eta ama baten eta amultsuki «Panpox» esaten dion 7 urteko bere semearen bizitzako egun bateko gorabeherak kontatzen dira bertan. Narrazioa goizeko 7:45etan hasi eta egun bereko arratseko 21:15 inguruan amaitzen da, eta protagonisten eguneroko zereginen inguruan bilbatzen da: emakumearen lanaldi bikoitza, eskola, haurraren zaintza... Emakumeak gizarte modernoan duen funtzioaren inguruan dauden gogoeta asko biltzen ditu eleberriak, eta etengabeak dira emakumearen egoerari, emakume gorputzaren aurkikuntzari, etab. egindako erreferentziak. Emakume bakarra da protagonista, senarrak bost urte lehenago utzi zuenetik haurra bakarrik hazi behar izan duen ama. Adore-gabezia eta bakardadearen sentipenak hariltzen ditu hainbat bizipen eta oroitzapen protagonistaren bakarriketa luzean barrena.

Ziur aski barne-bakarriketaren erabilerak eta hariaren ezaugarriek (protagonistaren sexua eta gertakari guztiak egun batera mugatuta egotea) bul-tzatu zituen euskal kritikariak V. Woolfen *Mrs. Dalloway* (1925) eleberriarekin lotura intertestualak bilatzera. Baina, egia esateko, Clarissa Dalloway aristokrataren oso bestelakoa da Panpoxen ama: hurbilagokoa egiten zaigu eta,

bere eskubideak aldarrikatzen ikasi arren, zailtasunak ditu senarrik gabe bizitzeko. Gainera, Woolfen eleberria, kontrapuntu teknikaren bidez idatzia, Urretabizkaiarena baino askoz konplexuagoa eta egituratuagoa da. Gure ustez, *Zergatik*, *Panpoxen* unibertso literarioa hurbilago dago 1970eko hamarkadan, Frantziako «desberdintasunaren feminismoa» deitu ohi zaion mugimenduaren barruan, sortu ziren obretatik. Adibidez, Annie Leclerc, Hélène Cixous, Luce Irigaray edo Julia Kristevak mendebaldeko tradizio androzentrikotik aldendu nahi duen idazkera berri batekin esperimentatzen dute. Idazkera horren muina ahots literario berriaren bilaketa da, eta ahots horrek emakume gorputzaren esplorazioan bilatzen du bere espezifikotasuna. Ildo horretan, Urretabizkaiaren eleberria emakume gorputzaren aipamen eta deskribapenez josita dago. Emakume gorputzaren inguruko termino eta metafora sorta etengabeek sentsualitatea ematen diote testuari eta ikuspuntu berri, arakatu gabea agertzen digute, eta zenbait alderdi nabarmentzen, hala nola hilekoa, amaren eta semearen arteko harreman afektiboak (ia erotikokoak), eta abar.

Eleberri horren inguruko iruzkin labur hau bukatzeko, *Zergatik*, *Panpox* bakarrizketa luze horren egokitasun estilistikoa aipatu nahi genuke. Urretabizkaiak erabilitako teknika eta estrategia narratiboak ahozko tradiziotik hurbilekoak dira (errepikak, metaketak, errimak, kantuak, eta abar), guztiak haur hizkeraren erregistroaren erabileraz areagotuak, eta plastizitate handia ematen diote eleberriari. Lehen eleberri honetako prosa berri eta aproposak ez zuen jarraipenik izan autorearen ondoko lanean, 1987an, *Saturno* eleberriarekin [itz.: *Saturno*, Alfaguara, 1990], norabide poetiko berria eman baitzion bere ibilbideari.

Marinel alkoholiko baten eta Maite izeneko gaixozainaren arteko maitasun istorioa kontatzen da *Saturnon*. Era tradizionalen idatzia da, katramila formal handirik gabea; istorioa modu linealean kontatuta dago, narratzaile estradiegetiko baten bidez. Harreman sentimentalaren gorabeheren narrazioa askoz zehatzagoa da lehen ataletan, narrazioaren erritmoa astiro tuz emana. Eleberriaren lorpenetako bat Saturno planetarekin –gizonezko protagonistaren obsesioa– planteatzen den joko literarioan egongo litzateke. Donostiako hodeiek planeta hura ikustea galarazten dioten bezalaxe, alkoholak galarazi egiten dio Maiterekin harreman sentimental egonkorra izatea. Alkoholismoak jotako protagonista honentzat, Saturnok bere irrika guztien gailurra sinbolizatzen du, eta horregatik ez du inongo zalantzarik planetaren izen bera emateko bere desiraren objektuari. Bi obsesio horien arteko paralelismoa lausoegia suertatzen da zenbait sekuentzian, eta horrek, pertso-

naia batzuen garapen eskasarekin batera, sendotasuna kentzen dio eleberriri.

Hala ere, ez dugu uste eleberririk kritikaren aldetik izandako harrera kaskarra merezi zuenik. Horren suntsitzailea izan ez zen euskarazko iruzkinen bat alde batera utzita, harrigarria da gaztelaniaz zein euskaraz argitaratutako kritiken erabatekotasuna, are oldarra ere. G. Nichols Floridako Unibertsitateko irakasleak «Breaking Ranks, Breaking Lances: Trends and Resistances in Recent Spanish Fiction by Women» (ik. *SigloXX/20th Century*, 1995, 177-198) artikulu iradokitzailean kritika haien misoginia eta objektibotasun ezaren azterketa sakona egiten du.

Urretabizkaiaren azken eleberria, *Koaderno gorria* (1998), gaur egungo emakumezko idazle askok sarri erabilitako genero autobiografikoan sartzen da. Gure ustez, autorearen eleberririk handinahiena da, eta tonu liriko lortua duena. Amatasuna da nobelaren gunea eta maiuskulaz izendatzen den Amaren jardunak harilkatzen du narrazioaren unibertso osoa. Izenburuan iradokitzen den moduan, protagonista honek koaderno gorri batean idatzitakoak bideratzen du nobelaren eduki tematiko gusua.

Nobela bi planotan dago antolatuta. Batetik, Amaren aginduz, Caracasera haurrei koadernoan eramatera joan den Laura Garateren gertakariak kontatzen zaizkigu. Bestetik, Amak koaderno gorri batean seme-alabei idazten dien gutun luzea. Gutun hau seme-alabei zuzendua den heinean, beraiek dira testu barneko hartzaileak, hots, narratarioak, eta era berean, oroimenaren mekanismoa martxan jartzen dutenak.

Caracasera bidali duen mezulariaren antzera, gu ere istorio honen irakurketa harrigarrian barneratuz goaz eta emakume honen ezinegonaren konplize bihurtzen gara. Lehen esan dugun modura, genero autobiografikoa da nobela honetan protagonistaren ezinegona kontatzeko forma narrazioa. B. Ciplijauskaiték bere *La novela femenina contemporánea (1970-1985)* (Anthropos, 1988) ezagunean adierazi bezala, nobelagintza modernoak subjektuaren izaera finkatzen duten ezaugarrietan sakondu nahi du eta hortik dator genero honek betidanik autobiografiarekin izan duen lotura eta harremana. “Nor naiz?” edo “Zer egiten dut mundu honetan?” galderen erantzun literarioa, emakumezkoen nobelagintzaren ezaugarri bihurtu da XX. mendean. Urteetan ahaztuak izan ondoren, berezkoak zaizkien bizipenetan sakondu nahiko dute emakumeok, eta, horretarako, lehenengo pertsona idatzitako testuak edo genero autobiografikoaren aldakiak (memoriak, egunkariak, gutunak...) hobetsiko dituzte. Simone de Beauvoirrek zioen moduan, emakumezkoek atxikimendu handiagoa diote oroimenari, eta

horregatik, ez da harritzekoa, oroimen honen zolan, beren haurtzaroan, gaztaroan edo zahartzaroan sakondu nahi izatea. Horren erakusgarri lirateke gaur egun “amatasunaren nobelak” deitzen direnak. Jakina denez, 1970eko hamarkadan puri-purian egon zen amatasunaren gaia (gogoratu O. Fallaciren *Lettera a un bambino mai nato* [1975] ezaguna edo L. Raveraren *Bambino mio* [1975]) eta indar handiz kaleratu da, berriro ere, azken hamarkada honetan.

Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* emakumezkoen ahots eta memorian sakontzen duen nobelagintzaren tradizioan sartu beharko genuke eta ez, J. Rojok iradoki bezala (ik. *El Correo*, 99-1-20, 9), P. Austerren titulu bereko nobelaren unibertsoan. *Koderno gorria* gertuago dago amatasunaren gaia ukitu duten J. Aldecoaren *Historia de una maestra* (1990) nobelatik edo azken urteetan ama-alaba harremanean sakondu nahi izan duten C. Ceratiren *La mala hija*, S. Tamaroren *Donde el corazón te lleve* edo L. Freixasen *Madres e Hijas* bildumatik. Guztiotan amatasuna da hizpide, amatasunaren hainbat alderdi, eta gizonezkoen ikuspuntutik tratatuak izan diren amatasunaren bizikizunen salaketa egiten da gehienetan.

Guztiarekin ere, amatasunaren alderdi fisikoaz nahiz psikologikoaz harago joaten ahalegintzen da nobela hau, eta amatasunaren alderdi soziala edo politikoa ere azaleratzen. Protagonistarentzat, konpromiso politikoa amatasunarekin uztartu ezineko ahalegina izan zen eta horixe dugu, hain justu, nobelan behin eta berriro azpimarratzen zaiguna. Segituan ohartzen gara oroimenaren sare proustiarrean azaleratuz doazen bizipen guztiek protagonistaren konpromiso politikoarekin egiten dutela topo. Bere amatasunaren gunerik garrantzitsuenak (haurdunaldia, erditzea, gaixoaldiak...) gertakari politikoekin daude lotuta (amnestiaren aldeko kanpainarekin, itxialdi eta manifestazioekin), pertsonaiak aukeratutako konpromisoarekin. Modu honetan, trebezia handiz, konpromiso politikoa eta amatasuna uztartzea eragotzi dioten emakume baten aitormena eskaini digu Urretabizkaiak.

a.3) Ramon Saizarbitoriaren eleberrigintza 1990eko hamarkadan: oroimena ardatz duen unibertso literarioa⁴

1970eko hamarkadan ezagun egin zuten eleberriekin isiltasunaren muge-taraino iritsi bazen Saizarbitoria, 1990eko hamarkadan argitara eman dituen eleberrietan posmodernitateak bere egin zuen abiapuntua izan du akuilu:

⁴ Saizarbitoriaren obrari buruzko azterketa luzeagorako, ikus nire *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, BBK-Labayru Ikastegia, Bilbo, 2001.

iragana deuseztatzen ahalegintzeak isiltasunera eramaten gaituenez, eskura daukagun irtenbide bakarra iragan hori berriro bisitatzea da.

Horretarako, iragana berreskuratuzko, oroimena izango du eskura elebe-rrigileak. Finean, literatura oroimenez egina dagoela gogoraraziko digute idazleek, oroitzen dugun neurrian soilik bermatzen dugula gure izatea. Eta honek ez gintuzke gehiegi harritu behar, mendebaldeko testurik paradigma-likoenetakoa den *Odisea* bera oroimen baten narrazioak antolatzen baitu. Beste idazle batzuen antzera (ik. Muñoz Molina, A.: 1997), Saizarbitoriak ere honako hau oroitaraziko digu *Bihotz bi* eleberrian: oroitzea beti dela imajinatzea, edo Faulknerren hitzez esateko, desira eta oroimena nahastuz, *mixing memory and desire*, sortzen dela literatura. Saizarbitoriaren kasuan, idazketari buruzko hausnarketari uko egin gabe, gero eta lotsagabeago mintzo zaigun lehenengo pertsonara lerratuz joan dira bere eleberriak. Horregatik sartu ditugu lehenengo atal honetan, formari buruzko etengabeko ikerketari uko egin gabe, gizabanakoari gertukoak zaizkion gaiak, dela heriotza, dela amodioa, hastapenetako hiru eleberrietatik aldentzen den ahots subjektiboan adierazi dizkigulako.

1995ean, 19 urteko isiltasun literarioaren ondoren, Saizarbitoriak *Hamaika pauso* argitaratu zuen. Jon Juaristik itzuli zuen gaztelaniara [itz.: *Los pasos incontables*, Espasa-Calpe, 1998], eta, haren aburuz, bere belaunaldiko euskal nobela handia da⁵. Horregatik uste dugu *Hamaika pauso* nobela generazional moduan kataloga daitekeela, hau da, belaunaldi bat erretratatzeko saiatzen den nobela dela. Seguru asko azken urteotan gehien espero izan den nobela da, eta kontuan hartzen baditugu egundaino argitaratutako hiru edizioak eta 1995ean eman zioten Kritika Saria, itxaropenak bete egin direla esan dezakegu.

Bertan kontatzen zaigun «istorioa», hasieran, nahiko sinplea da: Iñaki Abaitua protagonista eta narratzaile intradiegetikoa *Hamaika pauso* izeneko nobela idazten ari da, Daniel Zabalegik (Angel Otaegi ETako kidea) 1975ean jasandako agonia eta fusilatzea narratzen duen nobela. Istorioa 1973 inguruan hasi eta 1984an bukatzen da, Komando Autonomo Antikapitalistek Enrique Casas PSOeko senataria hil ondoren. Gertakizunek aurrera egin ahala, Zabalegiren eta Abaituaren biografiak elkar gurutzatuz doaz, eta heriotzaren, giza bakardadearen eta ezintasunaren gaiak hain bihurtzen dira obsesibo, non Iñaki Abaitua protagonistak bere buruaz beste egiten baitu amaieran.

⁵ *Revista de Occidente*, 200, 1998ko urtarrila, 128. or.

Baina nobela honek bere protagonista istorio bat kontatzen nola saiatzen den adierazten duela esatea nobelak diskurtsoari dagokionez agertzen duen konplexutasun narratiboa ahaztea litzateke. Hari-egitura horren guztiaren gainetik, narratzaile estradiegetiko bat aurkezten digu nobelak, nobelaren garapena kontrolatzeaz gain iritzia eman eta are gertakariak aurreratu ere egiten dituen irakurleari etengabe keinuak eginez.

Gertakarien kronologia behin eta berriro etete horregatik, M. Raymondek eta L. Fraissek M. Prousten narratibaz esan zutenaren ildotik, Saizarbitoriaren nobela ere analepsi handi gisa defini daiteke. Narratzaileak C. Simonen ahotan jartzen dituen baieztapenek («oroimena plater hautsi bat da») gogorarazten digute iraganera «itzultzea» belaunaldi baten zein norberaren oroimenean sakontzeko aitzakia dela. Baina eleberri honen kasuan, oroimenearen mekanismoa martxan jartzen duten osagai sinbolikoak (Daniel Zabalagiren zapatak, erloju suitzarra...) ez dira dastamen, usaimen edo ukimenezko sentsazioetan zimendatzen, ezta objektuen itxura formalean ere (*100 metron* bezala), baizik hitzetan bertan, «gorputz eroale» moduan asoziazio benetan harrigarriak sortzen dituzten hitzetan.

Azken buruan, heriotzaren aurreko lasturak eta bakardade izugarriak laburbiltzen du nobelaren hari tematikoa, eta horretarako, protagonistaren drama izugarria adierazteko, heriotzaren gaineko erreferentzia intertestual eta metanarratiboz beteta dago liburua. Irakurleak hortxe aurkituko ditu, esate baterako, zenbait idazle, soziologo, filosofo edo musikariren aipua (E. Morin, P. Ariès, M. Unamuno, C. Pavese, A. Camus edo J. P. Sartrerenak, kasu). Honengatik guztiagatik, *Hamaika pauso* eleberria *palimpsesto* handia dela esan genezake, indar handiko prosan gauzatutako palimpsestoa.

1996an argitara emandako *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1996) izan zen [itz.: *Amor y guerra*, Espasa-Calpe, 1999] Saizarbitoriaren hurrengo eleberria. Orain arte izandako bi euskal edizioek eta Eusko Jaurlaritzak 1996ko Hedapen Saria eman izanak erakusten dutenez, harrera ona izan du lan horrek. Espainiar kritikari dagokionez, R. Senabrerren hitzak ezin adierazgarriagoak dira: «*Bihotz biren* irakurketa oasi baten antzekoa da kolpatzen gaituen merkatal fribolitateen basamortuaren erdian» (ik. *La Razón*, 1999-6-6).

Tituluaren dualtasun inplizituak iradokitzen digu nobela hau gizakiaren sentimendurik bizien inguruan eraiki dela: maitasuna eta gorrotoa, eta, *Hamaika pauson* gertatzen zen era berean, hasiera-hasieratik jakinarazten zaigu nobelaren amaiera tragikoa: engainatu egin duela jakin ondoren, narratzaile-protagonistak hil egiten du bere emaztea, leihotik jaurtiz. Nobela aitortzen dela esan genezake, eta haren bidez narratzaileak irakurlearen konpli-

zitatea bilatzen duela gertakari deliktiboen kontakizunean (konplizitate hau nabarmendu egiten dute narrazioaren hartzaileari egiten zaizkion erreferentzia testualek).

Aitorpena gerta dadin, M. Bajtinek iradoki bezala, beharrezkoa da arau sozialak haustea, eta nobela honen kasuan Bibliako agindu funtsezkoenak («ez duzu hilko» eta «ez duzu adulteriorik egingo») dira hausten direnak. Senar kol-darrak, harremanaren gainbehera onartu eta egoerari irtenbide «duina» bilatu beharrean (nobelan Beltran pertsonaiak Léo Ferréren kanten bidez adierazten duen jarrera), nahiago du mendeku hartu eta emaztea hil, eta, hartara, objektu desiratuaren sakrifizioaz burutu maitasun istorioa (ik. Bataille, G.: 1981).

Nobelan, senarrak emaztearekiko harremanaren gainbeheraren une funtsezkoak kontaktzen ditu. Denbora kronologikoa hankaz gora jartzen da, berriro ere, protagonista nagusiaren denbora psikologikoa murgiltzen gaituzten errepika eta prolepsien bidez. Xede horretarako, nobelaren hariaren muina definitzen duten bi gerrak kontaktzen dira: *Hanbre* sagardotegian biltzen diren jubilatuek Gerra Zibilean bizi izandako pasadizoen narrazioa eta bikote protagonistaren gerra domestikoaren zenbait eszenaren errepikapena. Narratzaileak dioen moduan, «istorioaren narrazioa istorioa bera baino erakargarriagoa da», eta horregatik errepikatzen dira behin eta askotan, zehatz eta obsesiboki, eszena gatazkatsu berak.

Ene Jesusen protagonistak bezalaxe, *Bihotz biko* protagonistak uste du historia bera behin eta berriz kontatzeak askeago egiten gaituela. Alabaina, aurreko bi nobeletan gogoeta metanarratiboak sarritan narrazioa eteten bazuen, *Bihotz bin* gogoeta metanarratiborik ezak erraztu egiten du irakurketa. *Hamaika pauson* bezala, hemen ere oroimena da eleberriaren bilakaera baldintzatzen duena. Orduko hartan, C. Simonen ahotan jarritako baieztapenak –«oroimena plater hautsi bat da»– irakurketaren bidez osatuz zihuan puzzle narratiboa definitzen bazuen, *Bihotz bin* oroitzeak imajinatzea adierazi nahi du, etengabe errepikatuz doazen eszenak osatzea. A. Robbe-Grilleten «gogoratzea irudikatzea da beti» izango litzateke eleberri honen leitmotiv garrantzizkoenetakoa.

Azpimarratzekoak dira, beren karga sinbolikoarengatik, urte eta hilabete desberdinetako 13. egunean gertatutako eszena guztiak: 1936ko irailaren 13an erreketek Donostian sartu ziren; 1996ko irailaren 13an obraren protagonistak elkarrekin haserretu ziren, eta senarrak Violeta, maitale izango zuen emakumea, ezagutu zuen; 1936ko otsailaren 13koa da protagonistaren aita eta Mikele de Abando agertzen diren argazkia; 1936ko uztailaren 13an hil zuten Calvo Sotelo.

Azken finean, bikotearen arteko komunikaziorik eza, protagonisten bakardadea, obsesioak eta miseriak kontatzen zaizkigu nobelan, biek elkar zigortu eta martirizatzeko erabilitako estrategia ongi kalkulatuak.

Senar «adardunaren» obsesioa J. Joyce irlandar idazlearen *Ulysses* (1922) eta *Finnegans Wake* (1939) nobeletan ere agertzen bada ere, ezkonbizitzaren nahigabeen tratamendua askoz biziagoa da Saizarbitoriaren nobelan, senarraren ikuspuntuak ukitzen baitu testu osoa. Pertsonaia horren deskribapena oso esanguratsua da: berrogeita hamar urte inguru ditu eta entziklopedia saltzailea da; futbol eta boxeo zalea; *Love Story* eta gisa horretako kanta ezagunen mireslea edo zehaztasun flaubertiarrez deskribatutako sukaldaritza ezagupenen jabea. Haren diskurtsoak topiko matxista mordo bat islatzen du: haren arabera, emakumeek gustukoak dituzte *Tomates verdes fritos* bezalako filmak edo nobela erromantiko lodikoteak. Saizarbitoriaren eleberriko protagonistaren itsukeria hainbesterainokoa da, non nobela osoan zehar emaztearekin dituen eztabaida guztien atzean emazteak (senarra baino askoz kultuagoa, bidenabar) autoafirmatzeko duen premia ikusten baitu.

Nobelan ez da, ez, gizonaen irudi positiboa ematen. Floraren kexa ugariei Hopperren *Hotel gela* (1931) koadroarekin egindako erkaketak gaineratzen zaizkie; horiek egiten dute emazteak sufritzen duen atsekabe eta abandonuaren erreferentzia plastikoaren ekarria. Izan ere, horixe baita Flora, emakume abandonatua, eta Ortega y Gassetek *Estudios sobre el amor obran* (1939) zioen bezala, «maitemindutako emakumeak nahiago ditu gizon maitatuak eragiten dizkion estutasunak usainik gabeko indiferentzia baino».

Egia esateko, eleberriko emakumezko pertsonaia nagusiak, Flora eta Mikele de Abando, gizonen biktima dira. Lehena, senar posesibo eta jeloskorraren biktima; bigarrena, protagonistaren aitarena, zeina alaba haurdun utzi ondoren frontean desagertu baitzen. Bi emakumeen deskribapen fisiko edo psikologikoak haien sendotasuna erakusten du. Haien alboan, Violeta –protagonistaren maitale eta iloba– askoz lausoagoa da eta protagonistaren sexu fantasien protagonista moduan aurkezten zaigu batez ere.

Emaztea leial izan ez zaiola jabetzen delarik, antsietateak hartzen du nobelako gizonaen protagonista eta jeloskorkeriaren eldarnioan erortzen da azkenean. Maitaleen espia bihurtuta, adulterioaren frogak bilatzen saiatzen da begiradetan, keinuetan... eta xehetasun guztiz deskribatzen ditu maitaleen mugimenduak. Modu honetan, tentsio narratiboa *in crescendo* doa, eta zenbait osagaik *mise en abîme* moduan dihardute, protagonistaren amaiera tragikoa iragarritz. Horien artean aipa litezke Gustave Doréren grabatua (*Jeza-*

bel leihotik jaurtia), edo leialtasun ezaren aurkako zentzagarriak iradokitzen dituzten sagardotegiko jubilatuen kontakizunak.

Azken batean, protagonistari alferrikakoa izango zaio sexu eszena suttsuen bidez emaztearen «jabetza» berreskuratzen saiatzea edo bere buruari oraindik «gai dela» erakusten saiatzea, Violeta (bera baino 20 urte gazteagoa) maitalearekin dituen sexu harremanen bidez. Haren adulterioaren azken agertokia, «Macho de Guerlain» txartela dagoen telefono kabina, ironikoa da benetan. Detektibe narrazio askotan bezala, argazki baten handitzeak Violetaren nortasuna agerian uzten dio protagonistari; izan ere, bai Violetak, bai haren ama eta amonak, lepoan baitaramate heriotzaren seinalea. Maitasuna, gorrotoa, desira, intzestua eta heriotza *Bihotz bi. Gerrako kronikak* eleberri interresgarri egiten duten osagaiak dira.

Beste hainbat desehorzketa aitzakia dituzten bost narrazio luze osatzen dute Saizarbitoriaren azken liburua, *Gorde nazazu lurpean* (Erein, 2000). Liburuaren harrera bikainaren adibide ditugu orain artean lortutako sariak: Kritika Saria 2000, Beterriko Liburua Saria 2000 eta Euskadi Saria 2001. Horiez gain, 2001 urteko Espainiako Narratibako Sarian finalista izan zen. *Gorde nazazu lurpean* liburuan, benetako hiru desehorzketa famatu agertzen dira fikziozko beste bi desehorzketaekin batera. Lehenengo taldekoak lirateke, Rossetti margolari prerrafaelitaren emazte Elizabeth Eleanor (Lizzie) Siddal-en gorpuarena, Yves Montand kantari eta aktore frantziar ezagunarena eta, gertuagokoa zaiguna, Sabino Aranarena berarena. Bost desehorzketa, beraz, lotura tematiko horretatik haratago elkarri buruz autonomoak diren narrazioak lotzeko.

Baina liburuari egin zaizkion iruzkinetan azpimarratu den moduan, desehorzketa fisiko horiek desehorzketa literarioak bideratzeko aitzakia narrati-boa besterik ez dira. Alegia, benetan desehorzten direnak egilearen beraren obsesioak direla. Eta obsesioez mintzo garenez, esan dezagun Saizarbitoriaren lan baten aurrean gaudela, aurreko ekarri literarioen jarraipen literarioa den lan mardularen aurrean, eta, ondorioz, egilearen betiko obsesioak direla honako honetan ere aipagai: Gerra Zibila, gizon-emakumezkoen arteko komunikazio-zailtasuna edo literaturaren, idazketaren, gaineko hausnarketa.

Aurreko eleberrietan bezala, heroirik gabeko unibertso literarioa da *Gorde nazazu lurpean* liburuan erakusten zaiguna. Jakina denez, nobela modernoaren ezaugarririk funtsezkoenetakoa heroien desagertzea da eta giza izatearen tragikotasuna onartzea dago horren oinarrian. Alegia, hilko garela jakiteak dakarkigun ezinegon existentzialak, bizitzaren edo literaturaren ikuspuntu heroiko oro ukatzen baitu. Horregatik ez dago heroirik Saizarbi-

toriaren narrazioetan, heriotzaz, amodioaren amildegiez... modu sinesgarrian idazten ahalegindu delako.

Hortik, narrazio hauek anekdotatik harantzago joaten dakien irakurleari eragingo dioten aztoramen puntua, azken batean, arazo oso unibertsalekin, oso gureekin, egingo duelako topo: gerrek eragindako krudelkeria erdiragarrria (1. narrazioa); gizon-emakumezkoen arteko amildegi afektiboa (*Rossetti-ren obsesioa*; *Bi bihotz, hilobi bat*; *Marcel Martinen aitatasun ukatua*); aitarekiko harremanek eragindako barne-pitzadurak (*Asaba zaharren baratza*)... eta iragan nahiz orainaldi politikoak euskaldunongan eragindako traumak. Ezagunegiak zaizkigu *Gorde nazazu lurpean* liburuak jasotzen dituen arazoak.

Narrazioa deskribapen zehatzei gailendu zaie, ironia hausnarketa neuruari. Eta oraingoan ere, kontaketa bera da garrantzizkoa, hasieratik bertatik fikzioaren artifizioak begitantzen dizkigun idazketa. Egilearen poetikari berezkoak zaizkion estrategiez baliatuz, oraingoan ere memoriaren kapritxoek gidatuko dute hari narratiboa eta, betiko moduan, istorioa martxan jartzen duten eszena edo irudietara errendituko da, etengabe, testuko ahots narratiboa. Joan-etorriko saio honetan, beraz, saioa bera da garrantzitsua, guztia bestela izan zitekeela jakitea. Horregatik ez gaitu harritu 1996an argitarata emandako *Bihotz bi*. *Gerrako kronikak* nobelaren berridazketarekin topo egiteak, liburu honetan ageri den *Bi bihotz, hilobi bat* narrazioak horixe frogatzen baitigu, berridazketa zilegi ez ezik beharrezkoa ere badela. Proposamen honen aurrean, irakurleak prest egon beharko du etengabe egiten eta berregiten doan istorioan parte hartzeko.

Abertzaletasuna, amodioa, leialtasuna, diskurtso epikoen hutsaltasuna... guztiak katartizatzen dira liburuan. Hala ere, bada, gure aburuz, besteen gaitetik nabarmentzen den narrazioa: *Rossetti-ren obsesioa* deritzona, hain justu. Nobela labur kontsidera daitekeen honetan Saizarbitoriaren lerro gogoangarrietakoak bildu direlakoan gaude⁶. Artea, bizitza, sexua, amodioa/heriotza, abertzaletasuna... ditugu testuak bilbatzen dituen osagai erakargarriak. Eta guztiaren oinarrian Juan Martin protagonista, Rossetti margolariaren antzera, bere artelanarekin obsesionatuko den protagonista bakartia. Juan Martinek eleberri labur honetako bi emakumezkoekin dituen harremanetan (dela Eugenia lurtarrarekin, dela Victoria zerutiarrarekin) horixe erakutsi baitigu Saizarbitoriak: bizitzari aurre egin ordez literaturaren mozo-

⁶ Ikus eleberri honen argitalpena zela eta, 2001eko apirillean Erein argitaletxeak kaleratu zuen *Ereinkaria* monografikoa.

ropean ezkututzen den protagonistaren kasua. Azken batean, Juan Martinek Victoriari dion amodioari bizkar ematen dionean, hori egiten baitu, bere izate osoa bizitzatik (abenturatik, amodiotik=heriotzatik) babestu, bizitzeaz ahaztu.

Benetan da bikaina Rossetti-ri egindako erreferentziekin kontaketa hone-tan lortzen den tentsio narratiboa. Hasieratik bukaerara margolari prerrafaelitaren inguruko informazio eta xehetasunak poliki-poliki dosifikatuz, Sai-zarbitoriak lortu egiten du irakurleok ere margolariarekin liluratzea, obses-ionatzea. Victoriak eskaintzen digu Rossettiren lana ulertzeko liburu interesgarriaren aipamena (219): Timothy Hiltonen *The Pre-Raphaelites* [gazt: *Los prerrafaelistas*, Destino]. Liburu hori da, hain justu, Juan Martini oparitz-en diona, honako eskaintza hau erantsiz: “J’espère pour toi que tu n’auras pas à emprunter des mots, comme ton Rossetti” (220). Aurrerago azaltzen dira eskaintza horren zergatiak. Dirudienez, Prerrafaeliten Anaiarteko kide izan zen Dante Gabriel Rossetti eta bere modelo izan zuen Elizabeth Eleanor Siddalekin ezkondu zen. Millas margolariak bere *Ophelia* ezagunerako mode-lo erabili zuenetik maite zuen Rossettik Siddal eta elkarrekin prometituta (10 urtez) egon ondoren, 1859an ezkondu omen ziren. Alabaina, 20 hilabete beranduago, bigarren haurraren esperoan zegoelarik, laudano sobredosi batekin egin zuen bere buruaz beste Siddalek. Bere penaren amildegian, Rossettik argitara gabe zituen poema guztiak Siddalaren zerraldoan sartu zituen eta hantxe utzi, handik 7 urtera berriro aterarazi zituen arte.

Deshilobiratze izugarri hau berez edozein irakurlerentzat harrigarria eze-zik deitoragarria ere suertatzen bada ere, badira zenbait datu osagarri Victo-riak iradoki egiten dituenak eta victoriar garaiko emakumearen egoera uler-tzeko funtsezko bihurtzen direnak. Dirudienez, margolari prerrafaelitek modeloei eskatzen zieten itxura argal, zurbil eta heriotzezkoa lortzeko itze-lezko baraualdiak egitera, gerruntzea estutzera edo ozpina edatera behar-tzen zituzten. Bere posesiorik preziatuena bailitzan, etxean, munduaz isola-tua gorde zuen Rossettik Siddal, eta hilik jaio zitzaion lehenengo umearen ostean ere, bere amoranteekin jarraitu zuen emaztea etxean depresio borti-tzak jota zegoela jakinda ere. Rossetti-ren arte sentsualak, emakumezkoaren gorespen mistiko eta masokista egiten du, Ama edo “femme fatale” gisara azaltzen den emakumezkoaren gorespina (ik. Metken, G., *Los prerrafaelitas*, Blume,artzelona, 1981).

Emakume victoriar askoren moduan, Siddal osasun txarrekoa zen, anore-xiak jotakoa adituen iritiz, eta garaiko emakume askoren modura, drogeki-ko menpekotasuna hartuz joan zena. Eta seguraski prerrafaelitek modan

jarri zuten estetikak ez zion gehiegi lagundu bere osasuna hobetzen, Dante, Milton edo Goetheren garaietatik indarrean zegoen emakume-aingeruaren irudia (ik. Beatriz), “Heriotzaren Aingerua” bihurtu baitzen prerrafaeliten garaian⁷. Heriotza domestikatu honetan, emakume estilizatuaren ikonografia, emakume abnegatuaren, hots, hilaren, irudia gailenduz joan zen. Hortik, nobelan aipatzen den balizko nekrofilia (130), edo prerrafaeliten koardroetan antzematen den edertasun morbosoa. Victoriak dioen moduan, “Sleeping beauty”ak (126) maite zituzten prerrafaelitek, Perrault eta besteren bertsio edulkoratuak azaleratu ez dizkiguten loti eder bortxatuak. Heriotzaren Aigeru hori da, hain justu, Juan Martini azalduko zaiona Eugeniak aluan duen testura hurbiltzen denean. Bere hilobitik aterako bailitzan, erabateko mendekua hartuko baitu Siddalek bere senar ohiaren obsesio bera duen Juan Martinekin (207): naturaz gaindiko indarra duen bere ile gorrian bilduta obsesio guztien iturri izan den artelana ukatuko dio.

Gorde nazazu lurpean liburuan barneratzen diren narrazioek bizitzaren abismoen aurrean kokatzen gaituzte eta guztioi gertukoak zaizkigun beldur, misterio, amets edo obsesioak azaleratzen.

a.4) Laura Mintegi (1955)

Laura Mintegi (ik. <http://www.idazleak.org>) Lizarran jaio zen eta 1973tik Algortan bizi da. Euskara Bilbon ikasi zuen 17 urte zituela. Historian lizentziaduna (1978) eta Psikologian doktorea (1999) da. Bere doktorego-tesia-
ren fruitu da *Subjektibitatea nobelagintzan: Stephen Crane-ren “The Red Badge of Courage”* saiakera (Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999). 1981etik aurrera Euskal Herriko Unibertsitatean dihardu, Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasle.

Literatur ibilbideari dagokionez, esan dezagun *Anaitasuna* aldizkariko partaide izan zela, desagertu arte, eta *Ttua-ttua* literatur aldizkaria sortu eta zuzendu zuela, Joanes Urkijorekin batera. Hainbat aldizkari, egunkari eta irratitan kolaboratu izan du, eta hitzaldi, mahai-inguru eta kongresu ugari hartu du parte.

Zenbait sari eskuratu ditu Mintegik bere ibilbide literarioan: 1983an Donostia Hiria irabazi zuen “Satorzuloa” ipuinarekin eta Santurtziko Ipuin Lehiaketan finalista izan zen “Paris edo” ipuinarekin. Lehenago, 1982an,

⁷ ik. WELSH, A., *The city of Dickens*, Oxford University Press, Londres, 1971. Gilbar eta Gubane bere liburuaren 39. orrialdean aipatua.

Kirikiño Sarian finalista izandakoa zen “Ez dadila belu izan” ipuinarekin. Hiru ipuinok bere lehenengo narrazio-liburuan eman zituen argitara: *Ilusioaren ordaina* (Erein, 1983. Berrarg. 1999an). Honetaz gain, lau eleberri plazaratu ditu Mintegik: 1985ean Azkue Eleberri Saria irabazi zuen *Bai...baina ez* (Susa, 1986. Berrarg. Elkarlanean, 1999), *Legez Kanpo* (Elkar, 1991), *Nerea eta biok* (Txalaparta, 1994) eta *Sisifo maita minez* (Txalaparta, 2001). Bere ibilbide literariogatik, 2000. urtean COPE Literatur Saria eman zioten.

Hitz batekin deskribatu beharko bagenu Mintegiren unibertso literarioa “emozio” hitzaz egin beharko genuke. Esan daiteke emozioek zeharkatzen dutela idazle honen obra alderik alde eta amodioak, desamodioak, desirak, ametsek, etsipenek, konpromiso politikoak... presentzia erabatekoa dutela bere lanetan. “Literatura eta emozioak” izeneko irakasgaia gustukoa duen irakasle honek (ik. Psikodidaktika Doktorego Programa, 2000-2002), “subjektu nobela” gisara definitu zuen bere eleberrietako bat. Eta zehaztapena ez da, inondik ere, hutsala, finean, Mintegiren eleberrietan agertzen diren gertakarietan (dela giza sentimenduei buruzkoak, dela euskal arazo politikoekin hertsiki lotuak) bere subjektibotasuna begitazten digun ahots narratzailearekin egiten baitugu topo. Emozioa, hausnarra, bizi dugun egoera eta gizartearen arau nahiz legeek ezartzen dizkiguten mugak... horiek dira idazle honen eleberrietako gai konstanteak.

1983an eman zen argitara *Ilusioaren ordaina*, eta fantasia ukituaz bizitzaren paradoxak kontatzen zaizkigu bertan. Kritikarien aburuz (ik. *Egunkaria*, 99-3-27), Erdialdeko Europako (Kafka bereziki) egileen eragina nabarmena da testuan. Horretaz gain, egilearen trebezia teknikoa eta gaien erakargarritasuna azpimarratu zituzten, nahiz eta pertsonaien izaera axalekoa zela ere aipatu zen (ik. Camino, I., *Argia*, 1003, 1984ko otsaila). Saritutako ipuinez gain, *Ekaitzaren ilunaz* da nabarmentzekoa, urte haietako uholde bortitzen inguruko istorioa kontatzen duen ipuina.

Mikel Antzak Miranderen *Haur besoetakoa* eleberriaren egokitze sozial eta ez hain aristokratikotzat jo zuen *Bai...baina ez* (1986). Bertan, gizarte-arauen mugak gainditzen dituen amodiozko istorio bat kontatzen zaigu. Eleberria Franz protagonistari dagokion planoarekin hasten da, eta, hirugarren pertsona “voyeur” batean, pertsonaia honen bizitza eta izakera hitsa deskribatzen zaizkigu orainaldian. Eraikuntzan lan egiten du eta itsusia da (ik. Frankenstein); bizitza monotonoa darama, baina bat-batean, pixka bat asaldatzen da Margot emagaldua ezagutzean, eta, batez ere, eleberriko bigarren protagonista nagusiarekin, Rosarekin, topo egitean. Bien arteko adin desberdintasunaz gain, hasieratik ematen zaigu Rosaren izaera ezohikoaren berri:

zurrumurruiek diotenez, atzeratua da eta ohiko jokamolde sexualetatik urrun bizi da. 4-7 kapituluetan, flash-back luzea egiten zaigu eta Rosaren haurtzaroa kontaktzen: nola aita alargunarekin intzestu harremanak izan zituen eta harreman hori nerabezaroan eten zen beste mutil batzuk ezagutu zituenean. Franzekin duen harremana kolokan jarriko du senargai ohia duen Willyren agerraldiak eta atxiloketak.

Hiri ingurune batean kokatutako istorioa dugu, beraz, bakardadeaz, amodioaz, sexua bizitzeko moduez... mintzo zaiguna. Barrokismo oro saihesten duen estilo batean kontaktua da eta pertsonaia sekundarioen solasaldiak modu modernoan (modernistan) transkribatzen dira, ahozko solasak inongo akotaziorik gabe adieraziz. Baina ororen gainetik, narratzailearen begiak iragazten du eleberriko unibertso gutzia. Hortik, margoekin (Degasen koadroekin) egiten diren konparaketak, edo “eszena paralizatu egin da” (138) moduko iruzkinak edo *Women in love* (130) filmari egindako erreferentziak, besteak beste. Eta erreferentzia ez da, inondik ere, kasuala, Ken Russellen zuzendaritzapean 1970ean estreinatu zen filme sarituak D. H. Lawrence (1885-1930) idazle britainiarraren *Women in Love* (1920) eleberria baitzuen oinarri. Woolfen antzera, bere eleberrietan kontzientzia voyeurista irudikatu zigun idazle honek sexuen arteko harremanetan konbentzioek nahiz maila sozialek eragiten dituzten zentsurak salatu baitzituen, gizakiaren berezko instintuak suntsitzen dituzten debekuak. D. H. Lawrenceren fijazio edipikoaren kontrastean, aita-alaba arteko Elektra konplexua kontatu digu *Bai...baina ez* nobelan. Finean horixe baita eleberri hau: gizarte arauetatik at bizi nahi duten pertsonaia bakartien oihua. Eta arauak apurtzeak, transgresioak, ondoriorik badu, munstrokeria izan ohi du. Horregatik deitu dio J. Gabilondok “Munstrokeriaren kronika zinezkoa” (ik. 1999c) nobela honi: Frankensteinen istorioa kontaktzen zaigulako. Gabilondok bere irakurketa politikoa dioskunez, esanezina kontatu digu bere lanetan Laurak, gure desirak kontatu dizkigu. Lehenengo eleberriek ohi dituzten akatsak izan arren (disgresio gehiegizkoak, erritmo desokera nabarmenak...), bigarren edizio zuzenduak lehenengoak jaso zituen kritika gogorak isilarazi ditu (ik. Garzia, J.: 1987).

Eusko Jaurlaritzaren 1989ko Jon Mirande Eleberri Lehiaketan akzesita lortu zuen *Legez Kanpo* (Elkarlanean, 1991) eleberriak. Egileak elkarriketa batean esan bezala (ik. *Argia*, 1335, 1991-4-21, 42-43), “ideiek busti, lehortu, zikindu edo kontagiatu egiten dute artelana” eta hortik, eleberrian kontaktzen den gaiaren izugarritasuna: torturarena. Bi planotan dago antolatuta eleberria. Plano nagusian, Alfredok hartzaile ezezagun bati lau urte lehenago gertatutakoak adierazten dizkio, txikitako Ignacio bere lagunarekin topo

egitean. Ignacio abokatu famatua da eta tortura salaketapean dauden guardia zibil batzuen defentsa egiten ari da. Bigarren planoan, Ignaciok igorritako polizia nobela transkribatzen da, zeinean ama batek hilketa basatiak egiten dituen, bere semearekin hitz egiten duen emakume oro akabatuz.

Prosa errazean kontatua den eta erritmo arina duen eleberri honetan Alfredoren ahotan jartzen dira tortura kasu hauen inguruko berri izugarriak. Torturapean hil zen Joxe Agirreren hitzak transkribatzen dira 108. orrian eta Linaza kasuaren pasarte ia identikoak erabiltzen. Eleberriak aurrera egin ahala, Alfredo gero eta inplikatuago dago kasuarekin eta gizartearen axolagabekeria (86-87. or.), Ignacioren saldukeria (123)... esplizitatzen ditu. Bi lagunen arteko aldea nobelaren amaieran egiten den baieztapenean dago: guardia zibilak zigorrik gabe geratzea, “legezkoa” da, baina ez da justua. Beraz, legeak ez du justizia bermatzen, eta hortik nobelaren izenburuaren garrantzia: legez kanpo ote justizia? Ezin esan Mintegik dudarako aukerarik uzten duenik.

Polizia nobelaren planoari dagokionez, generoaren arabera idatzita dagoela esango dugu: suspensea dosifikatuz. Elementu topiko guztiak ditu istorio honek: inspektoreak izen amerikarra du (Mark), erretzailea da eta whiskya edaten du etengabe. Arakutzen dituen pisuetan Marilyn edo Elvysen koadroak ageri dira apaingarri gisa eta Hammer detektibearen antzera, tipo oso gogorra da, bihozgabea.

Nerea eta biok (Txalaparta, 1994) izan zen Mintegiren hirugarren eleberria, egileak berak bere eleberririk autobiografikoenetzat jo zuena (ik. *Egunkaria*, 1994-12-9, X-XI). Eleberriko bi protagonistak emakumezkoak dira: Isabel, 42 urteko unibertsitate-irakaslea, eta Nerea, Parisko kartzela batean preso dagoen ekintzailea. Nerea Isabelen ikasle dela-eta, elkarren arteko gutun harremanari ematen diote hasiera, eta harremanak iraungo dituen lau urteetan astindu izugarria hartuko du Isabelen bizitzak. Amatasuna, abandonatu zuen senarrarekiko sentimenduak, konpromisoa, emakumezkoen arteko harremanak... hori guztia da hizpide, estilo zuzen, argi eta intimistan. Emozioen zurrumbilo honetan, Isabelena da, ezbairik gabe, ahots nagusia eta Nerea aitakia huts da askotan. I. Bordak ahulegia kontsideratu bazuen Nerearen ahotsa (ik. *Argia*, 1.523, 1995-3-26, 45) horregatik izan zen: eleberriak aurrera egin ahala, Nerearen irudia zehazgabetuz doalako, eleberriaren ezusteko amaierak asaldatzen gaituen arte. “Bizitzea konprometitzea da” (19), emakumeen arteko maitasuna (June eta Mansfield, Woolf eta bere maitalea, Sartre eta Beauvoirren hiruko amodia, Colette... aipatzen dira 33. orrian), konpromisoak hartzeko gizonaek duten ezintasuna, sentsualtasunez beteriko

begiradak (Preverten poema bat aipatzen da 59. orrian), emakumezkoen zapalkuntza (66), maitasunik gabeko sexua (103), maiteminduen ilusioak (106), nerabegaroko irakurketak... ekintza politikoak neurtzeko irizpideak, kontraesanez beteak batzuetan (28), dira, besteak beste, Mintegiren eleberriarren gai-dentsitatearen adibide. Horixe baita, ekintza gutxiko eleberririk honetan egiten dena: hausnartu, gogoetak ahozgora esan, protagonistaren nia hustu, batzuetan eleberriarren iradokitze-gaitasuna hausnarketa esplizitu hauek itzaltzen badute ere.

Bere azken eleberrian, *Sisifo maita minez* (Txalaparta, 2001) izenekoan, amodioaz, desiraz, maiteminaz... hitz egiten digu, berriro ere, Mintegik. Baina oraingo honetan inoiz baino luzeago, zehatzago, ausartago heltzen dio gaiari, eta, hori dela eta, orain arteko eleberririk biribilearen aurrean gauden susmoa dugu. Maitemintzeak muturreko egoeretara eraman gaitzakeela frogatu nahi izan du egileak. Ana Urkiza kritikari eta idazleak ongi laburbildu zuen, "Elbarritu emozionalak gara" artikuluan (ik. *Egunkaria*, 2001-5-12, 7), eleberriarren argumentua: "Ane da eleberriko protagonista nagusia. Etxekoandre arrunt bat. Duela sei urte eta erdi, mediku batekin maitemindu eta Nikaraguara alde egin zuen, senarra eta bi alabak utzita. Eleberria Aneren itzulera kokatzen da, Aneren senarrak psikoanalista batengana eraman duenean, emazteari zer gertatzen zaion edo eta etxea zergatik utzi zuen jakiteko. Horixe eleberriarren abiapuntua. Psikoanaliaren analisiarekin batera joango da irakurlea maitemintze prozesu ezberdinak ezagutzuz eta aztertuz, eta Aneren izaera eta portaera epaitzeko aukera izango du. Eleberria ez da, hala ere, istorio lineal bakar batean oinarritzen. Esteban izeneko psikoanalistak Karmeleren laguntza izango du Ane beste ikuspuntu batetik ezagutzuz joateko. Eta Esteban eta Karmeleren artean ere maitasun istorio bat sortzen da.". Maitatzea arriskatzea dela pentsatzen duelako iritsi da Ane oraingo bere egoerara. Bere ondoan maitasun kontuetan desiraren alde (Esteban) edo konpromisoaren alde (Karme) egiten duten pertsonaiak aurkituko ditugu.

*Sisifo maita minez*eko amodiozko istorioa elkarrizketa, bakarrizketa... mosaiko batekin adierazi du Mintegik, eta maitemintzearen prozesuaren disezioa egiten ahalegintzen bada ere, jokabide oro ez dela ulergarri ere erakutsiko digu amaieran. Eta dena esaten da eleberririk honetan, dena aztertzen, jarduera psikoanalitiko nobelatua bailitzan. Aneren ahizparen heriotzaren inguruko suspense neurtua, egituraketa erakargarria edo erritmo narratibo arina dira nobelaren bertute estilistikoak. Eta guztiaren oinarrian, mendi gailurrera harrizarra igotzera kondenatu zuten Sisifo gizajoa, A. Camusek esan bezala (ik. *Sisiforen mitoa*, 1942), lehenengo heroi absurdoa.

Sisiforen antzera, maitasunari itsatsita gaude gizakiok, amildegira garamatzan desira itzuri ezinari lotuta. Hala ere, saioak pena merezi duela iradoki digu Mintegik, eta horretarako, psikoanaliaren, idazleen (Proust, Pavese...) eta Mendebaldeko filosofoen ekarri ezagunak uztartuz (ik. Sokrates, Platon, Aristotele, Spinoza...), maitasunari buruzko testu zehatza, nobela ausarta eskaini digu. Aurreko eleberrietan baino orekatuagoa da oraingo honetan testuaren hausnar esplizitua.

a.5) Juan Luis Zabala (1963)

Juan Luis Zabala Euskal Filologian lizentziaduna eta kazetaria da (ik. <http://www.idazleak.org>). 1986-1988 artean Andoaingo Zine eta Bideo Eskolako irakasle izan zen eta gaur egunean kulturako erredaktore dihardu *Euskaldunon Egunkarian*. Horretaz gain, aipagarriak dira hainbat egunkari eta aldizkaritan argitara eman dituen artikulua eta kolaborazioak, hala nola, *Txortan*; *Ai, ama*; *Atte*; *Susa*; *Literatur Gazeta*; *Plazara*; *Hemen*; *Irudimena*; *Literatura*; *Hegats*; *Egin*; *AHTaren Aurkako Aldizkaria*; *Egan*; *Jakin*; *Administrazioa Euskaraz*; *Ostiel!*; *Donostia Aisia*; *Buztanikara*... Irabazi dituen sarien artean honakook aipa genitzake: Tene Mujika (1984, “*Ene lagun zaharrari azken gutuna*” ipuinarengatik); Resurrección María Azkue (1984, *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* eleberriarengatik); Tene Mujika (1993, *Sakoneta*, narrazioarengatik); Felipe Arrese Beitia (1999, *Hautsia natza* poemarioarengatik). 1994an Rikardo Arregi Kazetaritza Saria eskuratu zuen Kroaziari buruz egin zituen erreportajearengatik. Guztira, hamar dira Zabalak argitara eman dituen liburuak. Horietako lau, ipuin edo narrazio laburrez osatuta daude: *Ahantzuraren artxipiologia* (Elkar, 1987), *Gertaerei begira* (Elkar, 1988) *Sakoneta* (Susa, 1994) eta gazteentzako idatzitako *Harri barruko bihotz-borrokak* (Elkarlanean, 1999).

Ahantzuraren artxipiologian, zenbait pertsonaiak lehen pertsonan kontatutako ipuinak biltzen dira. Pertsonaia haietako bat, Xabier Nolotolon, geroagoko lanetan ere agertu da; izan ere, autoreak prentsan egindako kolaborazioetan erabilitako goitizena da, eta horrek frogatuko luke liburuak izaera autobiografikoa duela. *Ahantzuraren artxipiologia* honetan biltzen diren ipuinak zenbait gairi buruzko gogoeta laburtzat har litezke, bizitzaren alderdi absurdo eta hitsaz mintzatzen zaigun bakarrizketatzat. *Gertaerei begira*, berriz, nahiz aurrekoaren tonu pesimista eta ilun bera ostera erabili, zenbait berrikuntza formal agertzen dira, hala nola, narrazioa hirugarren pertsonan bideratzea eta estilo ia behavioristaren erabilera. Kritikak eta Zabalak berak ere azpimarratu egin zuten Wim Wendersen zinemaren edo Kafka edo

Handke idazleen eragina obra honen unibertso literarioan. *Sakonetan*, idazleak aurreko ipuinetako zehazgabetasun kronotopikoa baztertu eta liburua osatzen duten 11 istorioak garai eta leku zehatzetan kokatu zituen. Ipuinetako narratzaileak, autorearen nortasun desberdinak balira bezala, mundu ero honetan bizitzeak sortzen dizkien atsekabearen eta gogaitasunaren kontakizunean zentratzen dira.

Erreferente literario eta tematiko berak agertzen dira Zabalaren lehen bi eleberrietan ere. *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* (Elkar, 1985) eleberri epistolatolar nahiko originala da, eta bertan Iverst irudizko herri bateko biztanle batek gutunak igortzen dizkio Marc Outryve izeneko ezezagun bati. Gutun bidezko harreman honek bi fase ditu: lehenean, 1958-1959an kokatuan, 32 inguru urteko pertsonaia bakartia aurkezten zaigu; pertsonaiak, bere bizi-larridurari irteera emateko, 7 gutun idazten dizkio behin bakarrik ikusi duen eta izena eta helbidea besterik ezagutzen ez dizkion pertsona bati. Bigarren fasean, 34 urte geroago, eleberriko pertsonaia nagusia biriketako minbiziak jota dago eta beste 7 gutun idazten dizkio hartzaile berari. Bi faseak nabarmen desberdinak dira estilo eta helburuei dagokienez: izan ere, 1950eko hamarkadan, eromenak eta depresioak markatutako garaian, pertsonaiak gizarte itogarri baten aurrean sentitzen dituen egongaitzasuna eta beldurrak askatzeko adierazpide berriak bilatzen saiatzeko idazten du, eta, bigarren fasean, berriz, mehatxu nuklearra (44, 143. or.) bizi duen garai modernoaren garaikoan, protagonistak barrena jaten dion itomen berria adierazteko idazten du, etengabe aurrera doan eta izututa daukan minbiziak mintzatzeko.

Eleberria zientzian, aurrerabidean eta Jainkoarengan fedea galdu duen pertsonaia gaixo horren disekzio psikologikoa da. Estilo zuzenean dago idatzita, gaitzak aurrera egin ahala suntsituz doan prosaz. Modu epistolarra eta zehazgabetasun topologikoa erabiltzeak, estilo kafkiar peto-petoan, munduarekin talka egiten duen gizon baten aurrean jartzen gaitu. Zabalak berak ere hainbat aldiz adierazi du: «Bizitzea munduarekin talka egitea da, eta idaztea hori islatzen saiatzea». Horregatik dira (batez ere, bi lehenak) pertsonaia bakarreko eleberriak, haien baitako barne-borroka antzezten ari zaigulako.

Autorearen bigarren eleberriak *Kaka esplikatzen* (Elkar, 1989) izenburu probokatzailea du. Gutun moduan idatzitako heziketa eleberria dela esan genezake. Protagonistak, Xabier Nolotolonek, gutunak idazten dizkio hiru urtean bere berririk batere helarazi ez dion Virginiari. Testuan berriro azaltzen dira, aipatu pertsonaiak gain, lehen eleberrian agertzen ziren leku fikzio berberak: Iverst eta Sandler. Baina, gainera, eleberri honetan autorea

mundu marjinal eta ia ezkutuko bat islatzen saiatu zen, irrati librean eta punki edo komuna moduan bizi diren zenbait gazte talde marjinalen mundua, hain zuzen.

Egia esan, Virginiaren pertsonaia lausoa, edo izendatu ezina esprikatzeko saioa, aitzakia literario hutsak dira Zabalak 1987 eta 1988 bitartean *Hemen* aldizkarian argitaratu zituen kolaborazioak biltzen dituen testu hau antolatzeko. Berritasun formal horretaz gain, gainerako obsesio eta gogoeta filosofiko-poetikoak *Zigarrokin ziztrin baten azken keak* edo *Ahantzuraren artxipielagoa* eleberrietan agertzen direnen antzekoak dira. Zabala berriro mintzatzen zai-gu bakardadeaz, artearen funtzio desalienanteaz (31), maitasun zapuztuaz... narratzaile protagonista bera ere «Etsipenaren heroia» dela aldarrikatzen du eta bizitzen ahazten ari ote den susmoa du (123). Handkeren obran dagoen detallismo sinbolikoa (ik. *Das Gewicht der Welt/Munduaren pisua*) edo Th. Bernharden unibertsoan beti presente dagoen etsipena dira, ostera ere, autorea limurtzen duten literatur ereduak.

Bere azkenaurreko eleberriak, *Galdu arte* (Susa, 1997) [itz.: *Hasta la derrota, siempre*, Ed. Hiru, 1998], Kritika Saria irabazi zuen 1997an. Lan hartan, Zabalak errotiko norabide aldaketa egin zuen, estetika errealista eta sozialagoetara hurbilduz. Bertan kontatzen dira gaztetxea topaleku nagusi duen koadrila baten gorabeherak. Autoreak hurbiletik ezagutu zituen giro horiek Azkoitia jaioterrian, bertako gaztetxea oso aktiboa izan baitzen 1984ko otsailaren 5ean (urte horietan kokatzen da istorioa) herriko zenbait gaztek okupatu zutenetik. Obrak, zenbait pasartetan, kronika kutsua hartzen du, eta fikziozko unibertsoa sortzen du benetan jazo ziren zenbait gertakari (pintadak, okupazioa, panpina urkatzea, etab.) abiapuntutzat hartuta. Bi protagonista ditu eleberriak, bi lehengusu. Haietako bat, Shepe, itota sentitzen da helduen mundu tradizional eta estatikoan, eta gurasoen etxetik alde egiten du eta gaztetxean bizitzen jartzen da. Bestea, Niko, Atraskua tabernako zerbitzaria da, eta istorioaren narratzaile-lekukoa.

Galdu arte eleberri egindako kronika da, 1980ko hamarkadan gaztetxeen inguruan bizimodu alternatiboak probatu eta militarismoa, droga eta balio finkatuen aurka borrokatu ziren euskal gazteen kronika. Halako taldeetan era guztietako ideologiak daude, punk nihilismoa edo ezkerreko abertzaletasuna, besteak beste. Eta punk mugimenduaz ari garenez, azpimarratu egin behar da musikak eleberri honetan duen garrantzia, eta *La Polla Records*, *Eskorbuto* edo *RIP* musika taldeen aipuek, besteak beste, mugimendu haren leloa dakarzkigute gogora: «Etorkizunik ez». Era honetan ikusita eta izenburuan iradokitzen den bezala, eleberria zenbait galtzaileren historia da, haien

artean nabarmenena Shepe, pertsonaia «ilun, isil, lotsati, zakarra».

Finean, Zabalaren eleberri hau, euskal irakurle gazteek oso ongi hartua, lan atsegin, bizia da, dinamismo handiz kontatua eta estilo aldetik bete-betean asmatu duena. Bertan erretratatzen den gazte taldea gurasoek prestatu zioten mundu ordenatu eta kontserbadorea iraultzen saiatu zen. Horregatik uste dugu Mañasen *Historias del Kronen* eleberriarekin ikusi nahi izan diren antzekotasunak ez direla oso egokiak, *Galdu arte* gazteria zehatz baten problematikatik gertuegi baitago, euskal gazteriarenetik, hain zuzen.

Agur, Euzkadi (Susa, 2000) dugu Juan Luis Zabalaren azken eleberria. Hasieratik harritzen gaituen istorio bat kontatzen da bertan: demagun 1997ko ekainean gaudela eta bat-batean Estepan Urkiaga, “Lauaxeta”, fusilatu zutenetik 60 urte paseak direnean, berpiztu egiten dela bizion mundura itzuliz. Gernikan, ertzaintzaren auto baten aurrean azaltzen da ezustean eta bi hilabete beranduago, eleberriko bigarren protagonista nagusia ezagutzen du: Julen Lamarain, bizitzaz guztiz gogaituta dagoen 40 urteko kazetari banandua. Julenek, hastapenetan dituen harridura eta susmoak gainditzen dituenean, lana utzi eta bidaia bat egiten du Lauaxetarekin Euskal Herriko mendi eta haranetan barrena oinez. Bidaia honetan jazotakoek errotik aldatuko dute Julenen jarrera eta etorkizuna, amaieran, bera ere hilik dagoela ohartzen den arte. Hasieran, bi plano narratibotan dago antolatuta kontaktizuna: lehenengoan, hirugarren pertsonako narratzaile batek Lauaxetaren ibilbidea kontatzen du; bigarrenean, berriz, Julen da mintzo lehenengo pertsonan. Bereizketa hau desagertu egiten da bidaiaren kontakizuna gailentzen denean, baina aldatzen ez dena, logikoa denez, Lauaxetaren mintzamoldea da: bizkaieraz hitz egiten du, bere garaiko hainbat espresio eta erreferentzia ere tartekatuz.

Julenek eta Lauaxetak zalantza asko dituzte argitzeko. Euskal Gudarosteko komandantea izan zen poetak “gerra irabazi ala galdu genuen” jakin nahi du eta izugarri aldatu den Euskal Herriaren egungo errealitatea (politikoa, linguistikoa, kulturala,...) ezagutu. Julenek, berriz, zentzu bat eman nahi dio bere bizitzari, eta misterioski azaltzen zaizkion mezuetan Marga izeneko neska batek egiten dion gonbidapenari jarraituz, iraganean bizitu ezin izan zituenak nolabait gauzatzen ahalegintzen da. Horregatik ahalegintzen da gehien kezkatzen duten arazoez gogoeta egiten: heriotza, abertzaletasuna, eta euskal kultura. Lehenengoari dagokionez, hots, heriotzari, fededunek modu gozoagoan bizi dutela onartu ondoren, hil ostean desiragarria litzatekeen errealitatea irudikatu digu Zabalak eleberri honetan. Saramagoren *O ano da morte de Ricardo Reisen* hilotzez esaten direnak etengabe aipatuz, gure

existentzia osoa errotik baldintzatzten duen errealitateari, hots, hiltzeko jaiokak garela onartzeari, dramatikotasuna kendu eta irteera itxaropentsua ematen saiatu da: hil ostean, eleberriko protagonistek harreman berriak, errealtate berriak, ezagun ditzakete. Euren ikusezintasuna lehendik ezagutzen zituzten pertsonetara mugatzen da soilik.

Dakusagunez, *Agur, Euzkadi* Julen Lamarainek bizitzan zehar maitatu duenari egindako azken begirada pausatua da (149). Horregatik bidaiatzen du Julenek: desplazamendu fisikoaz haratago, bere bereak dituen maitasun literarioak berreskuratuzko. Martin Ugalderekin Andoain, Lizardi eta beste hainbaten Tolosa, *Obabakoakeko* Andazarrate, *Azukrea belazeetan* oroitarazten duen Urkizu, A. Iturberen Alegia, P. Perurenaren Leitza, bidaiak horretarako gune bihurtzen dira, izenburuan parafraseatzen den Lauaxetaren bertso lerroarekin, Margaren ahotan jartzen diren *Ene Jesuseko* "Ikusi nahi al dizkidazu?" galderarekin, edo oraindik zapata estuegiak dituen Daniel Zabalegiri egindako erreferentziarekin batera. Alabaina, *Agur, Euzkadi*n harrigarriena suertatzen dena euskal adituentzat (euskaltzain, kritikari, irakasle, ...) Lauaxetak duen ikusezintasuna da. Lauaxetak hainbat pertsonaia ezagunekin harremanetan jartzeko saioak egiten baditu ere (J. Haritschelharrekin, J. Kortazarrekin,...), hauek guztiek ez dute ikusten eta entzuten. Bera ikusi eta entzun dezaketen bakarrak lehendik ezagutzen ez zutenak izango dira (kaleko jendea, euskal filologiako ikasle literaturazaleak,...), hau da, euskal literaturaren eta kulturaren zurrumbilo mediatikotik kanpo daudenak. Modu honetan, gauzen benetako muinetara itzuli nahi du Julenek (42), etengabe errepikatzen den Win Wendersen *Hain gertu eta hain urrun* filmean iradokitzen dena gaindituz, bizitzari, literaturari berari, begi berriekin, benetakoagoekin begiratzeko azken ahalegina egiten ahalegindu nahi du.

Halarik ere, *Agur, Euzkadi*ren irakurketa hau ez genuke osatuko baldin eleberrian ukitzen den gai nagusiari, euskal abertzaletasunaren gaiari, erreferentzia egingo ez bagenio. Julenek hasieratik onartzen duenez (26), euskara eta aberria izan dira betidanik bere kezka nagusiak, eta ezker abertzaletik gertu dagoela onartu arren, benetako gogoeta eta grinarik gabe bizi du euskal errealitate politikoa. Lauaxetarekin duen enkontruak ezer eskaintzen badio Pizkunde garaiko idazleek zuten jarrera irmo eta baikorrera itzultzekoa eskaintzen dio. Finean, Lauaxetaren jeltzaletasuna atzerakoia iruditzen bazaio ere (110), alderdi positiborik ere ikusten dio: hil ostean ere irauten duen abertzaletasunaren irmotasuna. Eleberraren amaieran Julenek argi dauka "euren beharretan etsipenetik baino ezin abiatu ei diran egungo poeta eta artista ustez moderno horren antzekoa" (158) ez duela izan nahi eta

aberriaren aldeko jarrera argia eduki nahi duela (“Aberria ala hil” esaten da, baina hil eta gero ere hezur-hozten ez den maitasuna da abertzaleak aberriari diona.”, 157. or.). Modu honetan, *Agur*, *Euzkadiren* amaieran, abertzaletasunaren aldeko aldarria eleberriko beste gai guztiei gailentzen zaie, testuaren mezu ideologikoa esplizituki azaleratuz.

a.6) Lourdes Oñederra (1958)

Lourdes Oñederra Donostian jaio zen 1958an (ik. <http://www.lourdesoñederra.com>). Hizkuntzalaria da (Filologia Hispanikoan lizentziaduna eta Euskal Filologian doktore). Gazteizko EHUko Filologia Fakultatean egiten du lan Fonologiako irakasle gisa. Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* nobelari idatzitako epilogoaren zein *Ere* eta *Oh! Euzkadi* aldizkarietan argitara emandako artikulu askoren egilea da. *Euskaldunon Egunkariako* zutabegile ere izana. Lourdes Oñederraren lehen nobela da *Eta emakumeari sugeak esan zion* (Erein, 1999) [itz.: *Y la serpiente le dijo a la mujer*, Bassarai, 2000] eta hainbat sari eskuratu ditu oso denbora gutxian: Kritika Saria 1999, Beterriko Liburua 1999, Zilarrezko Saria 2000 eta Euskadi Saria 2000. Horretaz gain, “Anderson anderearen gutizia” ipuina eman zuen argitara *Gutiziak* liburuan (Txalaparta, 2000).

Mendebaldeko testurik izugarrienetakoari egindako erreferentziak ematen dio hasiera *Eta emakumeari sugeak esan zion* eleberriri. Sagarra janez gero, Jainkoa bezalakoak izango zirela, jakituria guztiaren jabe, agindu omen zion sugeak Evari. Ezin horrelako promesa bati ezetz esan, eta ondorioak ezagunak zaizkigu: zigorra eta errua. Eta... emakumezkoaren kasuan, gizonetikiko mendekotasunean bizitzera kondenatuta egotea. Pasarte gutxi izango dira aipatutakoa bezain iradokitzaileak eta, horregatik, eleberri honen irudi-sorburu egoki ere bada. Baina horretan geratzen da kontua, Biblia ez baita eleberri honen abiapuntu tematikoa.

Oñederraren eleberri honek gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko amildegiaz, bakardadeaz, bilaketa ororen alferrikakotasunaz edo gure bizitzari zentzua ematen dioten istorio nahiz kontsignen hutsaltasunaz hitz egiten digu. Literatur lan on guztietan bezala, gure oso barrukoak diren bizikizun eta ezinegonak testuratu dizkigu narratzaileak.

Hogeita hamabost urteko protagonistak, Teresak, W-ra (Vienara) egiten duen bidaia fisikoa da emakumezko honen barne-bidaia irudikatzeke aitzakia narratiboa. Hasieratik bertatik aipatzen zaizkigun irudi eta erreferentzietan (*The four seasons* [1986] gizakiaren adinak margotu zituen Jaspers

Johns margolaria, A. Vivaldi edo F. De Andréren kanta), badakigu heriotza beste helmugarik ez duen bidaia baten aurrean gaudela. Baina hori bakarrik ez, urtaroen kronologia ziklikoari eusten dion eleberri honetan, hasierako atalean jakinarazten zaizkigu istorioaren klabe guztiak, baita amaiera bera ere: Teresak 10 urte darama ezkondata (“urte gehiegi aspertuta egoteko”) eta bere nekea arindu nahian egindako bidaia honen ostean, neke eta bakar-dade handiagoa izango du (17).

Eta Vienan gaudenez, mende hasieran Habsburgotarren dekadentzia bizi izan zuen hirian, ulergarria da L. Wittgenstein aipatzea. Bera izan zen hainbat adierazpide artistikotara hedatzen ari ziren aire berritzaileak hizkuntza-aren filosofiaren eremura eramán zituena. Txikitako Teresari Alegiako hiletetan izan zuen lehenengo ezusteak hizkuntzak errealitatearekin duen etena erakutsi bazion, heldutasuneko Teresak badaki etengabe traizio egiten dioten hitz horietan (maitasuna, adiskidetasuna, ilusioak...) babesa bilatzera kondenatuta dagoela. Horregatik, Becketten pertsonaien antzera, “kontatu, esan, hitz egin” (133) beste irtenbiderik ez du, nahiz eta, badakien, hitzok, txikitatik bermatutako ilusioak, guztiz *susmagarriak* direla (*L'Ère du soupçon* deitu zion beste hark gure aro garaikideari). Hortik, testuak darabilen hizkuntza eta estilo neurtua, zehatza... M. Durasen lanetan gertatu ohi den moduan, barrokotasun oro saihestuz bizikizun indartsuenak iradokitzen dizkigun hizkuntza narratiboa.

Horrela, elementu horiek guztiek antolatutako eleberri honek generoen arteko mugekin, paragrafoen kokaera eta antolaketarekin, jolasten du. Kontua ez da bakarrik pertsonaia nagusiaren baitan gertatzen den bilakaera narratzea, aldaketa hori deskribatzeko behar diren ohiko tresna narratiboak iraultzea baizik. Hauen artean, bigarren pertsonaren erabilera edo eleberriarren kronologia linealaren iraulketa aipatu beharko genituzke. Teresa da eleberriarren gune nagusia, eta pertsonaia batetik bestera etengabe mugituz doan narrazio-fokuak ere harengana eramaten gaitu beti. Pertsonaien sentimendu ezkutuenak azaleratuz, sentsualtasun handiz marrazten dira usain (perfumearen limoi usaia), mugimendu (eskuena), ikusmen (duralexak) edo ukimenek eragindako zirrarak.

Mendeetan zehar koadro nahiz liburuen ilustrazioetan emakumeak irudikatu diren moduan, Teresak leihotik begira ematen ditu orduak, etxearen edo oroimenen babesean gorderik. Alferrrikakoa zaie eleberriko pertsonaia maskulinoei harengana hurbiltzen ahalegintzea, urruti, oso urruti baitago bera. Eta horixe da, hain justu, eleberri honen gune tematikoa osatzen duen funtsezko kontua: emakumezkoen eta gizonezkoen arteko urruntasuna,

bizitzeko eta sentitzeko modu desberdintasuna, ezin ulertu erabatekoa. Teresaren senar altu intelijenteak, bihotzean daraman Luisek, Imanol gazte erakargarri hark, Genoako hotelean lehenengoz dardarazi zuenak... ez dute, inondik ere, ulertu-maitatu-asebete. Hasieran datorren Dire Straitsen kantan dioen moduan (“when we make love you used to cry”), zerbaitegatik egiten dute negar emakumezkoek amodioa egiten dutenean. Segur aski, Teresak dioen bezala, gizonezkoen maitasuna elastikoa dela pentsatzen dutelako, ulertezinak, ukiezinak direla sumatzen dutelako. Nola adierazi kontua *Belle de jour* edo *Le denier métro* (122) filmetako protagonistak hain ongi irudikatu ziguna oroitu gabe. Amodioa, sexua, ilusioak... eta ziurra den gauza bakarra: heriotza. Osagai horiek guztiak ditu liburu honek... eta protagonistaren erabaki ausarta amaieran, guztiarekin eten eta berriro hastera bultzatzen duena.

a.7) Bukatzeko: izen berriak.

Atal honen hasieran genioenez, asko dira azken urteotan subjektibitatea ardatz duten eleberriak kaleratu dituzten egileak. Horietako batzuk lehendik ere ezagutzen genituen beste genero edo arlo batzuetan argitara emandako lanengatik (I. Aranbarri, Y. Arrieta, M. A. Mintegi, M. Erzilla...), baina badira bere lehen lana eleberriaren arloan kaleratu duten idazle gazteak ere. Azken hauen artean, Ixiar Rozas (1972) eta Unai Elorriaga (1973) nabarmendu nahiko genituzke, lehenengoaren *Edo zu, edo ni* (Erein, 2000) eta bigarrenaren *SPrako tranbia* (Elkar, 2001) eleberriei guztiz aipagarriak baiteritzegu.

Ixiar Rozas (1972) lasartearra da (ik. <http://www.idazleak.org>) eta Nafarroako Unibertsitatean Kazetaritza ikasi ondoren, gidoigintzan masterra egin zuen Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Geroztik, kazetaritzan (*El Diario Vasco, Egunkaria, Emakunde...*) eta gidoigintzan aritu da (*Ander eta Konpainia, Teilatupean, Benta Berri, Compañeros, Hasiberriak...*). Azken urteotan hainbat literatur sari irabazi ditu Rozasek, hala nola, 2001eko Donostia Hiria *Korrontek* (Kutxa, 2001) ipuinarekin edo Arabako Foru Aldundiak ematen duen Ernestina Champourcín Poesia Saria (2001) *Patio bat bi itsasoen artean* lanarekin. Rozasena da, halaber, gazteentzako Auskalo Sailean argitara emandako *Yako* (Erein, 2001) narrazioa, gehiegi maitatzen duen neska baten bidaia inizatikoa kontatzen duena. Bere lehenengo eleberriak *Edo zu edo ni* izenburu iradokitzailea du. Egitura nahiz estilo sendoan garatutako lana dugu. Graziana, 58 urteko emakumezko ezkontdua, da eleberriko protagonista eta ustekabeen egiten duen bidaia batek errotoik asaldatzen

du ordu-arteke bere bizitza hitsa. Aitortu nahi ez duen amodioaz, bakarda-dearen beldurraz... edo eskuetatik ihes egin dion bizitzaz hitz egiten zaigu eleberri honetan. Eta horretarako, errealitatea eta fikzioa nahasten dira, argazki eta irudi aukeratuen inguruan, irakurleon begietara osatuz doan puzzlea antolatzeko. Ezin esan ohiko amodiozko istorioa denik, azken batean, amodioaz ez ezik gertutik asaldatzen gaituzten beldurrez ere hitz egiten baita bertan. Perpaus eta ahapaldi kalkulatuak, edo ezer soberan ez dagoen sentsazioa, dira Ixiar Rosazen lehenengo eleberri honen indarra bermatzen duten ezaugarriak. Horretaz guztiaz gain, eleberriak etengabe begitantzen dizkigun irudietan nabarmentzekoa da zinemaren eta poesiaren eragina. Egileak berak aitortu bezala, Grazianaren istorioa kontatzen digun nobela honetako protagonista perfilatzeko Percy Adlonen *Bagdag Café* filman oinarritu zen.

b) Errealismoez

Azken hamarkadetako euskal eleberrigintzan hedatu den beste tipologia bat mota guztietako errealismoak bere egiten dituen nobelagintzarena da. Errealismoa, ez noski, XIX. mendean egiten zenaren antzera, aurrerapenean eta arrazionalismoan sinesten duen mundu ulergarria islatzeko, baizik eta aurpegi anitz dituen mundu aldakorra kontatzen saiatzeko. Nobela garaikidearen aldaketa eta berrikuntza formalak bereganatuz, edo beste adierazpide artistiko batzuen ekarriak bere eginez (batez ere, zinemarenak), errealismo literarioak aurpegi asko izan ditu XX. mendeko egileen lanetan: errealismo objektibista, errealismo kritikoa, errealismo sozialista, errealismo magikoa, errealismo zikina... Batzuek Jean Paul Sartrek idazleari eskatutako konpromisoa egingo dute bere; besteek, berriz, estilo fantastiko edo surrealisten ere guztiz errealista izan daitekeela frogatuko digute. Baina, oinarrian, guztiak ahaleginduko dira XX. mendeko gizakia gehien asaldatu duten gertakari eta arazoez mintzatzen.

J. Olezak dioskunez (1994), errealismo garaikideak fruitu oso interesgarriak eman ditu Atlantikoaren bi aldeetan. Abiapuntu gisara onartzen den baieztapena izango genuke oinarrian: errealitatea, zernahi delarik ere, modu askotan uler daitekeela, zilegizko hipotesi gisara, tropo modura, hizkuntzazko sorkuntza gisara..., eta behiala erabiltzen genituen oinarriek (behaketa, arrazionalitatea) ez digutela gaur egun balio. Olezaren aburuz, literatura espainiarrean 1980ko hamarkadan hasi ziren ildo errealistak ugaritzen, narratibari dagokionez. Urte batzuk lehenago utziak zituen espainiar poesiak

esperimentalismoaren edo kulturalismoaren bideak, esperientziaren poesia-ri bide eginez.

Euskal eleberrigintzari dagokionez, 1970eko hamarkadako fase esperimentala gainditu ondoren, nobelak errealitateari aurre egiten hasi ziren. Arestiko gure historian errotuago zeuden istorioak kontatzeko premia sentitu zela esan liteke, eta ildo honetatik planteamendu gutxi-asko errealistak zituzten obrak ugarituz joan ziren. Begien bistakoa da eleberri errealez ari garenean, lehenago esandakoaren ildotik, “errealitatea” irudikatzen modu oso desberdinez ari gara. Gehienetan, unibertso narratiboa sortzeko kanpora begiratzen duen ikusmolde poetikoari egiten diogu erreferentzia, baina begirada horrek hainbat moldetako errealitateak eraiki ditzake: dela magiko-fantastikoak (Iri-goien, Atxaga), dela ingurune urbanoa marrazten digun “errealismo zikina” (E. Jimenez, U. Apalategi, X. Montoia...), dela beste garai historiko batean kokatutako errealitate bat irudikatu nahi diguna (I. Mujika, Egaña, Iturralde, Jimenez...), dela egoera baten ondorioak salatu nahi dituen errealismo kritiko (Urrujulegi, Txillardegiren *Exkixu*, Hernandez Abaitua, L. Mintegi...)... ugariak dira, ezberrik gabe, errealismoaren egungo aurpegiak.

Edonola ere, aipagarria da eleberri hauetan gure arestiko historian garrantzia izan duten gertakari historiko-politikoak etengabe azaltzen direla. Gerra Zibila eta gerraondoa, esaterako, hari-ardatz komuna dira zenbait eleberritan, hala nola **J. M. Iturralde**ren *Izua hemen* (1990), **Edorta Jimenez**en *Azken fusila* (1993), **Luis Mari Mujikaren** *Loitzu herrian udapartean* (1993) eta *Bidean ihes...* (1996), **Patxi Zabaletaren** *Badena dena da* (1995), **Patri Urkizuren** *Zoazte hemendik!*, **Ramon Saizarbitoriaren** *Bihotz bi. Gerrako kronikak* (1998), **A. Egañaren** *Pausoa noiz luzatu* (1998), edo **I. Mujika Iraolaren** *Gerezi denbora* (1999) lanetan.

ETAren inguruko problematika ere azken hamarkadetan argitaratutako eleberri askoren gai-ardatza da, I. Aldekoa kritikariak (1998b) azpimarratu duen bezala. Alor honetan, 70-80ko hamarkadetako honako hauek aipa litezke: **Xabier Amurizaren** *Hil ala bizi* (1973), **Ramon Saizarbitoriaren** *100 metro* (1976), **Mario Onaindiaren** *Grand Placen aurkituko gara* (1983), **Txillardegiren** *Exkixu* (1988), edo **Hasier Etxeberriaren** *Mugetan* (1989). Hauekin batera, ezin ahaztu joan den hamarkadan argitaratutako batzuk: **Mikel Hernandezen** *Etorriko haiz nirekin?* (1991), **Bernardo Atxagaren** *Gizona bere bakardadean* (1993) eta *Zeru horiek* (1995), **Laura Mintegiren** *Nerea eta biok* (1994), **Ramon Saizarbitoriaren** *Hamaika pauso* (1995), **Xabier Mendiguren Elizegiren** *Berrito igo nauzu* (1997), **Patxi Zabaletaren** *Arian ari* (1996), **Jon Urrujulegiren** *Arragoa* (1997) edo **Unai Iturriagaren** *Berandu da gelditzeko* (1999).

Jarraian, ildo errealistako zenbait idazle adierazgarriren obraren inguruko iruzkin laburrak egingo ditugu.

b.1) Joxemari Iturralde (1951)

Joxemari Iturralderen (ik. <http://www.ikeder.es>) hastapenak *Pott* bandarekin lotuta daude. Literatur sari ugari eskuratu ditu, eta argitaratu dituen liburuen artean badira haur eta gazte literaturako lan arrakastatsuak (ad.: *Zikoinen kabian sartuko naiz*, 1986; *Londresen nago aitonarekin*, 1987; *Ijitoak dauzkat etxean*, 1988; *Filipinetan bizi den idazlearen kontuak*, 1993; ... *Lehen amodioa Suedian*, 1997; *Ryski, zaude ixilik!*, 2001; *Poloniako lautadak*, 2001), ipuin-liburuak eta eleberriak, baita itzulpenak ere, besteak beste, B. S. Ballinger, Ch. Nöstlinger, E. Hemingway, R. Dahl edo I. Martínez de Pisónen testuenak. “Henry Bengoa Inventarium” ikuskizuna eman zuen eza-gutzera, B. Atxaga eta R. Ordorikarekin batera. Horretaz gain, aldizkari, egunkari eta publikazio ugarian idatzi izan du urtetan (*Zehar, Argia, Xaguxarra, Akademia Sekretua, Garziarena, Egunkaria...* eta beste hainbat argitalpen).

Helduentzako argitaratu dituen ipuin-liburuen artean, *Ene Isabel maite-ari gutuna martxoak 10ean gaitzak jota natzan ohetik* (Cuentos Incombustibles-Bilbo, 1982), *Dudular* (Erein, 1983), *Pic-nic zuen arbasoekin* (Erein, 1985), *Hamasei urte bete nituenean hiriko argiak iraungi ziren* (Eusko Jaurlaritza, 1986) eta *Nora noa?* (Erein, 2001) aipa genitzake. Horietatik bigarrena, *Dudular*, autoreak ordu arte argitaratutako testuen antologiatzat har genezake. Lan horretan, ipuin batzuen exotismoak aurrez aurre topo egiten du *underground* estilotik hurbilago dauden beste narrazio batzuekin. Pertsonaia baztertuen presentzia eta haietako gehienen patu gaiztoa dira oinarri tematikoa estilo moderno eta formalki abangoardistan idatzitako ipuin hauetan. Bigarren liburua, *Pic-nic arbasoekin*, lehenaren jarraipena izan zen eta ez zuen aurrerapen poetiko handirik ekarri harekin erkatuz. Iturralderen azken ipuin-liburuan, *Nora noa?* (Erein, 2001), egileari gustuko zaizkion gaiak azaltzen dira: giza harremanetako gatazkak, basamortua gaur eguneko mundu zitalaren sinbolo gisa, munduaren kaosa, zibilizazioaren injustizia, edo etengabeko aurrera joateak dakarren ezinbesteko etsipena.

Nafarroako artizarra (Elkar, 1984) izan zen autoreak argitaratutako lehen eleberria. Erdi Aroan kokatua den arren, ez zuen eleberri historikoa izan nahi. Hainbat arrazoi direla medio familia ingurunetik bereiz bizi

diren bi anaiaren historiaren inguruan garatzen da haria. Beren bizitzan zenbait hiri ezagutu zituzten, adibidez Iruñea, Tuter a edo Toledo, baina batez ere Lizarra, Erdi Aroan euskaldunak, frantsesak, gaztelarrak, juduak, musulmanak, ijitoak eta beste etnia zein kultura askotako jendea elkarrekin bizi zen hiri liluragarria. Ahots narratiboen txandakatzea, eskultura, fresko edo grabatu erromanikoen deskribapen laburrak, erritmo narratibo bizia... horra liburu honen irakurketa atsegin egiten duten zenbait ezaugarri.

Izua hemen (Erein, 1989) eleberriak aldaketa tematiko-estilistiko nabarmena ekarri zuen autorearen ibilbide literarioa. Lehen pertsonan kontatua eta edozein barrokismo literariotik urruntzen den estilo lauan idatzia da, eta abentura eleberri baten irakurketak ematen duen atsegina gogorazten digu berriro, edozein helburu metaliterario gaindituz. Izua, erbestea... gaiok betetzen dute oster a autorearen unibertso literarioa. Eleberriko protagonista, Kepa Zenika, Gerra Zibila bukatu ostean agente gisa bidaltzen dute Errusian errefuxiatutako euskal haurren egoera ikertzera. Errusiako muga igarotzeko dituen zailtasunak ikusita, Finlandian geratzen da Kepa, eta bertan berregiten du bere bizitza, emakume baten ondoan. Baina bizitza aurrera doa Euskadin, eta han utzi zuen semea ETAn sartzen da, eta atxilotu eta torturatu egiten dute. Protagonista nagusiak bizi duen modernitatearen eta jatorriaren arteko gatazkak beldur edo bakardade sentimendua gure patuari estuki lotuta dagoela dakarkigu gogora.

Autorearen hurrengo eleberria ere, *Kilkerra eta roulottea* (Erein, 1997), tonu errealistan dago idatzita. Bostehundik gora orrialdeko eleberri luzea da, 1998an Kritika Saria lortu zuena. Estatu Batuetatik Euskal Herrira bertako lurra, biztanleak eta ohiturak ezagutzera etorritako gazte baten istorioa kontatzen zaigu. Erdi euskaldun, erdi iparramerikar, protagonista hunkitu egiten du trantsizio garaian gure herrian bizi zen giro sozio-politiko nahasiak. Zenbait pertsonaia eta egoerari esker, garai haren argazkia ikus dezakegu, deskribapen historiko hutsetik haratago joan eta biztanle aztoratu horien bizipenetan sartu nahi duen argazkia. Hizkera zuzenaz eta ironia dosi handiez, iraganeko eta oraingo gure errealitatea aztertzen du *Kilkerra eta roulotteak*.

2000 urtean argitara eman zuen *Euliak ez dira argazkietan azaltzen* (Erein) eleberria da, oraingoz, Iturr alderen azkena. Testu honekin eman zion amaiera Euskal Herrian kokatutako hiru eleberriek osatzen zuten trilogiari eta, aurrekoetan bezala, giro urbanoa eta hizkera zuzena dira nagusi. Eleberri interesgarri eta entretenigarria da *Euliak ez dira argazkietan azaltzen*, eta ber-

tan kontaktzen zaigun istorioak Julio Rekexo izeneko detektibea du protagonista. Detektibe honi emakumezko batzuk ikertzeko agintzen diote eta horrela, Bilbo eta Londres artean egiten dituen ikerketetan, gauza dibertigarriak gertatuko zaizkio. Izan ere, Rekexo neskazale hutsa da eta harreman korapilatsuak sortzen dira bera eta emakumeen artean. Ironia handiz kontatutako gertakariotan, ezustekoa hartzen dugu trama-sarearen atzean antzematen dugun Kutz doktore indartsuaz jabetzen goazen heinean. Liburuaren aurkezpenean egileak esan zuen bezala, gizarteak guztiongan eragiten dituen kontrol eta manipulazioa, gizon-emakumeen arteko harremanak, urruntasuna eta desterrua,... *Euliak ez dira argazkietan azaltzen* eleberria zeharkatzen duten gogoetagaiak dira. Eleberriaren amaiera irekia, pertsonaien tratamendu hotza, idazkera dinamikoa,... testuaren erakarmena areagotzen duten elementuak ditugu.

b.2) Koldo Izagirre (1953)

Idazle, itzultzaile, gidoigile... euskal kulturaren alorrean sortzaile nekaezina dugu Izagirre (ik. <http://www.susa-literatura.com>). Aurreko atalean adierazi dugun bezala, bere hastapenak 1970eko hamarkadako ildo berritzaile eta experimentalari lotuta daude. *Ustela* aldizkaria fundatu zuen Atxagarekin batera, eta *Zergatik bai* (1976) bere gaitasun literario handiaren erakusgarri bizia izan zuen. Izagirrek argitaratu ditu poemaliburuak (*Itsaso ahantzia*, 1976; *Oinaze zaharrera*, 1977; *Guardasola ahantzia*, 1977; *Balizko erroten erresuman*, 1989; *Non dago Basque's Harbour?*, 1997); saiakerak (*Gure zinemaren historia petrala*, Susa, 1996; *Incursiones en territorio enemigo*, Pamiela, 1997; eta *Euskararen Historia txikia Donostian, 1800-1998*); hiztegiak (ik. *Euskal Lokuzioak*, 1981), marrazki bizidunetarako gidoiak eta beste hainbat idatzi, denak euskal kulturarekin duen konpromiso argiaren fruitu. Esandakoez gain, aipagarriak dira Susa argitaletxearentzat osatzen diharduen *XX. mendeko poesia kaiarak*, euskal poetei buruzko 40 antologiak osatutako bilduma, eta 2001eko martxotik aurrera Susaren webgunean aurki daitekeen bere *web-nobela* (ik. idazketa@armiarma.com). Narratibaren alorrean, berriz, *Gauzetan* (Kriselu, 1979) kontakizun-liburua aipatu beharko genuke lehenik, literatura fantastikoan sartzeko euskal saio modernoaren artean lehenetakoa izan zena. Liburu hau Izagirreraren prosaren gaitasun semantiko eta sinbolikoaren adibidea da, errealitatearen kanpoko itxuratik haratago joan nahi duen animismoz blaitutako prosa, hain zuzen.

Euzkadi merezi zuten eleberria 1984an argitaratu zuen Hordago Argitaletxeak. Narrazio errealista honek Gerra Zibila Euskadin nola hasi zen deskribatzen du. Baina, kasu honetan, errealismoak ez du esan nahi gertakarien kronika objektibo eta fidela egiten denik, narratzen diren gertakizunen birsortze estilistiko iradokitzaille eta barrokoa baizik. Izagirreraren prosari darion kutsu herritarraren eta ahozkotasanaren erabilera ezaugarri iraunkorrak izan dira autorearen ibilbide literario guztian. Geroago, Gazte Literaturako Bilintx Lehiaketan Lehen Saria eskuratu zuen *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* liburuarekin (Elkar, 1991) [itz.: *Malandanzas de un Aguirre llamado Mecha*, Ed. Hiru, 1997]. 14 istoriotan zehar, Nikola de Agirre izenez eta Metxa ezizenez ezaguna den agure egoskor bihurri baten pozak eta atsekabeak kontatzen ditu. Liburu benetan gomendagarria, erraz irakurtzen dena eta Izagirreraren estiloaren ironia eta umorea dastatzeko aukera ematen duena.

Ez duk erraza, konpai! (Susa, 1995) Kuban gertatutako euskal-afro abentura dela esan izan da. Erdi kronika erdi eleberri den obra honetan, autorearen konpromiso politikoak markatzen du unibertso ideologikoa. Konpromiso politikoaren bidetik jo zuen, halaber, *Nik ere Germinal egin gura nuen aldarri* (Susa, 1998) eleberrian. Autoreak berak esan bezala, obra honetan, heriotzara kondenatua den ekintzaile politiko baten motibo pertsonalak, sufrimendua eta izua deskribatu nahi izan zituen. Lehen pertsonan dago kontatuta, eta beste euskal ekintzaile politiko bat da protagonista, heriotza zigorra hartu ondoren kondenatik libratzea lortzen duen ekintzailea. Narrazioaren une batean, pertsonaia horrek Cánovas del Castillo hil eta garrotez hiltzera kondenatu zuten Angiolillo anarkista italiarraren nortasuna hartzen du. «Germinal!» izan zen Angiolillok hil aurretik oihukatu zuen azken hitza, eta hitz horixe oihukatzea erabakitzen du eleberriko protagonistak exekutatuta hil baino lehen. Estrategia narratiboen aberastasunak (jauzi kronologiko etengabeak, fokalizatzaile anitzen txandakatzea, bizkaieraren erabilera narrazio nagusian...) bereizi egiten du *Nik ere Germinal egin gura nuen aldarri* genero historikotik eta gertakizun historiko baten birsortze literario bihurtzen du.

Agirre zaharraren kartzelaldi berriak (Elkarlanean, 1999) eleberriaren argitalpenak oihartzun garrantzizkoa izan zuen euskal prentsan. Euskalgintza Elkarlanean Fundazioak ematen duen I. Joseba Jakaren Bekari esker idatzitako eleberri honek ere Metxa zaharra du protagonista, eta kontatzen du nola sartzten den espetxean bere kabuz. Berriro ere, errealismoa eta fantasia dira Izagirreraren azken liburuaren ezaugarriak, autoreak berak fartsa sasibur-

leskotzat jotako liburu honen ezaugarriak. Kasu honetan ere nabarmentze-koa da obraren alderdi estilistikoa, euskal ijitoen argota, erromintxela, erabiliz edo hizkeraren lexikoa hankaz gora jarriz kontatzen baitira protagonistak espetxez espetxe egindako ibilaldiak.

b.3) Edorta Jimenez (1953)

Edorta Jimenezen (<http://www.susa-literatura.com>) ibilbide profesionalean mota askotako obrak dira aipagarri, hasi film gidioletatik eta zenbait literatur generotan egindako lanetara. Sei poesia-liburu argitaratu ditu Omar Nabarro ezizenez (*Itsastxorien bindikapena*, 1985; *Egutegi esperimental*, 1986; *Gaua zulatzen duten ahausietan*, 1987; *Odoleko eskifaia*, 1989...) eta egungo autore oparoenetakoa dela esan genezake. Bere hiru narrazio-liburuetan –*Atoiuntzia* (Susa, 1990), *Manhattan* (Elkar, 1994) eta *Laudanoa eta sutautsa* (Susa, 1996)– hainbat lehiaketatan saritutako ipuinak bildu ditu. *Manhattan* liburuan sexua eta droga mundua agertzen dira zinemak eta rock & rollak blaitzen dituen kontakizunetan; *Laudanoa eta sutautsak*, berriz, Eros eta Tanatos arteko borroka eternala irudikatzen du, garai eta giro desberdinetan zehar egindako bidaiaria literario baten bidez.

Lehenbiziko eleberriarekin, *Speed gauak* (Susa, 1990), Bilboko gauaren munduan sartu gintuen. Autorearen asmo nabarmena eleberri urbanoa egitea zen, eleberri beltzetik hurbil zegoen planteamendu estetiko batekin eta egungo euskal gazteriatik gertu dauden musika erreferentzia sorta batez atondua. Bilbon gertatutako lapurreta batek zehazten du eleberriaren hari narratiboa. Polizi eleberria izan ez arren, *Speed gauak* eleberriak intriga dosi handiak ditu, hilketa bat argitzen baita bertan. Euskal irakurleen artean, batez ere gazteen artean, izandako arrakastak haietako asko Jimenezek marraztutako mundutik oso hurbil sentitu direla erakusten du, landa giroko euskal eleberri gehienetan ukatu egiten baitzitzaizen mundu hori. Iratxe Gutierrezen aburuz (2000: 74), eleberriko pertsonaiek duten sakontasunik ezarengatik, errealismo zikinaren ildoan koka daiteke Jimenezen nobela honetan zedarritutako bidea.

Interesgarriagoa iruditzen zaigu autorearen bigarren eleberria, *Azken fusila* (Susa, 1993) [itz.: *El último fusil*, Ed. Hiru, 1994]. Eleberriko Azkue Sariaren irabazlea, Hiru argitaletxearen datuen arabera, 1993ko Durangoko Azokan gehien saldu zen eleberria izan zen. Liburuak azken urteetako historia zati baten argazkia egiten du; gertakizunak 1952an kokatzen dira, Bizkaiko kostaldeko herri batean (autorearen jaioterrian, Mundakan) trenbidea egiten ari

ziren bitartean. Trenbideak herri osoaren paisaia zeharkatzen du, eta preso errepublikarrak ari dira burdinbidean lanean. Lan horien inguruan sortzen diren adiskidetasunen eta gertakarien kontakizunaz gain, bigarren plano narratiboa ere agertzen du eleberriak, bere adiskide Onofre kapitainaren etxean bat-batean agertzen den makiseko gerrillariarena, hain zuzen. Pertsonaien ezaugarri ongi adieraziak, batez ere narratzaileak Onofreren psikologian egiten duen murgilketa sakona, eleberriaren tempoak, bizkaieraren hainbat aldaeraren erabilera heteroglosikoa, obraren oinarrian dagoen dokumentazio bikaina... horra, besteak beste, *Azken fusilaren* lorpenetako batzuk.

Autorearen azken eleberria, *Baleen barbaroa* (Txalaparta, 1998) [itz.: *Voces de ballena*, Txalaparta, 1999] *thriller* historikoa da, XVI. mendean kokatua euskal kostaldeko herri batean. Behin batean, balea bat agertzen da Mundakako itsasertz aurrean, eta bertako bizitza baketsua aztoratzen du. Marinelen heriotza misteriozua dela eta, Sebastian gazteak ikerketa hasten du arrantzale kofradiako kideen artean. Seguru asko, aurretik bilduta zegoen dokumentazio bikainari esker lortuko zuen idazleak eleberria hain ongi girotzea. Autoreak zenbait aldiz aipatu izan ditu eleberria idazteko erabili zituen hiru lanak: C. Gaiztarroren *Los vascos en la pesca de la ballena*; J. I. Telletxea Idígorasen *Otra cara de la Invencible/La participación vasca* eta J. I. Erroreka Gervasioren doktorego-tesia, *Análisis histórico-institucional de las cofradías de mareantes del País Vasco*. Edonola ere, *Baleen barbaroa* eleberriak, abentura narrazioek bezala, lehen lerroetatik harrapatzen du irakurlea.

b.4) *Pako Aristi (1963)*

Aristi idazle eta kazetaria da. Zenbait egunkari eta aldizkaritarako egin-dako kolaborazioei esker erreportaje saileko Rikardo Arregi Saria irabazi zuen 1992 eta 1993an. Euskadi Irratian eta Herri Irratian kolaboratu du, eta ETBko gidoilaria izan da. Bere produkzioan badaude poesia-liburuak (*Castletown*, 1996; *Oherako hitzak*, 1998), haur eta gazte literaturakoak (*Martinellok ez du kukurik entzuten*, 1985; *Hamasei paisa eta paralitiko bat*, 1988; *Azken lamia- ren bila*, 1991; *Benetako lagunuen aterbea*, 1998), kazetaritzako saiakerak (*Euskal Kantagintza Berria*, 1985; *Bezperan entregatu nituenak*, 1989) eta bi ipuin-liburu, *Auto-stopeko ipuinak* (Erein, 1994) [itz.: *Los informes informales*, Ed. Hiru, 1997] eta poemez eta ipuinez osaturiko *Iraileko ipuin eta poemak* (Erein, 1989), besteak beste. Hala ere, eleberrigintzan egin duen ibilbideak ekarri dio, batez ere, euskal irakurleen onespina. Egundaino argitaratu dituen lau nobeletan badago trilogia bat, *Kcapo (tempo di tremolo)* (Erein, 1985), *Irene (tempo di*

adaggio) (Erein, 1987) eta *Krisalida* (Erein, 1990), eta oraingoz bere azken eleberria dena: *Urregilearen orduak* (Erein, 1998). Literaturaren arloan erdie-tsi dituen sarien artean, 1985ean Donostia Hiria lehiaketan lortutako bigarren saria, 1988ko Imajina Ezazu Euskadi Saria eta 1999ko Kritika Saria gogoratu beharko genituzke.

Halaxe adierazi zuen Aristik berak literaturan dituen helburuak (ik. “Chandler, Lucanor nire belaunaldian”, *Literatur Gazeta* 5, 1987ko maiatza):

Nik literatura egin nahi dut, momia pedagogiko eta fosil militanteetatik aparte, eta jendea lo hartu aurretik ordu erdi bat bada ere entretenitu nahi dut. Istorio rural eta (oraingoz) zaharrak kontatu arren ni ez naiz kostunbrista. Ez zaizkit ekanduak, ohiturak interesatzen, pertsonak baizik, eta pertsona horien portaera nolakoa den, baina pikardiak, apustuak eta horrelakoak, Azkueren Euskal Herri haren alderdi humanoa (ez kostunbrista) nolakoa zen imajinatzeko. Nire belaunaldia horrelakoa da, kontradiktorioa. Lucanor Konteak Chandlerri eskua eman zion gure aurrean. Gogorrrak gara eta dultziak. Zergatik? Philip Marlowe-k dionagatik: “Gogorrrak ez izanik ez genuke bizirik iraungo, eta dultziak ez izanik ez luke bizitzerik mereziko”.

1980ko hamarkadako panorama narratiboan, Aristiren trilogiak istorioak kontatu nahi izateko jatorrizko bokazioa berreskuratu zuen. Eta berreskurapen horrek irakurleen eskerrona merezi izan zuen. Eleberri hauek ihes egingen diote espermentalismo orori eta, estilo fresko eta simple batez, generoaren dimentsio epikoa berreskuratzen dute. Aristiren nobelek eleberri beltzaren (batik bat Chandlerren) edo Ipar Amerikako *dirty realism* delakoaren eragin argia dute, eta gurean neorruralismo beltzaren adibide onenetakotzat hartu izan dira. Autoreak indarkeria eta sexua nagusi diren landa giro perbertsoa islatu du eleberri hauetan. Belandia alegiazko herriak trilogiaren azken bi nobelei batasuna ematen dien arren, nabarmenak dira haien arteko desberdintasun estilistikoak, batez ere lehenengoaren (*Kcappo*, autorearen eleberri bikainen eta irakurriena), eta *Krisalida* azkenaren artekoak. Azken honen tonua errealismo fantastikotik hurbilago dago, autoreak, alegia-estilo petoa erabiliz, mintzatzen diren pertsonaia-animaliak agerrarazten baititu bertan. Harri-jasotzaile baten hilketa misteriotsu baten ondoko ikerkuntza korapilatsua ironia handiz kontatzen du, eta horixe da obra honek irakurlea liluratzeko duen ezaugarri erakargarrietako bat.

Autorearen azken eleberriak, *Urregilearen orduak* obrak, aurrekoen poetika tremendista atzean utzi eta istorio mosaiko bat erakusten digu, bi tabernata-

ra joaten diren pertsonaien istorioek osatua. Ferminak eta Laurak, eleberriko bi tabernari protagonistek, jasotzen dituzte eleberria betetzen duten pertsonaia horien biografiak (ehiztariak, soinu-jotzaileak, homosexualak...). Tonu errealdista eta tarteka sinboliko samarrean idatzitako liburu honek Kritika Saria irabazi zuen 1999an.

b.5) Xabier Mendiguren Elizegi (1964)

Euskal Filologian eta Filologia Hispanikoan lizentziaduna ikasketez eta argitaratzailea lanbidez. Prentsan eta aldizkari ugaritan kolaboratu du, iritzi nahiz kritikako artikulua argitara emanez (*Susa, Jakin, Egunkaria...*). Horretaz gain, irakaskuntzarako liburuak ere paratu ditu (ik. Izagirre, K. & Mendiguren, X., *Euskal Literaturaren Antologia*, Elkarlanean) eta hainbat generotako literatur lan ugari kaleratu. Mendigurenen ibilbide literarioa osatzen dute haur eta gazteentzako idatzi dituen 21 liburuek (*Estitxuk pirata izan nahi du*, 1987; *Patakon*, 1992; *Irakasle alu bat*, 1995; *Obsexuen kluba*, 1997; *Kanibalaren kaiolan*, 1998; *Txakurraren alaba*, 1999...) eta helduentzako idatzitakoek: 4 ipuin-liburu (*Sei ipuin amodiozko*, 1986; *Hamalau*, 1992; *Opor ezberdinak*, 1995; *Ene dama maite horri*, 1996); 3 eleberri (*Bekatuaren itzala*, 1995; *Berrito igo nauzu*, 1997; *Gure barria 1975*, 1998); 7 antzerki-liburu (*Kanpotarrak maisu/Kultur ministrariak ez digu errukirik*, 1987; *Pernando, bizirik hago oraindiko*, 1989; *Garai(a) da Euskadi*, 1993; *Ankerki*, 1993, *Hilerritxia*, 1995) eta genero autobiografikoan sartuko genituzkeen lanak (*Nerabearen biluzia*, 1999; *Errekarteko koaderno*, 2001). Benetan oparoa da, beraz, beasaindar egile honen ibilbide literarioa, oparoa eta hainbat sari erdietsitakoa gainera.

1986an Susan argitara eman zuen *Sei ipuin amodiozko* izan zen Mendigurenek helduentzat kaleratu zuen lehenengo liburua. Gaur egun interneten aurki daitekeen liburu honetan (ik. www.susa-literatura.com), amodioa ardatz duten zenbait ipuin bortitz bildu zituen egileak, zenbait sariketatan irabazle suertatu zirenak. Ildo bertsuari jarraitu zion urte batzuk beranduago argitara emandako *Hamalau* (Elkarlanean, 1992) ipuin-bildumarekin. Bertan, 14 narrazio agertzen dira, sexua eta euskal egoera politikoa direlarik beren ardatz tematiko nagusiak.

Bekatuaren itzala eleberriarekin 1994ko Txomin Agirre Saria irabazi zuen Mendigurenek. Apaiz batek serorarekin eta haren alabarekin dituen sexu-grinak, haragizko bekatuaren aurkako borroka izugarriak, ditu kontagai lan honek. Tipologiari dagokionez, genero epistolarrean barneratuko genuke lan hau, protagonistak ikaskide izan zuen apaiz bati igortzen dizkion gutunez

osatua baita eleberria. Estiloari dagokionez, egileak S. Mitxelenarekin, N. Etxanizekin edo Orixerekin berarekin zituen zorrak aitortu bazituen ere, eleberrian kontatzen denaren intentsitatea izan zen gehien nabarmendu zen ezaugarria. Denbora eta espazio zehaztugabeetan kokatutako lana da eta hizkuntza jaso eta barrokoa darabil lehenengo pertsonan mintzo zaigun protagonistak. Testuaren bigarren argitalpenari hitzaurre luze eta mamitsua egin zion Joxe Azurmendik eta, besteren artean, eleberri existentzialistaren ezaugarriak, literatura unibertsaleko egile handien ekarriak eta euskal literaturan zehar emakumezkoak izan duen tratamendua izan zituen aztergai.

Berririo igo nauzu eleberriak (Elkarlanean, 1997), Xabier Lizardiren poema ezaguneko lerro gogoangarria dakarkigu gogora. Itzulera baten istorioa da eleberriak kontatzen diguna: Espainiako espetxe batean 18 urte preso egon eta Goierriko bere etxera itzultzeko ordua iritsi zaion ETakide baten istorioa. Protagonistak, Joxe Garmendia “Marmite”k bi igoera egiten ditu hiru egunetan, eleberri hasieran bata, bukaeran bestea, itzulera horretan: lehenengoan, protagonista nagusia bere baserrira igotzen da, eta bigarren igoeran, amaieran, Txindokira. Bi igoerak dira dramatikoak eta zailak, gurutze-bidea oroitazten digutenak. Hizkuntza zuzen eta laua, elkarrizketa biziak, edo bigarren pertsona narratiboaren erabilera genituzke eleberriaren baliabide estilistikoak. Euskal gizartearen irudi eta erretratu izan daitekeen honetan, gatazka politikoa, baserriko bizimoduaren gainbehera, herri txikietakako bizimodua... azaleratuz doaz, eta jarrera politiko desberdinen arteko amildegia begitantzen. Edonola ere, tesi-nobela izan gabe (eleberriaren amaiera irekia, protagonista nagusiaren bakardea begitantzen digun bigarren pertsona narratiboa,...), ezin ukatuzkoa da testuaren alderdi ideologikoaren esplizitazioa: azken igoeran protagonistak lagun duen damututako presoaren karakterizazioa (datumutako preso [Txafilis]=koldar hutsa), hirugarren pertsonako narratzailearen ahotan jartzen diren “zipaio” edo “txurriano” bezalako hitzak,... zalantzarako aukera gutxi uzten dute.

Egilearen hirugarren eleberriak, *Gure barria 1975* izenburu duenak (Elkarlanean, 1998), data zehatza du: 1975eko uda, herri industrial bateko auzunean. Lehenengo pertsona plurala erabiliz, 11 urteko haur baten ikuspegitik kontatzen dira gertakizunak. Hiru atal nagusi ditu liburuak. Lehenengoak, haurren ingurunea, auzunea eta jolasak aurkezten dizkigu. Bigarrenean, neskekiko harremanak dira kontagai, eta, hirugarrenean, orduko egoera politikoak (ETAren ingurukoak, Francoren heriotza, Gernikako arbola...) haurrengan duen eragina. Oroitzapenak eta fikzioa uztartuz, estilo xume eta samurra konbinatuz, “haurtzarora denon aberria da” (ik.

Baudelaire) baieztapena eleberri batean gauzatzen ahalegindu da Mendi-
guren.

b.6) Fantasiatik errealismo psikologikora: Bernardo Atxagaren (1951) eleberri- gintza

1951n Asteasun jaio zen Joseba Irazu Garmendiak, ezizenez Bernardo Atxaga denak, bide luzea du, dudarik gabe, 1971tik gaurdaino literaturan egindakoa. Bera dugu euskal egile sarituen eta itzuliena, eta Atxagak gurean nahiz Euskal Herriatik kanpo erdietsitako harrera onaren erakusgarri dira atzerriko adituen laudorioak⁸. Zientzia Ekonomikoetan lizentziatura eskuratu ondoren, 1981etik 1984ra bitartean Filosofia ikasketak egitera joan zen Bartzelonako Unibertsitate Zentralera. Hasieran ekonomista, euskara irakasle, liburu saltzaile, inprimategiko langile, irratiko gidoilari... aritu zen, harik eta 1980an literaturan buru-belarri jardutea erabaki zuen arte. Atxagaren bibliografia benetan oparoan molde askotako testuak aurki ditzakegu: haur eta gazteentzat idatzitako 30 liburutik gora, irratiko nobelak (*Antzoki iluna*, 1990), lezio edo irakurketak (*Henry Bengoa Inventarium*, 1988; *Lezio berri bat ostrukari buruz*, 1994; *Itzultzaile bat Parisen*, 1996; *Groenlandiako Lezioa*, 1997); poesia-liburuak (*Etiopia*, 1978; *Poemas & Hibridos*, 1990; *Nueva Etiopía*, 1996); eleberriak (*Bi anai*, 1985; *Behi euskaldun baten memoriak*, 1991; *Gizona bere bakardadean*, 1993; *Zeru Horiek*, 1995)...

Horretaz gain, eta literaturaren ohiko bideak gaindituz, hainbat abeslari-
rentzat kantak idatzi ditu (Loquillo, J. Gurrutxaga, J. Muguruza, Ruper, M. Laboa...); antzerki lanak plazaratu ditu, eta, zerrenda hau amaitzeko, artista ezagunen katalogoetan kolaborazioak egin ditu (besteren artean, Jose Luis Zumeta, Eduardo Chillida, Gabriel Ramos Uranga, Eduardo Sanz, Ricardo Toja, Andrés Nagel, Carmelo Ortiz de Elguea, Francesc Torres...).

Obaba eta literatura fantastikoa

1982ko Irun Hiria Saria irabazi zuen ipuinean –*Camilo Lizardi erretorearen etxean aurkitutako gutunaren azalpena*– agertu zen estreinako aldiz Obabako geografia literarioa. Topos literario horrek Bizkaiko sehaska kanta batean du jatorria, eta batasun tematikoa ematen die zenbait ipuini, hala nola *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (Erein, 1984), *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*

⁸ Bernardo Atxagaren lanen azterketa zabalago baterako, ikus nire *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein, Donostia, 1998. Ikus, halaber, <http://www.ikeder.es>.

(Erein, 1984), *Bi anai* (Erein, 1985) eleberri laburra eta *Obabakoak* (Erein, 1988) ezaguna. Narrazio fantastikoak koka daitezkeen infinitu birtual bilakatura, leku zehaztugabea da Obaba, eta, egiaztatu ahal izan dugunez, iradokitzailea suertatzen da hainbat hizkuntzatarako irakurleentzat. Idazlearen Asteasu sorterriaren transposizioa baino gehiago ere bada, espazio afektibo horretan barrena sartu ahala, gero eta nabarmenagoa egiten zaigulako giza sentimenduen unibertsaltasuna. Faulknerren Yoknapatawpha edo Rulforen Comalaren kasuan bezala, Obabaren deskribapenek bizitutako geografia batez hitz egiten dute, zehaztasun topologiko orotatik urruntzen den geografia batez. Kausalitate magikoak agintzen du bertan (ik. Borges), arrazoi logikoez haratago kokatzen den kausalitateak. Horretaz gain, Naturaren eta Kulturaren arteko aurkakotasunak baldintzatzen du gertakarien bilakaera Obaban, eta, egia esan, geografia irudizko hori antzinako mundu bati dago-kio, «depresioa» edo «eskizofrenia» hitzak existitzen ez diren munduari. Bertako biztanleek animaliengana jotzen dute gertakari ulertezinak esplikatzeko garaian. Horregatik, Obaba lurraldean, sinesgarria da haur bat basurde bihur daitekeela pentsatzea edo musker batek, gure belarrian sartuz gero, erotu egin gaitzakeela sinestea.

Egia esateko, *obabar zikloa* dei geniezaiokeenak harrera oso ona izan du, eta Premio Nacional de Narrativa delakoa irabazi aurretik ere jarraitzaile asko zituen euskal irakurleen artean. Adibidez, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian* (1984), *Sugeak txoriari begiratzen dionean* (1984) eta *Bi anai* (1985) narrazioek lau edizio izan zituzten batez beste 1988 arte, eta 20.000 ale inguru saldu zituen obra bakoitzak, kopuru handiak inondik ere, kontuan har-tzen bada urte haietako euskal merkatu potentziala.

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian eta gisa horretako ipuin luzeen eka-rria (bost hizkuntzatarata itzuli dute eta euskaraz hamazazpi edizio izan ditu) honako hau da, besteak beste: ingelesaren eta euskararen konbinazio hete-rofonikoaren fruitu den hizkuntza arteko mestizaia iradokitzailea. Bost hiz-kuntzatarata dago itzulita orobat *Sugeak txoriari so egiten dionean*, eta 1983an Lizardi Saria irabazi zuen Haur Literaturaren atalean. Gizaki-animalia arteko elkarriketez gain, heriotzaren begiradaren motiboa agertzen da lan horretan (ik. C. Pavese); ondoren ere, *Obabakoak* liburuko *Dayoub, Bagdadeko morroia* ipuinean hain zuzen, motibo hori bera agertu zen. Azpimarratu nahi genuke, halaber, *Bi anai* eleberri laburraren kalitate literarioa. Bat gatoz I. Aldekoarekin (1998), esaten duenean eleberri hori, A. Lertxundiren *Hama-seigarrenean aidanez* eleberriarekin batera, 1980ko hamarkadako onena dela. Lau hizkuntzatarata itzuli duten eta orain arte hamahiru edizio saldu dituen *Bi*

anai eleberriak Paulo eta Daniel anaiek Obabako ingurune bihozgabearen daramaten bizitza kontatzen du. Baina ziur aski lorpen handiena zenbait narratzaile erabiltzea da (txoria, katagorria, sugea eta antzarak), narratzaileok indartu egiten baitute errugabearen sakrifizioaren narrazio tragikoa. Narratzaile bakoitzak antzinako ahots baten, naturaren ahotsaren, deiari erantzuten dio eta nork bere ikuspuntutik kontatzen ditu urtaroen zikloan jazotzen diren gertakariak. Atxagak, maisutasun handiz eta ahots desberdinen erabilera horren bidez, narratzaile bakoitzak duen mundu ikuspegia mamitu eta irakurlea Obabako mundu fantasiakoan sartzea lortzen du. Atxagarentzat, erreala eta ez erreala bereizi gabe idatzi eta irakurtzen den eleberria da eleberri fantastikoa. Bere egiten du J. L. Borges-en ikuspuntua, hots, errealismo literarioa ameskeria dela, zeren eta, azken finean, literatura oro fikziozkoa baita, edo, bestela esanda, aldez aurretik idazlearen eta irakurlearen artean gertatzen den itun literarioaren zati bat. Itun hori dela eta, literatura fantastikoaren kasuan, irakurlearen jarrera zalantziatagoa da eta irakurtzen ari denak sortzen dion dudak hartaraturik zalantzan jartzen ditu gertakizunak. T. Todorov-ek zioen bezala, zalantzazko jarrera horrexek definituko luke hobekien irakurlearen erreakzioa testu fantastiko baten aurrean.

Baina autoreari ospea eman zion obra, esan beharrik ez dago, *Obabakoak* (Erein, 1988) ipuin-liburua izan zen. 23 hizkuntzatarara itzulita dago, eta merezi izan ditu, besteak beste, Kritika Saria (1988), Premio Nacional de Narrativa (1989), I. Euskadi Saria (1989), *European Literary Prize* delakoan finalista (1990), *Millepages* Saria (1991) eta Pyrénées Atlantiqueseko *Trois Couronnes* Saria (1995). Nola atzerriko hala bertako kritikak aipatu zuen bere garaian obra horren kalitate literarioa. Hartu zituen laudorioen artean, E. Suárez Galbánena aipa genezake (ik. *The New York Times Book Review*, 93-6-20), «paella barroko zoragarria» deitu baitzion.

*Obabakoak*en egiturak hasiera-hasieratik jokatzeko irakurlearen aurreus-teekin, eta elkarri lotuta edo, liburuaren amaieran, elkarren baitan sartuta dauden narrazio sorta bat agertzen du. Paratestutik abiatuta, Obabako geografia irudizkoak batasun tematiko-topologikoa ematen dio unibertso literario atxagarrari, eta obraren zehazgabatasunaren leku nagusi bihurtzen da aldi berean. Era honetan, Obabako paisaia afektiboa infinitu birtual moduan deskribatzen da, zeinean narratzailearen oroimena istorio sare bat ehunduz doan, gogoeta metanarratiboa eta literatura fantastikoari dagozkion estrategiak konbinatzen dituzten istorioen sare bat.

Baina bidaia fantastiko hori bidaia literarioa da batez ere, bidaia *intertextuala*. Beste zenbait narraziori buruz egiten diren aipamen etengabeek Elio-

tek esandakoa dakarkigute gogora, hau da, obra oro sartzen dela literatur tradizioaren batean, eta ildo horretan *Obabakoakek* gorazarre egiten die ipuin-gintzaren maisu unibertsalei, bai generoari buruz zenbait teorizazio argitaratu zituztenei (E. A. Poe, H. Quiroga edo J. Cortázar), bai XIX. eta XX. mendeko idazleei ere. Omenaldi literario hori hainbat eratan mamitzen da: ipuinen aipuetan (*Bagdadeko morroia* ezaguna, adibidez), laburpenetan (Txekhov, Waugh eta Maupassanten ipuina, esaterako, *Cocteauk* izenekoan), eraldaketa tematiko-formaletan eta perifrasiatan (hala nola, *Wei Lie Deshang*), plagioetan (Villiers d'Isle Adam-en *Torture par espérance* bere *Pitzadura bat elur izoztuan* ipuinean), parodietan, imitazioetan, eta abar. Erreferentzia horiek gutxi balira, beste ipuin batzuek, esaterako *Margaret*, *Heinrich* (ik. G. Trakl) edo *Esteban Werfell* (ik. F. Werfel) ipuinek, oinarri espresionista dute.

Azken finean, liburuaren bi parteak bakardadearen eta halabeharraren inguruan egituratuak dira, eta aberastasun polifoniko ohigabea duen mundu literarioa erakusten digute; eta mundu horrek, erregistro estilistiko anitz bere eginez (Obabako biztanleen ahozko erregistroa dela, bigarren parteko narratzaile[ar]en erregistro jasoagoa dela) bizitzari eta idazteko egitateari berari buruzko gogoeta agertzen digu. Autoreak literaturaren eta bizitzaren arteko mugak hausnartzen ditu, eta gogorarazi egiten digu pertsonaia kixotesko bihurtu nahi ez badugu, arriskutsua dela fikzioetan itsu-itsuan sinestea.

Errealismorantz: Behi euskaldun baten memoriak (Pamiela, 1991)

Ukaezina da Haur eta Gazte Literaturak Bernardo Atxagaren ibilbide literarioan duen garrantzia. Gaur egun genero horretan klasikotzat hartzen diren idazleak (Stevenson, Kipling, Melville...) grina biziz irakurri ditu Atxagak, eta berarentzat (Borgesentzat bezala), ez dira testuak aldatzen, haiek irakurtzeko modua baizik. Azterketa labur honetan Atxagak gazteagoentzat idatzitako testuetan sartzeko aukerarik ez badugu ere, nabarmendu nahi genuke *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) eleberri laburrak haren ondoko eleberrigintzan izan duen eragina.

Hamar hizkuntzatarata itzuli dute, eta, duela urte gutxi arte, edizio gehien izan dituen euskal eleberria izan da *Behi euskaldun baten memoriak*. Haren kalitate literarioa egiaztatuta geratu zen 1994an IBBY (International Board on Books for Young People) delakoaren Ohorezko Zerrendan sartu zutenean, edo zenbait herrialdetan, Alemanian, esaterako, kritikaren aldetik izan zuen harrera bikainari esker. Izenburuak Sophie Rostopchinen *Memoires d'un âne* (1860) ezagunaren parafrasia egiten du eta iragarri egiten ditu, umorez eta

ironiaz, behi baten bizitzako gorabeherak. Heziketa eleberri moduan dago pentsatuta eta bere egiten ditu alegia edo oroitzapen literarioen generoen estrategia narratiboak. Eleberriaren osagai polifonikoa testuari grazia gehigarri bat ematen dioten zenbait erregistro eta hizkeraren erabilerari esker mamitzen da. Baina, gainera, eleberria are erakargarriago egiten dute Espainiako Gerra Zibilaren eta Mo behiaren inguruan bizi diren borrokalarien jardun ezkutuko eta misterioitsuaren aipuek. Bien bitartean, istorioaren protagonista atseginak bizitzaren aurrean jarrera kritikoa alde egiten du apustu. Azkenik, nabarmendu nahi genuke *Behi euskaldun baten memoriak* intertestualitatea, narratzaileak protagonistaren ahoan jartzen dituen A. Rimbaud, F. Villon edo Brassensen aipuak alde bat utzita, funtsean euskal literaturari egindako gorazarrea dela (bertako intertestualitatean, besteak beste, G. Aresti, J. Sarrionandia, J. M. Iparragirreraren testuen eta XVIII. mendeko erromantze lirikoaren aipamenak daude).

Baina *Behi euskaldun baten memoriak* honek Atxagaren ibilbide literarioan duen garrantzia ez datorkio testuaren beraren kalitatetik bakarrik, baita autorearen ondoko eleberrigintza definituko zuten zenbait osagai tematiko-formalen erabileratik ere. Eleberriaren errealismo kronotopikoaz eta protagonisten gogoetak kontatzeko barne-ahotsen erabileraz ari gara. Mo behiak bere barne-ahotsarekin, Setatsurekin, duen harremanak pertsonaiaren helitze-prozesua markatzen eta definitzen badu, barne-ahotsaren erabilera hori baliabide tekniko garrantzitsuena izango zen aurrerago, Carlos edo Irene protagonisten gogoetak transkribatzeko garaian adibidez. *Daimonion* (sokratikoa) deitu, *kontzientzia* (kristaua) deitu edo nortasunaren instantzia deitu, Dorrit Cohn kritikariak *bakarriketa aipatua* esaten zion haren aldaera bat da. Horregatik iruditzen zaigu garrantzitsua Moren kontaketa ondoko eleberri errealistekin duen antza aipatzea; izan ere, azken finean eleberrion hariaren parte handi bat *oroimenean* oinarritzen baita, protagonistak behin eta berriro atsekabetzen dituen iraganean.

1990eko hamarkadako nobelen errealismoa

Gizona bere bakardadean (Pamiela, 1993) da ildo berri honetan sartzen den Atxagaren lehen eleberria. 15 hizkuntzatara itzuli dute eta sari garrantzitsuak hartu ditu: Kritika Saria 1993an, Premio Nacional de Narrativa finalistaren urte berean, Zilarrezko Euskadi Saria 1994an, 1994ko libururik onena *El Urogallo* eta *Elle* aldizkariarentzat... Eta sarigai izan da, besteak beste, Aristeion Sarian (1996) eta International IMPAC Dublin Literary Award delakoan (1997).

Nola atzerriko hala bertako kritika oso itxaropentsu agertu ziren, eta testua-
ren kalitatea nabarmendu zuten.

Ikusten dugu izenburutik bertatik gailentzen direla obraren bi osagai
nagusiak: gizona eta bere bakardadea. Eleberria 1982ko ekainaren 28an has-
ten da, eta ekintza hurrengo 5 egunetan gertatzen da, Munduko Futbol Txa-
pelketan. Zehaztaperen kronologiko honi akzioa garatzen den leku kopuru
mugatuak gaineratu behar zaizkio (ekintzaile-ohiek Bartzelonatik 50 kilome-
trora duten hotela, eta hotel inguruak: ogi biltegia, Banyera delakoa, igerile-
kua, gasolindegia, etab.). Protagonistaz ez dakigu gauza askorik, ezizena (Car-
los), adina, gutxi gorabehera, eta xehetasun fisikoren bat bakarrik, burusoil-
tasuna); Carlosek okindegiko sotoan ezkututzen ditu Euskadin egun batzuk
lehenago atentatu terrorista egin duten bi ETakide, haien ihesaldia prestatu
bitartean, hotel inguruan ezarri duten polizia kontrola saihestu nahian.

Baina hariaren bi fokuek, hau da, batetik protagonistaren barne-bakarda-
dearen mamitzea eta bestetik terroristen ihesaldiaren inguruko intriga, *Gizo-
na bere bakardadean* eleberri psikologikoa edo *thriller* bat dela esatera eraman
bagintzakete ere, haren edukia sinplifikatzeko arriskua ekar lezake horrek.
Egia da suspense eleberria dela, eta, ildo horretatik jarraituz, narrazioaren
erritmoak irakurlearen jakin-minarekin jolasten du, lehen lau egunetan
mantsoa baita, analepsiaren bidez, eta azken egunean, berriz, azkarragoa,
atzera-kontaktetaren bidez. Baina intrigaren bilakaerari protagonistaren bai-
tako mundua kontatzeko orduan erabilitako sakontasuna gaineratu behar
zaio. Nahiz hirugarren pertsonan kontaktuta egon (narratzaile estradiegeti-
koa), Carlosengan ezarritako foku narratiboak gidatzen du kontakizuna
hasieratik amaierara, eta ezaugarri horrek, hari nagusiaren amaierak pizten
duen interesarekin batera, betearazten dizkio eleberriari Henry James idazle
iparramerikarraren arabera eleberri interesgarri orok bete beharreko bal-
dintzak: entretienigarria izatea eta pertsonaien izaera ongi erakustea. Era
horretan planteatuta, eleberria, bere izaera propioagatik, norbaiten inguru-
ko iskanbila da da, Carlosen inguruko iskanbila, alegia.

Izan ere, nahiz eta narrazioa haren ikuspegiak gidatu, gutxi baitakigu
benetan hari buruz: garrantzitsuena da bakarrik dagoela, eta bakarrik dago-
en gizona, P. Valéryk gogorarazi zigun moduan, beti dago lagunarte txarre-
an. Barne-ahots horien eta atsekabetzen duten oroipenen (sendategi batean
sartuta dagoen Kropotki anaiaren oroipena, egin zuen atentatuarena...) etengabeko zelatapean dago Carlos, eta irakurleok haren baitan gertatzen ari
den borrokaren ikusle artega bihurtzen gara (T. S. Eliotek esana: «Infernua
norbera da»).

H. R. Jaussen arabera (ik. *Experiencia Estética y Hermenéutica Literaria*, 1986: 43), sakontasun estetikoa galdutako denbora berreskuratzeak ematen du, hilobiratutako bizipenen aitortpenak. Bizipen horiek, Carlosen kasuan, haren gaztaroa markatu zuten kontsigna eta ideal iraultzaileek markatuak dira. Zentzu honetan eleberriak duen intertestualitateak ez du zalantzarako tartarik uzten: P. A. Kropotkin anarkistaren erreferentziak, edo R. Luxemburg zein A. Kollontai iraultzaileenak, ideal iraultzaileaz mintzatzen zaizkigu, baina ideal hark, pertsonaia hauen kasuan, garaian indarrean zegoen ideologia iraultzailearekiko disidentzia argia markatzen zuen. Carlosen belaunaldiaren ilusio iraultzailea, gure baitan aurkitzen diren ilusio oro bezala, hizkuntza-aren, fikzioen gainean eraikitako ilusioa da. Hizkuntz izakiak gara, baina, Carlosentzat, ideal horiek, ilusio horiek, ez dira nahikoak itsaso izoztuaren amets errepikakorra hausteko, eta alde horretatik urrun geratzen da Kafkak esandakotik, hots, liburuak gure itsaso izoztua hausten duen aizkora izan behar duela.

Horregatik sentitzen da Carlos korronteak daraman arraina bezala, edo olatuek batera eta bestera eramaten duten igerilaria bezala. Izan ere, pertsonaiari iruditzen zaio ahaztu egin dituela bizitzako gauza garrantzitsuak, poza ematen duten gauzak, zeinak liburuan R. Luxemburgek Karl eta Louise Kautskyri idatzitako gutunetan baieztatutakoa bihurtzen diren. Apetaren garrantziak, hau ere nabarmena liburuan, Paleolitoko gizakiek lepokoak egiteko erabiltzen zituzten *nassa reticulata* maskorren aipamenaren bidez, arrakala irekitzen du behialako helburu iraultzaileetan.

Horregatik, oroipen positiboek, Sabinoren ahotan jarriak euskal herri kantuen bidez, Obabara eramaten dute (baita W. Wordsworthek Gernikako arbolari eskainitako poemak ere), eta oroipen positibo haiek dira protagonistaren gogo atsekabetuan baretasun pixka bat jartzen duten bakarrak. Tragedietako pertsonaiei gertatzen zitzaizkien bezala, Carlosek ezin dio aurre egin datorkion amaierari eta, Izuaren Lurraldean sartuz joan ahala, iraganeko mamuek beste jokaldi makur bat egiten diote. Izuaren presentziak, zeina baita konstante bat Atxagaren ibilbidean, eragiten dizkio ilusioak eta fantasiak. Baina haiek ez dute zerikusirik Obaban munstroak irudikatzen zituztenekin. Carlosen fantasiak ametsetan, gertakizunetan edo fikzio iragarleetan gauzatzen dira. Paisaia ikusteak ere, Txekhoven lanetan protagonistaren bakardadea adierazteko balio duen paisaiak, ez du lasaitzen. Eleberrian etengabe agertzen dira zenbait irudiren erreferentziak, hala nola farolaren inguruan hegan dabilen saguzarra, itsasoko olatuak, zerua eta ogi forma duten hodeiak edo gerezia dirudien eguzkia... Erreferentzia horiek gertakizunen

bilakaera tristea eteteko bitarte narratiboak definitzen dituzte. Baina, azkenean, itsaso izoztuaren amets profetikoa pertsonaiak aurkituko duen atsedeneraren aurrerapen halabeharrezko bihurtzen da.

Zeru horiek (Erein, 1995) ere pertsonaia baten inguruan egituratutako eleberria da. Pertsonaia hori emakumezko preso ohi birgizarteratua izateak ezker abertzaleko sektore erradikalen aldetik kritika ekarri zion Euskadin. 1996ko udaberrian kaleratu zen espainierazko bertsioa, eta 20.000 aleko lehen edizioa segituan agortu zen. Eleberriaren oinarri politikoa zela eta, elkarrizketa ugari eman zituen Atxagak, eta bertan gogoeta egin Euskadiko politikari abertzaleen ikuspegi eta jarreretan bere ustez nagusitzen zen gehiegizko erromantizismo politikoaz. Hausnarketa kritikoari dagokionez, esan daiteke, eskuarki, pentsatu zela eleberria gehiegi mugatzen zuela bere garapen tematikoak, eta nahiz testuaren kalitateaz dudarik egiten ez zen, kritikari gehienek obra txikia ikusi zuten honetan, *Gizona bere bakardadean* harekin konparatuz (ik. R. Senabre in *ABC* [1996-5-3] eta F. J. Díaz de Castro in *Diario de Mallorca* [1996-6-14]).

Eta hala ere, eleberri honek eskatzen duen irakurketa aurrekoak eskatzen zuena baino biziagoa da. Poema batean bezala, irudi eta emozioen kontzentrazioa oso trinkoa da, eta ez da kasualitatea jatorrizko testua *Zeruak* izatea, Atxagak azken urteotan antzezle eta kantarien laguntzaz antolatu izan dituen lezio edo irakurketa poetikoetako bat. *Zeru horiek* eleberrian murriztu egin dira ia erabat osagai kronotopikoak: protagonistak bidaia egiten duen autobusa da eleberriko espazio nagusia, eta narrazioa espetxetik irten osteko lehen bi egunetan garatzen da. 86. orrialdea arte ez dugu ikasten protagonistaren izena, eta haren deskribapena ezaugarri xume baina esanguratsuez egiten da: 37 urte ditu, txikia da eta distira ilun bat du begietan. Bizitzak inposatutako estandarretatik at jardun ondoren (senarra ez duen gizon batekin bizi izan da, haurrik ez izatea erabaki, dibortziatu, erakunde armatu batean sartu eta, azkenean, erakundea utzi zuen, birgizarteratzeko), zirkunstantzia horiek eraman duten bakardade amaigabea partekatzen du bere bidai-deekin (bi moja eta emakume minbizidun bat). Horregatik da horren garrantzitsua eleberrian zeruaren sinbologia, pertsonaiak so egin ondoren bere gogoia islatzen duten tonu eta ñabardurak hartzen dituen zeruaren sinbologia. J. Oteizaren *Quousque tandem...!* (1963) aipuan adierazten zaigun bezala, zeru zati bat ikustean heriotzak ematen dion beldurretik urruntzen duen ihesbidea zabaltzen zaio. Une labur horietan lortzen du mundutik bereiztea, eleberrian barrena errukirik gabe inposatzen den orain mehatxagarritik bakartzea.

Hartara, Bartzelona eta Bilbo arteko bidaia protagonistaren barne-bidaia bilakatzen da. Ametsen eta literatur irakurketen bidez, orainak ukatzen dizkion bake uneak aurkitzen saiatzen da Irene. Michelangeloren koadroan elkar ukitzen saiatzen diren hatzen irudi errepikakorra bere bizitzaren mamitze plastiko bihurtzen da. Errealitatea beraren eta Larrearen artean tartekatu zen bezalaxe, autobuseko bideoek egiazko *mise en abîme* moduan dihardute, ihesbiderik ez duela gogoraraziz.

Bakardadera eraman duen iragan batetik askatzeko erabakia hartu duen emakumea dugu Irene. Harreman afektiboetan ere, Andonirekikoetan, esaterako, berataz ahaztu direla iruditzen zaio, bere irrika eta ilusioez ahaztu direla. Horregatik, oso ekipaia arina darama, benetan aurrera egiten lagundu dion gauza bakarra eraman du espetxetik: Literatura, eta bere liburuen artean badira bere gelan sartuta bizi izan zen poetisa iparramerikarraren testuak. Emily Dickinsonek leihotik ikusten zuen lorategi zatia, Irenek espetxetik ikusten zuen zeru zatia bezala, da ilusioa ahalbidetzen dion elementua, literarioa izan ez izan. Azkenik, Atxaga poesia irakurle eta idazle handia dela gogorarazten digu *Zeru horiek* honetan bildutako poema, narrazio eta kanta antologia bikainak.

b.7) Hego Amerikako oihartzunak Joan Mari Irigoien (1948) eleberrigintzan

Lertxundi, Urretabizkaia eta Saizarbitoria idazleen belaunaldikoa da **Joan Mari Irigoien** idazle oparoa. Eleberria, narrazio-liburuak, haur eta gazte literaturako liburuak (ik. *Bakarneren gaztelua*, 1986; *Metak eta kometak*, 1994; *Apaiz zahar-raren gitarra*, 1996) eta poemarioak (ik. *Hutsetik esperantzara*, 1975; *Denborak ez du nora*, 1991; eta *Hautsa eta maitemina*, 1998) barne hartzen ditu bere produkzioak. Horietaz gain, hainbat testu itzuli (R. Dahlen liburuak, esaterako) eta egokitu ditu. Gure egungo panoramako idazlerik sarituenetakoa da, eta, besteren artean, berak ekarri ditu Hego Amerikako aireak euskal nobelagintza modernora. Irigoienek berak adierazi bezala (ik. *Hegats 4*, 1991), Hego Amerikara egin zituen bidaiei esker ezagutu zuen zenbait autoreren obra eta hurbildu zen haietara, J. M. Arguedas, Scorza, Sábato, García Márquez, Vargas Llosa, Icaza, M. Otero Silva eta Benedettiren obretara, baina, batez ere, *Pedro Páramo* eta *El llano en llamas* idatzi zituen Juan Rulfo autore miretsiaren testuetara.

Haren lehen nobelak, *Oilarraren promesak* (Gero, 1976), Kritika Saria irabazi zuen. Francoren diktaduraren garaian idatzitako obra hau Euskal Herriak jasaten zuen errepresio politikoaren aurkako aldarria da. Nobelan kontatzen den istorioak denbora tarte luzea hartzen du eta Azpil herriaren

jatorri mitikoa kontatzen du. Paleolitoan deabruaren hezurduraren gainean eraikitako Azpi herria apaizak, maisuak eta alkateak zuzendutako talde zapaltzaile baten mende bizi da 1830etik. Egoera aldatu egiten da maisu berria etorri eta beste alkate bat hautatzen dutenean. Alkate berria, Pello, oso laster hiltzen dute, ordea; oilar beltz batek kukurruku egin eta desager-tu egiten da haren jabea, Pello gizagaixoa, eta hilda agertu ondoren herriaren itxaropen askatzaile bilakatzen da.

Oilarraren promesako narratzailea orojakilea da eta ugariak dira autore inplizituaren tartekako agerpenak, behin eta berriz bere ideologia adieraziz. Gai batzuk, hala nola bakezaletasuna, aldaketa soziala, eskubide politikoak... sarri agertzen dira testuan eta, K. Otegi kritikariaren ustez, ilundu egiten dute nobelaren hizkuntza ironiko eta mitikoa. Bukatzeko, aipatzekoak dira anakronia ugariak eta, batik bat, errealismo magikoaren eragina, bereziki Rulfo edo García Márquezena.

Urte batzuk geroago, 1982an, J. M. Irigoienek bere bigarren nobela kale-ratu zuen, *Poliedroaren hostoak* (Erein, 1982) [itz.: *La tierra y el viento*, Ed. Hiru, 1997], gure ustetan autorearen nobela handinahi, experimental eta berri-tzaileena. 1980an Azkue Saria eta 1982an Kritika Saria irabazi zituen obra honek erakusten digu autoreak Hego Amerikako errealismo magikoari dion miresmena, Venezuelan egindako egonaldien ondoren areagotua inondik ere. *Poliedroaren hostoak* Euskal Herriko zenbait familiaren mendeetan zehar-reko istorioa kontatzen digun «ibai nobelatza» har genezake. Gizaki moder-noaren konplexutasuna eta barne-haustura islatzen saiatzen diren bi zatitan dago egituratuta. Bertan kontatzen diren gertakarien protagonistak Elizalde (karlistak) eta Ibargoien (liberalak) sendien bost belaunaldi dira, eta haien arteko gorrotoa Lehen Gerra Karlistatik Francoren garaia arte luzatzen da.

Nobelaren sarreran, Juan Mari narratzaile-pertsonaiak, autorearen *alter ego* nabarmena, azaltzen digu bere osaba Joxeren eskuizkribuaz baliatu dela liburua idazteko. Modu horretan planteatuta, nobelak maila narratibo des-berdinak ditu, estilistiko zein formalki argiro bereziak. Lehen partean, Joxe narratzaileak, hizkera mitiko-poetikoa erabiliz, Elizaldetar karlisten eta Ibar-goien dar liberalen historia eta elkarrenganako gorrotoa kontatzen digu. Zenbait narratzaile eta ahots, bereziki amona Martzelinarena, bizi dira narra-zioan, eta Joxeren nortasun poliedrikoa marrazten digute. Baina, gainera, bi osagaik identifikatzen dituzte familiak: lurrak eta haizeak. Lurrak Elizalde familia karlistaren kideen tradizioa, erlijiozkotasuna eta immobilismoa sinbo-lizatzen ditu. Haizeak, berriz, Ibargoien darren aurrerazaleatasuna, arraziona-lismoa eta mugikortasuna sinbolizatzen ditu. Bi sinboloak nagusitzen dira

nobelaren lehen zatian, eta haren erregistro mitiko-poetiko baldintzatzen dute.

Nobelaren bigarren zatian, Juan Mari narratzailea bere osaba Joxeren iragana eta heriotza ikertzen ari da, haren bizitza beti inguratu zuen misterioa argitu nahian. Aipatu behar da, garrantzizkoa baita, Juan Mariren hizkera bere osabaren erregistro mitiko-poetikotik urrun dagoela; hurbilago dagoela estilo errealistatik, detektibe istorioei dagozkien zenbait teknika eta estrategiaren erabilerak erakusten duenez.

Obraren lotura intertestualei dagokienez, lehenago ere iradoki ditugu: alde batetik, *Cien años de soledad*, Irigoienen lana «ibai nobela» eta zenbait belaunaldiren narrazioa den aldetik, eta *Pedro Páramo*, bestetik, kontuan hartzen baditugu hildakoen arteko elkarrizketa luzeak, ugariak baitira, halaber, Irigoienen nobelan. Gure ustez, *Poliedroaren hostoak* autorearen prosa poetiko-magikoaren adibide onenetakoa da, eta benetan iradokitzaila suertatzen da obra honen irakurketa.

Irigoienen hurrengo nobelak, *Udazkenaren balkoitik* (Erein, 1987), Jon Mirande Saria irabazi zuen 1986an. Francoren diktadura bizi zuten gazteen belaunaldiaren ikuspen nobelatua eskaintzen zaigu bertan. Erreal-miresgarriaren teknikari uko egin gabe, autoreak nobela testimoniala idatzi nahi izan zuen, aurrekoa baino egitura askoz sinpleagoan oinarritua. Ollaran (autorearen Altza herriaren irudikapena) herriaren inguruan gertatzen da haria; garai batean idilikoa izandako leku horretan zementuzko etxe pila eraiki da eta emigrante uholde batek inbaditu du, bertakoen hizkuntza, euskara, ia familiaren esparrura soilik mugatzeraino. Francoren garaiko giro politikoaren argazkia zenbait ezaugarriren bidez osatzen du, hala nola protagonistak F. Krutwigen *Vasconia* irakurtzea eta, bere aberriaren alde borrokatzeko erabakia hartuta, ETAn sartzea. Eleberriaren tonua errealista da, aurrekoen erregistrotik oso urrunekoa. J. Kortazar kritikariaren arabera, «[...] Irigoienek euskal bizitzaren inguruan eraikitzen dituen kaleidoskopioek islatzen duten barne-mundua samurtasunez beteta dago, baina samurtasun horrek ez darama sentimentalismora; aitzitik, indar utopiko izan nahi du, bizitza eta gizartea eraldatzeko ahalmenean oinarritutako indarra. [...] Batere anbigua ez den testu honen irakurketek manikeismotik ihes egin nahi duen konstelazio estruktural eta semantikoa eratzen dute» (ik. *Letras españolas* 1987, Castalia, 1988, 203). Amaitzeko, aipatu nahi genuke nobelan agertzen den narrazio bat, ondoren gaztetxoentzat liburu bikain bihurtu zena: *Bakareren gaztelua* (1986).

Irigoienen hurrengo nobela, *Babilonia* (Elkar, 1989) [itz.: *Babilonia*, Acen-to, 1999], autorearen ezagunena eta maitatuena da. Horren frogara diran orain

arte izandako hamahiru edizioak eta saldutako 30.000tik gora euskarazko aleak. Hau gutxi balitz, euskal gazteek beren nobela kuttuntzat hartu zuten Atxaga, Follet, King, Allende eta beste zenbait idazleren lanekin batera (ik. M. J. Olaziregi, 1998f: 109), eta Kritika Saria irabazi zuen 1989an, eta Euskadi Saria irabazi zuen 1990ean. Harkaitz Cano idazleak irratirako nobela gisara egokitu zuen 2000. urtean.

Babilonian izen bereko baserriaren eta bertan bizi den familiaren historia kontatzen da. Trinidad eta Feliziano Garayalde anaiak dira pertsonaia nagusiak, elkarren arerio eta jaio aurretik ere anai arteko borroka batean sartuak. Borroka horrek txikitzen elkar gorrotatzera, gero emakume bera (Margari) erakartzeko lehian jardutera eta, heldutasunera iritsita, aurkako bando politikoetan (karlista eta liberal) borrokatzera eramaten ditu. Haien alboan, zenbait emakumezko pertsonaiaren garrantzia azpimarratu beharko genuke, hala nola amona Roxalirena, euskal mundu ez arrazional eta mitikoaren irauarazle denarena. Irigoienek berak adierazi izan du bere eleberrian landa giroko nobela, karlistaldietan zentratutako nobela historikoa eta euskal kulturaz zenbait antropologok egindako interpretazioak batu nahi izan dituela. *Poliedroaren hostoak* hartan kontatutakoaren haritik, lan honek beste hark baino hobeto nobelatzen du Euskal Herriko mundu mitikoa.

Baina nobela horren ongi egituratuta eta planteatuta egotea da benetan nabarmentzekoa. *Babilonia*, kritikariren batek abertzaletasunaren egungo egoeraren alegoriatzat hartu izan duena, hiru plano narratibotan dago egituratuta, eta haietako bakoitzak badu bere narratzaile propio eta estilo berezia. *Poliedroaren hostoak* bezalaxe, narratzaile ezezagun batek eskuizkribu bat aurkitu eta bertan kontatzen den istorioa narratzen du. Eskuizkribuaren narratzailea Garayaldetarren anaia gazteena da, Kaxiano, eta hark kontatzen ditu, lehen pertsonan, Babiloniako gertakizunak, baserria hondamendira eramane zutenak. Narratzaile taldea hirugarren plano narratiboarekin osatzen da, elezaharretako Mari jainkosak bigarren pertsonan kontatuta datoreen mitiko-poetikoekin. Margari, Trinidoren emaztea, da euskal mitologiako jainkosa horren testuaren hartzailea.

Babilonia ahots kontzertu polifonikoa da eta hasieratik harrapatzen du irakurlea bere musikaltasunagatik eta hariaren dramatismoagatik. Horri gaineratzen badiogu plano bakoitzaren oinarrian dagoen dokumentazio sendoa (gertakizunen garaiko erreferentzien artean sartzen dira, besteak beste, gerra karlisten edo trenbidearen eraikuntza eta beste zenbait gertakizunen gaineko iruzkinak), ulergarria da nobelak hain harrera ona eduki izana.

Consummatum est (Elkar, 1993) nobelarekin beste norabide aldaketa bat gertatu zen Irigoienen ibilbidean, nahiago izan baitzuen unibertso narratibo berri hori lehen aipatutako euskal erreferentzia historiko eta mitikoetatik urrun eraikitzea. Nahiz eta autorearen prosaren karga sinboliko-poetikoa eta dena blaitzen zuen errealismo magiko-fantastikoaren kutsua handia den hemen ere, gai eta kezka unibertsalagoak mamitzen dira bertan. Nobela ongiaren eta gaizkiaren parabola da. Kasu honetan ere, azkenean bat egiten duten bi plano narratibotan dago egituratuta istorioa. Plano batean moja mistiko eta idealista baten bizitza kontatzen zaigu, eta haurtzaroan jasan zituen sufrimenduez mendeku hartu nahian borrokatzen den faxista baten gorabeherak narratzen dira bestean. Bi planoen arteko kontrastea beren idazmolde desberdinek ere markatzen dute; izan ere, mojarren planoan gogoteten sekuentziak eta sekuentzia metadiskurtsiboak ugariak dira, eta faxistaren planoak, aldiz, ihes egiten dio hausnarketari eta erritmo ikaragarria du. Pertsonaien izaera elkarri kontrajarria, hizkuntza sinbolikoa, jorratutako gaien unibertsaltasuna... nobelaren alderdi aipagarriak dira guztiak.

Kalamidadeen liburua (Elkar, 1996) autoreak fartsa satiriko eta umoristikotzat jo zuen, zenbaitentzat liburu surrealista samarra den arren. Obraren izenburuaren jatorrian eleberriko pertsonaia guztien ezaugarri komuna dago, hots, denak kalamidade hutsak direla. Egituraren bi zatietatik lehenak protagonistak, gorabehera askoko familia bateko kideak, aurkezten dizkigu. Gorki eta Ladis aita-emeak poetak dira, baina oso elkarren oso desberdinak: semeak mistikotzat hartzen du bere burua; Gorki, berriz, anarkista iraultzailea da. Ladis Enriketarekin dago ezkontuta, eta bi alaba ditu: Manoli eta Juanita, biak Opus Deiren ikastetxeetan heziak. Nobelaren bigarren zatian alaben ezkonbizitza kontatzen da; biak Aurrezki Kutxa bateko enplegatu marxista eta zekenekin ezkondu dira.

Egia esan, pertsonaiak baino areago, karikaturak dira, zenbait pertsonaia-tipo asmo satiriko eta kritikoz irudikatu nahi dituzten umorezko marrazkiak. Helburu hori nabarmentzeko, Antton Olariagaren ilustrazioak daramatza nobelak, baita hitz gurutzatuak ere, komikiak... eta horiek guztiek testu berezi egiten dute *Kalamidadeen liburua*. Bistakoa da *Kalamidadeen liburua* edozer izan daitekeela, nobela konbetsionala izan ezik. Narratzailea bera ere etengabe ari da ironizatzen liburuaren idazkeraz, eta ez du zalantzarik egiten «kritiko jakintsuen» aipamenak egitean, ongi baitaki bera ere kritikatu egingo dutela «historiaurrekoak» esaten dien zenbait teknika eta estrategia narratibo erabiltzeagatik. Horren guztiaren ondorioz, nobela hari baten garapena izan beharrean, egoera groteskoz osatutako multzo bihurt-

zen da. Eta hortxe ikusten dugu obraren puntu ahulena, sarri askotan pertsonaien eta zirkunstantzien gehiegizko karakterizazioak astundu egiten baitu irakurketa.

2000. urtean inoiz idatzi den euskal eleberririk luzeena eman zuen argitara Irigoienek: *Lur bat haratago* (Elkar, 2000). 650 orriko liburu mardul hau Durangoko azokako liburu salduenetakoa izan zen eta komunikabideetan goraiatua. Eta zinez da azpimarragarria *Lur bat haratagon* Irigoienek egin-dako ahalegin literarioa, gure aburuz, *Poliedroaren hostoaketik* izan duen erronkarik handiena baita. Bertan, eleberrigintza klasikoaren helburu funtsezkoenetakoa egiten du bere egileak: istorio bat kontatzearena. Eta istorio hori hurrenkera kronologikoa errespetatuz edo irakurleari etengabeko ohar eta iruzkin metanarratiboak eskainiz kontatzen da. Molde tradizionalan bideratutako narrazio hau tipologia desberdinetan sailka genezakeen eleberria dugu, izan ere, *Lur bat haratago*, eleberri historikotzat ez ezik, ikasketa-eleberrizat edo abentura eleberrizat ere har baikenezake. Joxe Azurmendik liburuaren aurkezpenean ongi esan zuen modura, XVII. mendearen berreskurapen bikoitza egiten da liburuan, bai literario-linguistikoa, baita historikoa ere. Lehenengoari dagokionez, Axularren idazkera egokitu du Irigoienek, prosa barroko erakargarria lortuz. Baina Axularren “skribatzeko moldeari” (13) egiten zaion gorazarrea maila estilistikoan geratzen da, narratzaileak aitzinsolasean dioskun modura, Trentoko Kontzilioen ondorenak bere egiten zituen idazle lapurtarraren pentsamenduari ez baitzaio atxikitzen eleberriko narratzailea.

Eta Trentoko Kontzilioaren ondorenei egin diegun erreferentzia ez da hutsala, *Lur bat haratagon*, berpizkundeko izpiritu humanistaren luzapentzat hartua izan den XVII. mendearen berreskurapen bikaina egiten zaigulako. U. Ecoren terminologia erabiliz, Irigoienen azken eleberri honen *enciclopedia* izugarri aberatsa dela azpimarratu behar dugu. Bertan aurkituko ditu irakurleak metodo esperimentalean eta behaketa tekniko berrietan oinarritu zen zientzia berriari egindako erreferentziak, kartesianismoaren eta arrazionalismoaren aitzindari izan ziren filosofoei egindakoak, erlijio gatazkak edo Barrokoaren ordezkari ezagunei egindako laudorioak. XVII. mendearen bigarren erdian kokatutako Joanes Etxegoien dugu protagonista nagusia eta narratzailea. Sendi handiki bateko kidea, Joanesen familia luzaroan egon zen erbestean Gaztelako inbasioari aurre egin izateagatik. Tradizioa eta modernotasuna, lurra eta itsasoa, Europa eta Amerika, katolikoak eta luthertarrak,... Irigoienen azken eleberri hau alderik alde zeharkatzen duten oposizioak ditugu.

Hiru zatitan dago banatuta liburua: lehenengoan, Etxegoienarren iragana eta protagonistaren haurtzaroa kontatzen zaizkigu. Hasieratik esaten zaigu, agramondarrak izan zirela Etxegoienarrak eta desterrura kondenatuak Esteban Etxegoien bezalako kide luthertarren jokabidearengatik. Joanesen gurasoek, ostera, jarrera pragmatikoagoa dute eta harreman hobekak dituzte Gaztelako agintariekin. Ikusiko dugunez, Descartes, Bruno, Hobbes, Gassendi, Spinoza eta besteren irakurketek osatuko dute Joanesen formazio urteak. Baina batez ere, osaba Joanikot izango da protagonistaren pentsamendu eta jokamoldea hasierarik baldintzatuko dituen, berarekin partekatuko dituen Zientziaren Gela (86) edo Zientziaren Elizak (89) Joanesen joera protestantea markatuko baitute. Osaba-iloben aldarri bihurtzen den “Ararat!” (89) oihuak, Galileoren beraren “E puor si muove!” (89) erantzun probokatzailerak oroitarazten digu. Formazio urte horien adierazgarri, Joanikoti esker irakurgai bihurtzen diren Aristoteles, Quevedo, Rabelais, Zizeron, Virgilio,... eta hainbat maisuren obrak aipatzen dira *Lur bat haragor*n. Erreferentzia guztiok moteldu egiten dute, nabarmen, lehenengo atal honetako erritmo narratiboa eta hausnarketa filosofikoekin etengabe eteten.

Nerabezaroaren hastapenetan kokatzen gaitu eleberriaren bigarren atalak. Osaba Joanikotekin Italiara egindako bidaiak, Caravaggio edo Michelangeloren lanen magia, Monteverdik eragindako lilura edo Berniniren obrak oroitaraziko dizkigute. Erritmo narratiboa azkartuz, Joanesen nerabezaroa markatuko duten aita eta anaiaren heriotza, apaiz izateko erabakia, osaba Joanikoten heriotza Inkisizioaren eskuetatik pasa ostean, eta bere amarekiko erabateko haustura. Hirugarren eta azkena dugu, protagonistaren heldutasuneko urteen narrazioak biltzen dituen. Abenturak, suspenseak menderatzen du narrazioa eta atal honetan kontatzen dira Martin de Hoyarzabal bidaiari lapurtarra oroitarazten digun Piarres Oihartzabal kapitainarekin hasitako bidaiak. Bospasei urtez Europako portu ezagunenetan bizituko dituen abentura horietan, ironia eta umore handiz, egoera nahiz pertsonaiak karikaturizatuz, protagonistaren lehenengo sexu harremanak kontatzen dira, edo eleberri pikareskoetako pasadizoak oroitarazten dizkiguten pasarte irriarriak. Gerora etorriko dira, 15 urtez Mundu Berrian bizitutako abenturak, Tomas Mororen *Utopiaren* lilurapean edo El Doradoren altxor amestuen promespean, kortsario nahiz espainiar zaldunekin Potosíko meategietaranzko bidaian bizitutako abenturak. Eleberriaren amaieran, Esteban Etxegoien inguruko misterioa askatzen da eta amak aitortzen harrigarriak egiten dizkio protagonistari. Bizitzaren azkenaren atarian dagoen Joanesek

Montaigneren “Qué sais-je?” galderari ematen dion (648) “Rien du tout” erantzunak ongi baino hobeki laburbiltzen du libertatearen bila egindako odisea pertsonalaren amaiera.

Baina *Lur bat haratagoren* irakurketa ez genuke, inondik ere, behar bezala burutuko baldin istorio guztiaren *leit-motiv* nagusiari erreferentzia egingo ez bagenio. Eta horretarako, eleberriaren paratestuari begiratzea funtsezkoa dugu, izenburuan bertan eta aitzinsolas gisara datorkigun sarreratxoan ematen baitzaizkigu eleberriaren klabe nagusiak. Nobela Leydengo Unibertsitateko irakasle den Jaun André Larralderi egindako gutun luze gisara planteatzen da. “Konfesion” bat baino gehiago, literatur lan bat idazten ahalegindu dela diosku aitzinsolasean eta Nafarroa ofizialetik haratago dagoen isilpeko Nafarroaren kronika egiten saiatu dela. Horregatik aipatzen dira mapetan ez datozen hiri nafar asko eleberri honetan, bertan marraztu nahi zaigun lurra, libertatearena delako: beti lur bat haratago dagoen lurra, hain justu (15. eta 650. orr.).

Uste dugu, motelegiak egiten diren hastapenetako zati hausnartzaileen ostean (lehenengo berrehun orriak) *Lur bat haratagok* irakurlea bereganatzea lortzen duela. Abentura eleberri bihurtuz, begien aurretik pasatzen zaizkigu kortsario, zaldun, edo konkistatzaile maltzurrenen eskuetan eroritako protagonistaren abenturak. Eta La Hispaniola uhartean gertatutakoak irakurrita, Silver eta beste piratek izen bereko itsasontzian bizitutako abenturak oroituko ditugu, edo Joanesen kartzelako ihesaldia irakurtzean Montekristoko kondearenaz oroituko gara. Gora-behera narratiboak onartuta ere, *Lur bat haratagok* badu irakurlea erakartzeko indarririk.

b.8) Anjel Lertxundi (1948): eklektizismoa

Eklektizismoa: iz. Tradizio, eskola edo estilo desberdinetako elementuak aukeratu eta bateratzen dituen teoria edo metodoa, ezaugarri nagusi hauek dituen: dogmatikoa edo itxia ez izatea, guztien jarrerak kontuan hartzea eta sistema erabatekorik ez egitea (filosofian, artean, irakaskuntzan, etab.)

Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoan datorren definizio horri begiratzen badiogu, argi dago ongi baino hobeki egokitzen zaiola Anjel Lertxundiren eleberrigintzari eklektiko adjektiboa. Segur aski, batek baino gehiagok pentsa lezake zail dela egile baten obra joera bakar batean kokatzea eta arrazoirik ez zaio faltako, ikerketa honetan etengabe adierazi baitugu ibilbide luze-ko egileek (Saizarbitoria, Atxaga, Irigoien...) hainbat berrikuntza egiten eta

poetika erabiltzen dituztela beren bilakaera literarioan. Edonola ere, gurean badago aldaketa eta poetika anitzen ezaugarriak bere eleberrietan barneratu dituenik, Anjel Lertxundi adibide nagusi. Eleberri alegorikoa (*Ajea du Urturik*), narrazio neorrealista (*Goiko Kale*), errealismo magikoaren ekarriak, thrillerraren teknikekin uztartuta (*Hamaseigarrenean aidanez*), edo *Otto Pettez* geroztik, bidaia literario metanarratiboak (*Argizariaren egunak...*) anitzak dira Lertxundik landu dituen tipologiak.

Aurreko atalean aipatu dugun bezala, A. Lertxundi euskal eleberri modernoaren berritzaile handietakoa da. Idazle, irakasle, kritikari, kazetari, gidoigile edo zinema zuzendari... alderdi horiek guztiek aldakortasunaren eta konpromiso kultural etengabearen eredu egiten dute autore hau. Haren ekarri literarioak askotarikoak dira: haur eta gazte literaturako liburuetatik hasi, genero horretan modernitatearen aitzindaritzat hartu direnak (batez ere *Tristeak kontsolatzeko makina* [Erein, 1981] edo *Lehorreko koaderno*a [Alberdania, 1998]), eta atsotitz, mito edo herri kanten glosa-bilduma bikainetara, *Letrak kalekantoitik* lanera (Alberdania, 1996), esaterako. Ondoren aipatuko ditugun sariez gain, PEN Club galziarrak emandako "Rosalia de Castro" saria (2000) eta Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (1995) gogoratu beharko genituzke.

Edonola ere, lerro hauetan Lertxundiren azken hamarkadetako eleberri-gintzaren ibilbidea aztertu nahi genuke bereziki. Ibilbide hori 1971n hasi zen, errealismo magikoaren ildotik jotzen duen *Ajea du Urturik* eleberria argitaratu zenean. Haren ondoren, *Goiko kale* (Erein, 1973) eleberri autobiografikoak norabide aldaketa ekarri zion, planteamendu neorrealistetara jo zuelarik, eta norabide horri eutsi zion haren eleberrigintzak 1980ko hamarkadako amaiera arte. (Ikus, 4.c atala).

1983an, Lertxundik *Hamaseigarrenean, aidanez* (Erein) argitaratu zuen, 1982ko Jon Mirande Saria eta Kritika Saria irabazi ondoren, eta zinemara eramanez idazlearen beraren zuzendaritzapean. Orain arte hamaika edizio argitaratu dira liburuarenak, gure literatur historian gehien irakurri diren nobelen artean dago eta lan honek ekarri zion ospea euskal irakurleen artean. Apustu beldurgarri baten gorabeherak kontatzen dira eleberrian; bertan, protagonista lurrean etzan, taberna bateko barraren aurrean, arnasari helduz, eta diafragma dilatatuta duela lagun batek salto egiten dio barratik sabel gainera. Hamaseigarren jauzian, ordea, hil egiten da pertsonaia. Autoreak elkarriketa batean zioenez, eleberriaren helburuetako bat indarkeria kasuetako konplizitatea salatzea zen.

Istoria landa giroan gertatzen da, baina giro horren aurkezpen ohiturazkoari ihes egiten dio. Eleberriak dituen hiru atalen hasieran agertzen

diren C. Pavesearen aipuek adierazten digute Lertxundik landa munduaz batere arkadiarra ez zen idazle italiarraren perspektiba bere egiten duela. *Muga* aldizkarian argitaratu zuenaren moduko artikuluek (ik. «La literatura italiana, tras su propia identidad») argi erakusten dute Lertxundi neorrealista italiarren idazkera kritiko eta ironikoaren miresle handia dela.

Baina esango bagenu eleberriak estilo moderno eta simetrikoa duela (hiru parte, haietako bakoitza berriz hiru ataletan banatua) eta modalizazio aldaketa etengabeak daudela gertakariak kontatzeko erabilitako perspektibismoaren oinarrian, baztertu egingo genuke testuaren agian lorpen garrantzitsuenetako bat: protagonistaren Martzelina emaztearen funtzioak egiten den azterketa. Emakumezko pertsonaia etsi honen ikuspuntua gailentzen da gertakizunen kontaketa, narratzaile anitzen narrazioarekin batera: Maria auzokoa, herrira gertakariaren kronika egitera agertzen den kazetaria, bere senarraren apustukidea... Denek hurbiltzen gaituzte emakume horren sufrimendura. Martzelina gajoak, senarrak iraindu eta auzokoez bazterturako emakumeak, herrikoen artean ezkutuan zebilen ahozko eta sexuzko indarkeria ekartzen du azalera.

Denbora-anakronia etengabeak, ikuspuntuen txandakatzea, bildumari edo kazetari baten presentzia edo sufritzen duen emakumezko protagonista bat egotea... horiek guztiek ekarri dute kritikariek García Márquezen *Crónica de una muerte anunciada* eleberria hartzea testu honen intertestu hurbileneko. Lan horretaz gain, teknika sorta bat nabarmendu nahi genuke, testua polizi narrazioetara hurbiltzen duena, hala nola suspensearen dosifikazioa, pertsonaien adierazpenak txandakatzea edo adierazpen horiek transkribatzeko modua.

Kareletik filma errodatzen ari zelarik autoreak kontrabandotik bizi izandako jendea ezagutu izanak *Tobacco Days* (Erein, 1987) hurrengo eleberria idaztera eraman zuen. Bertan, eta polizi eleberri beltzaren ildotik, itsasoaren eta kontrabandoaren mundura hurbiltzen da Lertxundi. Istorioa erritmo lasterrez dago kontatuta, eta zinemaren eragina oso nabarmena da liburuko gertaeren sekuentzia-ordenean. Obra irakurreraza eta konplexutasun formal askorik gabea izan arren, I. Mugika Iraolaren artikulua salbu (ik. 1988), ez zuen aurrekoak besteko harrera ona izan.

Eleberri horien ondoren, Lertxundiren eleberrigintzaren eboluzioak aldaketa errotikoa egin zuen 1989an *Carla* argitaratu zenean. Autoreak berak ere adierazi izan du krisialdi batean idatzitako eleberria dela. Adibidez, Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko uda ikastaroetan arestian eman-

dako hitzaldi batean (1999), *Hamaseigarrenean*, *aidanez* eta *Tobacco Daysen* horren modu bikainean hurbildutako landa mundua atzean uzteko arrazoiak honela laburbildu zituen idazle oriotarrak:

La publicación de *Obabakoak* en 1988 tuvo sus consecuencias en la literatura vasca [...]. Creo interpretar el sentir generalizado de los escritores de mi generación si digo que pronto nos dimos cuenta de que Atxaga acababa de cerrar una etapa que estaba durando demasiado [...]. En lo que a mí respecta, *Obabakoak* aceleró, afortunadamente para mí, la crisis que había estado incubando en mi interior durante los últimos años. Aunque mis novelas de los años ochenta habían tenido un considerable éxito, no me satisfacía el hecho de ir recreando circunstancias, describiendo ambientes y construyendo arquitecturas narrativas que me eran absolutamente familiares.

Carla (Erein, 1989) eleberrian Gortari izeneko komiki marrazkilari baten istorioa kontatzen zaigu; krisialdi artistiko eta pertsonala bizi duelarik, errealityetik bakartzea erabakitzen du, sortzen jarraitu ahal izateko. Pertsonaia nagusiaren gainbehera fisiko zein psikiko gero eta handiagoak, haren izugarritzko bakardadeak, berak sorturiko pertsonaia batekin identifikatzera eramaten du protagonista, eta, azkenik, *Carla* izeneko beste pertsonaia batez maitemintzera. Apurka-apurka, marrazkilari obsesionatu hori inguratzen duen guztitik bakartzen da ezagutzen duen errealtate bakarrean moldatzeko: bere obraren unibertsoan.

Autoreak erabilitako estrategia testualak (osagai kronotopikoen zehazgabetasuna, hirugarren pertsonan diharduen narratzaile estradiegetiko baten presentzia) eta indikatiboaren orainaren erabilerak testuari ematen dion tonu hotz eta urrunak are garbiago erakusten dute eleberriaren gaiaren muina: sorkuntza artistikoak berarekin dakartzan bakardadea eta bakartasuna. Marrazkilari eta pintoreen erreferentzia etengabeen artean (Klee, Escher, Puni...), G. Grosz (1893-1959) nabarmentzen da, koadro asaldagarriak pintatu eta bere mundu infernala mamitu zuen pintore espresionista. Eleberriaren narratzaileak iradokitzen duen bezala, ez da bidaiatzen iragana berbizitzeko, geroa aurkitzeko baizik. Lertxundiren kasuan, bidaia, batez ere, bidaia literarioa da. Ez litzateke zaila eredu estetikoaren bila dabilen marrazkilari horren eta autoreak garai hartan bizi zuen egoeraren artean paralelismoa antzematea.

Horrela, eta Erdialdeko Europako zenbait idazleren (Musil, Roth...) prosatik hurbil dagoen estiloa erabiliz, Lertxundik *Carla*rekin hasten duen idazketa ildo baldintzatua dago, idazlearen unibertso literario berriak ez direla

ko gehiago inspiratzen gertakizun errealetan, aieru literario hutsetan baizik. Bidaia literario batean sartzen gara, zenbait tradizio poetikoz elikatuz doan bidaia intertestual batean.

Bidaia honen bigarren etapa *Kapitain Frakasa* (Erein, 1991) eleberria da, 1991ko Kritika Saria eraman zuena. Bertan kontatzen den istorioan, ezkutuko talde (mafioso?) baten kide bati halako batean emakume ezezagun erakargarri batek pasaporte bat ematen dio Frantziatik ihes egin ahal izan dezan. Gertakizun horrek abiarazten ditu protagonistak bizi dituen zalantza eta estutasun guztiak, ez baitaki taldeburu den Gerald D.k jarri dion segada ala benetako sorospen ekintza ote den. Pertsonaia iragana gogoratzen saiatzen da bere egoerari esplikazio bat eman nahian.

Pertsonaia nagusiaren egoera eta izena bezalaxe, gainerako osagai narraitiboak ere anbiguoak dira. Ez dakigu zehazki noiz jazotzen diren gertakariak, lekua ere zehaztasunik gabe deskribatzen zaigu, pertsonaiek ezizenak dituzte eta, are gehiago, eleberriaren amaiera irekia da. Irakurleak hautematen duen gauza bakarra da protagonista zelatatzen duen arriskuaren presentzia etengabe eta zehazgabea. Kapitain Frakasa esaten dioten antiheroi horrek *Commedia dell'Arte*ko izen bereko pertsonaiaren ezaugarri berak ditu: erdi mendekatzailea, erdi bufoia da. Eleberriaren azterketatxo hau bukatzeko, aipatu beharra dago eleberri beltzean ohiko diren teknikak ageri direla, eta hainbat filmen erreferentziak agertzen direla, haien artean Godarden *A bout de souffle* eta J. Forden *Tobacco Road* filmena.

Otto Pette: hilean bizian bezala (Alberdania, 1993) [itz.: *Las últimas sombras*, Seix Barral, 1996] lanak astindu egin zuen euskal literatur bizitza 1993an, eta Premio Nacional de Narrativako finalista izatea lortu zuen. Obra luzea da, ia 450 orrialdekoa, prosa berrian idatzia, eta aberastasun estilistiko ikaragarria du. Lan honekin, autoreak urrats garrantzitsua egin zuen bere esperimentazio narratiboan, eta euskal narratiban gutxitan ikusten diren erregistro eta ñabardura ugari lortu zuen. Kritikaren harrera, nola euskal eremuan hala espainierazkoan, ona izan da, eta gaur egun autorearen eleberri goretsienetakoa bat dugu. Otto Pette baronetaren atean ezezagun baten agerpen harri-garriaz hasten da eleberria. Bien artean hasten den elkarrizketan, etorri berriak erakusten du baduela solaskidearen iragan ilunaren berri eta, pixkanaka, haren bizitzan gertaturiko zenbait gertakizun kontatzen zaizkigu. Ikasten dugu, besteak beste, Otto Pette erregearen aholkulari izan zela, etengabe borrokan jardun zuela bere etsai Aba Yakue fraidearekin, izurritearen errua bere gain hartu zuela eta bere iloba eta maitale Grazibel hiltzen ikusi zuela. Hariaren egitura zirkularra da, eta bi pertsonaien arteko topaketak bi

egun besterik ez du irauten. Kondentsazio kronologiko horrek, bi narratzailerotagonisten kontakizun eta ikuspuntuaren txandakatzearekin batera, areagotu egiten du lehenbiziko orrialdeetatik transmititzen zaigun atezua.

Eleberri historikoa izan ez arren, pertsonaien deskribapenak, kontatzen diren gertakariak eta giroak, oro har, Erdi Aroan gertatzen dela adierazten digute. Autorearen dokumentazio lana garrantzitsua izan da eleberri honetan. Hor daude, besteak beste, XIV. mendean Europa jo zuen izurritearen erreferentziak; haren deskribapenak gauzatzeko, Lertxundik obraren hasieran aipatutako liburua erabiltzen du: D. Defoeren *A Journal of the Plague Year* (1722). Aipagarriak dira, orobat, zenbait motibo literario, herio dantzarrena, esate baterako, XIV. eta XV. mendeko izkribuetan oso arruntak... edo Fiammetaren aipamena, Boccaccioren obra ezagunera igortzen gaituena eta liburuko zehaztapen intertestual bakarra. Lertxundik berak adierazi izan du behin eta birritan *Otto Petter*en idazketan nolako garrantzia izan duen *Dameron*en sintaxiaren eta ahozko tradizioaren teknika narratiboen azterketak. Bukatzeko, aipagarria da Otto izenak euskal irakurlearentzat duen balio semantikoa, bere esanahi eta sonoritateak «osaba» eta «otso» hitzekin jolasen baitute, biak egokiak bere buruarengandik ezin ihes egin dezakeen pertsonaia honen errealitatea definitzeko.

1995ean, Irungo Alberdania argitaletxeak *Ifrentzuak* saila sortu zuen Lertxundirentzat. Literatur proiektu handinahi hark Europako ahozko eta idatzizko tradizioan sakondu nahi zuen hilezkortasuna, deabrua edo heriotza bezalako betiko gaien irakurketa moderno eta eguneratua aurkezteko. Horrenbestez, bilduma osatzen duten lau liburuen bidez, Lertxundik euskal tradizio petoak (beraz, unibertsalak) eta unibertsalagoak diren beste batzuk (beraz, euskaldunak ere) barne hartzen dituen ibilbide literarioa marraztu digu. Honako izenburu hauek osatzen dute bilduma: *Piztiaren izena* (Alberdania, 1995) ipuin-liburua, deabruaren eta Fausto mitoaren ingurukoa; *Azkenaz beste* (Alberdania, 1996) eta *Argizariaren egunak* (Alberdania, 1998) eleberriak; eta *Letrak kalekantoitik* (Alberdania, 1996) atsotitz, mito eta herri kantenglosa-bilduma.

Azkenaz beste eleberria [itz.: *Un final para Nora*, Alfaguara, 1999] 1996an kaleratu zen. Irakurlea hasiera-hasieratik harrapatzen duen eleberria da, eta Euskal kritikari gehienentzat oharkabean pasatu bazen ere, autorearen obra onenetakoa delakoan gaude gu. Obrari buruz euskaraz argitaratutako artikulua bakanetakoa baten ondoren argitaratu elkarrizketan (ik. Fernandez, I. & Ezkerra, E.: 1997), Lertxundik berak liburua izandako oihartzun eskasaz harrিতuta zegoela zioen. Zorionez, espainierara itzuli izanari esker, kritikak

testua berriro aztertu ahal izan du, eta L. de la Peñak *El País*en (1999-5-1) idatzitako iruzkinean agertzen diren laudorioek, esaterako, erakusten dutenez, eleberria harrera ona izaten ari da.

Azkenaz besten, kondena misterioitsu batek gainean hiru gabirai daramazan kalesa beltzean atsedetik gabe eta eternitatean zehar han-hemenka ibiltzera behartzen ditu Nora eta bere aita. Eleberri honetako protagonistek elezaharrrak, historia eta literatura nahasten diren bidaia fantastiko batean Amerika eta Europako ordokiak zeharkatzen dituzte hirurehun urtean zehar (bidaia XVII. mendean hasi eta bigarren gerra karlistaren garaian amaitzen da). Bartzelona, Salem, Boston, Baiona eta Zarautz dira abentura harrigarri honen agertokiak.

Lertxundik berak azpimarratu ditu eleberriak izan dituen hiru inspirazio iturriak. Alde batetik, Pedro González de Velasco doktore segoviarraren egiazko historia: mediku hark alaba baltsamatu eta harekin bidaiatu zuen kalesa beltz batean XIX. mendearen hondarrean. Bigarrenik, autoreak benetan miretsi duen I. Calvinoren aipu bat, bere *Antologia di raconti fantastici*n argitaratua; bertan, W. Austin iparramerikarraren ipuin batean, lur iparramerikarretan betiko han-hemenka ibiltzera kondenatutako aita-alaba bartzuen istorioa kontatzen dela esaten da. Azkenik, eleberriaren horizonte literarioa osatzeko, erreferentzia nabarmenak egiten dira judu alderraiaren elezaharren hainbat bertsiori buruz, dela nabigatzaile holandarrak egina, dela *Brodatsen ari nintzen* baladan bildutako euskal elezaharrekoa.

Era honetan, *Azkenaz beste* bidaia literario fantastiko bilakatzen da, eta Herter Pryne fikziozko izakiak edo Arrua, N. Hawthorne edo Velasco doktorea pertsonaia errealak, bestak beste, aurki ditzakegu berta nahasian. Guztien artean, Nora gailentzen da, eleberriaren benetako muina eta kondena anker horren aurkako asaldura eta bere aitarenganako mendekotasun gero eta eramangaitzagoa agerian uzten dituen pertsonaia. Nora da, *Hamaseigarrenean, aidanez* hartako Martzelina bezala, istorio honetako heroina isila. Eleberrian iradokitzen zaigun amaierak adierazten digu Norak bere patu tragikoa gainditzen duela eta hiltzea erabakitzen duela, azkenean maite ahal izateko.

Argizariaren egunak (1998) izan da *Ifrentzuak* saileko azken emanaldia. Eleberri honetan heriotzari, eromenari eta idazketari buruzko hausnarketa egiten da, eta bi plano narratibotan dago egituratuta. Haietako lehenengoan, protagonista-narratzaileak, telebistan *freelance* ari den gazteak, lankide batekin bizi duen maitasun istorio amaiera zorigaiztokoa kontatzen digu. Bigarren planoan, lau urte geroago, protagonista eroetxe antzeko batean sartuta dago (ez zaigu esaten zehazki non), eta bi urte lehenago idatzi zuen maita-

sun istorioa, aipatutako lehen planoari dagokiona, berrikusten du. Bigarren plano hau erabat metanarratiboa da, beraz, eta zalantzan jartzen ditu, etengabe, lehen aipatutako maitasun istorioaren eduki eta estiloa. Horretarako, Orixek idatzitako *Urte guziko Meza-bezperak* jarraitzen ditu narratzaileak, eta C. Reisen *Diccionario de Narratologiaren* jatorrizko portugesezko bertsiora jotzen du. Narratzaile gogoetatsuak ez dio bere buruari antzematen urte batzuk lehenago idatzitako istorioan; bere logelara etenik gabe datozkio bisitan zenbait idazle ospetsu, hala nola Pavese, Dostoievski, Walser edo Villon, eta inolako dudarik egin gabe eskatzen dizkie aholku literarioak.

*Argizariaren egunak*en eta *Otto Pette*ren artean zenbait paralelismo nahiko nabarmenak izan arren, adibidez, hasieran aipatzen den dantza makabroa, duda izpirik ez dugu azken eleberri hau autoreak *Carla*rekin hasi zuen ibilbide literarioaren ondorioa dela. Topaketa kezkarri baten inguruan egituratutako barne-bidaia (*Otto Pette*) edo izaki hilezkor batzuen inguruan fantasia, ametsa eta errealtatea konbinatzen dituen bidaia literarioaren narrazioa (*Azkenaz beste*) eskaini ondoren, literatura da, berriro ere, *Argizaria egunak* honetan Lertxundiren sormenezko unibertsoari eusten dion erreferente bakarra. Era honetan ulertua, autorearen azken obra joko bat da, idazketa/irakurketa egitate oro inguratzen gaituen errealtate faltsuaren bilaketa besterik ez dela iradokitzen digun ispilu-jokoa.

c) Polizi eleberriak (espioi eleberriak, misteriozkoak eta eleberri beltzak)

Narratibitatera itzultzeak, kontatzeko gustura itzultzeak, nobela beltzaren eta polizia nobelen pizkundera ere ekarri du. Suspensea dosifikatzen saiatzen diren estrategia narratiboen bidez irakurlea seduzitzea da helburu nagusia. 1970eko hamarkadaren amaieran literatura espainiarrean M. Vázquez Montalbánen nobelekin gertatu zen bezala, euskal narratzaile berriak 1955ean lehen polizia nobela J. A. Loidiren *Amabost egun Urgain'en* lanarekin jorratzen hasitako ildoari jarraipena ematen saiatu ziren.

Esan beharrik ez dago, generozko literatura honek merkatuari gero eta gehiago begiraten dion sorkuntzarekin lotura nabarmenak dituela. Edonola ere, bada, gure ustez, euskal eleberriari dagokionez gutxitan aipatu izan den kontu bat: polizi eleberrien generoak gure narratzaileen konta-teknikei ekarri zizkien onurak eta berrikuntzak. Azaleko azterketa soila eginda ere, segituan ohartuko ginateke 1980ko hamarkadatik gaurdaino argitara eman diren eleberri askotan polizi eleberriaren baitako tipologiek gurean izan duten presentzia garrantzizkoa. Hasi 1980ko hamarkadan kaleratu diren lan-

da giroko eleberrietatik (*Kcappo, Hamaseigarrenean aidanez...*) eta gaurko eleberri gehienetara (*Gizona bere bakardadean, Bihotz bi, Ur uherrak, Beluna Jazz...*), sarritan agertzen dira thriller modernoetan erabiliak diren estrategia narratiboak. Honetaz gain, dudarik ez dago eleberri-mota honek gurean arrakasta handia lortu duela eta *110 Streeteko geltokia* (I. Zabaleta) edo *Alaba* (G. Garate) liburuen berrargitalpenak ditugu, besteak beste, irakurleen artean polizi eleberriak izandako harrera onaren adibide.

Edonola ere, tamalgarria da gurean polizi eleberriaren generoari kritika-riek eskaini dioten arreta eskasa. Berriki argitara eman den G. Garateren *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria* (Elkar, 2000) liburua kenduta, gutxi dira euskal produkzioan (ik. Elkar edo Igelak kaleratutako itzulpenak) leku garrantzitsua duen eleberrigintza honen inguruko ikerlanak. Salbuespen azpimarragarria, ezbairik gabe, Javi Cillero idazle eta itzultzaileak 2000. urtean Nevadako Unibertsitateak Renon duen egoitzan irakurritako dokto-rego-tesia izango litzateke. Linda Whiteren zuzendaritzapean egindako tesi honek *The Moving Target: A History of Basque Detective and Crime Fiction* izenburu iradokitzailea darama eta, gure aburuz, interesgarria litzateke lehenbailehen euskaratzea.

Cillerok dioskun modura, polizi eleberrien taldean, hiru azpisail bereizi ohi dira gehienetan: intriga edo misteriozko eleberriak, eleberri beltzak eta espioi eleberriak. Euskal eleberrigintzari dagokionez funtsezko aldaketa gertatu da azken urteotan. Izan ere, 1970eko hamarkadako polizi eleberrietan euskararekiko ardura eta eredu ingeles klasikoak (*whodunit* motako eleberrigintza) nagusitu ziren eta 1980ko hamarkadaz geroztik, berriz, *thriller* modernoaren ezaugarriak eta eleberri beltz amerikarrarenak bereganatu ditu euskal eleberrigintzak. Hona hemen Cillerok aipatzen dituen zenbait polizi eleberri ezagun: **Gotzon Garateren** *Izurri berria* (1984); **Xabier Kintanaren** *Ta Marbuta* (1984); **Itxaro Bordaren** trilogia; **Hasier Etxeberriaren** *Mugetan* (1989); **Edorta Jimenezen** *Speed gauak* (1990); **Joxe Mari Iturraldere**n *Izua hemen* (1991); **Migel Angel Mintegiren** *Esker mila, Marlowe* (1996); **Vélez de Mendizabalen** hiru nobelak: *Yehuda* (1992), *Moskuko gerezia* (1996) eta *Samurai berria* (1999); **Xabier Montoiaren** *Non dago Stalin?* (1991), **Aingeru Epaltzaren** *Ur Uherrak* (1993); **Bernardo Atxagaren** *Gizona bere bakardadean* (1993); **Jon Alonsoren** *Katebegi galdua* (1996) eta **Harkaitz Canoren** *Behuna Jazz* (1996) eta *Pasaia Blues* (1998).

c.1) *Gotzon Garate (1934)*

Genero beltzean nabarmendu diren autoreen artean, Gotzon Garate

elgoibartarra aipatuz hasi beharko genuke (ik. www.idazleak.org). Teologian eta Filologia Erromanikoan lizentziatua eta Fililosofian doktore da Garate. Horretaz gain, aipagarria da Soziologia Marxistan espezializatu zela bi urtez Friburgetan eta Deustuko Unibertsitateko irakasle katedraduna dugula Euskal Filologian. Garate izan zen Euskal Filologia lizentziaturaren sortzaileetako bat Deustuko Unibertsitatean (1978). Bere argitalpen ugarien artean, marxismoari buruz idatzi dituen sei liburuez gain, ipuin liburuak (*Aldarte oneko ipuinak*, Elkar, 1982...), polizia eleberriak (*Esku leuna*, Elkar, 1977; *Goizuetako ezkongaiak*, Elkar, 1979; *Izurri berria*, Elkar, 1981...), eleberri sozialak, erreportaiak (*New York, New York*, Elkar, 1988), literatur kritikako lanak (*Euskal eleberraren kondaira I*, Mensajero, 1983; *Euskal Eleberraren Kondaira II*, Mensajero, 1985; *Euskal Eleberraren Kondaira III*, Mensajero, 1991; *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria*, Elkar, 2000), hizkuntzalaritzako lanak (*Erderakadak*, Mensajero, 1998), edo *Atsotitzak* (BBK, 1998) bezalako bildumak aipa genitzake.

1977an Irun Hiria Saria irabazi zuen *Esku leuna* eleberriarekin (Kutxa, 1978). Polizia nobela da hau, eta bertan Jon Bidart detektibeak (Dupin, Sherlock Holmes, Maigret, Marlowe eta Poirotek hasitako tradizioaren jarraitzaile garbia) Donostian gertatutako hilketa bat ikertu behar du. Detektibearen ikerketek Donostiako goi-burgesia erretratatzeko digute eta asasinatzea eragiten duen interes-borrokan sartzen gaituzte.

Bigarren nobelak ere, *Goizuetako ezkongaiak* izenekoak (Elkar, 1979), Jon Bidart detektibea du pertsonaia nagusi, eta Goizueta herrian kokatzen ditu gertakizunak. Ongi kontatutako eleberria da, euskal literaturan gehien irakurri direnetakoa (10. edizioa 1997koa da) eta Garateren prosaren aberastasun estilistikoaren adierazle garbia. Polizi eleberrien multzoaren osagarri dira, halaber, *Elizondoko eskutitzak* (Elkar, 1984), 1977ko Txomin Agirre Sariaren irabazlea, *Izurri berria* (Elkar, 1984), 1981eko nobela alorreko Azkue Sariaren irabazlea, eta *Alaba* (Elkar, 1984). Eleberri hauetan guztietan, autoreak krimenaren, prostituzioaren eta drogaren (ik. *Alaba*) mundu ilunean murgiltzen gaitu, irakurlea hasiera-hasieratik harrapatzen duten narrazioei esker.

c.2) *Itxaro Borda (1959)*

Amaia Ezpeldoi detektibea da Itxaro Borda (1959) Iparraldeko idazlearen polizia nobeletako protagonista. Autorearen ibilbide literarioan badaude poesia (*Bizitza nola badoan*, Maiatz, 1984; *Krokodil bat daukat bihotzaren ordez*,

Susa, 1986; *Just Love*, Maiatz, 1988; *Allegro ma non troppo*, Ed. Hiru, 1989; *Bes-taldean*, Susa, 1991; *Orain*, Susa, 1998) eta narratiba-lanak, baita konta ezin ahala kolaborazio, hainbat literatur aldizkaritan, esaterako, *Maiatzen*. Haren lehen nobelak, *Basilikak* (Susa, 1984), nahiz polizia edo detektibe nobela ez izan, Bordaren estilo narratiboaren ezaugarri nagusiak biltzen ditu. Erritmo bizkorreko nobela da, prosa errazean idatzia eta barroquismo estilistiko zein formal orori ihes egiten diona. Ezaugarri literario horiek ironiaz irudikatu-tako gizarte katoliko baten arau moralak eta sinesmenak haustea bilatzen duen istorio baten narrazioarekin osatzen dira. Haria ezin harrigarriagoa da: Jon Kapagorri Iparraldeko diputatu hautetsiak ideia bat du inguruko ekonomia aurrera bultzatzeko... Ama Birjinaren agerpen bat itxuratu eta basilika eraikitzea, erromesaldi zentro bilaka dadin. Baina pertsonaia gehienak izaki ustelak dira (Aita Santu poloniarra, antikomunista sutsua eta marihuanazalea), eta Ama Birjina oso sexya, eliztar bat baino gehiagorentzat, eta horrek polemika sortzen du. Nolanahi ere, uste dugu nobelaren haria alde batera utzita, ideologia behin eta berriz adierazian egiten duela porrot nobelak hein batean, behin eta berriz errepikatzen diren autore inplizituaren iritzi ideologiko, politiko edo moralek desoreka handia eragiten baitute ideologiaren eta literaturaren arteko balantzan.

Itxaro Bordaren ondoko nobelak, batez ere haren polizia trilogia, narra-tiba aldetik lortuagoak dira, eta kritika sozial eta politikoa agertzen dute, gaurkotasun kutsu nabarmenarekin batera. Horregatik uste dugu I. Bordaren azken eleberri hauek gehiago hurbiltzen direla nobela beltzaren generora, krimen bat askatzearekin batera euskal gizartearen gatazka nagusien argazkia ere egin nahi baita (bertako egoera politikoa, euskara, intsumisioa, industrializazioa...). Lehenago ere aipatu dugun legez, autore honen nobelen ezaugarrietako bat pertsonaia nagusia, detektibe, emakumezkoa izatea da. Amaia Ezpeldoi dugu, detektibe argi eta nahiko atipikoa, ikertzaile «gogorraren» estereotipoari jarraitzen ez diona: emakume sentimentala da, Leninen mireslea, abertzalea eta joera lesbianokoa. Trilogiako lehen nobela, *Bakean ützi arte* (Susa, 1984), zubereraz dago idatzita, eta nekazarien eta gas instalaziorako enpresa baten artean Lacq eta Calahorra arteko oliobide baten eraikuntza dela-eta sortzen diren borrokak ditu kontagai. 105 nekazari zuberotarren matxinada eta gizon baten desagertzea, horra Amaia Ezpeldoi detektibearentzat intriga eta suspensez betetako kasua. *Bizi nitzano munduan* (Susa, 1996) bigarren nobela Ezpeldoiren amona eztei gauean desagertutakoaren bilaketan oinarritua da. I. Bordaren eleberri beltzeko trilogia *Amorezko pena baño* eleberriak (Susa, 1996) osatzen du; eleberri honetan Uri

izeneko intsumitu bati Bardeetako tiro poligonoa zeharkatzean gertatzen zaion ezbeharra argitzen saiatzen da Epeldoi detektibeak. Intsumisioaz, Itoitzeko urtegiak edo Nafarroako ikastolen egoeraz egiten dituen aipamenek, besteak beste, pisu ideologiko nabarmena ematen diote testuari. I. Bordaren nobelek, umore eta ironia dosi handiz jantziak, ez dute ezkututzen autoreak literatura engaiatuarekin duen lotura.

100 % Basque (2001) da Itxaro Bordak argitaratu duen azken narrazio-liburua.

c.3) *Hasier Etxeberria (1957)*

Aspaldian Hendaian bizi den idazle eta kazetari elgoibartarra da Hasier Etxeberria. Psikologiako ikasketak bukatu gabe utzi eta urte batzuez euskara irakasle aritu ondoren, gidoigile bezala hasi zen lanean ETBn. Bera izan dugu *Fahrenheit* eta *Sautrela* kultur saioen arduradun eta aurkezle ezaguna, baita *Zopa Haundi* edo *Lapikoka* sukaldaritzsa-saioena ere, besteak beste. Euskal kultur gintzako eragile eta begirale konprometitua da Etxeberria, eta, hori dela eta, ez da harrizkoa hainbat egunkari eta aldizkaritan argitara emandako iritzi-artikuluek hautsak harrotu izana⁹. Iritzi-kazetaritzaren alor horretan lortu zuen, hain justu, Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 1993an.

Bere lehenengo literatur lana 1987an argitara eman zuen *Ipuin ezberdinak eta erregalokoak* (Elkar, 1987) izan zen. Gerora etorri ziren haurrentzat idatzitako *Estatua baten historia* (Bilintx saria. Elkar, 1988) eta lehenengo eleberria: *Mugetan* (Elkar, 1989). Ipuingintzari berriro ere heldu eta Enbido Tükia Saileko *Alajaineta* (Elkar, 1995) eta besteren artean zenbait lehiaketatan saritutako ipuinez osatutako *Karramarroen aztarnak* (Elkar, 1997) kaleratu zituen. Bere azken eleberriak, *Arrainak ura baino* (Kutxa, 1998; Elkarlanean, 1999) Irun Hiria Eleberri Saria irabazi zuen 1998an. Literatur lan horiez gain, *Sukalitzegi partikularra* (Orain, 1996), eta Luis Irizar sukaldariarekin eta Julian Bereziartua medikuarekin lankidetzan egindako *Erabateko Sukaldea* (Tarttalo, 1998) plazaratu ditu.

Etxeberriaren literatur lanen ekarriaren azterketa laburra eginez, esan dezagun argitara eman dituen bi ipuin-bildumetan bere literaturaren bilakera eta sendotze nabarmena ikus daitekeela. 1987ko *Ipuin ezberdinak eta erregalokoak* hartatik 1997ko *Karramarroen aztarnak*era dagoen aldea bistakoa bai-

⁹ Egilearen kezka eta estiloaz jabetzeko, "Oteiza moto gainean" en irakurketa gomendagarria izan daiteke (ik. *Egunkaria*, 1999-12-18).

ta. Lehenengoan iruzkin metanarratiboz hornitutako umorezko istorioak bildu zituen, landa giroko kutsu beltzez zipriztindutakoak (ik. *Berandu zetorren epela...*), ironia kutsu nabarmena dutenak... edo gertakari jakin baten kontaketa helburu dutenak (ik. *Lehen kulunkak*). Baina benetako heldutasun narratiboa, egilearen ahots propioaren umotzea, bigarren ipuin-liburuarekin erdietsi du. Bertan bildu dituen ipuinen artean sariak lortutakoak dira honako bi hauek: *Ipuin postmoderno bat egin diot neure buruari*, Gabriel Aresti Ipuin Saria irabazi zuena 1997an, eta *Horazioren bidaiak*, berriz, Julene Azpeitia Lehiaketan bigarren geratu zena 1998an. Horiez gain, *Yukatan*, *Anna Paula* eta *Museora bisitaldia* izeneko ipuinak ere osatzen dute *Karramarroen aztarnak*. Guztietan dago bidaiaria presente, eta horrela, *Horazioren bidaiak* izenekoan, esaterako, Quirogaren *Oihaneko ipuinak* liburua eta bere aitaren errautesak gainean dituela Moskuraino bidaiatzen duen Horazio gaztea dugu protagonista. Narratzaileak modu oso egokian adierazten du mutiko atzeratu honen ikuspuntu tolesgabea eta detaile xumeenek haren begietara duten adierazkortasun berezia. Teknikoki eta estilistikoki ongi gauzatutako ipuin honetan, aitaren heriotzaren onartzeko prozesua da, finean, Etxeberriak kontatu diguna, aitaren errautesak “irensten” dituenean lortzen baitu Horazio gazteak aitaren galerari aurre egitea. Liburuko hurrengo hiru ipuinak Erdi eta Hego Amerikan daude kokatuta eta hango literaturaren eragin nabarmena dute. Egunerokotasun arruntenean fantasia txertatuz, errealitatearen mugak lausoak dira kontakizumotan. Bestalde, *Museoari bisita* ipuinean, turismo kontentzionalari egiten zaizkion kritikak, eguneroko bizitzaren absurdoa eta giza izate desberdinen arteko aldeak dira komentagai. Azkenik, amaiera harrigarriekin jolas eginez, ironia surrealista eta txantxa metaliterario erakargarriak egiteko gauza dela frogatu du Etxeberriak Calvinoren eraginpean idatzitako *Ipuin postmoderno bat...* narrazioan.

1997rako lau edizio eta 8.000 ale salduak zituen *Mugetan* eleberria ongi burututako testua dugu. Estilo arin eta ulerkorrean idatzia eta erritmo bizikoa da; ingurune krudelak ezinezko egiten duen amodiozko istorio gisara deskribatu zuen egileak berak (ik. *Argia* 1264, 1989-10-22, 50). Hogeita bost ataletan antolatutako eleberri honetan, errepresio latzeko egoera batean gertatzen den amodio istorioa kontaktzen zaigu. Mikel Zuluetak txikitatik maite duen Nati Lasari Iparraldera laguntzen dio abortatzera. Nati barruan zeraman haurra Felix Artetxe ETAKidearena zen. Bisitaldi honek poliziaren susmoak pizten ditu eta Mikel atxilotu eta torturatu egiten dute. Bere bidaiaren zergatiak poliziar jakinarazi ondoren, Felix Iparraldetik itzultzen da Natirekin hitz egiteko asmoz, baina poliziek hil egiten dute.

Gertakarion guztion ondoren, Mikelen eta Natiren arteko harremana eten egingo da.

Telebistan Espainiako erregea eta bandera azaltzen den planoak ematen dio hasiera eta amaiera eleberriari eta flashen modura antolatzen dira iraganeko nahiz orainaldiko eszenak testuan. Narratzaileak darabiltzan konta-teknika modernoak, hala nola, plano alternantzia azkarrak, zehar estilo askean tartekatutako pasarteak... eta *100 metro* eleberrian agertzen direnen gisako pasarte elebidunak, egunkariko berrien zatiak edo kameraren begiari jarraiki antolatutako deskribapen objektiboak. Eta baliabide horiekin batera, eleberri beltzetako hainbat elementu ezagun, *Mugetan* eleberrian marratzen zaigun hiria itogarria baita, giza uholde etsituez osatua (67. or.), hitsa. Zigarro keak zeharkatzen dituen orriotan, bi marrako sinboloaren errepikapen misterioitsuak, edo Blues tristen aipamenak (66-67. orr.), noizbait guri ere Epe Gabeko Saltoa gerta dakigukeela oroitarazten digute, hau da, gure egunero-ko bizitza astindu eta baldintzatuko duen gertaera bortitzak gutxien espero dugunean asalda gaitzakeela. Eleberri gomendagarri honetako protagonistaren antzera, iragan astunak eta etorkizun zehaztugabeak itotzen duen egokian kausituko du irakurleak bere burua.

Arrainak ura baino eleberrian amodiozko istorio bat dugu, berriro ere, kontagai. Baina oraingo honetan askoz ere ahulagoa da euskal egoera politiko itogarriak istorioan duen garrantzi eta pisua. 40 urte inguru dituen Simon Azkue ginekologo ospetsua da eleberri honetako protagonista-narratzailea. Kartzelatik idazten du bere ezinegon itogarria askatzearen (10) eta lehenengo pertsonan adierazten dizkigu, aitormen modura, Madrileko Burtaren Etxean egin zuen sarraskiaren arrazoi benetakoak. Izan ere, Azkue jaunak lehergailu bat eztandarazi baitzuen bertan, eta 17 lagun hil eta hogeitaka zauritu zituen eztandak. Basakeria honen zergatia emakume bat dela esango dio birritan epaileari, bere emazte maite Rita Zabaletarengatik egin zuela guztia.

Eleberriak aurrera egin ahala, istorioa ulertzeko klabe ugari ematen dizkigu narratzaileak, horien artean, Ulises-Penelope bikoteari egiten zaizkion erreferentziak. Rita-Penelopek jertseak egiten dizkio kartzelan duen senar-ohi Hans Lauer-Ulisesi. Baina oraingo honetan, Hansen merituak ez dira Ulises ausartarenaren parekoak, eleberrian esaten denez, Alemaniako Brigada Antikapitalista Gorrietako buruzagi zen Hansek, hilketa eta sarraski ugari egin baitzituen kartzelatua izan baino lehen. Iragan hori nahi du ezabatu, hain justu, Simon Azkue protagonistak bihotzez maite duen Ritaren baitan: ekintza "heroikoak" egiteagatik zigortu zuten alemaniar terroristaren oroi-

mena. Horregatik aldatuko dio izena Vladimirri, Rita eta Hansen semeari, Leninen gorazarrez aukeratutako izen horrek aita oroitarazten diolako, Rita gaztetan liluratu zuen aita iraultzailea, orain kartzelan dena. Umore beltzak, korrosiboak zeharkatzen du *Arrainak ura baino* eleberria alderik alde, frustraziorik handienez bizi den protagonista gizagaixo honen patu tragikoa ulertzeko beharrezkoa den umoreak, hain justu.

Simon Azkueri berdin zaio unibertsitate nahiz biltzarretan goraiptua dela jakitea, edo emakumeen artean lilura eragiten duela, baita modelo ospetsuenen artean ere (Louise Orthez=Isabella Rosselliniri egiten zaion aipuan ikus daitekeenez, kasu). Obsesio bihurtu zaion emakume txiki, beltzaran eta begi bizikoa maite du eta edozer egin lezake haren gogoia erabat bereganatzeko, Ulisesek Penelope bezala, berak ere Rita etengabe zain izango duela jakiteko. Eleberrian ironia handiz adierazten den modura, “Egiazko Gizona” (194), “Gizon Berria” (193) bihurtzen da Simon kartzelan, guztion gaintetik dagoen Ulises gaurkotua. Amodioa dugu, beraz, *Arrainak ura baino* eleberriaren leit-motiva, maitatzeko modu arriskutsua, izenburutik iradokitzen zaigun moduan: Simonek Rita arrainek ura baino gehiago behar baitu bizitzeko. Aurreko eleberrian baino metafora eta irudi aberatsagoak kausi ditzakegu eleberri honetan eta guztiz deigarriak dira kapitulu bakoitzaren amaieran egiten dituen konparazioak. Horretaz gain, Etxeberriaren hizkera sendoa, jario oparokoa, nabarmendu beharko genuke, eta baita eleberri beltzetako elementuen erabilera egokia ere (jazzaren aipamena, gertakarien kontaketa neurtua...). *Mugetanekin* konparatuz, aitormen luze gisa uler daitekeen eleberri honek erritmo gorabehera handiagoak edo pertsonaia zehaztugabeagoak (Ritarena, bereziki) dituela aitortuta ere, testu gomendagarria iruditzen zaigu.

c.4) Aingeru Epaltza (1960)

Aingeru Epaltza (1960) egungo panoramako idazle interesgarrienetako bat dugu. Kazetaritzan lizentziaduna da, eta zenbait egunkaritan (*Deia, Navarra Hoy...*) lana egina den arren, Nafarroako Gobernuko itzultzailea da egun. Antzerkian, poesian eta erreportaje etnografikoaren munduan aritu izan bada ere, narratibaren alorreko lana da nabarmentzekoa, nola helduentzako literaturan, hala haur eta gazteentzakoan. Helduentzako produkzioan *Garretatik erauzitakoak* (Elkar, 1989) ipuin-liburua nabarmenduko genuke, eta gazteentzakoan artean *Ur zabaletan* (Pamiela, 1994) eleberri laburra, *Sorginkerien liburua* (Pamiela, 1997) eta *Baloika* (Pamiela, 2000). Gainera, bere hiru eleberriek literatur sariak irabazi dituzte: *Sasiak ere begiak baditik* (Elkar, 1985) Iru-

ñeko Udaleko idazle berrientzako lehiaketan izan zen irabazle; *Ur uherrak* (Pamiela, 1993) [itz.: *Agua turbia*, Ed. Hiru, 1995] eleberriak Xalbador Saria irabazi zuen 1991n, eta *Tigre ehizan* lanak (Elkar, 1997), 1997ko Euskadi Saria. Horiez gain, kazetaritzako Rikargo Arregi Saria irabazi zuen Epaltzak 1990ean. Epaltzaren azken eleberria *Rock'n'Roll* (Elkar, 2000) da.

Sasiak ere begiak baditik eleberriak eman zion hasiera Epaltzaren ibilbide distiratsuari. 1839an dataturiko eskuizkribua daraman kutxa baten aurkuntza ustegabeko bati esker, obraren ustezko editoreak Don Karlosen armadan sartu den Pedro Mari Arrieta nekazari baztandarraren gorabeherak eta abenturak irakurtzen ditu. Gudu zelaian bertan gertaturiko gaizki ulertu bat dela eta, Pedro Mari Arrieta soldadu karlista Isabel II.aren armadako Torres teniente bihurtzen da. Ordutik aurrera, zenbait zorigaitz eta maitemin direla medio, ustezko tenientearen bizitzak lehen ez zeukan emozio eta arrisku puntua hartzen du.

Gertakariak kontatzeko erritmo biziak eta egoera desberdinak deskribatzeko erabilitako umore eta trebeziak benetan liluragarri egiten dute eleberraren irakurketa. *Sasiak ere begiak baditik* abentura, akzio bizkor, suspense eta iruzurrez betetako istorioa da; euskaldunik unibertsalenetako baten, Pio Barojaren, narrazio bikainak dakarzkigu gogora.

Autorearen hurrengo eleberria, *Ur uherrak*, tamaina eta asmo literario handiagoko obra da. Gaztelaniazko edizioaren kontrazalean esaten zaigun bezala, bi pertsonaien topaketa –Billie, neska beltza, bere egoera sozial eta familiarrarengatik baztertua, eta Jazinto bertsolari zaharra, zapuztua eta alkoholismoak joa– da eleberri honen abiapuntua. Biok aurrera egiten saiatzen dira Epaltzak iaotasunez marraztutako nafar herrixka bateko giro etsai itogarrian. Agintea lortzeko bertako buruzagi politikoen arteko borroka gordina, poliziaren errepresioa, egunkarien manipulazioa eta ahulenen aurkako indarkeria areagotu egiten dira herriko zinegotzi bat hiltzen dutenean. Arzoa erraz konpontzen da: errua bertako ahulenari botatzen diote, Billieren aitari, Vietnamen soldadu ibili eta bere egun tristeak gerra hartako oroipen ankerrak alkoholean itoz ematen dituen zigaxoari.

Uher eta iluna da eleberrian islatzen den mundua, uher eta zirraragarriak mundu horretako sentimendu eta gertakariak. Baina autoreak trebezia eta arintasun deskriptiboz jakin du haiek kontaktzen. Kontrapuntuaren teknikaz baliatuz, narratzaile estradiegetikoak foku narratiboa protagonisten izaera maltzurra agerian utziz doazen sekuentzia laburrak txandakatzen ditu. Urte gutxi batzuetan gertatzen da dena (badakigu bi urte inguru pasatzen direla Billiek eta Jazintok herrira itzultzea deliberatzen dutenetik) Ugaldeko landa

mundu itxia Hiri handiko anonimatoari kontrajartzen dion unibertso literario horretan.

Obraren egituraketan eleberri beltzetik hurbil dauden estrategia narratiiboak hauteman daitezke. Nahiz eta, Epaltzak berak elkarrizketa batean adierazi zuen bezala, *Ur uherrak* obrak autore beltzek idatzitako literaturatik ere asko izan. Gogoan ditugu, batez ere, zenbait idazle iparramerikar, R. Ellison eta bere *The Invisible Man* (1952), baina batez ere J. Baldwin, gizaki beltzak gizarte iparramerikarrean jasaten duen bazterkeria islatzen saiatu zen idazlea. *If Beale Street Could Talk* (1974) haren eleberri ezagunean, Baldwinek Fannyren istorioa kontatzen zigun, berak egin ez duen delituaz bidegabeki akusatzen duten gazte beltzaren istorioa. Epaltzak autore iparramerikar horri egiten dion gorazarrea agerian gelditzen da *Ur uherrak* eleberriko atalei ipintzen dizkien izenetan: The river blues, The jail blues... *Blues* bakoitzak leku jakin batean kokatzen ditu gertakariak, baina, gainera, izenburuak bertsolarien inprobisatzeko erei dagokien parentesi arteko hitz banaz (Bakarka, Binaka...) osatzen dira. Epaltzaren eleberriko *bluesen* ondorioa eta kantuen entzuketaren ostekoa berdinak dira: irakurlea zein entzulea haiei darien samurtasun eta goibeltasunaz blaituta geratzen dira. *Ur uherrak*en lotura intertestualez jarduteko, Mississippiko idazleen artean unibertsalena aipatu behar, W. Faulkner, alegia, pertsonak hondamendira eta suntsipenera eramaten dituzten bulkada elkarri kontrajarrien ikertzaile handia. Jazinto, Billie edo Juanito pertsonaien deskribapen sakonek asko zor diote maisu iparramerikarrari.

Izaki ikusezin baztertuen mundu baten historia kontatu nahi izan digu Epaltzak. Eta egin zezakeen era bakarrean egin du, hau da, eleberrian haien hizkuntza eta estilo ahaztua, isildua transkribatzen saiatuz. Horregatik, autoreak harritu egin gintuen eleberria euskara batuan, baina nafarreraren berezitasun lexikalak txertatuz, idatzi izanak. Heterofonia eta heteroglosia horiek testu polifoniko eta ñabardura sinboliko eta semantiko berritzailez hornitutako testua egiten du *Ur uherrak*. Edozein aldetatik aztertuta, azkenaldi hone-tako eleberri onenetakoa da gure ustez.

Autoreak kaleratutako hurrengo eleberriak, *Tigre ehizanek* (1996), 1997ko Euskadi Saria irabazi zuen. Lau edizio argitaratu dira oraindaino, eta frantsesera, gaztelaniara eta kalanera itzuli dute [itz.: *Cazando tigres*, Xordica, 1999; *À la chasse du tigre*, Auberon, 1999; *Cazadors de tigres*, Tabarca, 1998]. Eleberria, aurrekoa baino askoz laburragoa, lau ataletan dago egituratuta, eta 1944ko abuztuaren 7an eleberriko bi protagonisten bizitzan suertatutako gertakariak kontatzen dira: Martinen eta Martintxo semearen inguruko ger-

takariak, biak erbesteratuta baitaude, baina elkarretatik milaka kilometrora. 36ko gerra dela eta, Martinen sendi osoak Larresoro herrixka lapurtarrera ihes egin behar izan zuen. Han bizi dira elkarrekin harik eta 1939an II. Mundu Gerra ankerrak Martin Venezuelara ihes egitera bultzatzen duen arte. Kasualitate bat dela medio, 1944ko abuztuaren 7an tigre bana ehizatu behar dute bi protagonistek, aita-seeek. Martin, El Llanoko petrolio konpainiako bere lankideekin batera, Parigua oihan amazonikoan zenbait lagun hil dituen tigre bat ehizatzea ateratzen da (ik. L. Sepúlvedaren *El viejo que leía novelas de amor*), eta Martintxo semeak, berriz, azkenaldian alemaniarrek Larresoro okupatu izanaren lekuko, herriko bere lagunekin batera, tanke alemaniar bat «ehizatzea» erabakitzen du, lagunartean «tigre» esaten dioten tankea «ehizatzea».

Pixkanaka, aita-semeen patua korapilatuz doa eta istorioak halako intentsitate ia metafisiko bat hartzen du, irakurleari zirrara eragiteraino. Abenturazko narrazio honen ikuspegi errealistak ez du Epaltzaren prosaren indar narratiboak ezkututzen, eta autoreak trebezia antolatzen ditu bi plano narratiboak bat-etortze kronologiko kasualaren inguruan. Dataren aipu errepikatua edo bi erbesterratu hauen iragana marrazten diguten analepsi etengabeak dira autoreak istorioan erabilitako estrategia narratibo ugarien arteko bi. Kasu honetan nabarmentzekoa da, orobat, euskalki desberdinen erabilera pertsonaien hizkera transkribatzeko: narratzailearen erregistroa euskara batuaren hurbilekoa da, aitaren hizkerak bizkaieraren ezaugarri lexikalak ditu, eta, Martintxo semearenak, lapurteraren ezaugarri lexikalak. Horrela ikusita, *Tigre ehizan* protagonista penatu horietako bakoitzaren ilunbeen bihotzera egindako bidaia literario bihurtzen dela esan daiteke. Lan hau irakurtzean literatura bikaina definitzen duten ezaugarri guztiak dasta daitezke: bizia da, eta irakurlearen oroimenean luze irauten du.

Rock'n'Roll (Elkarlanean, 2000) eleberri mardula dugu, oraingoz, Aingeru Epaltzaren azkena. Oihartzun kritikoa handiegirik izan ez badu ere, benetan liburu gomendagarria delakoan gaude. Eleberri beltzetako osagaiek hasieratik harrapatzen dute irakurlea: hilketak eta gorpuen desagertzeak, lapurrak, poliziak eta kazetariak, mozkortiak, sektak,... eta umore beltzez zipriztindutako pasarte gogoangarriak. Horiez gain, badira Raymond Chandlerren *The simple art of murder* ezagunean zehazten ziren beste funtsezko osagai batzuk, hala nola, intriga, amaiera arte askatzen ez den suspensea, bortizkeria, sexua, alkohola,... Eta Chandlerren aipamena ez da, inondik ere, hutsala, bere dekalogo famatua tartean, maisuaren ikasle ikasia dela frogatu baitigu Epaltzak. Horregatik darama eleberriko atal batek *Ez adiorik* izenburu esangura-

tsua, Chandlerrek 1953an argitara emandako eleberri bikaina genero beltza maite duen edonoren kultuzko testua delako. Eta maisuaren esanak gogoan, desagertutako gorpu bat azaltzen zaigu eleberriaren hasieratik bertatik, eta gertakarien kontakizuna, hastapenetatik lilurutzen gaituen irudiz eta argotaz bideratzen da. Hitzak eta ateraldi zorrotzak han-hemenka barreiatuz, elkarritzetak modu bizian aurkeztuz, erritmo narratibo azkarra erdiesten du tradizio errealdistenaren teknikak bere egiten dituen eleberri honek. Hortik, ikuspuntu behavioristaren gailentasuna, komunikabide desberdinetatik ateratako pasartearen transkripzio zuzena, edo plano narratiboen konbinaketa azkarra.

Alabaina, lehen esan dugun moduan, *Rock'n'Roll*eko metafora eta espresioek lilurutzen dute hasieratik irakurlea: autoaren ibilera deskribatzeko konparaketa harrigarriak (“autoaren mutur luze urdina zorua xurgatzen ari zitzaien karrika hustuari, nerabe goseti batek espageti mugagabea bezala.” (9)), burua “telebista aparatu itzalia bezalakoa” duen protagonista (11), berun puska goritua dirudien eguzkia (239), edo “infernuko beroaren galdan hogeit egunez atxikitako malkoak” husten dituen zerua (404). Chandlerri bezala, intrigaz gain, pertsonaien karakterizazioa eta atmosfera baten sor-kuntza interesatu zaizkio Epaltzari. Eta pertsonaiak aipatu ditugunez, erran dezagun, espero zitekeenaren ildotik, galtzaileak, marjinatuak, direla nagusi eleberrian. “Gihar zakuak” diruditen polizia bortitzak, autobideetan lapurretak egiten dituzten bandak, zubipean bizi diren etorkinak,... eta batez ere, berrogei urte inguruko Edu Saragueta kazetaria, eleberriko protagonista: edalea, banandu berria, eta lantegian arazoak dituena. Eduri berari zor diogu bere buruaren deskribapenik krudelena: “Dr. Jekyll prestatuaren eta bere Hyde presentaezinaren bertsio alkoholiko eta aise ere gureagoa” (115) dela dio.

Edu dugu istorioaren narratzailea eta irakurleari etengabe egiten dizkion iruzkinengatik (“lehenago erran ez badu, orain dut parada” [155], “oroit gizonzkoen lagun taldetako kideek lehenago egin sailkapena” [167],...) aitortza luze gisara kontsidera genezake *Rock'n'Roll*. Eleberriaren kontakizun direnak, 1999ko abuztuaren 4tik 23 bitartekoak dira, Iruñea izan daitekeen hiri batean, uda sargorian gertatutakoak. Gertakarien kontaketa lineala bada ere, etengabe tartekatzen dira protagonistaren eta bere lagun taldearen iraganari dagozkion pasarteak. Modu honetan, eleberriko protagonista nagusia Edu izan arren, bere lagun rockzaleek (Karlos Ripodas “Charly”, Fernando Soria “Ximurra”, Anjel Urtxipia “Ttipi”) izugarritzko garrantzia erdiesten dute, eleberria bera adiskidetasunaren inguruko istorio bihurtzera iristerai-

no. Istorioaren abiapuntua ezin harrigarriagoa da: Fernando Soria (Ximurra) Mediterraneo aldean dago oporretan familiarekin. Halako batean, izeba gaixotu eta hil egiten zaie. Gorpuaren garraio garestia itzurtzeko, izebaren hilotza kanpin denda batean bildu, maletategian ezkutatu eta itzulerako bidea hartzen dute. Baina hiritik gertu dagoen restop batean maletategiko guztia lapurtzen diete. Hor hasten dira problemak. Gorpua berreskuratzeko geratzen dira taldeko lau lagunak, baina tartean gauzak konplikatzen hasten dira, hilketa berriak, kazetarien arteko lehiak, sekten inguruko susmoak, amoranteak,... guztia amaieran argitzen den arte.

Rocka deskubritu zuen belaunaldiari begirada ironikoa, esperpentikoa esango genuke, bota dio Epaltzak eleberri honetan. Izenburuan ez ezik liburu guztian presente dagoen Lou Reed-en *Rock'n'Roll* abestian esaten zaigun modura: "*Rock and rollak bizia salbatu zion. Anputazio guztiengatik ere, dantzatzen ahal zinen rock and roll irrati batekin...*" (ik. *Rock'n'Roll Animal*, 1974). Hala ere, Ian Duryk famatu egindako lema: "Sexua, drogak eta rock'n'rolla", iragane-ko kontuak direla ohartuko da eleberriaren amaieran Edu Saragueta, rock-a maite zuen bere belaunaldiak bizitzari aurre egiteko zailtasunak izan dituela. Testua alderik alde zeharkatzen duten abeslariak (Miles Davis, Mick Jagger, Janis Joplin, Dylan,...) edo erreferentzia zinematografikoek (John Forden *Diligentzia*; Dino de Lauretisen *Waterloo*; Mel Brooks-en *Frankestein*,...) Chandler miresten zuen Lou zaharraren irudi errepikakorrarekin amaitzen dira. Rock'n'rolla eleberriaren *leit motiv* eta misterioaren giltzarri bihurtuz (ik. Ttipiren ordenagailuko pasahitza), intrigazko istorio erakargarria eskaini digu Epaltzak.

c.5) *Harkaitz Cano (1975)*

Zuzenbide-ikasketak eginak baditu ere, irrati-prentsarako kolaborazioetik eta idaztetik bizi da Cano. Laster, oso gazterik, nabarmendu zen Urruzuno Literatur Lehiaketan (1991, 1992 eta 1993. urteetan saria lortu zuen) edo Donostiako Koldo Mitxelena Sarian (1991, 1992 eta 1993. urteetan). Geroztik, Lubaki Bandako kide izana da G. Berasaluze, A. Serrano, X. Aldai eta besterekin batera. Irabazi dituen sarien artean, berriz, Imajina Ezazu Euskadi (1992), Donostia Hiria (1993) eta Ignacio Aldecoa (1998) dira aipagarri. Literatur produkzioan genero ugari landu ditu (poesia, ipuingintza, eleberria, kronika, biografia) eta beste hainbat arlotan ere aritua da: gidoigintza (ik. ETBko *Hasiberriak* telesaila; *A-dar-ba-kar* laburmetraia), kantagintza (Gari, Oskorri eta abarrentzat letrak idatzi ditu), saiakera (ik. *Emakumea euskal ant-*

zerkian, Eusko Jaurlaritza, 1997). 2000n diskoa kaleratu zuen Igor Calzadarekin batera (ik. *Uztail oparo ostein*, 2000).

Idazle gaztea izan arren, dagoeneko liburu ugari ditu argitaratuak Canok. Hauen artean *Kea behelainoan bezala* (Susa, 1994) eta *Norbait dabil sute-eskaileran* (Susa, 2001) poesia-liburuak; *Paulov-en txakurrak* (Erein, 1994) hibridoak (itzulitako poemak + ipuina); *Telefono kaiolatu* (Alberdania, 1997) ipuin-liburua; eta *Behuna jazz* (Susa, 1996) eta *Pasaia blues* (Susa, 1998) eleberriak. Ipuin eta kronika artekoak dira *Piano gainean gosaltzen* (Erein, 2000) liburu-ko narrazioak, New York hirian kokatutako hainbat pasadizo elementu fantastikoz zipriztinduta agertzen dituztenak. Lan guztiokin batera aipatu behar-ko genituzke, 14 pertsonaia famaturen biografia erdi-fikziozkoak biltzen dituen *Radiobiografiak* (Elkar, 1995) eta 49 hiriri buruzko narrazioak biltzen dituen *Bizkarrean tatuaturiko mapak* (Elkarlanean, 1998). Bi liburuak Euskadi Irratiko *Goizean behin* saiorako egindako kolaborazioekin osatutakoak dira, eta M. Schwob (ik. *Bizitza imaginarioak*) eta I. Calvinoren irakaspenei jarraituz bezala (ik. *Hiri ikusezinak*), benetako datuak fikziozkoekin uztartuz, testu benetan iradokitzaileak lortu ditu Canok.

Egileak literaturari buruz duen iritziaz jabetzeko, J. Benito eta A. Gorostizuk egindako elkarrizketa batean esandakoez baliatuko gara¹⁰. Halaxe mintzo da Cano:

Raymond Carverren azken liburuaren argitalpena dela (*Si me necesitas llámame*, Anagrama, 2001), Tess Gallagherrek (bere emazteak) zera idatzi du hitzaurrean, EEBBtako hegoaldean upelak jartzen dituztela granjen inguruetan erortzen den euri apurra jaso eta gero erabili ahal izateko, eta Carverren ipuinak upel horietan erortzen den euria bezala direla. Ez zait era ederragorik bururatzen literatura zer den esateko.

Eta halaxe egiten du Canok bere literatur lanetan: inguratzen duen errealitatera begiratu eta egunerokotasunaren itxura orekatutik bazkatu. Modurrik harrigarrienean, gutxien espero dugunean, Canoren lanetan gauza ezdeusek alderdi ilun bat ere badutela ohartzen gara.

Telefono kaiolatu liburuan prosa poetikoan landutako ipuinak biltzen dira, heriotza eta ezustea etengabe presente direla. Ironia eta humorea nahastuz,

¹⁰ ik. BENITO, J. & GOROSTIZU, A., 2001, *Harkaitz Cano. Brooklynerako hirugarren irteeran*, oraindik argitaragabea, 8. orr.

gure mundu moderno eta hitsaren adierazgarri diren ipuin gomendagarriak idatzi ditu lasartearrak. Ipuin-bilduma honetan asperdura zela nagusi esan zuen idazleak elkarrizketa batean (ik. *Deia*, 1998-1-16) eta bizitzaren “funtzionarioak” garen susmoa nabarmendu nahi izan zuela. Horretarako, asperdura hori iradokitzeko, genero beltza eta absurdoa uztartu zituen liburu honetako ipuinetan. Pinta, Niña eta Santamaria itsasontzietan gertaturiko hilketa makabro bat kontatuz, Robinson Crusoearen “egia” narratuz... liburu-ko ipuinek harritu eta aztoratu egiten gaituzte. Futbolari baten azken agindu asaldagarriak betetzen dituen iloba, Capoteren liburu famatuaren ildotik telefonoak ehizatzen dituen pertsonaia zoroa, errusiar erruletan diharduten lagun nolotilzaleak, su-itzalgailu bildumaria... horiek dira *Telefono kaiolatu*a liburu-ko izaki bitxiak. Eta etengabe, gure bakardadea gogorarazten digute, liburuan datorren Bukowskiren poeman esaten zaigunez, kontsolamenduzko hitz batzuen zain egotera kondenatuta baikaude guztiok. Galtzaileak, drogazaleak, psikopatak... eta alkoholzaleak azaltzen dira, Bukowskiren lanetan bezala, alkoholetan itotzen diren fikziozko izakiak (ik. Benito, J. & A. Gorostizu, op. cit.).

I. Gutierrezek dioskunez (ik. 2000: 41), antolaketa eta idaztankera bertsua darabil H. Canok bere bi eleberrietan: *Beluna Jazz* (1996) eta *Pasaia blues* (1998). Eta antza paratestutik bertatik azaleratzen zaigu, jakina denez, jazzaren sorreran *bluesak* garrantzi itzela izan baitzuen eta bien erritmo pausatuak baldintzatzen baititu eleberrietako orriak. Lehenengo eleberrian, *Beluna Jazz*en, Bob Ieregi tronpeta-jotzaile beltz ospetsuaren bizipenak dira kontagai eta, bigarren planoan, eroetxe bateko gertakari nagusiak. Bi planoek berez duten erakargarritasuna gutxi bailitzan, hilketa baten berri ere ematen da eleberriaren hasieran, eta irakurlearen arreta lehenengo orrietatik bereganatzen du horrela. Hilketa horri egindako erreferentziak hasi eta bukatzen du eleberria. Teknikoki, kronologia etena, benetako lekuen erabilera (Rotterdam), edo narratzaile orojakile eta iruzkingilearen presentzia nabarmenduko genituzke. Narratzaile honen ahotan kontatzen dira hainbat pertsonaiaren inguruko pasadizoak eta, askotan, bere iritzia eta ipuin edo gogoetak tartekatze-ko ohi-tura du. Bigarren eleberrian ere errepikatzen den ezaugarri honek, irakurleak antolatu beharreko puzzlea bihurtzen du *Beluna Jazz*. Horretaz gain, Canoren prosa lirikoa, irudi eta metafora deigarritz hornitua, da aipagarri, baita bere ironia ere. Ezaugarri guztiok, nahiz eleberrian presente dagoen ametsezko mundua, mundu surrealista eta eromenezkoa, irakurri berri zuen liburu baten eraginari egotzi zizkion Canok, M. Lowryren *Lunar Caustic* eleberriari. Nobela horretan ere, psikiatriko batean sartzen den alkoholiko baten istorioa kontatu

zigun jazz maite zuen idazle britainiarrek, bizitzaren zentzugabekeria, anbigotasuna eta paradoxa moralak salatuz aldi berean.

Baina aurreko lerroetan egin dugun deskribapenarekin motz geratuko ginateke *Beluna Jazz* eleberri gomendagarriak irakurlearengan eragin ditzakeen emozioak deskribatzen. Izan ere, zenbait kritikarik esan duen bezala (J. Rojo, U. Apalategi...), eleberri hau jazzaren erritmoan dago idatzia, tema (melodiko) nagusi bat aukeratu eta honen gainean egindako bariazioez osatua. Bariazio hauetan, pistolak desagerrarazteko argibideak, tigreak ehizatzeako aholkuak, Boben fantasiak, poemak... tartekatzen dira, askotan, eta “Eta itxi parentesia, eta piztu zigarro bat. Gauloises.” (41) perpausarekin bukatzen (eta biribiltzen) ditu egileak pasarteok.

Zalantzarik gabe, erritmoaz hitz egin beharra dago eleberri hau komentatzeko garaian. Eta Klara Miao marrubi usaineko emakumeak begietan dituen marra paralelo misterioetsuez, “hirugarrena ez da urdina” perpaus errepikatuaz... edo “in the train, through your eyes” leloaz. Jazz musikari ezagunenen antzera, errepikapenok hezurdura ematen diote itxuraz loturarik ez duten pasartei. Miles Davis handia (48), Cedar Walton pianista famatua, Etta Jamesek abesten zuen *Body and Soul* (64)... Charlie Parkerren lanei egindako erreferentziakin nahasten dira (ik. *Ornithology*, 135. or.). Izan ere, jazzak blaitzen ditu *Beluna Jazz*eko orrialde guztiak, eta *Be-bop*eko musikagilerik ezagunenetakoa den Ch. Parker (1920-1955) saxofoi-jotzailea aipatzeko aukera ematen digu Canok eleberri honetan egiten dion omenaldiari esker. Julio Cortázarrek *El perseguidor* ipuinean egin zuen antzera (ik. J. Benito & A. Gorostizu, op. cit.), halaxe egin baitu Canok bere buruaren suntsipena eta bikaintasuna uztartu zituen musikariari gorazarrea, eleberri beltzaren osagaiak (hilketak, hoska ari diren telefonoen aipamenak, gizartearen ustelkeria salatzen duten pertsonaia eta elementuak...) dituen testu honekin.

Alaska du izena *Beluna Jazz*eko psikiatriko zuri hotzak. Eta bertan, antzerki lan absurdo batetik atereak diruditen zoro gogoangarriak aurkituko ditu irakurleak: Anatol, “Zubi altxakorreko estranguladorea” bihurtu zen idazle frustratua; bere dortoka disekatuarekin hitz egiten duen Galileo lurperatzailea; eleberri eta film beltz askotako pertsonaia izan zitekeen Joe Panda boxeolaria eta Bob Ieregi, *Beluna Jazz*eko protagonista, ama jamaikarra eta aita Kentuckykoa dituen, gamuzazko gabardina soinean, Cortazarren ipuineko protagonistaren antzera, Gauloisesak erretzen dituen eta poteko tomatean ogia bustitzea gogoko duena. “Tipo korriente bat”, begi urratuak dituen Klararengatik edozer egiteko prest dagoena. Zerikusirik apenas duten pertsonaiok psikiatrikoko beste biztanleekin, itxuraz ongi daudenekin, Nora eri-

zainburuarekin adibidez, zeina baita *One flew over the cuckoo's nest* (1975) filmeko Miss Ratched erizaina bezain bihozgabea. Espazio krudel honetan, denborak abiadura desberdinak hartzen ditu testuan, eta horregatik, hastapenetan gizona ilargira iritsi dela esaten zaigun bezala (48), orri batzuk aurrerago, J. Lennonen hilketa da hizpide (88). Urteak joan urteak etorri, “betun beltzez janzen arratsaldeak” (48). Iluna (beluna) da eguraldia, beluna eleberriko pertsonaien aldartea. Bitartean, amaiera itxirik gabeko eleberri honek eragindako lilurapean geratzen gara irakurleok, *jazz* doinuen lilurapean.

Pasaia bluesen aurreko eleberrian baino arinagoa zen eduki oniriko eta surrealista, eta kontamolde errealistagoak erabili zituen egileak. Eleberriak duen sintesirako ahalmena, esaldi laburren erabilera, hilketa baten inguruko suspensearen erabilera... ezaugarri horiek guztiak polizia eleberria dela baieztatzera bagaramatza ere, Jon Benitok (ik. *Gara*, 2000-1-8) esan bezala, nahiko berezia da eleberri hau genero horretan. Canok “falso-poliziakoa” deitu zion bere eleberriari (ik. *Argia*, 1.739) eta kalifikazio honen arrazoiak bistakoak dira: eleberriaren amaieran, gaur egungo zenbait eleberri polizia-kotan bezala (ik. *Les gommés*), ikertzailea bera suertatzen baita susmagarri.

Aurreko eleberriaren antzera, *Pasaia bluesen* elkar topo egingo duten bi plano kausi ditzakegu. Lehenengoan, Cesar Telleria da protagonista, ertzaintzaren sail berezi batean lanean diharduen fisonomista. Veronika izeneko emakume baten atzetik dabil eleberriaren hasieran eta Lisboatik bueltan datorrela erakunde armatu bateko komandokideak aurkitzeko aginduko diote. Hauexek dira, hain justu, eleberriaren bigarren plano nagusiko pertsonaiak, Marta, Olatz eta Patakik, ertzaintzak erakundean inflirtatutako satorrak, osatzen duten komandoa. Ikerketak aurrera egin ahala, komandokideak ondoko pisuan dituela antzemango du Cesar Telleriak eta eleberriaren amaierako gertakari harrigarriek ezusteko ondorioak ekarriko dizkio.

Gertakari guztiok Pasaian kokatzen ditu Canok, eleberrian trebetasun handiz irudikatzen den Pasaiaiko portu desolatuaren inguruetan. Deskribapen espresionista guztiz iradokitzailez esaten zaigunez, pabilioi apurtuetan (15) txatarra ugari pilatzen da. Eta txatarra-meta horietan, XX. mendeko sarraskien sinboloak biltzen dira, hala nola, Auschwitzeko lanpara zanpatuak (42), sukalde lurperatuen hondakinak (42)... eta aurrerapenean sinesten zuen gizarte moderno teknologikoaren gainbeheraren adierazle diren erloju matxinatu eta matxuratuak (42). Garabi erraldoiez betetako espazio hori, zakurren arteko borroka klandestinoen gertaleku da, edo gorpuak desagertarazteko putzu zori-gaiztoko (192). Bertako biztanleak, eleberriko pertsonaia sekundario garran-

tzitsu direnak, Juan Perro edo Laranja Mekanikoa izen adierazkorrak daramatzate, eta, horrenbestez, berriro ere, musika eta zinemaren erreferentziek blaitzen dute Canoren eleberri hau. Esandakoez gain, Billie Holliday, Camaron, Leonard Cohen edo Lou Reed aipatzen dira *Pasaia bluesen*, eta *Beluna Jazzeko* Bob Ieregi bera tronpeta-jotzaile xahar bihurtzen 156. orrialdean.

Desolazioaren hiri honetan, txatarra da pertsonaiek lapur dezaketen diamanete bakarra eta dei asaldagarriak egiten dituzten telefonoak edo whisky tragokada luzeak edaten dituzten fikziozko izakiek genero beltzaren elementuz zipriztindutako testu baten aurrean gaudela gogorarazten digute. Kubricken *Laranja Mekanikoa* (1971) film ospetsuan bezala, bizilagun batek *Singing in the rain* jotzen du txistuka eta arriskua gertu dugula iragartzen. Horregatik aipatzen dira Cioranen hitzak (159) edo Klaus Kinski aktore famatuak biolentziari buruz esandakoak (105): suntsipena, “nevermore” ezaguna oihukatzen duten beleak eleberriaren gainetik hegaldatzen direlako (114).

Trebezia handiz lotu eta harilkatu ditu berriro ere Canok, bluesaren antzera, lanturu luzea den eleberri honetako sinbolo amerikarrak eta euskal errealitate politiko izugarriaren erakusle diren elementuak: hilketak, leherketak, atxiloketak, tortura... Holyfield, Marilyn edo boxeolarien izen eta termino teknikoak etengabe errepikatzen dira, graffitiaren leloarekin lotzen diren pasarteetan (ik. “Ni ez naiz sekula hemen izan eta igual igual bizi naiz”). *Pasaia bluesen* deskribatzen den itsasoaren antzera (*cinemascope itsasoa*), eleberri hau gure begien aurrean pasatzen den erritmo arineko film baten antzekoa da, ustekabeko arriskuez beteriko filma (ik. Elurretako Yetiari egindako erreferentziak).

d) Eleberri historikoaz

Euskal eleberrigintzaren egungo panoramaren gainbegirada hau bukatzeko, inguruko literaturetan hainbesteko arrakasta izan duten tipologia bati, eleberri historikoarenari, egingo diogu erreferentzia. Seguru asko, lehenengo eta behin, eleberri historikoarekin definizioari berari heldu beharko genioke, gaurtik begiratuta bistakoa baita kontzeptu labainkor eta aldakorra dela. Germán Gullón-ek bere “La novela histórica: ficción para convivir” artikulua interesgarrian dioskunez (ik. *Ínsula* 641, 2000ko maiatza, 3-5), gaur egungo eleberri historikoez behiala zuten helburu eta moldeak irauli dituzte. Iragana berreskuratzen zuten testuok helburu didaktiko, moralizatzaile edo abertzalez idatzi ohi ziren behiala (honen adibide argia garai erromantikoan sortu ziren eleberri espainiar historikoak genituzke, iragan lorios batez mintzo zirenak), baina gaur egun ikus-

puntu berri bat, ohiko historietan azaltzen ez diren kontuak, azaleratu nahi dute.

Horretarako, Paloma Díaz-Mas eleberrigilearen testuetan bezala, fikziozko biografia bat aurkezten dute eta garai historiko batzuek pertsonaia konkretuetan izandako eraginak kontatzen. Modu honetan ulertuta, zabaldu egingo litzateke eleberri historikoaren esparrua eta behiala argi eta zehatzak kontsideratzen ziren mugak gaur egun askoz ere zehaztugabeagoak lirateke.

Euskal eleberrigintzari dagokionez, egia da Jon Etxaidek 1950eko hamarkadan hasitako bide historikoak ez duela jarraitzaile askorik izan euskal autoreen artean. 1983ko Irun Hiria Saria erdietsi zuen Mario Onaindiaren *Gillen Garateako batxilerra* [itz.: *La tau y el caldero*, Grijalbo, 1985] eleberriaz gain, gehienetan, garai historiko baten lekukotza dokumentatua egin nahi ez duten testu modernoak aurkituko ditugu gurean, idazleek beraiek eleberri historiko kontsideratzeari uko egin diotenak. Talde honetan sartuko genituzke, besteren artean, **Joxemari Iturralde**ren *Nafarroako artizarra*, **Edorta Jimenez**en *Azken fusila* (1993) eta *Baleen barbaroa* (1997), **Andolin Eguzkitza**ren *Herioaren itzalpeetan* (Elkar, 1999), **Andoni Egañaren** *Pausoa noiz luzatu* (Alberdania, 1999), **Xabier Montoiaren** *Hezur gabeko hilak* (Susa, 1999) edo **Inazio Mujika Iraolaren** *Gerezi denbora* (Alberdania, 1999). Azken honetan, esaterako, *Gerezi denbora* eleberri laburrean, Alberto Onandiaren oroitzapen-liburua abiapuntutzat hartuta, gertakari harrigarri bat kontatu du, maisutasunez, I. Mujika Iraolak: anarkista talde batek artzapezpiku bat askatzeko egiten duen bidaiarena. Eta Gerra Zibilaren krudelkeria dago tartean, ideologiaren gainetik, gizakion miseria ezkutuenak azaleratu zizkigun gerrarena. Erritmo narratibo arina, umore eta dramaren arteko tentsio orekatua, edo suspensearen erabilera neurtua testua biribiltzen duten estrategia narratibokak ditugu. Parisko komunazaleen kankak dioen moduan, gerezi denbora laburra da... baina, Mujika Iraolaren lehenengo eleberriaren antzera, gogoangarria.

d.1) Patxi Zabaleta (1947)

Eleberri historikoari dagokion atal hau osatzeko, Patxi Zabaletaren (1947) eleberrigintza izango dugu hizpide. Idazle, politikari, abokatu eta Euskaltzaina da Zabaleta, Aingeru Epaltzarekin batera, euskaraz idazten duten idazle nafarren belaunaldi berriaren kideetako bat. 1970eko hamarkadan egin zen ezaguna poesia-liburuak argitaratuz, hala nola *Zorion baten zainak* (Etor, 1972) eta *Ezten gorriak* (autore-editore, 1975). Garai hartakoa

du, orobat, *Euskomunia ala Zoroastroren artalde* (autore-editore, 1977) ipuin-liburua, bere orrietan *Izokiaren jauzia* eleberri laburra daramana. Alabaina, *Nafarroako azken mariskala* (Txalaparta, 1991) lanarekin genero dramatikoan saio bat egin ondoren, eleberrigintzan egin duen bideak izan du jarraitzaile gehien euskal irakurleen artean.

Ukoreka (Txalaparta, 1994), *Badena dena da* (Txalaparta, 1995) eta *Arian ari* (Txalaparta, 1996) nobelek trilogia osatzen dute; bere XX. mendearen lehen erdiko Nafarroako herritar xumea eta egilearen pentsaera islatzen dira. Lehen eleberria, *Ukoreka*, narrazio bikaintzat hartu zuten euskal kritikariek, eta indar eta aberastasun handiko kontakizuna da. Eleberriak Beñaten bizitza kontatzen digu, narratzaile estradiegetiko-heterodiegetiko orojakile baten ahotik: Beñat gaztea inklusa batean utzi zuten eta, 13 urte zituela, familia batek hartu eta Kexuri baserrira eraman zuen bertan lan egin zezan. Zorigaitz sorta bat dela eta (amaordea eta anaiordea hiltzen zaizkio), Beñatek ihes egin eta umezurtegi batean hartzen du babesa. Baina haren atsekabeak ez dira horretan amaitzen eta, maitasun zapuztu baten ondoren, bere borroka pertsonalean jarraitu zuen, zapaldu nahi zuten estekadura orotik libratu nahian. Ikusten dugunez, eleberriak bizitza latz eta zorigaiztoz betea kontatzen du, sarritan erotismo dosi handiz atondua. Istorioa 1923an hasten da, Primo de Riveraren diktaduran, eta 1936an, II. Republikaren amaieran, bukatzen.

Esandakoaz gain, *Ukoreka* modu linealean kontatuta dago, aurkezpenkorapilo-amaiera egitura tradizionalakoa da eta mende hasierako Nafarroako irudi errealista-naturalista ematen du, baserriaren inguruko landa-munduen amaiera eta bideetako benten desagerpena gertatu zen garaiaren irudia. Txomin Agirrek *Garroan* hasitako tradizioari jarraiki, Zabaletak landa mundua irudikatzeko darabilen sakontasun lexikalak autorearen zaletasunetako bat gogorarazten digu: etnologia. Zabaleta ez baitzen alferrik izan Jose Miguel Barandiaran antropologo eta etnologo gipuzkoarraren lankide. Zentzu honetan, autoreak berak behin baino gehiagotan nabarmendu izan duen asmoa, ekarri etnografikoa egitea, agerian gelditzen da.

Beharbada *Ukoreka*ren alderdi ahulena autorearen beste zaletasun batek eragiten du: filosofiak. Izakiaren izaeraz gogoeta egin nahi duten letra etzanez idatzitako lerrokada ugariak gehiegi mantsotzen dute eleberriaren erritmoa. Hala ere, gure ustez Beñaten bizi-bidai honen osagaiak (intriga, sexua, filosofia...) daude testuak izan duen harrera onaren oinarrian.

Badena dena da (1995) hurrengo eleberrian ere ekarri etnografiko garrantzitsua egiten da, Nafarroako Erriberako leizeetan bizi izandako pertsonen lekukotasuna ematen baitu. Leize gehienak 1940ko eta 1950eko

hamarkadetan dinamitatu zituzten, baina bertan bizi zen jendeak lurrarekiko atxikimendu berezia zuen. Eleberriko istorioa 1936ko gerraren hasieran kokatua da, eta kontakizunak, aurrekoan bezala, akzio asko eta zenbait gogoeta filosofiko biltzen ditu bere baitan. *Arian ari* (1996) eleberriak osatzen du Zabaletaren trilogia, eta gertakizunak 1950eko hamarkadan daude kokatuta. Eleberriak kontatzen digun istorioan, ETAko komando baten hasierarekin batera Nafarroako mugaldean bizi diren kontrabandisten jarduerak ere kontatzen zaizkigu, ekintzaileek haien laguntza beharko baitute muga zeharkatzeko. Apurka-apurka, narrazioa komandoko lau kideetan zentratuz doa, haien bizipenetan, maitasun bizipenak barne. Min, askatasun egarri, maitasun edo beldurraren sentimenduen indarrari esker, *Arian ari*, aurrekoak bezala, istorio bizia eta ahazten zaila gertatzen da. Aurrekoekin alderatuz, gogoeta filosofiko gutxiago dago, eta gainera tipografia aldetik nabarmendu gabe.

Errolanen harria (Txalaparta, 1998) da, oraingoz, autorearen azken eleberria. Errolan, Karlomagnoaren elezahar-zikloko pertsonaia nagusietako bat, dugu istorioaren protagonista. Narrazioa 778. urtean kokatzen da, eta euskaldunek Orreagan Karlomagnoaren atzeguardiari egindako erasoaren kontakizun du. Baina Zabaletaren eleberria Errolanen mitoaren birsortze literarioa baino gehiago ere bada, XII. mendean Euskal Herrian bizitza nolakoa zen islatzen baitu, trebezia handiz kontatuz euskaldunak eta musulmanak barne hartzen zituen komunitate konplexu haren harreman, ohitura eta bestelako gorabeherak. Horri guztiari amodio istorio baten kontakizuna edo autorearen dokumentazio historiko-literarioa gaineratzen badiogu, gomendagarria gertatzen da eleberriri honen irakurketa.

e) Generozko beste eleberriak

Lan honetan birritan aipatu ditugu merkatuak agintzen duen garaiotan generozko eleberrigintzak izan duen igoera eta garrantzia. Polizi, umore, amodio edo zientzia fikziozko eleberrietan, irakurlea entretenitu egin nahi da, istorio bat kontatuz, haren ardura eta atentzioa bereganatu. Uste dut beharrezkoa litzakeela gurean eleberrigintza-mota horiek azken hamarkadetan izan duten igoera aztertzea eta irakurleen artean izan duten harrera onaren berri ere ematea.

Edonola ere, badira gai honi heltzen saiatu diren ikerlariak eta hortxe daukagu, esaterako, Linda Whitek “The case of the invisible novel: Genre Fiction in Basque Literature” (1996) artikulua, oso laburki bada ere, gai honi

buruzko zenbait ohar egiten dituen. White irakasleak, besteren artean, honakook aipatzen ditu: polizi narrazioak, zientzia fikziozkoak (ik. I. Irazabalbeitiaren *Arrotza paradisu*, 1991; E. Gonzalezen, *Azken belaunaldia*, 1988; M. Peloten *Biharko oroitzapenak*, 1985), beldurrezkoak (J. Miranderen, *Gauaz parke batean: ipuin izugarriak*, 1984; M. Antzaren *Odolaren usaina*, 1987) eta fantastikoak, adibidez Mujika Iraolaren *Azukrea belazeetan* (?) eta T. Peillenen, *Aintza txerriari!* (1986). Zerrenda hau pixka bat osatuz, umorezko eleberriak aipatu beharko genituzke, J. Sagastizabalen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* (Alberdania, 1994) eta *Gerturik daukagu odola* (Pamiela, 1999); zientzia fikziozkoak, hala nola, I. Irazabalbeitiaren *Uda guztiak ez dituk berdinak*, *Isi* (Kriselu, 1995); bidaiia-eleberriak: J. Arretxeren *Urrezko triangelua* (Elkar, 1995) eta *Oroituz* (Elkar, 1998)... edo amodiozko eleberriak, I. Mendigurenen *Haltzak ez du bihotzik* (Elkar) ezaguna bezala.

6. Bibliografía

a) Gaur egungo narratibari buruzko bibliografía orokorra

- AA.VV., 1994, "El cuento español de hoy", *Ínsula* 568.
- AA.VV., 1995a, "Pensamiento literario y fin de siglo" in *La página* 20, 1995: 2.
- AA.VV., 1995b, *Letras Peninsulares. The Search for an Interlocutor and the quest for Identity: Female Narrative in Democratic Spain*, 8-1.
- AA.VV., 1996, «El espejo fragmentado. Narrativa española al filo del milenio», *Ínsula* 589-590.
- AA.VV., 1999, "Muertes y porvenir de la novela", *Ínsula* 634.
- ACÍN, Ramón, 1996a, «El cuento y sus medios de difusión», *Lucanor*, 1991, 67-82.
- , 1996b, *En cuarentena. Literatura y mercado*, Mira Ed., Zaragoza.
- AMELL, Samuel, 1996, *The contemporary Spanish novel. An Annotated, Critical Bibliography, 1936-1994*, Greenwood Press, Westport/Londres.
- , 1997, «El cuento fantástico actual: la influencia de Julio Cortázar», *Lucanor* 14, mayo de 1997.
- , 1998, ed., *Mestizaje y disolución de géneros en la literatura hispánica contemporánea*, Verbum, Madril.
- ANDERSON, P., 2000, *Los orígenes de la posmodernidad*, Anagrama, Bartzelona.
- ANTHROPOS, 1991, *La autobiografía en la España contemporánea*, 125, 1991ko abendua.
- BARRERO, O., 1991, «"Para una sintaxis de la desesperación": la novela experimental española», *ALEC* 16, 1991: 3, 225-253.
- , 1992, *Historia de la literatura española contemporánea 1939-1990*, Istmo, Madril.
- , (arg.), 1997, *El arte de la memoria. Incursiones in la narrativa española contemporánea*, Arbeiten zur Semiotik und Kunst, 9.

- BARRERO PÉREZ, O. & CERCAS, J., 1999, "La novela", *Historia y Crítica de la Literatura Española. Época Contemporánea: 1939-1975. Primer Suplemento*, Crítica, Bartzelona, 331-406.
- BATAILLE, G., 1981, *Las lágrimas de Eros*, Tusquets, Bartzelona.
- BEISEL, I., (arg.), 1997, *El arte de la memoria: incursiones en la narrativa española contemporánea*, Ask, Mannheim.
- BONELLS, J., 1996, "Se sentó Don Juan Benet en el trono posmoderno?" in TYRAS, G., (arg.), 1996, op cit., 71-80.
- BONILLA, J., 1996, «Cada cual por su cuenta. Notas sobre última narrativa en España», *Clarín* 1, 7-11.
- BROWN, J. L., 1992, «Men by Women in the Contemporary Spanish Novel», *Hispanic Review*, 60, 55-70.
- & JOHNSON, C., 1995, «The Contemporary Hispanic Novel: Is there a Canon?», *Hispania* 78, 252-261.
- BUCKLEY, R., 1996, *La doble transición. Política y literatura en la España de los años setenta*, Siglo XXI, Madril.
- BUSSIÈRE-PERRIN, A., (koord.), 1998, *Le roman espagnol actuel. Tendances et perspectives*, (vol. I), 1975-2000, Éditions du CERS, Montpellier.
- CARRILLO, N., 1994, «La expansión plural de un género: el cuento 1975-1993», *Ínsula* 568, 9-11.
- COLMEIRO, J. F., 1989, "La narrativa posmodernista de Manuel Vázquez Montalbán", *ALEC* 14, 1989, 11-32.
- , 1992, «Posmodernidad, posfranquismo y novela policíaca», *España contemporánea* V, 2, 27-39.
- COLMEIRO, J., et. al., (arg.), 1995, *Spanish Today. Essays on Literature, Culture and Society*, Darmouth College.
- DÍAZ DE CASTRO, F., 1996, *El lomo de los días. Ensayos y notas sobre poesía y novela de los años noventa*, Batarro, Almería.
- ESTÉVEZ MOLINERO, Ángel, 1993, «La (re)escritura de la realidad», *Ínsula* 564, diciembre de 1993, 20-21.
- FH [1997] = *Foro Hispánico. El relato breve in las letras hispánicas actuales* 11, mayo de 1997.
- FORTES, J. A., «Del "realismo sucio" y otras imposturas in la novela española última», *Ínsula* 589-590, 21-27.
- GARCÍA BERRIO, A., 1995, «Recurso generacional a la memoria», *Saber/Leer* 86, 4-5.
- GARCÍA-POSADA, M., (arg.), 1999, *La literatura de la memoria entre dos fines de siglo: de Baroja a Francisco Umbral (1898-1998)*, Comunidad de Madrid, Madril.

- GRACIA, J., 1997, «El paisaje interior. Ensayo sobre el dietarismo español contemporáneo», *Boletín de la Unidad de Estudios Biográficos* 2, 1997, 39-50.
- , (koord.), 1998a, «Dossier. La narrativa española actual», *Cuadernos Hispanoamericanos* 579.
- , 1998b, «Una resaca demasiado larga. Literatura y política en la novela contemporánea», in GRACIA, J., (koord.), [1998a], 39-47.
- , 2000, «Prosa narrativa», *Historia y crítica de la literatura española. Los nuevos nombres: 1975-2000*, Crítica, Bartzelona, 208-258.
- GULLÓN, R., 1994, «Nuevos narradores» in *La novela española contemporánea. Ensayos críticos*, Alianza Editorial, Madril, 321-331.
- HABERMAS, J. et al., 1998, *La posmodernidad*, Kairós, Bartzelona.
- HERRÁEZ, M., 1997, *La estrategia de la posmodernidad en Eduardo Mendoza*, Ronsel, Madril.
- HOLLOWAY, V. R., 1999, *El posmodernismo y otras tendencias de la novela española (1967-1995)*, Fundamentos, Madril.
- LÓPEZ DE ABIADA, J. M. & NEUSCHÄFER, H. J., (arg.), 2000, *Entre el ocio y el negocio: industria editorial y literatura en la España de los 90*, Verbum, Madril.
- & J. PEÑATE RIVERO, (arg.), 1996, *Éxito de ventas y calidad literaria. Incursiones en las teorías y prácticas del best-seller*, Verbum, Madril.
- LÓPEZ BREA, P., 1994, «Técnicas constructivas del tiempo in la narrativa española actual (1975-1990)», *Rilce* 10, 1, 93-109.
- MAINER, J. C., 1996, *De posguerra, 1950-1990*, Crítica, Bartzelona.
- , 1997a, «Antonio Muñoz Molina o la posesión de la memoria», in ANDRÉS-SUÁREZ, I., (arg.), [1997], 55-68.
- , 1997b, «Las letras de hoy (1975-1995)» in ALVAR, C., NAVARRO, R. & J.-C. M., 1997, *Breve historia de la literatura española*, Alianza, Madril, 661-673.
- MARTÍN NOGALES, J. L., 1994a, «El cuento español actual. Autores y tendencias», *Lucanor* 11, 1994, 43-68.
- , 1994b, «La edición y la difusión del cuento», *Ínsula* 568, [1994], 6-9.
- MARTÍNEZ CACHERO, J. M., 1997, «Hacia el fin de siglo» in *La novela española entre 1936 y el fin de siglo*, Castalia, Madril, 481-659.
- MASOLIVER RÓDENAS, J. A., & VALLS, F., 1998, *Los cuentos que cuentan. Antología*, Anagrama, Bartzelona.
- MIRALLES, E., 1993, «La búsqueda: tema para una lectura de la narrativa actual», *Anuari de Filologia* XVI, 1993, 71-88.
- MUÑOZ MOLINA, A., 1997, «Memoria y ficción» in RUIZ VARGAS, J. M., (arg.), *Claves de la memoria*, Trotta, Madril, [1997], 57-66.

- NAVAJAS, G., 1993, «Una estética para después del posmodernismo: la nostalgia asertiva y la reciente novela española», *Revista de Occidente* 143, 1993, 105-130.
- , 1996, *Más allá de la posmodernidad. Estética de la nueva novela y cine españoles*, EUB, Bartzelona.
- , 1997, «La historia como paradigma introspectivo. El modelo ético de Antonio Muñoz Molina», in ANDRÉS-SUÁREZ, I., (arg.), [1997], 37-53.
- NICHOLS, G., 1989, *Escribir, espacio propio: Laforet, Matute, Moix, Tusquets, Riera y Roig por sí mismas*, Institute for the Study of Ideologies and Literature, Minneapolis.
- , 1992, *Des/cifrar la diferencia. Narrativa femenina de la España contemporánea*, Siglo XXI, Madril.
- OLEZA, J., 1993, «La disyuntiva estética de la postmodernidad» in *Compás de Letras. Historia y ficción*, 1993, 3.
- , 1994, «Al filo del milenio: las posibilidades de un nuevo realismo», in *Diablotexto* [1994], 79-104.
- , 1996, «Un realismo posmoderno», *Ínsula* 589-590, [1996], 39-42.
- , 1997, «*Beatus ille* o la complicidad de historia y novela», *Bulletin Hispanique* 99, 1997, 2, 363-383.
- PERCIVAL, A., (arg.), 1997, *Escritores ante el espejo. Estudio de la creatividad literaria*, Lumen, Bartzelona.
- PÉREZ REVERTE, A., 1995-96, «Viajar, vivir, escribir» in *Leer* 80, 1995/1996, 16-20.
- REDONDO GOICOECHEA, A., 1998, «Pour un catalogue des romancières espagnoles in castillan, 1970-2000», in BUSSIÈRE-PERRIN, A., (koord.), [1998], 319-353.
- RODRÍGUEZ-FISCHER, A., 1998, *¿Por qué leemos novelas?*, Ariel, Bartzelona.
- ROMERA CASTILLO, J., GUTIÉRREZ, F. & GARCÍA PAGE, Mario, 1996, (arg.), *La novela histórica a finales del siglo XX*, Visor, Madril.
- RUIZ-VARGAS, J. M., (arg.), 1997, *Claves de la memoria*, Trotta, Madril.
- SANZ VILLANUEVA, S., 1992, «La novela», *Historia y Crítica de la Literatura Española. Los nuevos nombres*, Crítica, Bartzelona, 249-284.
- et al., 2000, «Poética posmoderna y novela», *Historia y crítica de la literatura española. Los nuevos nombres: 1975-2000*, Crítica, Bartzelona, 259-278.
- SENABRE, R., 1995, «La novela española, hacia el año 2000», *Letras de Deusto* 66 (1995), 23-38.
- SCHIMDT, S. J., 1990, *Fundamentos de la ciencia empírica de la literatura*, Taurus, Madril.
- SOBEJANO, G., 1996, «Novelistas de 1950 al final del siglo», *Ínsula* 589-590, [1996], 43-44.

- SOTELO VÁZQUEZ, A., 1999, «La mirada y la memoria: Luis Mateo Díez», *Cuadernos Hispanoamericanos* 584, 1999, 121-124.
- SPIRES, R. C., 1996, *Post-Totalitarian Spanish Fiction*, University of Missouri Press, Columbia.
- SULLÀ, E., (arg.), 1996, *Teoría de la novela. Antología de textos del siglo XX*, Crítica, Barcelona.
- THOMPSON-CASADO, K., 1997, «Elements of the novela negra in Rosa Montero's *Te trataré como a una reina*», *EC X*, 1997, 2, 21-34.
- TORO, A. de, & INGENSCHAY, D., (arg.), 1995, *La novela española actual. Autores y tendencias*, Reichenberger, Kassel.
- TYRAS, Georges, (arg.), 1996, *Postmodernité et écriture narrative dans l'Espagne contemporaine*, CERHIUS, Grenoble.
- VALLS, F., 1991, «La literatura erótica in España entre 1975 y 1990», *Ínsula* 530, 1991.
- & CARRILLO, N., 1991, «El cuento español actual. Cronología» eta «Bibliografía», *LU* [1991], 83-92 eta 93-97.
- , (arg.), 1993, *Son cuentos. Antología del relato breve español, 1975-1993*, Espasa-Calpe, Madrid.
- , 1998, «La continuidad del cuento: entre la disciplina y la libertad», in MASOLIVER RÓDENAS, J. A. & VALLS, F., [1998], 11-15.
- VILARÓS, T. M., 1998, *El mono del desencanto. Una crítica cultural de la transición española (1973-1993)*, Siglo XXI, Madrid.
- VILLANUEVA, D., 1987, «La novela», *Letras españolas 1976-1986*, Castalia-Ministerio de Cultura, Madrid, 19-64.
- , 1989, «Novela lírica, novela poemática», *Ínsula* 512-513, 7-8.
- , 1999, «Crisis y destino de la novela», *Ínsula* 634, 1-5.

b) Euskal narratibari buruzko bibliografia.

- AA.VV., 1982a, «Bernardo Atxagari buruzko monografikoa», *Susa* 5.
- AA.VV., 1982b, *Narratiba gaur* [monografía], *Jakin* 25.
- AA.VV., 1986, *Euskal Literatura Urratzen. Literatura III*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- AA.VV., 1987, *Emakumea eta literatura* [monografía], *Jakin* 45, 7-126.
- AA.VV., 1994, «Biderako arrastoak Euskal narratibako zenbait liburu aztergai (1969-1993)», *Hegats* 8.
- AA.VV., 1995, «Biderako arrastoak III. Euskal poesia eta narratibako zenbait liburu aztergai» (1971-1993), *Hegats* 12.
- AA.VV., 1998, *Jon Mirande* [monografía], *Jakin* 106, 9-86.
- AA.VV., 1999a, *Yon Etxaide* [monografía], *Jakin* 110, 9-73.

- AA.VV., 1999b, *Txillardeggi* [monografia], *Jakin* 114, 9-108.
- AA.VV., 1999c, *Bernardo Atxaga Baionan*, Hiria-Egan, Donostia.
- AA.VV., 2001, *Ereinkaria I. Gorde nazazu lurpean*, Erein, Donostia.
- AGIRRE, J., 1996, *Hitza Hitz Txillardegirekin Solasean*, Elkar, Donostia.
- , 1999, “Txillardeggi, pintzelada lodietan”, *Jakin* 114, 11-15.
- AIERBE, A., 2000, “Gaur egungo literaturari buruzko bibliografia hautatua” in Kortazar, J., 2000, *Euskal Literatura XX. mendean*, Zaragoza, Prames, 328-334.
- ALBERDI, M., 1989, “Argitalpen prestakuntza” in AZKUE, R. M., *Latsibi*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- & ARRETXE J., 1986, “Sarrera” in Agirre, D., *Kresala*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 7-24.
- ALBERDI, P., 2000, *Satorrak baino lurperago*, Alberdania, Irun.
- ALDEKOA, I., 1989, “Obabakoak edo transgresioaren mundua”, *Literatur Gazeta* 11, 1989ko apirila.
- , 1992, *Antzarra eta ispilua*, Erein, Donostia.
- , 1993, “Mapak eta istorioak” in ALDEKOA, I., *Euskal Ipuinen antologia bat*, Alberdania, Irun, [1993], 7-23.
- , 1994a, “Itzalen itzal”, *Egan* 1994, 2.
- , 1994b, “Kapitain Frakasa”, *Hegats* 8, 61-67.
- , 1998a, *Mendebaldea eta Narraziogintza*, Erein, Donostia.
- , 1998b, “Sarrionandiaren ipuingintza”, *Hegats* 21-22, 57-76.
- , 2000, “El cuento en euskera”, *Bitarte* 21, 111-115.
- ALTZIBAR, X., 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak: Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome: nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.
- , 1996, “Juan Antogio Moguel y su obra literaria” in AULESTIA, G., (arg.), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Vitoria, Fundación Sancho El Sabio, 1996, 321-355.
- , 1997, *Euskal Literatura. Vox Eskola Gida*, Bibliograf, Bartzelona.
- AMENABAR, J., 1982, *Euskal nobelaren azterketa*, Izarraitzpe, Elgoibar.
- APALATEGI, U., 1997, “Barrokoaren eta klasikotasunaren oreka. Xabier Mendiguren Elizegiren ‘Bekatuaren itzala’”, *Jakin* 101, 131-134.
- , 2000, *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*, Paris, L'Harmattan.
- ARANDA, N., 1995, “J. M. Irigoien. *Consummatum est*”, *Egan* 1995: 2, 228-230.
- ARANO, R. M., 1986, “Sarrera” in AGIRRE, D., *Auñamendiko Lorea*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 7-19.
- ARISTI, P., 1987, “Chandler, Lucanor nire belaunaldian”, *Literatur Gazeta* 5, 1987ko maiatza.
- ARKOTXA, A., 1987, “Emaztearen rola Arestiren narratuban”, *Jakin* 45, 59-77.

- , 2000, “La mirada malévola de la luna en *La ahijada* de J. Mirande (1925-1972)” in ZAVALA, I. M., (arg.), 2000, *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, (vol. VI), Anthropos, Barcelona, 312-331.
- ARRIETA, J. A., 1985, “Posdata modura edo”, *Susa* 16, 7-17.
- , 1986, “Zenbait gogoeta narratibako ikuspuntuari buruz”, *Jakin* 40, 99-107.
- , 1995, “Hiru libururu, hiru begirada”, *Jakin*, 86, 65-95.
- ARRIZABALAGA, N., 1999, “Txillardegia nobelagile”, *Jakin* 114, 47-65.
- ATXAGA, B., 1982, “Euskal narratibaren arazoak”, *Jakin* 25, 94-103.
- , 1986, “Abecedarium haur-literaturari buruz”, *Jakin* 41, 25-41.
- , 1990, “Obabakoak-en gainean”, *Enseiucarrean* 5, 11-30.
- AULESTIA, G., 1995, “Un siglo de Literatura Vasca (I)”, *Sancho El Sabio. Revista de Cultura e Investigación Vasca* 5, 1995, 17-48.
- , 1996, “Un siglo de Literatura Vasca (II)”, *Sancho El Sabio. Revista de Cultura e Investigación Vasca* 6, 1996, 13-48.
- , 1997, “Un siglo de Literatura Vasca (III): Guerra Civil y Literatura Vasca en el exilio”, *Sancho El Sabio. Revista de Cultura e Investigación Vasca* 7, 1997, 13-77.
- , 1998, “Un siglo de Literatura Vasca (IV, a)”, *Sancho El Sabio. Revista de Cultura e Investigación Vasca* 9, 1998, 11-46.
- AZKONA, J., 1997, “Tigre ehizan”, *Hegats* 15-16, 121-123.
- AZKORBEBEITIA, A., 1995, “Bernardo Atxagaren testuetara hurbilpen bat Harrera-Teoriaren eskutik”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”* XXIX, 455-498.
- , 1997, “Hnuy illa nyha majah yahoo: bidaia etengabea”, *Egan* 1997, 1-2.
- , 1998, *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat*, Labayru Ikastegia-Amorebietako Udala, Bilbo.
- AZURMENDI, J., 1976, «Nobela sinpleak eta euskara», *Anaitasuna*, 1976-3-15.
- , 1977, “Mirande puskaz puska berraurkitu”, *Anaitasuna*, 1977-12-15.
- , 1978, *Jon Mirande eta Kristautasuna*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia.
- , 1981, «Nobelaren geroaz eta nobelaren hizkeraz», *Oh! Euzkadi* 13, abendua, 2-7.
- , 1989, *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan*, Susa, Donostia.
- & TORREALDAI, J. M., 1985, “La literatura vasca a través de los siglos” in AA.VV. 1985, *Euskal Herria, Errealitate eta egitasmoa. Realidad y proyecto I*. Lankide Aurrezkoa, 478-489.
- , 1998, “Mirande, berrito (heriotzaren 25. urteurrenean)”, *Jakin* 106, 31-44.

- , 1999, “Txillardegiren saioa: hastapenen bila”, *Jakin* 114, 17-46.
- AZURMENDI, N., 1987, “Emakume idazleak euskal literaturan”, *Jakin* 45, 25-36.
- BENGOA, A., 1999, “*Baleen barbaroa*”, *Hitzak eta ideiak* 3, 1999ko uda, 29.
- BERNAOLA I., 1994, “Etorriko haiz nirekin?”, *Hegats* 8, 55-60.
- BILBAO, E., 1986, “Bernardo Atxaga”, *Aizu* 52, 12.
- BORDA, I., 1991, “Autojustifikazio erreza”, *Hegats* 4, 229-238.
- CANO, H., 1997a, “Gertuko plano, plano orokorra” (*Gauak eta hiriak*), *Jakin* 100, 137.
- , 1997b, “Errealismoaren bidetik” (*Arragoa*), *Jakin* 101, 116-117.
- , 1997c, “*Gasteizko hondartzak*”, *Jakin* 101, 114-115.
- , 1997d, “Geopardo, dortoka eta baleen barbaroa” (*Baleen barbaroa*), *Jakin* 102, 117-118.
- , 1997e, “Ipuin berdeak, joaten zaretenerako”, *Jakin* 102, 119-120.
- CASENAVE, J., 1994, “*Zozoaren kanta*”, *Maiatz*, Baiona.
- CID, K., 1995, “Formalismo errusiarra: historia eta emaitzak”, *Egan* 1995: 1.
- , 1996, “Euskal literaturaren hiru emakumezko pertsonaia: Elsa Scheelen, Gisèle eta Antxonon ama”, *Egan* 1996, 1.
- , 1998, “Jon Mirande eta Robert Laxalt, adiskidantza baten historia”, *Jakin* 106, 59-86.
- EGUZKITZA, A., 1977, “Askatasun trajikoa edo idazle jator baten bizi ta hildera”, *Anaitasuna*, 1977-12-15.
- , 1979-1983, “Miranderen elaberrigintzaz”, *Saioak*, 3, 4 eta 5, 227-253, 99-122, 115-136.
- ELKOROBerezibar, M. A., 1988, “Literaturgintzarako plataformak”, *Jakin* 49, 21-42.
- ELORTZA, J., 1997, “Altzeta (K. Linazasoro)”, *Hegats* 15-16, 126-128.
- EPALTZA, A., 1994, “Narrazioak”, *Hegats* 8, 19-26.
- ERAUSKIN, J. B. & ARANO, J., 1999, “*Tentazioak*, Jasone Osoro, Elkarlanean”, *Ostiela* 13, 1999ko udaberria, 42.
- ESTEBAN, I., 1998, “Dos novelas de Lertxundi en la modernidad tardía”, *Ínsula* 623, 11-13.
- ETXAIDE, J., 1958, *Amasei seme Euskalerrri'ko*, Itxaropena, Zarautz.
- , 1986, *Etxaide Jauna*, Erein, Donostia.
- ETXANIZ, X., 1997, *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*, Pamiela, Iruñea.
- ETXARRI, J., 1999, “Yon Etxaideri elkarrizketa”, *Jakin* 110, 11-35.
- ETXEARRIA, A., 1982, “Etxeita eta bere nobelagintza” in ETXEITA, J. M., *Josetxo*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 7-18.

- ETXEBARRIA, I., 1986, "Sarrera" in ERKIAGA, E., *Txurio Txoria*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 7-20.
- , 2000, "Escritoras vascas en el primer tercio del siglo XX" in ZAVALA, I. M., (arg.), 2000, *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, (vol. VI), Anthropos, Bartzelona, 385-398.
- ETXEBARRIA, O., 1999, "Kalamidadeen liburua elaberria", *Enseiucarrean* 14, 163-167.
- ETXEBARRIA ITURRATE, A., 1999, "Besteena hobeia ei dalako" (*Laura Kanpoanda*), *Idatz & Mintz* 29, 45.
- ETXEBARRIA, G., 1994, "L. M^a. Mujika. Loitzu Herrian uda-partean", *Egan* 46, 1994, 1, 247-252.
- ETXEBARRIA, G. & IÑURRIETA, I., 1985, *Euskal Literatura. Testu Azterketak*, EHU, Bilbo.
- FERNÁNDEZ, I. & EZKERRA, E., 1998, "Ezin hilez bizirik", *Egan* 1998, 3-4.
- GABIKAGOJEASKOA, S., 1999, "Kalamidadeen liburua. Azterketa pragmatikoa", *Enseiucarrean* 14, 169-181.
- GABILONDO, J., 1991, "Obabazkoak. Alegoria topologiko baten irakurketa politikoa" in LAKARRA, A. & RUIZ ARZALLUZ, I., (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"ren gehigarriak XIV, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia, 1991, 1257-1281.
- , 1994a, "Modernismoaren jarauntsia euskal literaturan" (*Obabakoak*), *Egan* XLVI, 17-65.
- , 1994b, "Obabera", *Hegats* 8, 47-53.
- , 1994c, "Obabakoak", *Hegats* 8, 47-53.
- , 1996, "Atxagaren psikoanalisi: literatura, subjektibitatea eta esfera publiko garaikideaz zenbait ohar", *Egan* 1996:2, 61-80.
- , 1998a, "Contemporary Basque Literature", *Arizona Journal of Hispanic Cultural Studies* 2, 113-46.
- , 1998b, "Del exilio materno a la utopía personal política cultural en la narrativa vasca de mujeres", *Ínsula* 623, 32-36.
- , 1999a, "Before Babel: Global Media, Ethnic Hybridity, and Enjoyment in Basque Culture", *Revista Internacional de Estudios Vascos* 44: 1, 7-49.
- , 1999b, "Travestism and Terrorist Novel: Desire and Female Masochism in Postnational Basque Literature" in *Hispanism in the United States. Critical Discourses/Textual Practices*.
- , 1999c, "Munstrokeriaren kronika zinezkoa" in Mintegi, L., *Bai... Baina ez*. Elkar, San Sebastián, 9-14.

- , 2000a, “Itxaro Borda: Melancholic Migrancy and Teh Writing of a National, Lesbian Self.” *Anuario del Seminario Julio de Urquijo* XXXIV-2, 2000: 2, 1-25.
- , 2000b, “Bernardo Atxaga’s Seduction: On the Symbolic Economy of Post-colonial and Postnational Literatures in the Global Market” in ZULAIKA, J. & DOUGLASS, W., (arg.), *Basques in The Contemporary World: Migration, Identity, and Globalization. Conference Proceedings. Vol. Basque Cultural Studies*, Nevada University Press, Reno, 106-133.
- , 2001, “And Oñederra Told the Snake: On Recent Literature by Basque Women and Their Social Impact”, *Hegats* 28.
- GARATE, G., 1979, “‘Elsa Scheelen’-eko euskara”, *Jakin* 11, 95-103.
- , 1983, *Euskal elaberrien kondaira (I)*, Gero, Bilbo.
- , 1985, *Euskal elaberrien kondaira (II)*, Gero, Bilbo.
- , 1988, “Euskal literatur kritikaz zenbait ohar”, *Literatur Gazeta* 9, 1988ko apirila.
- , 1989, “Jon Andoni Irazusta eta Euskalerriko elaberri errealista” in AA.VV., *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 1989, 19-31.
- , 1998, “Euskal polizia eleberraren hasiera”, *Jakin* 105, 53-69.
- , 2000, *Atzerriko eta Euskal Herriko Polizia Eleberria*, Elkarlanean, Donostia.
- GARCÍA TRUJILLO, S., 1993, *La novela costumbrista de Domingo Agirre*, Desclée de Brouwer, Bilbo.
- , 1995, *Ohiturazko euskal literatura*, Mensajero, Bilbo.
- GARZIA, Joxerra, 1987, “Bai... Baina ez”, *Literatur Gazeta* 5, 1987ko maiatza.
- GARZIA, Juan, 1994, “Egunero hasten delako”, *Hegats* 8, 9-17.
- , 1998, “Hamaika pauso alferrik?”, *Hegats* 17-18, 83-96.
- GIL BERA, E., 1994, “Aurora”, *Hegats* 8, 33-38.
- GRANDES MATEOS, L., 1995, “B. Atxaga. *Gizona bere bakardadean*”, *Egan* 1995: 2, 209-220.
- , 1996a, “Saizarbitoria, R. *Hamaika pauso*”, *Egan* 1996: 2, 267-268.
- , 1996b, “B. Atxaga. *Zeru horiek*”, *Egan* 1996: 1, 186-187.
- , 1996c, “Mujika, Luis Mari: *Udarbe eta Urtuella lekuko*”, *Egan* 48, 1996: 1, 188-191.
- , 1997a, “Mintegi, Miguel Angel: *Esker mila, Marlowe*”, *Egan* 49, 1997: 1-2, 255-257.
- , 1997b, “Mujika Urdangarin, Luis Mari: *Hiru egun Larburun*”, *Egan* 49, 1997: 1-2, 269-271 .
- , 1997c, “J. M. Irigoien. *Kalamidadeen liburua*”, *Egan* 1997: 1-2, 264-267.
- GUTIERREZ, I., 2000a, *90eko hamarkadako narratiba berria: Literatur Kritika*, Labayru Ikastegia, Bilbo.

- , 2000b, “Hamaika amodio, hamaika istorio” (*Amodio zoroak*), *Pérgola* 92, 2000: 1, 2.
- HERNÁNDEZ ABAITUA, M., 1981, “Literaturaren eboluzioa eta euskal prosa”, *Jakin* 16, 97-99.
- , 1982, “Nobela beltza eta polizi nobela klasikoa”, *Jakin* 25, 51-67.
- , 1983a, “Bernardo Atxagaren espazioak”, *Oh! Euzkadi*, 15.
- , 1983b, “Saizarbitoriaren 100 metroren semantikaz ohar batzuk”, *Jakin* 29, 173-185.
- , 1986, “Aitzin argibidea” in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*. Erein, Donostia.
- , 1989a, “Elebitasunaren arazoa euskal narratiban”, *Jakin* 52, 95-98.
- , 1989b, “Bernardo Atxaga, Literatur Sari Nazionala”, *Jakin* 53, 173-179.
- , 1992, “Errealismoaren gaurkotasuna. Saizarbitoriari lagunkiro”, *Jakin* 71, 103-114.
- , 1997, “Saizarbitoria, R. Bihotz bi”, *Egan* 1997: 1-2, 258-261.
- IGERABIDE, J. K., 1994, “Azukrea belazeetan”, *Hegats* 8, 39-45.
- ÍÑARRA, A., 1992, “Linazasoro, K.: *Eldarnioak*”, *Egan* 44, 214-210.
- IRAETA, I., “Ainhoari gutunak”, *Habe* 192, 34.
- IRASTORZA, T., 1987, “Emakumezkoa gizonezkoen literaturan: Euskal Literaturari errepasoa”, *Jakin* 45, 37-58.
- IRIGARAI, A., 1952, *Prosistas navarros*, Príncipe de Viana, Iruñea.
- IRIGOIEN, J. M., 1988, “*Exkixu* errealitate aurrean”, *Literatur Gazeta* 10, 1988ko iraila.
- , 1990, “Narrazioa eta historia”, *Galeuzca* 1990, 65-71.
- , 1991, “Nire idatz-esperientziatik”, *Hegats* 4, 239-255.
- ITURRALDE, J. M., 1990, “Gai historikodun narrazioak euskal literaturan”, *Galeuzca* 1990, EIE, Donostia, 73-78.
- , 1992, “Europaren eragina euskal narratiban”, *Galeuzca* 1992, EIE, Donostia, 27-31.
- IZAGIRRE, K., 1976a, “Hitzaurrea” in SAIZARBITORIA, R., (1976), *Ene Jesus*, Kri-selu, Donostia, 5-9.
- , 1976b, “Lehen argitalpenaren hitzaurrea” in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*, Erein, Donostia.
- , 1981, “Ahozko narragintzaren ezaugarri zenbait”, *Oh! Euzkadi*, z. g.
- , 1986, “Argitalpen honen hitzaurrea” in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*, Erein, Donostia.
- , 1988, “Literaturgintzarako politika. Literatur sariketak”, *Jakin* 49, 43-63.
- IZPIZUA, L. D., 1985, “Bernardo Atxagaren ‘Bi anai’”, *Literatur Gazeta* 2, 3.

- IZTUETA, P., 1995, "Joxe Austin Arrietaren literatur lanak. Aurkezpen-modura", *Jakin* 86, 41-63.
- JIMENEZ, E., "Balizko irakurleei" (*Bizkarrean tatuaturiko mapak*), *Jakin* 107, 140-141.
- , 1998a, "Aroa" (*Emon bihar yako*), *Jakin* 105, 128-129.
- , 1998b, "Emakumeak tentazio" (*Tentazioak*), *Jakin* 106, 115-116.
- , 1998c, "Maiatzekoak" (*Apoa eta beste; Botoiletan*), *Jakin* 106, 114-115.
- JUARISTI, F., 1995, "Zer gerta erè", *Pérgola* 37, 1995: 1, 2.
- , 1996, "Itsasoaren mira" (*Gasteizko hondartzak*), *Pérgola* 53, 1996, 4ko ekaina.
- JUARISTI, J., 1987a, *El linaje de Aitor*, Taurus, Madril.
- , 1987b, *Literatura Vasca*, Taurus, Madril.
- KANDELA KOLEKTIBOA, 1983, *Euskal letren dantza 1983*, Hordago, Donostia.
- KEREXETA, M. J., 1987, "Jean Etchepare", in ETCHEPARE, J., *Berebitez*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia, 21-30.
- KORTAZAR, J., 1979a, "Notas sobre la novela de J. M. Etxeita", *FLV* 33, 551-556.
- , 1979b, "Mikel Zarateren 'Bizipenen bultzadaz'", *Jakin* 9, 140-145.
- , 1979c, "Mikel Zarateren literaturgintza", *Jakin* 11, 48-69.
- , 1979d, "A. Urretabizkaiaren 'Zergatik Panpox'", *Jakin* 12, 152-158.
- , 1980a, "R. Saizarbitoriaren '100 metro'", *Jakin* 13, 196-205.
- , 1980b, "A. Arrietaren 'Abuztuaren 15eko bazkalondoa'", *Jakin* 14-15, 117-123.
- , 1981, "A. Lertxundiren 'Aise eman zenidan eskua'", *Jakin* 17-18, 208-222.
- , 1982, "Gaurko narratiba eta euskal literatura", *Jakin* 25, 86-93.
- , 1983a, "A. Lertxundiren 'Hamaseigarrenean aidanez'", *Jakin* 28, 197-201.
- , 1983b, "Joan Mari Irigoien-en 'Poliedroaren hostoak': zientziatik iraganiko mitoa", *Jakin* 26-27, 271-275.
- , 1986a, "'Bi anai', errugabearren eskaintza", *Jakin* 39, 147-151.
- , 1986b, "Jon Etxaide: kontaketa errealistaren hasierak", *ASJUX-2*, 487-498.
- , (d.g.), "Etxeita eta nobelagintza", *Idatz & Mintz* 3-4, 32-34.
- , 1988a, "Literatura Vasca" in AA.VV., *Letras españolas 1987*, Madril, Castalia, 1988, 201-211.
- , 1988b, "Kritikari ala mitika", *Literatur Gazeta* 9, 1988ko apirila.
- , 1990a, *Literatura Vasca. Siglo XX*, Etor, Donostia.
- , 1990b, "Literatur kritikaz", *Jakin* 56, 183-191.
- , 1991, "Los caminos de la literatura vasca" in AA.VV., *Letras españolas 1989*, Madril, Castalia, 1991, 117-132.
- , 1999, *José Manuel Etxeita*, BBK, Bilbo.
- , 2000, *Euskal Literatura XX. mendean*, Prames, Zaragoza.
- , 2001, "Literatura y Juego (*Gorde nazazu hurpean*)", *Bitarte* 23, 55-83.

- KORTAZAR, J. & OLAZIREGI, M. J., (zuz.), 1998, "Literatura vasca hoy", *Ínsula* 623, 1998ko azaroa.
- LAFITTE, P., 1941, *Le Basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Aintzina, Baiona.
- , 1990, *Euskal Literaturaz*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.
- LAKA, I., 1986, "Ebaristo Bustintza, Kirikiño" in KIRIKIÑO, *Abarak*, Euskal Editoreen Elkarte, Bilbo, 21-32.
- LANDA, J., 1988, "Literaturgintzarako politika. Argitaratzaileen jokabidea", *Jakin* 49, 65-72.
- LARREA, T. (arg.), 1985, *Mirandereren lan kritikoak*, Pamiela, Iruñea.
- , 1989, "1956-ko belaunaldia" in AA.VV., *Gerraosteko literatura*, Labayru Ikastegia, Bilbo, 9-16.
- , *Kultura eta politika herbeste aldiko euskal nazionalismoan, 1949-1959. 1956ko belaunaldiaren haustura*, Eusko Jaurlaritza (tesina argitarara gabea).
- , 1995, *Nafarroako euskal idazleak II*, Pamiela, Iruñea.
- LASAGABASTER, J. M., 1979, "Bigarren edizioaren hitzaurrea" in SAIZARBITORIA, R., *Egunero hasten delako*, Ustela, Donostia, 5-19.
- , 1981, "Euskal nobelaren gizarte kondairaren oinharriak" in AA.VV., *Euskal Linguistika eta literatura: Bide Berriak*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 343-368.
- , 1982a, "Barojaren nobelagintza eta euskal nobelaren etorkizuna", *Jakin* 22, 137-154.
- , 1982b, "Nobelaren joera berriak", *Jakin* 25, 6-36.
- , 1983, "La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica", *Mundaiz* 26, 34-52.
- , 1985a, "Literatura y vida literaria" in AA.VV., *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmoa. Realidad y proyecto II*, Lankide Aurrezkia, 427-433.
- , 1986a, "Introducción a la narrativa vasca actual" in AA.VV., *Antología de la narrativa vasca actual*, Llibres del Mall, Bartzelona, 11-43.
- , 1986b, "Funtzionatzen duen testua" in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*, Erein, Donostia.
- , 1987a, "La literatura vasca", in AA.VV., *Letras españolas. 1970-1986*, Castalia, Madril, 283-303.
- , 1987b, "Joxe Agustin Arrieta eta *Manu Militari*: testuaz bestalde literatura", *Literatur Gazeta* 5, 1987ko maiatza.
- , 1989, "La novela vasca al borde de la realidad" in AA.VV., *Literatura Biltzarra (Euskal literaturarantz), II Euskal Mundu Biltzarra*, Castalia, Madril, 319-345.
- , 1990a, "De Arranondo a Obaba pasando por Madrid", *Hegats* 2, 85-92.

- , 1990b, “Euskal Literaturaren azterketa 1960-1990. Argibide bibliografi-koak”, *Jakin* 61, 43-63.
- , 1991, “La escritura como lugar de transgresión. A propósito de *Ene Jesus* de R. Saizarbitoria” in LAKARRA, A. & RUIZ ARZALLUZ, I., (arg.), *Memoriae L. Mixelena Magistri Sacrum*, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”ren gehigarriak XIV, Diputación Foral de Guipúzcoa, 1991, Donostia, 1231-1240.
- LASARTE, G., 1987, “Gizonezkoa emakumezkoen literaturan”, *Jakin* 45, 79-100.
- LEGORBURU, P., 1977, “Atxagaren munduan murgildurik”, *Zehatz* 2, 130-133.
- LERTXUNDI, A., 1982, “Ipuingintza sugestioaren bidetik”, *Jakin* 25, 37-50.
- , 1983, “Ai, Marlowe, Marlowe!”, *Jakin* 29, 109-117.
- , 1990, “Nire Obraz”, *Hegats* 2, 99-103.
- , 1994, “Kapitain Frakasa”, *Hegats* 8, 61-67.
- LOPEZ, M., 1988, “Kritika eta kritikoak azken Euskal Literaturan”, *Jakin* 49, 73-86.
- LOPEZ, M., 2000, *Euskarara itzulitako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta estrategiak*, EHUko argitalpen zerbitzua, Bilbo.
- LOPEZ ADAN, E., 1998, “Jon Mirande, eskuin muturreko idazlea”, *Jakin* 106, 45-56.
- , 1999, “Txillardegiren pentsaera politikoa”, *Jakin* 114, 67-84.
- LUKU, A., 1998, “*Baleen barbaroa*, Edorta Jimenez”, *Maiatz* 30, 1998, 4, 86-88.
- MENDIGUREN ELIZEGI, X., 1993a, “Gure literatura garaikidea”, *Jakin* 76, 93-103.
- , 1993b, “Trikitisa” (*Emakume biboteduna*), *Jakin* 79, 66.
- , 1995, “J. M. Irigoien. *Poliedroaren hostoak*”, *Hegats* 12, 41-48.
- , 1997a “Aniztasuna eta Kalitatea” in TORREALDAI, J. M., 1997, *Euskal Kultura Gaur*, Arantzazu, *Jakin*, 330-331.
- , 1997b, “Kontu kontari” (*Telefono kaiolatua*), *Jakin* 103, 60.
- , 1998, “El cuento en Euskadi. Balance de dos décadas”, *Ínsula* 623, 27-29.
- , 1999a, “Bi anbizio” (*Pausoa noiz luzatu*), *Jakin* 111, 110-111.
- , 1999b, “Bi egile berri” (*Joxe Belmonte,...*), *Jakin* 111, 108-109.
- , 1999c, “Garaia zen abiatzeko” (*Berandu da gelditzeko*), *Jakin* 112, 109-110.
- , 1999d, “Han/hemen” (*Haizea mindu gabe*), *Jakin* 112, 111-112.
- , 1999e, “Leizarraga gaurkotu bat” (*Ez*), *Jakin* 113, 122-123.
- , 1999f, “Batetik bestera” (*Hollywood eta biok*), *Jakin* 113, 123-124.
- MIELGO MERINO, R., 1995, *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*, Labayru Ikastegia-Amorebietako Udala, Bilbo.
- MINTEGI, L., 1987, “Emakume-literatura: zer da eta zertan da”, *Jakin* 45, 7-23.
- MITXELENA, K., 1954, “Agirre, D. ‘Kresala’”, *Egan* 2-4, 42.
- , 1955, “Joanak joan”, *Egan* 1955, 69.

- , 1956, “Agirre, D. ‘Garoa’”, *Egan* 5-6, 145-147.
- , 1957, “Alvarez Enparanza, J. L. ‘Leturiaren egunkari ezkutua’”, *Egan* 1957, 225-226.
- , 1958, “Arranegi”, *Egan* 1958, 103.
- , 1960, *Historia de la Literatura Vasca*, Minotauro (Erein: 1988), Madril.
- , 1962a, “Araibar zalduna”, *Egan* 1962, 870.
- , 1962b, “Batetik bestera”, *Egan* 1962, 303-304.
- , 1965, “Gorrotoa lege”, *Egan* 1965, 159-161.
- , 1972, *Mitxelenaren idazlan hautatuak*, Mensajero, Bilbo.
- MUJICA IRAOLA, I., 1988, “Tobacco Days”, *Literatur Gazeta* 10, 1988ko iraila.
- , 1991a, “Ipuingintzaz”, *Hegats* 5, 1991ko abendua, 17-26.
- , 1991b, “Ipuingintza, bigarren mailako literatura”, *Plazara* 17, 11-14.
- MUJICA, L. M., 1979, *Historia de la literatura euskérica*, Luis Haranburu argitaratzailea, Donostia.
- , 1997, “Urrujulegi, Jon. *Arragoa*”, *Egan* 49, 1997: 3-4, 263-266.
- , 1998, “Muñoz, Jokin. *Joan zaretenean*”, *Egan* 50, 1998: 1-2, 226-229.
- , 1999, “Egaña, Andoni: *Pausoa noiz luzatu*”, *Egan* 51, 1999: 1-2, 233-236.
- MUÑOZ, J., 1995, “Ene Jesus-en koloreak”, *Hegats* 12, 25-31.
- MURUAGA, B., 1998, “Euskal literatura eta androzentrismoa”, *Jakin* 106, 99-104.
- NAVARRO, K., 1978, “J. A. Arrieta. *Bidaia. Termitosi*”, *Jakin* 7, 126-129.
- OLANO, K., 1989, “R. M. Azkue eta bere obraz zertxobait” in Azkue, R. M., *Latsibi*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- ONAINDIA, S., 1972-1990, *Euskal Literatura*, (6 liburuki), Etor, Bilbo.
- OÑEDERRA, L., 1982, “Epilogo” in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*, Kriselu, Donostia, 101-127.
- OLAZIREGI, M. J., 1991a, “Fokalizazioa: hurbilpen teorikoa eta zenbait aplikapen euskal narratiban”, *ASJU* XXV-1, 3-64.
- , 1991b, “Fokalizazioa 100 metro nobelan” in LAKARRA, A. & RUIZ ARZALLUZ, I., (ed.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”ren gehigarriak XIV, Diputación Foral de Guipúzcoa, Donostia, 1.217-1.229. (Ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).
- , 1994a, “Ramon Sazarbitoriaren nobelagintza: ixiltasunera daraman bidea”, *Egan* XLVI, 37-55. (Ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).
- , 1994b, “Bernardo Atxagaren harrera literarioa: proposamen bat”, *ASJU* XXVIII-3, 683-706.
- , 1995, “‘Hamaika pauso’: irakurketarako gonbitea”, *Jakin* 90, 50-68 (ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).

- , 1996a, "La literatura vasca en l'actualitat", *Revista del Centre de Lectura de Reus* 22, 7-8.
- , 1996b, "Hamaika Pauso (*Los pasos incontables*). La última gran aventura literaria de Ramón Saizarbitoria", *Ínsula* 593, 14-15.
- , 1996c, *Literatura eta irakurlea. Testu estrategietatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*, Euskal Herriko Unibertsitatea (doktorego-tesi argitaragabea).
- , 1996d, "Literatur irakurketaren gaurkotasuna", *Egan* 1996: 2.
- , 1997a, "La historiografía literaria vasca (1990-1996)", *Cuadernos de Alzate*, 33-35.
- , 1997b, "100 metroren hamargarren argitalpenean" in SAIZARBITORIA, R., *100 metro*, Erein, Donostia. (Ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).
- , 1998a, "Los jóvenes vascos y la lectura", *Clij* 101, 1998, 7-12.
- , 1998b, *Bernardo Atxagaren irakurlea*, Erein, Donostia.
- , 1998c, "Bernardo Atxaga: El escritor deseado", *Ínsula* 623, 1998, 7-11.
- , 1998d, "La novela de Ramon Saizarbitoria", *Ínsula* 623, 1998, 13-16.
- , 1998e, *Ramon Saizarbitoria. Antologia*, Ibaizabal-Kriselu, Durango.
- , 1998f, *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergara, Bergarako Udala.
- , 1998g, "R. Saizarbitoria: Bihotz bi. Gerrako kronikak", *Hegats* 17-18, 142-149. (Ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).
- , 2000a, *Intimismoaz haraindi. Emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , 2000b, "Un siglo de novela en euskera" in URQUIZU, P., (arg.), *Historia de la Literatura Vasca*, Madril, UNED, 504-588.
- , 2000c, "The Basque Literary System at the gateway to the new millennium", *ASJU XXXIV-2*, 2000, 413-422.
- , 2000d, "Zer esan ote zion sugeak emakumeari?", *Egan* 2000: 1-2.
- , 2000e, "Mémoires d'une lectrice de Bernardo Atxaga", *Revue des livres pour les enfants* 192, avril 2000, 91-96.
- , 2000f, "Begirada eta oroimena mundua erromantizatzeke. Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza", *Egan* 2000: 1/2, 121-147. (Ibid. OLAZIREGI, M. J.: 2001e).
- , 2001a, "La literatura vasca en Europa" in AMADO CASTRO, V. M. & DE PABLO, S., *Los Vascos y Europa*, Fundación Sancho El Sabio, Vitoria, 125-155.
- , 2001b, "Bernardo Atxaga o la seducción de los lectores vascos" in AA.VV., *I. Congreso Nacional de Literatura y Sociedad: El papel de la Literatura en el Siglo XX*, Universidade da Coruña, A Coruña, 463-473.
- , 2001c, "Y el erizo despertó: pasado y presente de la Literatura Vasca", *Host* 6 (Txekiar Errepublika), 59-63.

- , 2001d, “La novela vasca: Márgenes, centros y otras delimitaciones topológicas en la novela vasca contemporánea”, *Ínsula* 654, junio 2001, 17-20.
- , 2001e, *Ramon Saizarbitoriaren unibertso literarioa*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- ORPUSTAN, J. B., 1996, *Précis d'histoire littéraire basque (1545-1950)*, Izpegi, 298.
- OTAEGI, L., 1999, *Bernardo Atxaga. Egilearen hitza*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- , 2000, *Joseba Sarrionandia. Marinel zaharraren kantua*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- OTAMENDI, J. L., 1996, “Prólogo” in OTAMENDI, J. L., *Desde aquí (Antología del cuento vasco actual)*, Ed. Hiru, Hondarribia, 7-22.
- OTEGI, K., 1976, *Pertsonaia euskal nobelagintzan*, Mensajero, Bilbo.
- , 1984, “Euskal nobela. Bibliografía”, *RIEV* 29-1, 127-139.
- , 1985, “Euskal sorketa literarioa (1939-1984). Hurbilketa deskriptiboa” in AA.VV., *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo. Realidad y Proyecto*, Caja Laboral, Donostia, 1985, 334-348.
- PEILLEN, T., 1990, “Eleberriaren oraingo euskal hizkuntza eztabaidak”, *Hegats* 2, 93-98.
- , 1998, “Jon Mirandereren ordeinua bere lekuan”, *Jakin* 106, 11-30.
- ROJO, J., 1999, “Yon Etxaideren idazlanak: historiatic literaturara”, *Jakin* 110, 37-48.
- SAIZARBITORIA, R., 1975, “Hitzaurre” in URKIZU, P., *Sekulorum sekulotan*, Krise-lu, Donostia, 5-22.
- SAN MARTÍN, J., 1968, *Escritores euskéricos*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- , 1987, “B. Atxaga. Bi anai”, *Egan* 1987: 1/2, 119.
- , 1988, “Hitzaurrea” in ANABITARTE, A., *Lanak*, Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia, 9-11.
- , 1999, “Yon Etxaide, idazle bikain eta adiskide minaren oroitzapenez”, *Jakin* 110, 49-58.
- SARRIONANDIA, J., 1983, “Haur besoetakoa eta beste ninfula batzuk”, *Maiatz* 4, 3-8.
- SARASOLA, I., 1969, “Lehen edizioaren hitzaurrea” in SAIZARBITORIA, R., *Eguzkeroko hasten delako*, Lur, Donostia.
- , 1971, *Euskal literaturaren historia*, Lur, Donostia.
- , 1975a, *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia.
- , 1975b, *Txillardegia eta Saizarbitoriaren nobelagintza*, Kriselu, Donostia.
- , 1976, *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madril.
- , 1977, “Ramon Saizarbitoria: ‘Ene Jesus edo Jesus, Jesus, Jesus Maria eta Jose’” *Jakin* 2, 123-124.
- SUDUPE, P., 1995, “Euskaltzaleen saminak, salaketak eta kultur-lanak 50eko hamarkadan”, *Egan* 1995: 1.

- TOLEDO, A., 1989a, *Domingo Agirre. Euskal nobelaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- , 1989b, “El costumbrismo y la novela regional” in AA.VV., *II. Congreso de Literatura. II. Congreso Mundial Vasco*, Madril, Castalia, 1989, 211-236.
- , 1990a, “Testu-tipo berria, harrera-modu berrirako”, *Hegats* 4, 17-19.
- , 1990b, “Euskal eleberrigintzaren lehen zutabeak” in PEREZ GAZTELU, E. & URKIZU, P., (arg.), *Patxi Altunari omenaldia*, Donostia, Universidad de Deusto, 1990, 271-281.
- , 2000, “El personaje femenino en la cuentística moderna para el lector infantil euskaldun” in ZAVALA, I. M., (arg.), 2000, op. cit., 332-346.
- TORREALDAI, J. M., 1977a, *Euskal idazleak gaur*, Luis Haranburu, Donostia.
- , 1997b, *Euskal Kultura Gaur. Liburuaren mundua*, Jakin, Donostia.
- , 1999a, “Yon Etxaide, barne exilioan euskaltzale”, *Jakin* 110, 59-73.
- , 1999b, “Txillardegia eta Martin Ugaldereen arteko gutunak (1961-1969)”, *Jakin* 114, 117-180.
- UNAMUNO, M., 1990, “*Hamaseigarrenean aidanez eta Mario Ricciren heriotzaz*”, *Jakin* 60, 137-140.
- URIA, I., 1982, “J. M. Irigoien «Niretzat hitza, bizitzari forina ematen dion zer-bait duk”, *Susa* 6, 29-43.
- URIA, I. & ANZA, M., 1981, “Joxe Agustin Arrietarekin elkarrizketa”, *Susa* 3, 11-15.
- URIBE, K., (arg.), 2001, *Azken aldiko euskal narratiba. Sortzaileak eta irakurleak*, UEU, Bilbo.
- URKIZU, P., 1961, *Lengua y literatura vascas*, Luis Haranburu, Donostia.
- , 1990, “Ohar labor batzuk euskal nobela historikoaz”, *Galeuzca* 1990, EIE, Donostia, 79-96.
- , 1997, “Gogoeta arruntak XX. mende bukaerako Euskal Literaturaz”, *RIEV* 42: 1, enero-junio, 135-146.
- URKIZU, P., (arg.), 1995, *Jean Elissalde. LVII.a gertan*, Alberdania, Irun.
- URQUIZU, P., (arg.), 2000, *Historia de la Literatura Vasca*, UNED, Madril.
- VILLASANTE, L., 1961, *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbo.
- WHITE, L., 1996a, *Emakumeen Hitzak Euskeraz: Basque Women Writers of the Twentieth Century*, Nevadako Unibertsitatea (doktorego-tesi argitaragabea).
- , 1996b, “The case of the invisible novel: Genre Fiction in the Basque Literature” in MILTON, T. W. & MURRAY, S. M., (arg.), *Genre and Ethnic Collections: Collected Essays*, Jai Press, Greenwich.
- , 1999, “Atxaga’s *Lone Woman* and Mintegi’s *Nerea eta biok*: Two Different Views of the Female Basque Political Prisoner”, *Journal of the Society of Basque Studies in America* XIV, 1999, 17-35.

- XARRITON, P., (arg.), 1992, *Jean Etchepare mirikuaren idazlanak*, (4. liburuki), Donostia, Elkar.
- X.X., 1983, “A., Lertxundik Mugari”, *Muga* 6, 88-91.
- XX., 1997a, “*Ostegunak*, Jon Arretxe, Elkar”, *Ostiela!* 8, 1997ko negua, 46.
- XX., 1997b, “Ur Apalategi: *Gauak eta hiriak*”, *Aizu!* 191, 1997-V-1, 5 .
- XX., 1998a, “Antton Luku, *Botoilekoak*, *Maiatz* 30, 1998-IV, 74.
- XX., 1998b, “Mailuix Legorburu, *Apoa eta beste*”, *Maiatz* 30, 1998-IV.
- XX., 1999a, “*Berandu da gelditzeko*, Unai Iturriaga”, *Hitzak eta ideiak* 3, 1999ko udazkena, 28.
- XX., 1999b, “*Hezur gabeko hilak*, Xabier Montoia”, *Hitzak eta ideiak* 5, 1999ko negua, 29.
- ZABALA, J. R., 1987, “Atabala eta euria”, *Mundaiz* 33.
- ZALDUA, I., 1998, “Bost ipuin” (*Ostegunak*), *Hegats* 19-20, 1998, 6, 144-146.
- , 1999, “A. Egaña, *Pausoa noiz luzatu*”, *Hegats* 23-24, 1999, 10, 138-142.
- ZARATE, M., 1970a, *Bizkaiko euskal idazleak*, Seminario Ikastetxea, Derio.
- , 1970b, *Euskal Literatura I*, L. Zugaza, Durango.
- ZAVALA, I. M., (arg.), 2000, *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, (vol. VI), Anthropos, Bartzelona,
- ZELAIETA, A., 1985, “Euskal literatura eta gizartea edo Sarrionaindia-ren ‘Ni ez naiz hemengoa’”, *Jakin* 35, 119-127.
- ZUBEROGOITIA, A., 1999, “Jon Alonso: ‘Ikuspegi errealista konbentzio bat da’”, *Argia* 1961, 1999-4-18, 36-39.
- ZUBIZARRETA, P., 1993, “Indarra eta bizitasuna” (*Emakume biboteduna*), *Egin (Igandegin)*, 1993-1-10.
- , 1994, “Consummatum est”, *Hegats* 8, 69-76.
- ZULAIKA, M., 1999, “Mujika, Luis Mari: *Ladix Petrirenkoa*”, *Egan* 51, 1999: 1-2, 249-253.